

Euskal autonomia erkidegoko gizarte-ekonomiari buruzko kontakizuna

Zuzendaritza

Marta Enciso Santocildes
Aitor Bengoetxea Alkorta
Leire Uriarte Zabala

Edizioa

Aitziber Mugarra Elorriaga

eman la zabal zazu



GEZKI

UPV/EHuko Gizarte
Ekonomia eta Zuzenbide
Kooperatiboaren Institutua

Instituto de Derecho
Cooperativo y Economía
Social de la UPV/EHU



MONDRAGON
IKERKETA KUDEAKETAN
INVESTIGACION EN GESTION
INNOVATION & KNOWLEDGE



Deusto

Facultad de Derecho
Zuzenbide Fakultatea



Mondragon
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea
LANKI Kooperatibismoaren Ikertegia



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

LAN ETA ENPLEGU
SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEO

Dykinson, S.L.

***Euskal autonomia erkidegoko
gizarte-ekonomiari buruzko kontakizuna***

Direction

Marta Enciso Santocildes
Aitor Bengoetxea Alkorta
Leire Uriarte Zabala

Publisher

Aitziber Mugarra Elorriaga

Euskal autonomia erkidegoko gizarte-ekonomiari buruzko kontakizuna

Zuzendaritza

Marta Enciso Santocildes

Aitor Bengoetxea Alkorta

Leire Uriarte Zabala

Edizioa

Aitziber Mugarra Elorriaga

Saioa Arando Lasagabaster
Francisco Javier Arrieta Idiakez

Aitor Bengoetxea Alkorta

Marta Enciso Santocildes

Ane Etxebarria Rubio

Enekoitz Etxezarreta Etxarri

Mónica Gago Garcia

Josune López Rodríguez
Gonzalo Martínez Etxeberria

Jon Morandeira Arca

Aitziber Mugarra Elorriaga

Aratz Soto Gorrotxategi

Ainara Udaondo Alberdi

Leire Uriarte Zabala



UPV/EHUko Gizarte
Ekonomia eta Zuzenbide
Kooperatiboaren Institutua

Instituto de Derecho
Cooperativo y Economía
Social de la UPV/EHU



MONDRAGON
IKERKETA KUDEAKETAN
INVESTIGACION EN GESTION
INNOVATION & KNOWLEDGE



Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea
LANKI Kooperatibismoaren Ikertegia



LAN ETA ENPLEGU
SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEO

Dykinson, S.L.

No está permitida la reproducción total o parcial de este libro, ni su incorporación a un sistema informático, ni su transmisión en cualquier forma o por cualquier medio, sea este electrónico, mecánico, por fotocopia, por grabación u otros métodos, sin el permiso previo y por escrito del editor. La infracción de los derechos mencionados puede ser constitutiva de delito contra la propiedad intelectual (art. 270 y siguientes del Código Penal).

Dirijase a Cedro (Centro Español de Derechos Reprográficos) si necesita fotocopiar o escanear algún fragmento de esta obra. Puede contactar con Cedro a través de la web www.conlicencia.com o por teléfono en el 917021970/932720407

Este libro ha sido sometido a evaluación por parte de nuestro Consejo Editorial
Para mayor información, véase www.dykinson.com/quienes_somos

© Copyright by
Los autores
Madrid, 2021

Editorial DYKINSON, S.L.
Meléndez Valdés, 61 - 28015 Madrid
Teléfono (+34) 915442846 - (+34) 915442869
e-mail: info@dykinson.com
<http://www.dykinson.es>
<http://www.dykinson.com>

ISBN: 978-84-1377-805-1
Depósito Legal: M-36426-2021

Preimpresión:
Besing Servicios Gráficos, S.L.
besingsg@gmail.com

Aurkibidea: edukien taula

<i>Aurkibidea: sigla eta akronimoen taula</i>	15
<i>Hitzaurrea</i>	17
Idoia Mendia Cueva	
1. <i>Euskal autonomia erkidegoko gizarte-ekonomia: kontakizun erkidea</i>	19
Enekoitz Etxezarreta Etxarri	
1.1. GIZARTE-EKONOMIA IKUSPEGI HISTORIKOAN	19
90eko hamarkada: terminoa agertu zen.....	20
Krisialdiak eta eztanda kontzeptuala.....	20
1.2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GIZARTE-EKONOMIA	21
Esperientzia bereziki enpresariala.....	21
Euskal Autonomia Erkidegoan antzeman daitekeen errealitate esanguratsua	23
1.3. POSIBLE AL DA ARLO EKONOMIKOA ETA SOZIALA UZTARTZEA? ...	24
Zer ulertzen dugu sozialtzat?	24
Gizarte-konpromisoaren egiturazko izaera.....	25
1.4. GIZARTE-EKONOMIA: ANIZTASUNETIK ERAIKITZEN.....	26
Askotariko errealitatea.....	26
Sektorea mugarritzeko hiru estrategia.....	28
1.5. GIZARTE-EKONOMIA: ZORU KOMUN PARTEKATURANTZ. EUSKAL KASURAKO PRINTZPIOAK BIRFORMULATZEA	30
Pertsonen zentraltasuna.....	31
Erakundeen izaera demokratikoa.....	32
Enpresa-dimentsioa	33
Inguratzen dituen komunitatearekiko konpromisoa.....	33
1.6. GIZARTE-EKONOMIA BESTELAKO PARADIGMA EKONOMIKOEN AURREAN	35
1.7. ONDORIOAK.....	38
1.8. ERREFERENTZIAK ETA ITURRIAK.....	39

2. Kooperatibak Euskal autonomia erkidegoan: kontakizuna	43
Leire Uriarte Zabala, Saioa Arando Lasagabaster, Ainara Udaondo Alberdi, Mónica Gago Garcia	
2.1. SARRERA.....	43
2.2. KOOPERATIBEN ARTIKULAZIOA ETA LEGERIA.....	44
Euskal mugimendu kooperatiboaren artikulazioa.....	44
Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatibei buruzko legeriaren bilakaera	49
4/1993 Legea.....	50
4/1993 Legearen aldaketa: 1/2000 Legea	51
4/1993 Legearen aldaketa: 8/2006 Legea	52
6/2008 Legea, Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikiei buruzkoa	53
11/2019 Legea.....	53
Kooperatiben fiskalitatea.....	57
2.3. IDEIA NAGUSIAK: EUSKAL MUGIMENDU KOOPERATIBOAREN EZAUGARRIAK.....	57
Dentsitate eta aniztasun kooperatiboa	57
Kooperatibek euskal ekonomian duten pisu espezifiko (aldagai nagusiak: enplegua, establezimendu kopurua, banaketa sektoriala)	58
Enplegu duina eta kalitatezkoa sortzea eta mantentzea	72
Enpresa-izaera	77
Enpresa-demokrazia: kooperatibak enpresa-demokraziaren esperientziak dira	86
Euskal kooperatibak, erreferenteak elkar-lankidetzaren praktikan	88
Kooperatiben orientazio berritzailea	89
Kooperatibak sustraituta eta gizarte-erlaketarekin konprometituta dauden erakundeak dira	93
2.4. AZPIFAMILIA KOOPERATIBOAK.....	97
Irakaskuntza-kooperatibak	97
Ikastolen mugimendua.....	100
Etxebizitza-kooperatibak	102
Nekazaritzako elikagaien kooperatibak	105
Garraiolarien kooperatibak	107
2.5. ONDORIOAK ETA ETORKIZUNEN ERONKAK.....	109
Berezitasuna eta garrantzia.....	109
Enpresa-demokrazia eta pertsonen zentraltasuna.....	109
Enpresa-izaera	110
Elkar-lankidetzan jardutea	110

	Gizarte-erlaketarekiko konpromisoa	111
2.6.	ERREFERENTZIAK ETA ITURRIAK.....	111
3.	Lan-sozietateak Euskal Autonomia erkidegoan: kontakizuna	115
	Aitor Bengoetxea Alkorta, Jon Morandeira Arca	
3.1.	SARRERA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LAN-SOZIJETATEEN ERREALITATEA.....	115
	Oinarrizko nozioak	115
	Jatorria	117
	Lege-araubidea	119
	Asoziazionismoa	121
3.2.	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LAN-SOZIJETATEEN IDEIA NAGUSIAK	122
	Pertsonen zentraltasuna lan-sozietateetan	122
	Lan-sozietateen izaera demokratikoa.....	124
	Lan-sozietateen enpresa-izaera	126
	Lan-sozietateen komunitatearekiko konpromisoa	128
3.3.	EZAUGARRIAK.....	130
3.4.	ERRONKAK.....	130
	Ideologia	130
	Ikusaraztea	131
	Eratzea	132
	Bizikidetzak	132
	Finantzaketa.....	133
	Sindikatuak	134
	Partaidetzapeko sozietateak	134
3.5.	ONDORIOAK.....	135
3.6.	ERREFERENTZIAK ETA ITURRIAK.....	136
4.	Enplegu-zentro bereziak Euskal Autonomia Erkidegoan: kontakizuna	139
	Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Ane Etxebarria Rubio, Jon Morandeira Arca, Aratz Soto Gorrotxategi, Aitor Bengoetxea Alkorta	
4.1.	SARRERA.....	139
4.2.	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EHUNAREN EGUNGO ERREALITATEA.....	140

Gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziak, gizarteratzeko euskal ereduaren ibilbideko funtsezko kate-maila.....	140
Enplegu babestuaren euskal mugimendu asoziatiboa.....	142
Sustapen-politika publikoak	145
Dimentsio sozioekonomikoa eta adierazleak.....	150
4.3. ENPLEGU-ZENTRO BEREZIA GIZARTE-EKONOMIAREN PARTE GISA	151
Pertsonen zentraltasuna enplegu-zentro berezietan	151
Enplegu-zentro berezien izaera demokratikoa	152
Enplegu-zentro berezien enpresa-dimentsioa.....	154
Enplegu-zentro berezien komunitatearekiko konpromisoa.....	155
4.4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ENPLEGU-ZENTRO BEREZIEN INDARGUNEAK ETA ETORKIZUNEKO ERRONKAK.....	157
4.5. ERREFERENTZIAK ETA ITURRIAK.....	161
5. Laneratzeko Enpresak Euskal Autonomia Erkidegoan: kontakizuna	163
Aitziber Mugarra Elorriaga	
5.1. SARRERA.....	163
Historia	163
Erreferentzia gure mugetatik kanpo	165
5.2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EGUNGO ERREALITATEA...	167
Egungo erradiografia	167
Aplikatzekoa den esparru juridikoa	169
Asoziazionismoa eta ordezkaritza-sareak	172
5.3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANERATZEKO ENPRESAREN IDEIA NAGUSIAK.....	173
Enpleguaren eta inklusioaren esparruan espezializatutako irabazi-asmorik gabeko erakundeek bultzatutako irabazi-asmorik gabeko ekimen ekonomikoak	173
Merkatuan beste edozein enpresak bezala jarduten dute	173
Beste enpresa batzuek ez bezalako berezko izaera soziala duten ekimenak	175
Helburu nagusia: gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden langabeen enplegarritasuna hobetzea eta gizarteratzea eta laneratzea lortzea	176
Funtsezko metodologia: laguntzeko ibilbide pertsonalizatua	177
Komunitatearekiko konpromisoa	178
Gizarte-ekonomia solidarioa indartzearekiko konpromisoa	179
Aliantzetan oinarritutako lankidetzak-ereduak	180

5.4.	ETORKIZUNENKORRONKAK.....	181
	Sektorearen hazkundera bultzatzea	182
	Funtsezko eragileak azpimarratzea	182
	Euskal gizartean ikusaraztea	183
	Laneratzen laguntzeko eredia finkatzea	183
	Gizatea laneratzeko enpresen Euskal Autonomia Erkidegoko erreferentziarako sare gisa indartzea	183
5.5.	ONDORIOAK.....	183
5.6.	ERREFERENTZIAK ETA ITURRIAK.....	185
6.	Arrantzaleen kofradiak Euskal Autonomia Erkidegoan: kontakizuna	189
	Francisco Javier Arrieta Idiákez, Gonzalo Martínez Etxeberria, Josune López Rodríguez	
6.1.	SARRERA.....	189
	Definizioa	189
	Jatorriak	190
	Zuzenbide publikoko korporazioak	190
	Autonomia-printzipioa	192
6.2.	ARRANTZALEEN KOFRADIA GIZARTE-EKONOMIAREN PARTE GISA	196
	Pertsonen zentraltasuna arrantzaleen kofradietan	196
	Arrantzaleen kofradien izaera demokratikoa	198
	Arrantzaleen kofradien enpresa-dimentsioa.....	200
	Arrantzaleen kofradien komunitatearekiko konpromisioa.....	201
6.3.	ONDORIOAK.....	202
6.4.	ERREFERENTZIAK ETA ITURRIAK.....	204
7.	Eraldaketarako nekazaritza-sozietateak Euskal Autonomia Erkidegoan: kontakizuna	205
	Aratz Soto Gorrotxategi	
7.1.	SARRERA.....	205
	Definizioa	206
	Aurrekariak	207
	Egungo dimentsioa.....	208
7.2.	ERALDAKETARAKO NEKAZARITZA-SOZIETATEA GIZARTE-EKONOMIAREN PARTE GISA.....	208
	Pertsonen zentraltasuna eraldaketarako nekazaritza-sozietateetan	208

Eraldaketarako nekazaritza-sozietateen izaera demokratikoa	209
Eraldaketarako nekazaritza-sozietateen enpresa-dimentsioa.....	209
Eraldaketarako nekazaritza-sozietateen komunitatearekiko konpromisoa.....	210
7.3. ONDORIOAK.....	210
7.4. ERREFERENTZIAK ETA ITURRIAK.....	211
8. <i>Mutualitateak Euskal Autonomia Erkidegoan: kontakizuna</i>	213
Francisco Javier Arrieta Idiakez, Gonzalo Martínez Etxeberria, Josune López Rodríguez	
8.1. SARRERA.....	213
8.2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENEN ERAKUNDEEN EGUNGO ERREALITATEA.....	217
Gizarte-ekonomiaren printzipioak bere gain hartzea.....	218
Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundearen definizioa eta motak	219
Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetako bazkideak eta onuradunak.....	220
Gizarte-aurreikuspeneko planen definizioa eta modalitateak.....	222
8.3. BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENEN ERAKUNDEEN IRISMENA.....	223
Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakunde Federazioan federatutako borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak	223
Sutearo Federazioan federatutako borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak.....	236
8.4. EZAUGARRIAK.....	241
Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko lehentasunezko erakundeak eta planak.....	241
Kudeaketa gardena, demokratikoa eta parte-hartzaileak borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde gobernu-organoetan.....	244
Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek eratutako funtsen inbertsio sozialki arduratsuak	245
Desgaitasuna duten pertsonen aldeko gizarte-aurreikuspeneko planak.....	248
8.5. ETORKIZUNENKAK.....	249
8.6. ONDORIOAK.....	250
8.7. ERREFERENTZIAK ETA ITURRIAK.....	251

9. <i>Elkarteak Euskal Autonomia Erkidegoan: kontakizuna</i>	253
Aratz Soto Gorrotxategi, Ane Etxebarria Rubio	
9.1. SARRERA.....	253
9.2. ELKARTEEN EGUNGO ERREALITATEA	254
Elkarteen datu sozioekonomiko nagusiak	254
Euskal mugimendu asoziatiboaren artikulazioa	258
EAEko elkarteei buruzko legeriaren bilakaera	261
9.3. IDEIA NAGUSIAK.....	263
Elkarreek bermatzen dute pertsonak eta helburu soziala kapitalaren gainetik nagusitzea	265
Beren jarduerak pertsonen beharrak asetzea du ardatz	266
Zuzenean laguntzen dute elkartekideen garapen integralean	266
Barneko eta gizartearekiko elkartasuna sustatzen dute	266
Tokiko sustraitze handia erakusten dute	266
Elkarteak erakunde demokratikoak eta parte-hartzaileak dira	267
Gizarte-ekonomiako elkarteek enpresa-dimentsioa dute, jarduera ekonomikoren bat egiten baitute	268
Botere publikoekiko independentzia bermatzen dute	268
9.4. AZPIFAMILIAK ETA ADIBIDE PARADIGMATIKOA	268
9.5. ETORKIZUNENKORRONTAK.....	271
9.6. ONDORIOAK.....	272
9.7. ERREFERENTZIAK ETA ITURRIAK.....	273
10. <i>Fundazioak Euskal Autonomia Erkidegoan: kontakizuna</i>	275
Marta Enciso Santocildes, Saioa Arando Lasagabaster	
10.1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FUNDAZIOEN ERREALITATEA.....	275
Oinarrizko nozioak. Jatorria eta definizioa	275
Lege-araubidea	276
Fundazioen Euskal Konfederazioa. FUNKO	279
Datu estatistikoak	280
10.2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FUNDAZIOEN IDEIA NAGUSIAK	283
Fundazioak gizarte-ekonomiaren parte gisa	283
Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomia osoaren ezaugarriekin bat datozen fundazioak	284

10.3.	EZAUGARRIAK.....	287
10.4.	ERRONKAK.....	288
	Fundazioen ikusgaitasuna eta gizarte-ezagutzaren maila handitzea	288
	Fundazioek sortutako balio soziala neurtzea eta hedatzea	289
	Fundazioen izaera mantentzea, Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) lortzeko funtsezko eragile gisa	291
10.5.	ONDORIOAK.....	292
10.6.	ERREFERENTZIAK ETA ITURRIAK.....	293
11.	<i>Ekonomia solidarioa Euskal Autonomia Erkidegoan: kontakizuna</i>	297
	Aitziber Mugarra Elorriaga	
11.1.	SARRERA.....	297
	Definizioa	298
	Ordezkaritza-sareak	300
11.2.	EKONOMIA SOLIDARIOA GIZARTE-EKONOMIAREN PARTE GISA	300
	Pertsonen zentraltasuna ekonomia solidarioan	301
	Ekonomia solidarioaren izaera demokratikoa	303
	Ekonomia solidarioaren enpresa-dimentsioa	308
	Ekonomia solidarioaren komunitatearekiko konpromisoa	310
11.3.	ONDORIOAK.....	315
11.4.	ERREFERENTZIAK ETA ITURRIAK.....	316

Aurkibidea: sigla eta akronimoen taula

NAK	Nazioarteko Kooperatiba Aliantza
AGAC	Atunontzi Izozaile Handien Elkartea
ANABAC	Atunontzi Izozaileen Armadoreen Elkartea Nazionala
ASEMAS	Prima finkoko aseguru eta berraseguruen mutualitatea (derrama pasiboarekin)
ASLE	Euskadiko Lan Sozietateen Taldea
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EZB	Enplegu-zentro bereziak
GEEZB	Gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziak
CEPES	Gizarte Ekonomiako Espainiako Enpresen Konfederazioa
CERMI	Desgaitasuna duten Pertsonen Ordezkarien Espainiako Batzardea
CIRIEC	Ekonomia publiko, sozial eta kooperatiboari buruzko ikerketa eta informazioaren nazioarteko zentroa
COCETA	Lan Elkartuko Kooperatiben Espainiako Konfederazioa
CONFESAL	Espainiako Lan Sozietateen Enpresa Konfederazioa
MEK	Mondragon Esperientzia Kooperatiboa
EHLABE	Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkartea. Desgaitasuna duten pertsonen gizarte- eta lan-inklusioa sustatzen duten irabazi-asmorik gabeko erakunde euskal elkartea
BGAE	Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak

ERKIDE	Euskadiko Lan Elkartu, Irakaskuntza, Kontsumo eta Kreditu Kooperatiben Federazioa
FAEDEL	Laneratzeko enpresen elkarteen federazioa
FAO	Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundea
FEACEM	Enplegu-zentro berezien Elkarteen Espainiako Federazioa
FEMP	Itsasoko eta Arrantzako Europako Funtsa
FNPT	Lana Babesteko Funts Nazionala
FUNKO	Fundazioen Euskal Konfederazioa
GIZATEA	Euskal Autonomia Erkidegoko Laneratzeko Enpresen Elkartea
INE	Estatistikako Institutu Nazionala
ISA	Inbertsio sozialki arduratsua
EAEFL	9/2016 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa
DDPELO	1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duena
MURIMAR	Itsas arriskuko mutualitatea, prima finkoko aseguruaren sozietatea
GKE	Gobernuz kanpoko erakundea
OVES/GEEB	Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokia
PAKEA	Prima finkoko aseguruaren mutualitatea
RAIS	Gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko sarea
REAS	Ekonomia alternatibo eta solidarioaren sareen sarea
SA	Sozietate anonimoa
ENS	Eraldaketarako nekazaritza-sozietateak
EIOZ	Ekonomia-interes orokorreko zerbitzuak
SM	Erantzukizun mugatuko sozietatea
SURNE	Prima finkoko aseguru eta berraseguruaren mutualitatea

Hitzaurrea



Idoia Mendia Cueva
Lehendakariordea
eta Lan eta Enpleguko sailburua
Gobierno Vasco / Eusko Jaurlaritza

Kontakizun orok errealitate sozial edo ekonomiko bat bildu nahi du, eta errealitate hori sortu eta garatu den testuinguruan interpretatu. Horrela besterik ezin da baloratu haren funtsa, eta zehaztasunez mintzatu hari buruz. Azken batean, ulertu egin behar da hobetzeko. Izan ere, une jakin batean optimotzat jo badaiteke ere, etengabeko hobekuntza eskakizuna da unez une. Horixe da Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekonomiaren kasua: esperientzia historiko arrakastatsua aberastasuna eta balioak dituzten enpleguak sortzeko, errotuta, elkartasunez eta partaidetzaz. Etorkizuneko ekonomian eragina izango duten elementuekin, hau da, kontakizun hau sortzen den unean diseinatzen ari garenarekin. Hori, besteak beste, lan-tresna eraginkorra izan daiteke arlo publikotik nahiz pribatutik jarduten dugunontzat, sektorea indartzeko eta sustatzeko.

Lan honek nabarmendu beharreko zenbait ezaugarri ditu bereizgarri.

Lehenengo eta behin, euskal gizarte-ekonomiaren ikuspegi integratua da, globala izateaz gain, eta ez askotariko familien batura hutsa. Hain zuzen ere, lau ideia nagusiak artikulatzen dute kideen errealitate praktikoaren azalpena, eta horien artean esanguratsuena autonomia-erkidego honetako enpresa- eta gizarte-dimentsioaren sendotasuna da, lehenik eta behin, eta oinarri duen komunitatearekiko konpromiso eraginkorra, ondoren.

Horrela, erakunde-ikuspegitik, pertsonalistak izateaz gain, demokratikoki kudeatuta eta solidarioak izateaz gain, epe luzerako enpresa-proiektuekin iraunkorrek diren enpresak izateak, emaitzak berrinbertitzeko kuota oso garrantzitsuarekin, bereziki erresilienteak krisi ekonomikoko uneetan –alderdi ekonomiko horiek guztiak beren izaera bereziaren ondorio dira–, aberastasun ekonomikoaren aktibo oso garrantzitsua izateaz gain, gizarte-kohesioaren eta gure komunitate politikoaren garapenaren aktibo oso garrantzitsua ere bada.

Gizarte-ekonomiaren ikuspegi publiko horretatik, bereziki adierazgarria da lurraldean sustraituta egotea, bi errealitateak elkartzen baititu elkarren arteko mendekotasunagatik. Horri enpresen gizarte-erantzukizuna deitutakoaren kanpoko dimentsioa gehitzen badiogu, ez da harrizkoa botere publikoek gizarte-ekonomiaren sustapena, estimulua eta garapena beren gain hartzea, gizarte-intereseko funtzio gisa.

Horregatik, botere horientzat, gizarte-ekonomiaren errealitatea eta potentzialtasuna ikusaraztea, kontakizunak egiten duen bezala, garrantzitsua da. Hori dela eta, lanketa eta eduki zorrotzak behar ziren, unibertsitateen arteko lankidetzak lanak ziurtatzen duen moduan.

Euskal gizarte-ekonomiaren jatorria eta errealitatea modu koherente eta integratuan azaltzearekin eta esplikatzearekin ez konformatzea, horixe da, hain zuzen ere, kontakizun honen diseinuaren beste birtualtasun garrantzitsu bat; aitzitik, ekonomia horren balorazio-analitik etorkizuneko erronkak ateratzen dira. Arlo publikotik heldu beharreko erronkak, arlo pribatuarekin lankidetzan, sustapen-lan horretan garatu beharreko ekintza-ildoan adierazgarri. Hain zuzen ere, kontakizunaren berehalako erabilgarritasunetako bat izango da hura kontuan hartzea gizarte-ekonomiako sailen arteko plan estrategikoa egiteko unean.

Kontakizuna etengabe eguneratu beharko da, eraginkortasuna ez galtzeko, baina, bistan denez, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomia sustatzeko tresna gisa egin behar da, lehendik dagoena eta etorkizuneko; gainera, unibertsitatearen eta gizarte-ekonomiako enpresen arteko lankidetzak-eredu bat izan dela kontuan izan behar da.

Beraz, Lan eta Enplegu Sail honek ikuspegi partekatu eta osagarri baten aldeko apustu berri bat egin du, eragile eta sektore ekonomiko eta sozial guztien eskutik, funtzionatu duenaren sendotasunetik aukerak sortzeko estrategia global batean, gizarte-ekonomiaren kasuan bezala, eta hemendik aurrera etengabe berrikusi eta prest jarri beharko dugu, testuinguru aldakor batean.

Euskal autonomia erkidegoko gizarte-ekonomia: kontakizun erkidea

Enekoitz Etxezarreta Etxarri

GEZKI (*Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua / Instituto de Derecho Cooperativo y Economía Social*)
UPV/EHU

1.1. GIZARTE-EKONOMIA IKUSPEGI HISTORIKOAN

Rochdaleko aitzindariak protagonista izan zituen lehen saiakera hartatik ia bi mende igaro badira ere, gizarte-ekonomiak, kontzeptu gisa, apenas du 30 urteko bizitza, garai horretan bizi izan baititu bere larrialdi-, heldutasun- eta finkatze-uneak planetaren luze-zabalean.

Monzonek (2016) CIRIEC-España erakundearen 30 urteak aztertu ditu duela gutxi, eta gizarte-ekonomiaren nozioak hiru mailatan izan duen bilakaeraren balantzea egin du: antolakuntzako, araudikoa eta akademikoa. Adierazi du aurrekoaren eta gerokoren arteko muga ezarri beharko litzatekeela 90eko hamarkadan, hiru maila horietan; izan ere, ordura arte, lokuzio hori hainbat esparrutan erabiltzen bazen ere, Europa mailan onarpen eskasa zuen.

Horrela, laurogeiko hamarkadaren hasierara jo beharko genuke kooperatiben, mutualitateen, elkarteen eta fundazioen arteko lehen adierazpen bateratuak aurkitzeko, izen komun gisa gizarte-ekonomiaren lokuzioa erabiliz, Frantzia edo Belgika bezalako herrialdeetan. Estatu espainiarrean, laurogeiko hamarkadaren erdialderako, lan elkartuko kooperatiben (COCETA) eta lan-sozietateen (CONFESAL) lehen konfederazioak artikulatuta zeuden. Euskal Autonomia Erkidegoan, 1986an, Kooperatiben eta Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza abian jarri zen, sektorea sustatzeko erakunde publiko nagusia.

Hala ere, esparru akademikotik apenas egin zen doktrina-garapenik kontzeptu berri horri buruz, eta gizarte-ekonomiaren ideia, hainbat azterlanetan jasota egon arren, gaur egun gizarte-ekonomiatzat hartzen

dugunarekin alderatuta nahiko desberdinak diren ikasketa-esparruei buruzkoa zen.

90eko hamarkada: terminoa agertu zen

Esan dugun bezala, 80ko hamarkadaren amaieratik eta 90eko hamarkadaren hasieratik aurrera, eta industria-krisi larriaren testuinguruan, hasiko da, benetan, maila desberdinetan indar pixka bat gehiagorekin sartzen kontzeptua.

Antolamenduari dagokionez, gaur egun gizarte-ekonomia osatzen duten erakundeen egituratze-maila handitzen eta indartzen joango da. Valoniako Kontseiluak 1988an onartutako Gizarte Ekonomiaren lehen Gutun hartatik, Monzonen azterketatik (2016) bi mugarri nagusi atera ziren gizarte-ekonomiaren esparru sozioekonomikoa finkatzeko prozesu horretan: 1992an, CEPES-España sortu zen, sektorea ordezkatzan zuen erakunde gisa eta agintari publikoei begira solaskide politiko nagusi gisa; eta, ondoren, 2000. urtean, *Social Economy Europe* sortu zen, Europa mailan sektorekoak ziren erakunde guztiek partekatutako gutxienerako alderdi komunak ezarri zituen Gizarte Ekonomiaren Gutun berri baten onarpenaren bitartez.

Sektorea hobeto antolatzea eta ikusgarriago egitea legegintza-mailan egokitu da; izan ere, gizarte-ekonomia sustatzeko legeak onartu dira Europako hainbat herrialdetan: Espainian (2011), Portugalen (2013), Frantzian (2014), Errumanian (2015) eta Grezian (2016), eta gaur egun lege-proiektuaren fasean dauden beste herrialde batzuetan. Azkenik, maila akademikoan, CIRIECek oso paper garrantzitsua jokatu du, eta sendotasun eta funts teorikoa eman dizkio, ikusten dugunez, lehen urratsak ematen hasia baino ez den kontzeptuari.

Krisialdiak eta eztanda kontzeptuala

Sarrerako lehen atal hau azken egiaztapen historiko batekin itxiko dugu: CHAVESEK ETA MONZONEK (2018) egoki adierazten duten bezala, gizarte-ekonomiaren agerpen kontzeptualaren uneak beti datoz bat krisi ekonomiko eta sozial larriko uneekin. XIX. mendearen erdialdean industria-iraultzaren prozesua bete-betean zenean sortu ziren erakundeen lehen bolada horretan gertatu zen. Berrikiago egiaztatu zen laurogeiko hamarkadako industria- eta enplegu-krisian, eta berriro ikusten ari da 2008tik daramagun azken krisiaren ondoren, hots, Atzeraldi Handia izendatu denaz geroztik. Egungo egoera ekonomikoak, 2020ko munduko pandemiaren ondoriozko geldialdi ekonomikoak gogor jota, krisi sozioekonomikoaren testuinguru

berri bat sortuko du inongo zalantzarik gabe. Testuinguru horretan, gizarte-ekonomiako hainbat esperientzia hedatzen joango dira, enpresa-erresilientziaren eta ekintzaitzaren tresna baliodun gisa.

Hori positiboa da termino horren onarpen sozialari begira, baina horrekin batera beste bat dator, kontrako norabidean bultzatzen duena; izan ere, krisi horietako bakoitzean beste kontzeptu batzuk ere azaleratzen dira, gizarte-ekonomiarekin oso antzekoak direnak baina desberdintasun handiak dituztenak, eta sarrerako kapitulu honen azken atalean azalduko dira.

Azken batean, krisi bakoitzak erantzun berriak sortzen ditu, eta erantzun berri horietan oinarrituta termino berriak sortzen dira (gizarte-enpresak, *B corps*, laugarren sektorea, ekonomia kolaboratiboa, ekonomia zirkularra eta abar). Termino horiek nahasmen kontzeptual handia sortzen dute, eta gizarte-ekonomiaren ezaugarriak eta bereizgarriak argitzen joateko etengabeko beharra planteatzen dute.

Laburbilduz, gizarte-ekonomiak enpresa-alternatiba bat proposatzen du, kapitalaren aldean zentraltasuna eta nagusitasuna pertsoneri egoztean oinarritua, modu demokratikoan kudeatutako izaera kolektiboko erakunde ekonomikoen bidez, eta beren ingurune hurbilenean gizarte-inpaktu positiboa izateko bokazio argiarekin. Azken batean, egungo egitura ekonomikoak eraldatzea helburu duten esperientzia ekonomikoez ari gara, sozialki bidezkoagoak diren eta ingurumenaren aldetik jasangarriagoak diren beste eredu batzuetara igarotzeko.

1.2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GIZARTE-EKONOMIA

Esperientzia bereziki enpresariala

Ildo horretan, euskal gizarte-ekonomiaren egungo egoera ez dago lehen hurbilketa historiko honetan aipatzen dugun testuingurutik at.

Kooperatiben eta lan elkartuaren tradizio sakona duen herrialdea izan arren, eta, gainera, laurogeiko hamarkadaren erdialderako gizarte-ekonomia sustatzeko zuzendaritza propioa zuen Estatu mailako lehen erkidegoa izan arren, antolaketaren, atxikimendu eta identifikazio kolektiboaren eta baterako arau-garapenaren mailak ibilbide luzea du oraindik aurretik, ondoren aurkeztuko dugun azterlanean ikusiko dugun bezala.

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomia, ikuspegi historikotik, fenomeno kooperatiboari oso lotuta egon da; izan ere, formula hori da, 50eko hamarkadatik aurrera eta, batez ere, Arrasateko esperientzia kooperatiboaren eskutik, euskal lurraldean gehien hedatu eta zabaldu dena

(AZKARRAGA, 2007; SARASUA ETA UDAONDO, 2004; ORTEGA ETA URIARTE, 2015). Horregatik, gaur egun, gizarte-ekonomiako erakundeen erdiak baino gehiago kooperatiba-erakundeak dira.

Hala ere, euskal ekonomia eta esperientzia kooperatiboa parekatzea akatsa izango litzateke sektore horri lotutako esperientzia guztiak ezaugarritzeari begira. 70eko hamarkadan, industria-krisi larriaren eta ekoizpen-ehunaren berregituraketaren testuinguruan, lan-sozietateak sortu ziren Euskal Autonomia Erkidegoan, askotan egoera konprometituan zeuden enpresa-jarduerak berreskuratzen zituzten langileen erantzun autoantolatu gisa.

Aldi berean, 70eko hamarkadatik aurrera enplegu-zentro bereziak sortu ziren (MORATALLA, 2016; BENGOTXEA, 2014) eta 90eko hamarkadatik aurrera laneratzeko enpresak zabaltzen hasi ziren (RUIZ, RETOLAZA & MUGARRA, 2007). Horiek guztiak lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak zituzten kolektiboek lan-aukerak eskaintzearen logikaren pean sortu ziren. Esperientzia horiek lan elkartuko esperientzien osagarri izango ziren, egitura desberdinekin, baina izateko arrazoi beraren pean: pertsona duin egitea eta ekonomia pertsonen zerbitzura jartzea, eta ez alderantziz.

Sortze-bultzada horren pean antolatu zen, 90eko hamarkadatik aurrera, REAS-Euskadi ekonomia alternatibo eta solidarioaren mugimendua. Haren helburu nagusia balio-kate osoaren (ekoizpena, finantzaketa, merkataritza, kontsumoa) proposamen ekonomikoak artikulatzea zen, ekonomia herrialdeko garapen pertsonal eta komunitarioaren zerbitzura jartzeko (ASKUNZE, 2013).

Gizarte-ekonomiari lotutako esperientzia guztiak federazioen, ordezkari-erakundeen eta sareen bidez antolatu dira azken 40 urteetan. Hala ere, gizarte-ekonomiaren izendapen komunaren artikulazio sektoriala askoz berriagoa da. 2008an, Legebiltzarraren aginduz, Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokia sortzea izan zen lehen mugarrira prozesu horretan. GEEB, GEZKI Zuzenbide Kooperatiboko eta Gizarte Ekonomiako Institutuak (UPV/EHU) kudeatua izanda ere, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomiako familia guztiak espazio berean lehen aldiz biltzen zituen Aholku Batzorde baten inguruan antolatu zen. Elkargune horretatik sortu zen 2015ean EGES, Euskal Gizarte Ekonomiaren Sarea, euskal gizarte-ekonomiako familia guztien ordezkari-espazio gisa jarduten duena.

Esperientzia horiek guztiek, ibilbide historiko handiagoko beste batzuekin batera (hala nola arrantzaleen kofradiak, eraldaketarako nekazaritza-sozietateak, elkarateak edo fundazioak), euskal gizarte-ekonomia errealitate polifazetiko eta bereizgarri bihurtzen dute, nazioartearekin alderatuta, funtsean izaera enpresariala, ekonomikoa eta ez-asistentziala duelako. Pertsonen zentraltasuna gizarte-ekonomian ulertzen da lanaren bidez pertsonak ahalduzko logikatik, egoera ahulenean dauden pertsonen eta kolektiboek zerbitzuak emateko logika asistentzialetik baino gehiago.

Horren guztiaren ondorioz, euskal gizarte-ekonomia esperientzia ekonomiko gisa aurkezten da Euskal Autonomia Erkidegoan, enpresa- eta finantza-arlokoa eta industria-jarduera handikoa, elkarte-mugimenduari edo kontsumo-kooperatibismoari lotutako mundu-mailako esperientzia gehienak ez bezala.

Euskal Autonomia Erkidegoan antzeman daitekeen errealitate esanguratsua

Euskal gizarte-ekonomiaren magnitude nagusiak¹ euskal ekonomia osoarekin alderatuta hartzen badira kontuan, gizarte-ekonomiako familia guztien datuek egiaztatzen dute erakunde erresistenteagoak direla krisialdian eta dinamismo handiagoa dutela oparoaldian.

Oro har, erakundeen kopurua mantendu ez ezik, handitu ere egin da azken aldian (2019an %11ko igoera izan da, 2008ko datuekin alderatuta). Enpleguaren bilakaerak ere egokitzeko gaitasun handiagoa erakusten du; izan ere, enpleguaren suntsipena ez zen hain nabarmena izan krisi betean, eta enplegu berriaren sorreraren susperraldiaren erritmoa EAEko ekonomia osoarena baino handiagoa izan da azken urteotan. Datu gisa, azpimarratzekoa da gizarte-ekonomiako enplegua 2008an baino %9 handiagoa dela gaur egun, eta Euskal Autonomia Erkidegoan, berriz, 2008an baino %2,8 txikiagoa dela enplegua (2019ko datua).

Gizarte-ekonomiaren pisu erlatiboari dagokionez, datuek egiaztatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoan erakundeen %2 inguru, balio erantsi gordinaren %5 eta enplegu ordainduaren %10 gizarte-ekonomiako erakundeei atxikitzen zaizkiela.

Euskal gizarte-ekonomiaren ezaugarrietako beste bat haren industria-izaeran datza. Sektoreen araberako errealitateak aldeak erakusten baditu ere, azpimarratzekoa da hamar kooperatibatik 4 industria-kooperatibak direla, eta enplegu-zentro berezietan lan egiten duten pertsonen erdiak baino gehiagok industria-sektorean jarduten dutela. Lurraldeka, datu horrek maila adierazgarriagoak lortzen ditu: Gipuzkoako industria-enpleguaren kasuan, enpleguaren %22 inguru kooperatibetan dago (eraikuntzaren sektorea kontuan hartu gabe).

Horrek argitzen du, neurri batean, sektorean dagoen nazioartekotze-maila; izan ere, kooperatiben fakturazioaren erdia baino gehiago nazioarteko salmentetatik dator, eta ehuneko hori %30 ingurukoa da lan-sozietateen kasuan.

¹ Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokiak (GEZKI - UPV/EHU) emandako datuak

1.3. POSIBLE AL DA ARLO EKONOMIKOA ETA SOZIALA UZTARTZEA?

Gizarte-ekonomiako erakundeak bereizten dituen elementu nagusia da, guztiak enpresa-erakundeak izanik, gizarte-helburu batekin sortzen direla, eta askotan errentagarritasun ekonomikoaren helburuaren aurretik jarri edo lehenesten direla. Gizarte-bokazio horrek, ordea, berezko ezaugarriak ditu gizarte-ekonomiako erakundeetan: batetik, gizarte-helburuak jarduera ekonomikoen bitartez betetzen saiatzen direlako, eta, bestetik, “soziala” oso modu berezian edo propioan ulertzen delako gizarte-ekonomiako erakundeen barruan.

Zer ulertzen dugu sozialtzat?

Gizarte-ekonomiaren definizio orokor samar eta ez oso zorrotz baten alde egingo bagenu, jarduera ekonomikoa duten erakundeen multzo bat dela esango genuke, gizarte-konpromiso garbia erakusten duten printzipio jakin batzuen arabera arautzen direnak. Beraz, bi alderdi horiek (ekonomikoa eta soziala) erakusten dituzten erakundeak izango lirateke, eta beren jarduera-sektorean eta dagokien lurraldean egunero egiten dituzten jardueretan uztartzen ahalegintzen dira.

Hala ere, definizioa zehatzagoa eta doituagoa da gizarte-konpromiso hori zertan datzan zehaztasun handiagoz definitzen saiatzen bagara. Zer ulertzen den sozialtzat, eta zer mekanismoren bitartez bihurtzen den konpromiso hori eguneroko jarrera.

Esango genuke, zentzu horretan, “soziala” gizarte-ekonomiatik gutxienez hiru mailatan ulertzen dela: mikro, meso eta makro; hau da, pertsona, erakundea eta lurraldea/komunitatea. Konpromiso horren hasieran, erakundeen barruko pertsonen tratamendu zehatza ematen zaie, eta pertsonak eta haien erakundeak bizi diren lurraldearen osagaitzat hartzen dira, bertan bizi baitira egunez egun, eta bertan ezartzen baitituzte haiek hartzen dituen komunitatearekiko loturak, afektuak eta betebeharrak.

Horrela, “soziala” hiru maila horietan dago, elkarren artean lotura estua duten hiru maila horietan, eta jarduera-esparru jakin batean, gizarte-ekonomiaren kasuan, hain zuzen ere, lan- edo antolaketa-esparruan. Beraz, erakunde ekonomikoen esparruan, gure ustez gizarte-ekonomiaren inspirazio-iturri nagusia den ideia bat azpimarratu nahi da: zentraltasuna pertsonen duintasunera itzultzen saiatzea, egitura mutualista eta autogestionarioen bitartez.

Gure ustez, beharrezkoa da norbanakoaren eta kolektiboaren ideia bikoitz hori azpimarratzea; izan ere, pertsonen bizi-baldintzak duintzea bezain berezkoa da jabetze kolektiboko mekanismoen bidez egitea.

Kolektiboa pertsonen zerbitzura eta komunitatearen garapenaren zerbitzura jarria. Gizabanakoaren eta komunitatearen arteko oreka haurkor hori bilatzeko etengabeko ahaleaginean.

Bi ideia horiek lehenengoari gehituta, gizarte-konpromisotzat hartzen dugunera hurbilduko gara, zehatzago: erakundeen eta egitura kolektiboen esparrutik hartzen den konpromisoa, pertsonak beren lan-eremuetan eta bizitza komunitarioko eremuetan duten garapen integrala lehenesteko.

Gizarte-konpromisoaren egiturazko izaera

Ikuspegi hori onartzeak esan nahi du gizarte-konpromiso hori erakunde horien berezkoa dela. Berea da. Erakunde horien izaerari berari erantzuten dio, argi eta garbi islatzen baita erakunde ekonomikoak ezaugarritzeko funtsezkoak diren hiru esparruetan: erakundearen helburua, erabakiak hartzeko modua eta erakunde horrek sortzen dituen etekinak eta soberakinak banatzeko modua².

Pertsonaren zentraltasuna eta kapitalarekiko nagusitasuna, esan bezala, helburuen planteamendutik integratzen da. Ez litzateke egokia izango helburu komun bakarra ezartzea gizarte-ekonomiako erakunde guztientzat, haien barruan antolamendu-logika desberdinak eta enpresa-errealitate oso desberdinak baitaude. Hala ere, CHAVESEK ETA MONZONEK (2018) gizarte-ekonomiako erakunde moten kategorizazioa egiten dute, horiek bultzatzen dituzten pertsonen arabera. Laburbilduz, bost tipologia nagusi planteatzen dituzte, honako hauek sustatutako erakundeak diren kontuan hartuta:

- Autogestio-eskemen bidez lan-arazoak konpondu nahi dituzten langileak.
- Interes orokorreko ondasunak eta zerbitzuak eskatzen dituzten herritarrak: etxebizitza, osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, aisialdia eta abar.
- Hainbat zerbitzu elkarrekin lortzeko profesionalak, hala nola hornidurak, merkaturatzea edo ustiapena.
- Herritarrak eta profesionalak, kreditua lortzeko edo arrisku jakin batzuen estaldura lortzeko.
- Gizarte-ekonomiako erakundeak, erakunde horiek sustatzeko.

Aipatutako bost tipologia horietan guztietan, bat dator gizarte-ekonomiaren maximetako bat, *Social Economy Europe* erakundearen Gizarte Ekonomiaren Gutunean jaso, pertsonen nagusitasunaz eta kideen interesen eta interes orokorraren arteko konbinazioaz hitz egiten duen

² Hiru irizpide horiek ezartzen ditu literatura ekonomikoak zenbait eragile ekonomiko bereizteko (CHAVES ETA MONZÓN, 2018)

lehen printzipioan. Beraz, benetan ulertezina da gizarte-ekonomiako erakunde batek erakundearen partaide diren pertsonen interesen aurka jardutea. Pertsonen zentraltasuna beren izaeran bertan dago, beren izateko arrazoia da, beren *leitmotiv* nagusia.

Hori dela eta, adierazitako bi irizpide gehigarriak, erabaki-irizpidea eta banaketa-irizpidea, lehenengoarekin lerrokatuta daude beti: erabakiak modu demokratikoan hartzen dira, pertsona guztiek erakundearen barruan botere bera eskuratzeko modua delako; eta soberakinen banaketa, halakorik balego edo horretarako berariazko eragozpenik ez balego, pertsona bakoitzak egindako lan ekarpenaren arabera egiten da, eta ez pertsona bakoitzak ordaindutako kapitalaren arabera.

Beraz, ekonomia eta gizartea uztartzeko modurik ba ote dagoen galdetzeraz itzulita, esango genuke gizarte-ekonomiak konpromiso soziala duten erakundeen eredu bat planteatzen duela, sozialtzat hartzen denaren jarrera filosofiko zehatz batetik, eta haiek benetako proposamen bihurtzen dituzten enpresa-irizpideetan islatzen dela.

Gizarte-konpromisoa ulertzeko modu hori oso urrun dago enpresa-esparruan sona handia duten beste batzuetatik (enpresen gizarte-erantzukizuna, gizarte-enpresak edo B Corps bezalako planteamenduez ari gara); izan ere, gizarte-ekarpena erakundetik kanpo baino ez dute ulertzen, eta, beraz, bereizi egiten dituzte ekoizpen-prozesuek eta horiek ahalbidetzen dituzten antolaketa-ereduek gizartean eragindako inpaktuak.

Gizarte-ekonomiako erakundeen gizarte-konpromisoa egiturazkoa da, estatutuetatik bertatik eratortzen da, eta ez dago gizarte-inpaktu positiboa duten jarduera-ildo edo kudeaketa-hobekuntza jakin batzuen borondatezko jardunaren mende; aitzitik, gauzatutako jarduera ekonomiko guztia barnebiltzen du, ondoren definituko ditugun printzipioen arabera.

1.4. GIZARTE-EKONOMIA: ANIZTASUNETIK ERAIKITZEN

Askotariko errealitatea

Euskal gizarte-ekonomiako erakunde guztiak gizarte-konpromiso garrantzitsua egiaztatzen duten erakundeak dira; izan ere, jarduera ekonomikoa duten erakundeak dira, pertsonak eta gizarte-helburua kapitalaren aurretik lehenesten dituztenak, eta, ororen gainera, pertsonen garapen integrala bilatzen dute lan-esparruetan eta harremanak dituzten komunitateetan.

Zoru komun hori ezartzeak, ordea, ez luke alde batera utzi behar gizarte-ekonomiako familien artean errealitate bereizia dagoela, eta familia

bakoitzak, bere antolamendu-espezifikotasunaren arabera, jarduteko logika partikular eta propioei erantzuten diela.

Euskal gizarte-ekonomia, egia esan, oso tamaina desberdineko erakundeek osatzen dute, eta askotariko jarduera-sektoreetan jarduten dute, nekazaritza eta abeltzaintzako erakundeetatik hasi eta finantza-erakundeetaraino, industriakoak barne, I+G+b jarduerak, irakaskuntza formalekoak edo baztertuta dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzekoak. Beraz, oso premia desberdinei erantzuten diete.

Era berean, Arrasateko mugimendu kooperatiboaren pisuaren ondorioz, euskal gizarte-ekonomiak oso kutsu kooperatibo handia du. Kuantitatiboki eta kualitatiboki duen garrantzia eztabaidaezina izanik, egia da, alabaina, eredu kooperatiboa ez dela euskal gizarte-ekonomiaren barruko antolaketa-eredu bakarra. Badira beste elkarte-modu batzuk, hala nola lan-sozietateak, jabetzaren kolektibizazio-maila berera iritsi gabe, antzeko printzipioen arabera funtzionatzen dutenak.

Gainera, elkarte-ehun oso mardula dago, merkatukoak ez diren erakundeek osatua, eta demokraziaren eta irabazi-asmorik ezaren irizpide berberen arabera arautzen da, diru-sarrera gehienak merkatuko-jardueretatik lortu gabe ere. Eta, azkenik, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen, enplegu-zentro berezien eta laneratzeko enpresen errealitatea dago lan-munduan sartzeko zailtasun handienak dituzten pertsonentzat, bai ezaugarri pertsonalengatik, bai gizarte-baldintzapenegatik.

Aipatutako esperientzien logika berezia dela eta, familia guztiek zoru komun horretarantz duten atxikimendu- edo hurbiltasun-maila ez da intentsitate-maila berekoa. Beraz, gizarte-ekonomia deituriko toki komun hori eraikitzeko, gutxienez, sarrera historikoan adierazten genituen hiru prozesuak behar dira: gutxienero ezaugarri komun partekatu baten gainean lerrokatutako eragile sozioekonomikoen multzoa, euskarri akademiko fidagarria eta legegintzaren eta araugintzaren aitorpena eta garapena kokatzen den lurraldeetan.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, erakundeen aniztasun horrek eta horien lotura instituzionalak korapilatu egiten du sustapen-politika publikoak ikuspegi integraletik aplikatzea, gizarte-ekonomiako erakundeak 5 sailetan sakabanatuta baitaude: Gobernantza Publikoa eta Autogobernua (elkartekak eta fundazioak); Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena (arrantzaleen kofradiak eta eraldaketarako nekazaritza-sozietateak); Ekonomia eta Ogasuna (BGAE); Lana eta Enplegua (kooperatibak eta lan-sozietateak); Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak (enplegu-zentro bereziak eta laneratzeko enpresak). Presentzia erlatiboa eta ezagutza- eta onarpen-maila oso desberdinak dira aipatutako sailen artean, eta horrek

zaildu egiten du gizarte-ekonomiako familia guztiak sustatzeko politikak planteatzeko eta gauzatzeko aukera, ikuspegi partekatu eta integral batetik.

Maila akademikoago batera pasatuz, Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-ekonomia aztertzen duten unibertsitate-institutuak daude herrialdeko hiru unibertsitateetan: Mondragon Unibertsitatean, Deustuko Unibertsitatean eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Hiru unibertsitateek elkarlanean eta Eusko Jaurlaritzarekin eta sektoreko erakunde nagusiekin lankidetzan garatzen dituzten proiektu, ikerketa-lan, zabalkunde-jardunaldi edo prestakuntza-espazio ugariak ahalbidetzen dute askotariko eragile horiek guztiek partekatzen dituzten identitate-elementu komunak proiektatzeko eta finkatzeko leku komun bat aurkitzea.

Sektorea mugarrizko hiru estrategia

Partekatutako gutxieneko komun batzuk ezartzeko helburua gizarte-ekonomiaren esparrua mugarrizko edo perimetratzeko premia larritik egiten da; izan ere, aurretiazko hori gabe, oso zaila da arlo akademikotik edo publikotik/arauditik aurreragoko garapenak egotea. CHAVESEK ETA MONZONEK azaltzen duten bezala (2018, 12. or.): “erronka handienetako bat izan da espazio hori guztia zientifikoki koherentea den multzo batean integratuko duen kontzeptu bat egituratzea, eta gizarte-sektore oso horrek politikoki onartzea”. Esparru horren mugaketa hainbat estrategiatatik egin da. (ETXEZARRETA & PÉREZ DE MENDIGUREN, 2018).

Lehenengoa, sektoriala, jarduera ekonomiko guztiak hiru sektore instituzionaletan banatzean datza, jabetza-egituraren eta soberakinen politikaren arabera. Hala, lehen sektorea enpresa pribatuek osatuko lukete, eta horien logika nagusia etekina maximizatzea izango litzateke; bigarren sektorea irabazi-asmorik gabeko erakunde publikoek osatuko lukete; eta, azkenik, hirugarren sektore bat geratuko litzateke, irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatu guztiak hartuko litzatekeena. Estrategia hori nahiko zabaldua egon da argudiatzeko duen soiltasunagatik, baina, hala ere, hiru sektore horietako bakoitza logika erabat desberdinak dituzten erakundeak biltzen dituen saski-naski bihurtzen du.

Bigarren estrategia, historian zehar makina bat aldiz egin dena, gizarte-ekonomiatzat har daitezkeen erakunde guztiak borondatez atxikitzen zaizkien printzipioen zerrenda adostean oinarritzen da. Printzipioen deklarazioa, Rochdaleko kooperatibatik hasita, etengabea izan da, lauogeiko hamarkadaren hasieran Frantzia eta Belgikan gizarte-ekonomiaren kontzeptuari buruz egindako lehen deklarazioetara iritsi arte. Gizarte-ekonomia artikulatzeko hurrengo atalean zerrendatzen diren printzipioak ere antzeko prozesu baten emaitza dira, gizarte-ekonomiako

familia guztien artean proposamenak egin, kontrastatu eta adosteko prozesuaren emaitza.

Hirugarren estrategia estatistikoagoa da, eta Kontabilitate Sistema Nazionaletik datozen irizpideetatik heldu dio sektorearen mugaketari. Ondoren, irizpide horiek modu sektorialean garatzen dira, gizarte-ekonomiako erakundeen “satelite kontuen” bitartez. Irizpide horretatik sortzen da gizarte-ekonomiako erakundeen forma juridikoaren araberrako sailkapena, bi azpisektoretan banatua, merkatukoa eta merkatukoa ez dena. Euskal errealitatera ekarrita, honako taula honetan azaltzen ditugun erakundeek osatzen dute:

1. ilustrazioa. Gizarte-ekonomiaren unibertsoa

Gizarte-ekonomiaren azpisektoreak		
Azpisektorea: merkatuko ekoizleak	Sozietate ez-finantzarioak	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Kooperatibak³ ➤ Lan-sozietateak⁴ ➤ Enplegu-zentro bereziak⁵ ➤ Laneratzeko enpresak⁶ ➤ Arrantzaleen kofradiak⁷ ➤ Eraldaketarako nekazaritza-sozietateak⁸ ➤ Merkatuko beste ekoizle pribatu batzuk (elkartek⁹, fundazioak¹⁰ eta sozietateak)
	Sozietate finantzarioak	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Kreditu-kooperatibak ➤ Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak (BGAE)¹¹
Azpisektorea: merkatukoak ez diren ekoizleak	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Etxeen zerbitzurako irabazi-asmorik gabeko erakundeak ➤ Gizarte-ekintzako elkarteak ➤ Gizarte-ekintzako fundazioak 	

Iturria: OVES/GEEB ³⁴⁵⁶⁷⁸⁹¹⁰¹¹

³ 4/1993 Legea, ekainaren 24koa (EAE).

⁴ 44/2015 Legea, urriaren 14koa (Estatua).

⁵ 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa (Estatua).

⁶ 44/2007 Legea, abenduaren 13koa (Estatua).

⁷ 16/1998 Legea, ekainaren 25ekoa (EAE).

⁸ 1776/1981 Errege Dekretua, abuztuaren 3koa (Estatua).

⁹ 7/2007 Legea, ekainaren 22koa (EAE).

¹⁰ 9/2016 Legea, ekainaren 2koa (EAE).

¹¹ 5/2012 Legea, otsailaren 23koa (EAE).

Jarraian ikusiko dugun bezala, hiru estrategiak, edo gutxienez azken biak, bata bestearen osagarri dira, halako moldez non bietakoren bat bakarrik aukeratzeak sektorea autentifikatzeko arazoak sortzen baititu; figura juridiko jakin batzuen katalogo batek funtzionamendu-printzipio partekatu batzuk behar ditu, eta, aldi berean, printzipio horiek benetan lortzea a priori bideragarriagoa da sektorearekin lotzen ditugun figura juridikoetatik.


Azken zehaztapen bat egin behar da Gizarte Ekonomiari buruzko Legeari buruz (martxoaren 29ko 5/2011 Legea), 5. artikuluan Gizarte Ekonomiako erakundeen katalogoa ezartzen baitu. Legea ez da funtsean aldentzen kontabilitate nazionalaren arabera egindako mugaketa-proposamenetik, eta ez ditu halakotzat hartzen merkatukoak ez diren erakundeak, eta, elkarre eta fundazioei dagokienez, esplizituki gaineratzen du jarduera ekonomikoa egiaztatu beharko dutela (ETXEZARRETA & MORANDEIRA, 2012). Sektorearen kategorizazio horrek are gehiago sakontzen du gizarte-ekonomiako erakundeen ekonomia- eta enpresa-izaeran, kanpoan uzten baititu zerbitzuak prezio ez-adierazgarrietan ematen dituzten erakundeak.

1.5. GIZARTE-EKONOMIA: ZORU KOMUN PARTEKATURANTZ. EUSKAL KASURAKO PRINTZIPIOAK BIRFORMULATZEA

Ondoren aurkeztu eta garatuko ditugun lau printzipio edo ideiak, izatez, Europan egindako ondoz ondoko deklarazioetan zentral gisa ezarri diren printzipioen bertsio edo birformulazio berri bat dira, “euskal erara” eginak.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, eta norberaren kontakizuna erabiliz printzipio esanguratsuenak birformulatzeko ahalegin kolektiboaren emaitza gisa, printzipio horiek lau ideia nagusi dituzte oinarri, euskal gizarte-ekonomiako familia guztiek zentralizat jo dituztenak:

2. ilustrazioa. Euskal gizarte-ekonomiaren printzipio zentralak



Iturria: bertan landua

Lau ideia horiek, gero, zenbait enpresa-jardunbidetan gauzatzen dira. Jardunbide horiek, aldi berean, neurketa-irizpide ukigarrien bitartez neur daitezke.

Pertsonen zentraltasuna

Lehenengotik hasita, hau da, behin eta berriz adierazitako pertsonen zentraltasuna abiapuntu hartuta, printzipio hori erakunde horiek sortzen duten enplegu motan aplikatzen da lehenik. Helburua da kalitatezko enplegu egonkorra sortzea, horrek ahalbidetuko baitu erakundeen barruan pertsonak ahalik eta modu integralenean garatzea.

Printzipio horren lorpena ez dago soilik erakundeek adierazitako borondatearen baldintzapean. Esan bezala, erakunde horien izateko arrazoia da pertsonen duintasuna emango dieten lan-baldintzak eskaintzea, honako egitura hauen bidez: i) lanaren subiranotasunean oinarritzen direnak, erakunde demokratikoak diren heinean; ii) edo helburu nagusizat baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak edo desgaitasunen bat duten pertsonak gizarteratzea eta laneratzea dutenak; iii) edo erakunde mutualistak direnak, eta horien existentzia-logika pertsonen eskariak edo beharrianak asetzen datza.

Berriz diogu pertsonen zentraltasuna erakundearen sortze-helburuan dagoela, eta, beraz, ez dagoela egiten den ahalegin handiagoaren edo txikiagoaren mende.

Erakundeen izaera demokratikoa

Pertsonak kapitalaren gainetik duten nagusitasun hori, era berean, demokrazian eta lanaren subiranotasunean oinarritutako antolaketa-ereduen bidez egituratzen da, gizarte-ekonomiako erakundeen ezinbesteko elementua eta ezaugarri nagusia baita. Erakunde demokratikoak planteatzeak pertsonak ahalduntzen ditu, pertsona guztiei erabakitzeko gaitasun bera ematen die, eta “abiapuntuko posizio” horretatik hainbat erabaki eratortzen dira, neurri ekitatezko edo berdintzaileetan eragina dutenak edo horietan sakontzen dutenak (soldata-orkilak ezartzearekin lotutako alderdian, lan bererako ordainsari berberarekin, errenten banaketan genero-desberdintasunak urratzearekin eta abarrekin lotutako alderdian).

Kultura demokratiko edo berdintasunezko horren ondorioz, enpresa-jardunbide zehatzak sortzen dira, “berdinen arteko harremanaren” ideia bera oinarri dutenak: bigarren mailako sareetan lankidetzan aritzeko politikak; langileek (edo haien ordezkari diren elkarteek) kapitalean, emaitzetan eta kudeaketan parte hartzeko politikak; gardentasun- eta informazio-politikak; edo ordainsarien barne-elkartasunerako politikak.

Erakunde demokratikoek sortzen dituzten kanpo-efektu positiboak balioa eman nahi diegu, ez soilik erakundearen barne-ondorioetarako (errendimendu hobea, erakundeko pertsonen gogobetetze eta inplikazio handiagoa, eta abar). Eredu demokratikoak kanpo-efektu garbiak sortzen ditu erakundetik kanpo ere. Hori da, hain zuzen ere, gizarte-politikaren ikuspegi berritzaileetatik ‘gizarte-politikaren alde aurreko neurri banatzaileak’ deitzen dena. Neurri horiek ez daude emaitzetan desberdintasun-egoerak konpontzera edo konpentsatzera bideratuta; aitzitik, desberdintasun-egoera horiek sortzea saihesten ahalegintzen dira, gizarte-bazterketaren arazoari errotoik aurre egiteko.

Erakunde demokratikoak berdintasunezko erakundeak dira (desberdintasun gutxiago sortzen dute behintzat), erakundeko pertsona guztien artean, eta, beraz, bizi diren lurraldeetan, errentak, kapitala eta boterea modu ekitatezkoagoan banatzen dituzten neurrian. Horregatik, gizarte-babeseko eredu publikoen berrikuspen sakonaren testuinguruan, erakunde demokratikoak (beste bitarteko batzuekin batera, hala nola oinarritzko errenta unibertsala eta hezkuntza-inbertsioa) irismen ikaragarria duten alde aurreko banaketa-tresna bihurtzen dira.

Enpresa-dimentsioa

Gizarte-ekonomiak nagusiki enpresa-izaera duenez, erakunde horiek inpaktu ekonomiko adierazgarria dute. Ideia horretan bertan oinarritzen dira, hirugarrenik, epe luzerako proiektu kolektiboaren jasangarritasuna epe laburrean zentratzen diren interesen edo interes koiunturalagoen aurretik jartzen duen enpresa-kultura osatzen duten enpresa-jardunbide batzuk.

Enpresa-ikuspegi horrek bizirik irautearen logikatik ulertzen du lehiakortasuna, baita erakundeek krisialdian erresilientzia izateko duten gaitasunaren logikatik ere. Jasangarritasunaren alde egiten du argi eta garbi, proiektuari denboran eusteko, emaitzak erakunde bertan berrinbertitzeko bokazioari esker. Eta, azkenik, berrikuntzaren aldeko jarrera erakusten du beti, bai teknologiaren aldetik, bai antolakuntzaren aldetik, bai gizartearen aldetik.

Inguratzen dituen komunitatearekiko konpromisoa


Eta, amaitzeko, pertsonen bizitza erakundeek haraindiko komunitate eta lurraldeetan gertatzen dela eta lurralde horiek harreman-sareek, bizipen kolektiboek, kartografia partekatuek, kultura-loturek edo eraldaketa-proiektuek osatzen dituztela kontuan hartuta, erakunde horiek beren jardueraren ekonomikoan sartu behar dituzte lurraldeetan eragin sozial argia duten alderdiak.

Lurraldeetan eragiteak alde aurreko baldintza bat dauka: erakundeek lurraldeetan irautea. Gizarte-ekonomiako erakundeek lurraldean errotuta daudela egiaztatzen dute, eta hori ere mantentzen da ekoizpena nazioartekotzen den kasuetan; beraz, multilokalizazio-estrategiei esker, atzerrian ekoizpen- edo merkaturatze-instalazioak irekitzeko oinarria tokiko enpleguari eustea da beti.

Lurralde-errotze horren ondorioz, gizarte-ekonomiako erakundeak eragile estrategikoak dira lurraldeen jasangarritasunean, hiru eragin hauetatik ulertuta: ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa. Tokiko enplegua eta aberastasuna sortzen duten erakundeak dira, lehenik, eta modu bidezkoagoan banatzen dute. Bestalde, lurraldea sozialki kohesionatzen duten erakundeak dira, berdintasun ekonomiko handiagoa sortzen baitute eta, gainera, zailtasun gehien dituzten pertsonak gizarteratzen laguntzen baitute. Hirugarrenik, kapital soziala sortzen dute, elkartegintza elikatzen dutelako, partaidetza- eta lankidetzakultura daramatelako eta pertsonen arteko konfiantza elikatzen dutelako. Eta, azkenik, abangoardia dira ingurumen-jasangarritasunarekin erlazionatutako zenbait esparrutan (ekonomia zirkularri loturiko berziklatze jardueretan, kasu), gizarte-ekonomiako erakundeek xede horrekin sustatutako gizarte- eta antolaketa-berrikuntzen ibilbide egiaztatua dela eta.

Amaitzeko, eta erakunde horien funtzio eredugarriago batean sakonduz, gizarte-ekonomia bestelako garapen eredu baterako erreferentzia gisa ezartzen da, giza balioetara orientatzen du inguratzen duen komunitatea, pertsonen duintasunarekin, elkartasunarekin, lankidetzarekin, justizia sozialarekin, ekitatearekin, kontzientzia ekologikoarekin eta abarrekin lotutako balioak indartuz. Horregatik, praktika mikroekonomiko zehatzak izatearekin batera, gizarte-eredu alternatiboen haziak ere badira, harreman sozial bidezkoagoak, gizatiarragoak eta berdintasunezkoagoak erakusten dituzte, eta, beraz, engaimendu sozial handiagoa bultzatzen duten balioekiko trakzio- eta erakarpen-gaitasuna erakusten dute.

3. ilustrazioa. Euskal gizarte-ekonomiaren printzipio zentralak: dimentsioak



Iturria: bertan landua

1.6. GIZARTE-EKONOMIA BESTELAKO PARADIGMA EKONOMIKOEN AURREAN

Arestian aurreratu dugun moduan, gizarte-ekonomiaren goraldiak krisialdi ekonomikoekin bat etorri izan dira (BRETOS & MORANDEIRA, 2016). Garapen kapitalistaren eredua krisian sartzen denean, etekinak maximizatzeko kapital-enpresaren eredua ere zalantzan jartzen hasten da, eta kapitalistak ez diren enpresa-ereduak proposatzen dituzten kontzeptu berriak sortzen dira, legitimitate sozial handiagoa bilatzen dutenak. Horietako bat gizarte-ekonomia izan da, edo ekonomia solidarioa (PÉREZ DE MENDIGUREN, ETXEZARRETA & GURIDI, 2009; PÉREZ DE MENDIGUREN & ETXEZARRETA, 2015). Baina ez dira bakarrak.

CHAVESEN ETA MONZONEN (2018) arabera, bi izan dira azken mende erdian gizarte-ekonomiaren kontzeptua suspertzen lagundu duten “olatu kontzeptualak”: lehenengoa, 70eko hamarkadako, industriaren eta ongizate-estatuaren krisi larriaren testuinguruan, non gizarte-ekonomiaren zentraltasuna zalantzan jartzen zuen kontzeptua irabazi-asmorik gabeko sektorearena edo *Nonprofit Organizations* izenekoena baitzen; eta bigarrena, XXI. mendean jada, eta, batez ere, 2008ko krisiaren ondoren, non kontzeptu berrien agerpena askotarikoagoa eta pluralagoa izan baita, gizarte-berrikuntzarekin, enpresen gizarte-erantzukizunarekin, laugarren sektorearekin, *B Corps* enpresekin, guztion onerako ekonomiarekin, ekonomia kolaboratiboarekin, ekonomia zirkularrarekin, gizarte-enpresarekin edo gizarte-ekintzaitzekin erlazionatutako proposamenekin, nagusietako batzuk aipatzearren.

Kontzeptu horiek kategorizatzeke CHAVESEK ETA MONZONEK (2018) egindako proposamenak kontzeptu horiek guztiak antolatzen eta gizarte-ekonomiaren kontzeptuari zenbateraino hurbiltzen zaizkion ulertzen laguntzen du. Haien iritziz, aipatutako kontzeptu guztiak hiru multzo handitan bil daitezke:

- Sistemaren eraldaketaren eta krisiaren esparru zentraleri lotutako nozioak.
- Ekonomien helburuak eta funtzionamendu-modua berriz bideratzeari lotutako nozioak, bai maila mikroekonomikoan, bai makroekonomikoan, ebaluazio- eta pizgarri-mekanismo berrieekin.
- Jardunbide ekonomikoa eta enpresa egiteko modua ulertzeko modu berriei lotutako nozioak.

Lehenengoen artean, gizarte-ekonomiaren kontzeptutik urrutien daudenak, enpresa-eredu jakin bati erreferentzia egin gabe, erronka sistemiko nagusiei (berrikuntza, iraultza digitala, ingurumena eta abar) erantzuten dieten proposamenak daude. Hor egongo lirateke berrikuntza

sozialaren, ekonomia kolaboratiboaren edo ekonomia zirkularren kontzeptuak, eta horiek, arerio izan gabe, gizarte-ekonomiaren osagarritzat har litezke; izan ere, jarduera-esparru berriak adierazten dituzte, eta horietan gizarte-ekonomiak garrantzi handiko eginkizuna bete lezake bere logikatik bertatik ekarpenak eginez.

Bigarren multzo batean, berriz ere antolakuntza ereduia alde batera utzita, jarduera ekonomikoa ebaluatzeko mekanismoak (gizarte-, etika- edo ingurumen-irizpideen arabera) eta sustapen-mekanismoak ezartzeko beharrari erreferentzia egiten dioten kontzeptuak agertzen dira. Multzo horretan enpresen gizarte-erantzukizunaren eta guztion onerako ekonomiaren kontzeptuak nabarmenduko lirатеke. Gizarte-ekonomiak nozio horiei dagokienez duen posizionamendua erreferentziala da, gizarte-ekonomiaren antolamendu-ereduak baitira, a priori, proposamen horietan planteatutako ebaluazio-helburuak lortzeko egiturarik eta bermerik onenak erakusten dituztenak.

MONZONEK (2016) ere ideia hori azpimarratzen du, baieztatzen baitu gizarte-ekonomiako enpresak izango lirатеkeela enpresen gizarte-erantzukizunaren printzipioaren aplikazioan adierazgarrienak, bai barne-dimentsioan, bai kanpo-dimentsioan. Barne-dimentsioari dagokionez, enplegu egonkorrarekin, funtzionamendu demokratikoarekin, banaketa-justiziarekin eta abarrekin lotutako alderdiak izango lirатеke gizarte-erantzukizunaren elementu nagusiak. Kanpo-dimentsioari dagokionez, atxikimendu askea, ingurunearekiko konpromisoa edo gizarte-ekintzako jarduerak izango lirатеke gizarte-konpromiso horren adierazle garbiak.

Lehen argudiatu dugun bezala, gizarte-konpromisoa gizarte-ekonomiako erakundeen berezko ezaugarria da, erakundeen antolaketareduarekin lotuta baitago, eta, beraz, enpresa-portaera (borondatezkoa) antolamendu-eredutik bereizten duten proposamenek baino berme handiagoak ematen ditu. Hala ere, Europako Batzordearen esparruan, enpresen gizarte-erantzukizunari buruzko Europar Batasunerako komunikazio eta planetan¹² ez dira bereziki aipatzen gizarte-ekonomiako enpresak.

Azkenik, eta Chavesen eta Monzonen (2018) kategorizazio-proposamenera itzuliz, gizarte-ekonomiatik hurbilago egongo lirатеkeen proposamenen hirugarren multzo bat izango genuke, erakunde-formei erreferentzia esplizitua egiten dietelako eta enpresak antolatzeko beste modu batzuk proposatzen dituztelako. Hemen gizarte-enpresaren eta ekonomia solidarioaren nozioak nabarmentzen dira.

¹² Europar Batasunaren Liburu Berdea (2001); Enpresen gizarte-erantzukizunari buruzko Europar Batasunaren 2011-2014 aldirako estrategia berriua (2011); eta abar.

Gizarte-enpresaren nozioa indartsu sartu da Europar Batasunean, Europako Batzordearen *gizarte-ekintzailetzaren aldeko ekimenaren* eskutik (*Social Business Initiative*). Gizarte-enpresatzat hartzen dira helburu nagusitzat gizarte-inpaktua sortzea dutenak beren jabeentzat edo bazkideentzat mozkinak sortzea baino lehenago. Definizio hain lauso horretatik abiatuta, gizarte-inpaktu hori zehaztera bideratutako garapenak egin dira gerora, inpaktu horren ondorengo neurketak eta ebaluazioak egiteko. Gauza bitxia da, alabaina, gizarte-inpaktu hori zehaztean ezarri diren aldagaiak gizarte-ekonomiaren printzipioekin hertsiki loturik dauden aldagaiak izatea; izan ere, zenbait alderdi agertzen dira, hala nola komunitateari mesede egiteko gizarte-helburua, edo erabakiak hartzeko prozesu nagusiki demokratikoak (kapitalaren jabetzari lotu gabeak), edo etekinen banaketa mugatua.

Gizarte-enpresaren kontzeptu horrek gizarte-ekonomiaren kontzeptuarekin lehian diharduela esan daiteke, eta, nolabait ere, Europar Batasunaren agendan bigarren maila batean uztea lortu duela. Hala ere, enpresen gizarte-erantzukizunarekin gertatzen zen bezala, gizarte-ekonomiako erakunde guztiak gizarte-enpresatzat har daitezke, egia esan; izan ere, haien gizarte-inpaktua begien bistakoa da eta argi eta garbi neur daiteke zenbaterainokoa den lurraldeen gainean. Beraz, neokontzeptu batez hitz egingo genuke. Neokontzeptu horrek orokortzeko eta onartzeko ahalmen handiagoa erakusten du Europa mailan, figura juridikoetatik bereizia eta generikoagoa baita, baina zehazterakoan gizarte-ekonomiakoak diren erakunde gisa definitutakoei egiten die erreferentzia nagusiki.

Eta, azkenik, hirugarren multzo horren barruan ekonomia solidarioaren proposamena egongo litzateke. Ekonomia solidarioa gizarte-ekonomiatik gertuen egoteaz gain, nolabaiteko iragazkortasuna izan du azken horretan; izan ere, nazioartean eta Euskal Autonomia Erkidegoan gero eta onarpen handiagoa ematen zaio ekonomia sozial eta solidarioaren nozioa erabiltzeari, bi esparru horiek batera eraikitzeko espazioa den aldetik.

Ekonomia solidarioa gizarte-ekonomiako hainbat esperientzian degenerazio-prozesuak bizi izan dituzten zenbait elementu biziberritzeko proposamen gisa aurkezten da. Nolabait ere, gizarte-ekonomia berriz politizatzeke eta hastapeneko printzipioetara “itzultzeko” modu bat dela uler daiteke. Izan ere, haren bultzatzaileek irizten diote, gizarte-ekonomiako hainbat esperientzia nazioartean heltzeko prozesuan, bilakaera hori kapital-enpresekin homologatzera bideratu dela, bere ezaugarri bereizgarrien kaltetan. Horien artean, bereziki azpimarratzen da parte hartzeko jardunbideak, demokratikoak eta banaketa-justiziari dagozkionak biziberritzeko premia. Beste maila batean, gizarte-ekonomiaren komunitatearekiko eta lurraldearekiko beharrezko birposizionamendua planteatzen da; izan ere, enpresa-errealitate demokratikoagoak eta ekitatezkoagoak izateaz gain, gizarte-ekonomiak trakzio-

-eginkizun handiagoa bete beharko luke gizarte-erlaldaketako prozesuetan, eta eredu kapitalistarekiko garapen-eredu alternatiboak proposatu, lankidetzaz, elkartasuna, parte-hartzea eta justizia soziala bezalako berezko balioekin bat etorriz.

Beraz, eta azken atal honekin amaitzeko, esan liteke gizarte-ekonomiaren kontzeptua hainbat mailatan (sektoriala, instituzionala edo akademikoa) oso finkatuta egon arren, etengabe dagoela beste interes batzuei erantzuten dieten, eta, kasurik txarrean, gizarte-ekonomiak lortu nahi dituen gizarte-helburuak benetan lortzea ahultzen duten neokontzeptuek desplazatzeko edo asimilatzearen arriskuan.

1.7. ONDORIOAK

Azkenik, orain arte garatu diren ideia nagusiak laburbilduko ditugu ondorioen atal honetan:

— **Gizarte-ekonomiaren kontzeptua finkatutako kontzeptua da, baina etengabeko tentsioan dago “neokontzeptu” berrien lehiaren ondorioz**

Kontzeptu berri samarra izan arren, gizarte-ekonomia bete-betean onartuta eta finkatuta dago maila sektorial, instituzional eta akademikoa. Hala ere, eredu kapitalistaren krisi-uneetan nagusitzen den aldi berean, etengabeko lehiaren ikusten da beste kontzeptu batzuekin, jarduera, funtzionamendu-modu edo enpresa-eredu sozialagoi erreferentzia eginez gizarte-ekonomiarekin lehiatzen direnak politika publikoen agenda baldintzatzeko.

— **Euskal gizarte-ekonomiak, nazioartean, inpaktu ekonomiko adierazgarria izatea du bereizgarri**

Euskal gizarte-ekonomiako erakundeak jarduera ekonomiko nabarmena duten enpresak dira nagusiki. Hori nazioarteko ikuspegitik argi eta garbi bereizten duen elementua da; izan ere, herrialde askotan sektore hori arlo sozialari edo asistentzialari lotu ohi zaio, kolektibo behartsuenei zerbitzuak ematen dizkiela ulertuta. Aitzitik, euskal gizarte-ekonomia nagusiki enpresak dira, eta finantza-ahalmena eta gure ingurunean parekorik ez duen nazioartekotze-maila erakusten dute, horietako asko izaera industrialeko jarduerak baitira.

— **Enpresak izateaz gain, gizarte-ekarpen zehatza eta diferentziala egiten duten erakundeak dira**

Beste eredu batzuek gizarte-helburuak lortzea eta enpresen jabetza-eta erabaki-ereduak bereizten dituzte. Gizarte-ekonomiak, aitzitik, berezko

edukia ematen dio gizarte-konpromiso horri, eta egiturazko mekanismoak proposatzen ditu gizarte-helburu horiek lortzeko. Hala, erakunde autogestionatu eta demokratikoen bitartez pertsoneri zentraltasuna itzultzen dieten egituretan islatzen da alderdi soziala. Eta gizarte-helburu horiek maila guztietan lortzen dira, alderdi indibidualetik, kolektibotik eta komunitariorik edo lurraldekotik.

— **Kontzeptua finkatzeko prozesuan, gaur egun sektorea zehazki zedarrituta eta mugatuta dago figura juridikoen arabera**

Gizarte-ekonomiako esperientzia guztiek ezaugarri sozial eta ekonomiko horiek partekatzen badituzte ere, egia da, halaber, esparru horrek barne-aniztasun handia duela, baita erakundeen eta antolaketaren logikaren pluraltasun handia ere. Aniztasun horretatik haratago, eta sektore gisa antolatzeko eta beste eredu batzuetatik bereizteko premia larriari erantzuteko, gizarte-ekonomiak sektorea figura juridikoetan oinarrituta mugatzea erabaki du. Irizpide hori bateragarria da kontu nazionalen sistemarekin, eta babes akademiko eta instituzional handia du.

— **Figura juridikoetatik haratago, printzipio komunak ezartzean neurri handian partekatzen diren elementuak identifikatzen dira**

Gaur egun, beraz, gizarte-ekonomia irizpide juridikoetan oinarrituta definitzen da. Irizpide horiek, gainera, gizarte-ekonomiakoak diren erakunde guztiek partekatzen dituzten jokabide-printzipioak aintzat hartzen dituzte (Gizarte Ekonomiari buruzko Legearen 4. artikuluko orientazio-printzipioak). Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, partekatutako printzipio horien identifikazioa lau ideia nagusitan oinarrituta antolatu da, eta ideia horiek gizarte-ekonomiaren ikur identitarioa osatzen dute: pertsonen zentraltasuna, enpresa-dimentsioa duten eta hartzen dituen komunitatearekin konprometituta dauden erakunde demokratikoen bitartez. Zoru komun partekatua ezartzen duten elementu horien gainean, sektore askotarikoa artikulatzen jarraitzeko erronkak, oraindik eraikuntza kolektiboko fasean dagoenak, indarrean jarraitzen du Euskal Autonomia Erkidegoan.

1.8. ERREFERENTZIAK ETA ITURRIAK

ASKUNZE ELIZAGA, C. (2013). Más allá del capitalismo: alternativas desde la Economía Solidaria. *Documentación social*, (168) 91-116. Hemendik berreskuratua: <https://www.economiasolidaria.org/biblioteca/mas-alla-del-capitalismo-alternativas-desde-la-economia-solidaria>

AZKARRAGA, J. (2007). Mondragon ante la globalización: la cultura cooperativa vasca ante el cambio de época. *Cuadernos de LANKI*, (2), Eskoriatza: Mondragon Unibertsitatea.

- BENGOETXEA ALKORTA, A. (2014). Economía Social e inserción laboral de las personas con discapacidad. *Revista Vasca de Administración Pública / Herri-Arduralaritzako Euskal Aldizkaria*, (99-100) 529-547. Hemendik berreskuratua: <https://www.euskadi.net/r61-s20001x/es/t59aWar/t59aMostrarFicheroServlet?t59aIdRevista=2&R01HNoPortal=true&t59aTipoEjemplar=R&t59aSeccion=38&t59aContenido=22&t59aCorrelativo=1&t59aVersion=1&t59aNumEjemplar=99>
- BRETOS FERNÁNDEZ, I. & MORANDEIRA ARCA, J. (2016). La economía social ante la actual crisis económica en la Comunidad Autónoma del País Vasco, *Revista de Estudios Cooperativos*, (122) 7-33. https://doi.org/10.5209/rev_REVE.2016.v122.52020
- CHAVES ÁVILA, R. & MONZÓN CAMPOS, J. L. (2018). La economía social ante los paradigmas económicos emergentes: innovación social, economía colaborativa, economía circular, responsabilidad social empresarial, economía del bien común, empresa social y economía solidaria. *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, (93) 5-50. <https://doi.org/10.7203/CIRIEC-E.93.12901>
- ETXEZARRETA ETXARRI, E. & MORANDEIRA ARCA, J. (2012). Consideraciones conceptuales sobre la Economía Social a la luz de la Ley 5/2011, *Revista Vasca de Economía Social / Gizarte Ekonomiaren Euskal Aldizkaria*, (8) 7-36. Hemendik berreskuratua: <https://www.ehu.es/ojs/index.php/gezki/article/view/12711>
- ETXEZARRETA ETXARRI, E. & PÉREZ DE MENDIGUREN, J. C. (2018). *Ekonomia soziala: ikerketa-objektua eta analisisirako lanabesak*, Hegoak Zabalduz (7), Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua (UPV-EHU), Bilbao. Hemendik berreskuratua: <http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/392>
- MONZÓN CAMPOS, J. L. (2016). La economía social en la literatura económica y en los hechos. 30 años del CIRIEC-España. *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, (88) 287-307. Hemendik berreskuratua: http://ciriec.es/wp-content/uploads/2016/11/Conferencia_JLMonzon_30aniv_CIRIEC1.pdf
- MORATALLA SANTAMARÍA, P. (2016). Centros Especiales de Empleo. *CIRIEC-España, Revista Jurídica de Economía Social y Cooperativa*, (29) 235-272. Hemendik berreskuratua: <http://ciriec-revistajuridica.es/wp-content/uploads/029-010.pdf>
- ORTEGA, I. & URIARTE, L. (2015). Arrasateko kooperatibagintzaren dilemak eta erronkak. Fagor Etxetresnak kooperatibaren krisiaren ondotik, *Lanki Kuadernoak*, (11), Eskoriatza: Mondragon Unibertsitatea.
- PÉREZ DE MENDIGUREN, J. C., ETXEZARRETA, E. & GURIDI, L. (2009). Ekonomia Soziala, Enpresa Soziala eta Ekonomia Solidarioa: kontzeptu ezberdinak eta eztabaida berbera. *Ekonomia Solidarioaren Paperak*, (1) 1-41. Hemendik berreskuratua: <https://www.economiasolidaria.org/biblioteca/ekonomia-solidarioaren-paperak-1-zka>
- PÉREZ DE MENDIGUREN, J. C. & ETXEZARRETA ETXARRI, E. (2015). Otros modelos de empresa en la economía solidaria: entre la retórica y la práctica. *Lan Harremanak: Revista de Relaciones Laborales*, (33) 227-252. Hemendik berreskuratua: https://www.ehu.es/ojs/index.php/Lan_Harremanak/article/view/16110
- RUIZ ROQUEÑI, M., RETOLAZA AVALOS, J. L. & MUGARRA ELORRIAGA, A. (2007) Cláusulas sociales y mercados tutelados: herramientas para la competitividad de las empresas de inserción, en *CIRIEC-España. Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, (59) 123-151. Hemendik berreskuratua: <https://core.ac.uk/download/pdf/7071341.pdf>

SARASUA, J. & UDAONDO, A. (2004). Autogestión y globalidad: Situar la autogestión económica en el mundo actual. *Cuadernos de Lanki* (1), Eskoriatza: Mondragon Unibertsitatea.

URIARTE, L., PAGALDAY, E. & ZUFIAURRE, M. (2012). Economía Solidaria: concepto y potencial transformador, *Lanki Kuadernoak* (7), Eskoriatza: Mondragon Unibertsitatea.

Kooperatibak Euskal autonomia erkidegoan: kontakizuna

Leire Uriarte Zabala
Saioa Arando Lasagabaster
Ainara Udaondo Alberdi
Mónica Gago Garcia
Mondragon Unibertsitatea (MU)

2.1. SARRERA

Kooperatibek osatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean, EAE) gizarte-ekonomiaren barruan pisu handiena duen familia. Eusko Jaurlaritzaren estatistika-iturrien arabera (2018. urteko datuak), kooperatibek EAEko gizarte-ekonomiako guztizko enpleguaren % 88,1 hartzen dute, eta 53.390 pertsonari ematen diete lana. Euskal kooperatibek 7.756 milioi euro fakturatu zituzten 2018an, % 6 inguruko BPGrako ekarpena egin zuten, eta EAEko enplegu guztiaren % 5,7 hartu zuten (industriako enpleguaren ia % 11). Beraz, mugimendu kooperatiboa oso esanguratsua da kuantitatiboki.

Baina, gainera, euskal sektore kooperatiboak baditu bere ezaugarriak, Estatuko nahiz nazioarteko beste errealitate kooperatiboetatik bereizten dutenak. Aniztasun kooperatiboa, lan elkartuko kooperatiben dentsitatea, enpresa-izaera, industriak sektore kooperatiboan duen pisu espezifikoak, edo elkarrekiko lankidetzaren garapena dira euskal kooperatiben bereizgarri diren elementu diferentzialetako batzuk.

Lerro hauetan zehar, euskal mugimendu kooperatiboaren ezaugarrietan jarriko dugu arreta, eta, ahal den neurrian, bereiztasun horri eusten dioten ebidentzia kuantitatiboak emango ditugu. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak argitaratutako Gizarte Ekonomiaren Estatistikak eskainitako datuetan oinarrituko gara funtsean. Datu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Konfederazioak emandako datuekin osatuko dira, eta, euskal ekonomiari oro har dagozkion zifretarako, Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTAT) emandakoekin. Halaber, estatu mailako konparazioak egiteko, Gizarte Ekonomiako

Espainiako Enpresen Konfederazioak (CEPES) eskaintako datuak erabiliko dira. Iturrien aniztasun horrek nolabaiteko desadostasuna eragin badezake ere, gure ustez interesgarria da joera orokorretarantz hurbiltzeko.

Dokumentuak hiru zati ditu: lehenik, mugimendu kooperatiboaren artikulazioari eta mugimendu horren oinarri den esparru juridikoari buruzko informazioa emango dugu labur-labur. Ondoren, euskal mugimendu kooperatiboak bereizgarri dituen ideei nagusien berri emango dugu, eta ideia horiekin erlazionatutako datuak emango ditugu. Hirugarrenik, berariaz aipatuko ditugu nekazaritzako elikagaien, etxebizitzaren, irakaskuntzaren eta garraiolarien kooperatibak. Azkenik, erronka eta ondorio garrantzitsuenak aipatuko ditugu.


Lan hau Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatearen eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen artean gauzatu da, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzarekin eta euskal mugimendu kooperatiboaren ordezkartza-eragileekin lankidetzan estuan.

2.2. KOOPERATIBEN ARTIKULAZIOA ETA LEGERIA

Euskal mugimendu kooperatiboaren artikulazioa

Euskal mugimendu kooperatiboaren garapena ezin da ulertu haren artikulazioa ulertzen ez bada. Hainbat hamarkadatan zehar, euskal mugimendu kooperatiboa antolatzea ahalbidetu duten zenbait erakunde sortu dira.

4. ilustrazioa. Euskal mugimendu kooperatiboaren artikulazioan izandako mugarri nagusiak



Iturria: bertan landua.

Kooperatibei buruzko 1982ko Legearen emaitza gisa, 1983. urtean eratu zen **Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua (EKGG)**. Egitura berezi hori EAerako espezifikoa da, “kooperatibismoa sustatzeko eta haren berri zabaltzeko organo goren gisa sortua, euskal administrazio publiko guztientzako kontsulta- eta aholku-entitate publiko gisa eraten

da kooperatibismoaren inguruko gai guztietan. Nortasun juridiko propioa izango du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarenaz bestelakoa; era berean, ahalmen osoa izango du bere funtzioak betetzeko”. EKGKri esker komunikazio zuzena eta arina ezarri da administrazioaren eta mugimendu kooperatiboaren artean. Sustapenaren eta zabalkundearen esparruan egindako lan handiaz gain, BITARTU, Kooperatiben Arbitrajeko Euskal zerbitzua nabarmendu behar da, euskal kooperatibetan gatazkak auzibidetik kanpo ebazteko zerbitzua.

Gaur egun, EKGK 13 kidek osatzen dute. Kide horietako 7 kooperatiben federazioetakoak dira, beste 3 kide Eusko Jaurlaritzakoak eta beste hirurak hiru euskal unibertsitateen ordezkari bana dira, hots, Euskal Herriko Unibertsitatearena (UPV/EHU), Deustuko Unibertsitatearena eta Mondragon Unibertsitatearena.

Hurrengo urteetan, jarduera-sektoreetan zeuden kooperatibak federazio sektorialetan egituratu ziren, beren interesak ordezkatu eta defendatzeko. 1988an Euskadiko Kontsumo Kooperatiben Federazioa sortu zen; eta 1989an Euskadiko Nekazaritza Kooperatiben Federazioa, Euskadiko Kreditu Kooperatiben Federazioa eta Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioa. Hurrengo urtean, 1990ean, Euskadiko Irakaskuntzako Kooperatiben Federazioa eratu zen, eta, azkenik, 1992. urtean, Euskadiko Garraiolarien Kooperatiben Federazioa.


1996an, Kooperatibei buruzko 1993ko Lege berrikusiaren emaitza gisa, euskal mugimendu kooperatiboa ordezkatzeko eta garatzeko erakunde bateratua sortu zen, arestian aipatutako kooperatiben sei federazioak integratu zituen: Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa (Konfekoop). Konfekoopen sorrerak euskal mugimendu kooperatiboa indartzeko beharrari erantzuten zion, garrantzi ekonomiko eta soziala baitzuen, baita sinergiak aprobetxatzeko eta mugimendu hori osatzen zuten federazioen artean zerbitzuak bateratzeko interesari ere.

Gero, 2006. urtean, Lan Elkartuko, Irakaskuntzako, Kontsumoko eta Kredituko federazioek bat egiteko prozesua hasi zen, Erkideren babespean (Euskadiko Lan Elkartu, Irakaskuntza eta Kreditu Kooperatiben Federazioa). Bat-egite horren ondorioz, hiru federaziok osatu zuten Konfekoop: Euskadiko Nekazaritzako Elikagaien Kooperatiben Federazioak, Euskadiko Garraiolarien Kooperatiben Federazioak eta Erkidek berak. Bateratzeko prozesu horretako azken mugarria 2019an Erkidek eta Euskadiko Nekazaritza Kooperatiben Federazioak bat egitea da. Bat-egite horren ondorioz sortu zen garraiolariena ez beste guztiak integrazten dituen Konfekoop berria.

Gaur egun, 1.233 kooperatiba federatuak ia jarduera-sektore guztietan daude, honako grafiko honetan ikus daitekeen moduan:

5. ilustrazioa. EAEko sektorekako banaketa kooperatiba kopuruaren arabera. (2018)

Distribución sectorial por número de cooperativas




Iturria: Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa

Zerbitzu-sektorean dago enpresa kopuruaren ehunekorik handiena. Enplegatu kopurua kontuan hartuta, alabaina, industria-sektorearen pisua nabarmentzen da, enplegu kooperatibo osoaren % 52 hartzen du-eta.

6. ilustrazioa. EAEko sektorekako banaketa enplegu kooperatiboaren arabera (2018)

Distribución sectorial por empleo



Iturria: Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa

Konfekoopek, bere ibilbidean zehar, hainbat ekimen sortu eta garatu ditu mugimendu kooperatiboa hobeto artikulatzeko. Gaur egun hiru ekimen daude, erakunde horrek elkarrekiko lankidetzarako erakunde izendatzen dituenak:

- **ELKARGI SGR:** Euskal Autonomia Erkidegoko elkar bermatzeko sozietatea da. Gizarte-ekonomiako enpresetan espezializatutako atal bat dauka, *Oinarri* deritzona. Sozietatearen jarduerak bi jarduketara arlo ditu ardatz: lehena enpresei finantzaketa egokia ematean datza; eta, bigarrena, haien finantza-kudeaketa hobetzean. Enpresek behar izan ditzaketen finantza-abalak zein abal teknikoak ematen ditu. Abal horiei esker kooperatibek, are txikienez ere, merkatuan dauden baldintzarik onenetan finantza ditzakete beren inbertsioak.
- **ELKARLAN S.COOP.:** bigarren mailako kooperatiba bat da, azken xede eta helburutzat enpresa kooperatiboak sustatzea duena, eta, ondorioz, enplegu kooperatiboa eta garapen ekonomiko eta soziala sortzea. Eskaintzen dituen zerbitzuak konfigurazio kooperatiboa duten enpresa-proiektuen orientaziora eta aholkularitzara zuzenduta daude (adibidez, proiektuen bideragarritasunaren analisia, prestakuntza kooperatiboa, kooperatibak abian jartzeko aholkularitza, laguntzei eta dirulaguntzei buruzko informazioa, kooperatibak eratzea...).
- **SENIOR AHOLKULARIEN ELKARTEA:** EKGGren ekimenez, kooperatibista erretiratuek osatutako talde bat sortu zen, gizarte-eta enpresa-garapen kooperatiboan borondatez eta modu altruistan sustatzeko eta laguntzeko. 2018an formalki eratu zen *Asekoop* - Euskadiko Senior Aholkulari Kooperatiboen Elkarte gisa, eta bereziki kooperatiba txikietan edo hasiberrietan ematen du zerbitzua. Laguntza horrek zuzendaritza-kontseiluei gertutik lagun egitea dakar, kooperatibetako erantzukizun-postuetan beren lan-bizitzan metatu duten esperientzian oinarrituta. Elkarte horren bidez, boluntario horien jakintza, esperientzia eta balioak bideratu nahi dira, belaunaldien arteko elkartasuna indartzeko.

Azkenik, nabarmentzekoa da Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua erakunde berezia eta bakarra dela munduan, nahiz eta Euskal Autonomia Erkidegoko mugimendu kooperatiboaren artikulazioak nolabaiteko paralelismoa erakusten duen Estatuko, Europako eta munduko artikulazio kooperatiboarekin, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala.

7. ilustrazioa. Mugimendu kooperatiboaren artikulazioa EAEn, Estatuan, Europan eta nazioartean


ENTIDAD VASCA	ENTIDAD ESPAÑOLA	ENTIDAD EUROPEA	ENTIDAD MUNDIAL
KONFEKOOP	CEPES	COOPERATIVES EUROPE / SOCIAL ECONOMY EUROPE (SEE)	ALIANZA COOPERATIVA INTERNACIONAL (ACI)
ASOCIACIÓN TRABAJO ASOCIADO	COCETA	CECOP	CICOPA
ASOCIACIÓN ENSEÑANZA	UECoE		
ASOCIACIÓN CONSUMO	HispaCoop	EuroCoop	CCVV
ASOCIACIÓN CRÉDITO	UNaCC	EACB	ICBA
FCAE	CCAe	COGEGA	ICAO
FCTE	UCoTrans		

Iturria: bertan landua

Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatibei buruzko legeriaren bilakaera

EAE aitzindaria izan da Estatuan legegintzako esparru kooperatiboa garatzen. Horren erakusgarri da Espainiako Estatuan onartu zen kooperatiben lehen legea Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatibei buruzko 1982ko Legea izan zela. **Otsailaren 11ko 1/1982 Legea** izan zen Euskal Autonomia Erkidegoak garai hartan estreinatu berri zuen legegintza-eskumenaren lehen emaitzetako bat, eta euskal mugimendu kooperatiboak une hartan urgentziaz planteatzen zituen beharrei erantzun zien. Garai hartako kooperatiben erronkei erantzungo zien legeria izan nahi zuen, Nazioarteko Kooperatiba Aliantzak aldarrikatutako printzipio kooperatiboekin eta euskal mugimendu kooperatiboa sustatu eta defendatzearekin guztiz bat etorritz. Hori guztia, kooperatiben autonomia bultzatzen zuen eta bizitza kooperatiboaren gero eta konplexutasun handiagoak, ziurrenik, eskatuko zituen formulak —esperimentalak barne— garatzeari atek ez ixten saiatzen zen erregulazioa sortuz.

8. ilustrazioa. EAeko kooperatibei buruzko legerian izandako mugarri garrantzitsuak



Iturria: bertan landua

4/1993 Legea

Hurrengo hamarkadan izandako aldaketa ekonomikoek, sozialek eta legegintzakoek 1982an onartutako legeria berraztertzea aholkatzen zuten.

Horren emaitza izan zen 1993ko ekainaren 24an onartu zen **Euskadiko Kooperatiben 4/1993 Legea**, 2019ra arte indarrean egon dena. Lege horren asmoa zen garai hartako euskal kooperatibismoari buruzko esparru juridikoaren gabeziei erantzutea; eta, aldi berean, arautze berria Europako Ekonomia Erkidegoaren zuzentara hurbiltzea, eta, gainera, azken bosturtekoetan garatu ziren aurrerapenak eta tresna juridikoak sartzea, bai barne-zuzenbidean, bai zuzenbide konparatuan. Laburbilduz, lege horrek lehendik zeuden oztopoak ezabatu nahi zituen, Europako testuinguru berrian kooperatibak behar bezala gara zitezten, azken helburua kooperatiba horiek merkatuan kokatzea baitzen, lehiatu behar zuten gainerako enpresen aukera berberekin. Aitortu behar da, gainera, erreferente garbia izan zela Estatuaren esparruko geroagoko kooperatibei buruzko beste legeria batzuetarako.

Euskadiko Kooperatiben 4/1993 Legea aurrerapauso erabakigarria izan zen kooperatibismo modernorako eta aurrerapen ekonomiko eta sozialerako bidean. Kooperatibismoaren printzipioak enpresa-jarduera eraginkorrenekin uztartu zituen.

4/1993 Legearen aldaketa: 1/2000 Legea

Legea hainbat urtetan aplikatu ondoren, enpresa-erakunde kooperatiboek aurre egin beharreko erronka berrietara egokitzeko beharra ikusi zen. Horiek horrela, 2000. urtean onartu zen 4/1993 Legearen **lehen aldaketa** partziala, eta **ekainaren 29ko 1/2000 Legean** hezurmamituta geratu zen.

Euskadiko Kooperatiben Legea inspiratzen zuten balioak eta printzipioak Nazioarteko Kooperatiba Aliantzak Manchesterreko 1995eko Batzar Nagusian onartu zuen Identitate Korporatiboari buruzko Deklarazioan definitu eta bildutakoak ziren.

Euskal kooperatibismo indartsuak eta ekonomian zuen eragin handiak eskatzen zuten botere publiko eskudunek legean jasotako printzipioak gara zitzaten, kooperatibek enpresa eta sozietate bereizi gisa aurrera egiteko aukera izan zezaten. Nazio Batuak, Nazioarteko Kooperatiba Aliantza edo Lanaren Nazioarteko Erakundea bezalako nazioarteko erakundeen gomendioek nabarmendu zuten botere publikoek egoitza arauemailean jarduketa egokia egitearen garrantzia, mugimendu kooperatiboaren garapena errazteko, segurtasun juridikoa emanaz.

Aurreko gaiei erantzun egokia emateko, erregelamendu bidezko garapena atzeraezina zen, 4/1993 Legearen azken xedapenetatik bosgarrenean lege-babesa aurkitu baitzuen hura egiteko eta aldarrikatzeko, baita 1/2000 Legearen manu berezietan ere, esplizituki aurreikusten eta eskatzen baitzuten haren garapena.

Nahitaez aipatu behar zen kooperatiben arloan Autonomia Estatutuaren 10.23 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoari ematen zion eskumen eksklusiboaren irismena. Esparru horretan onartu zen 58/2005 Dekretua, martxoaren 29koa, Euskadiko Kooperatiben Legearen Erregelamendua onartzen duena. Dekretu horren bidez, arau horien aplikazio konkretua erraztu nahi zitzaion araudi hori interpretatu edo jaso behar zuenari, kasu batzuetan aplikatu beharreko legezko arauetan barreiatu baitzeuden, eta horrela, arauari izaera pedagogikoa ematen zitzaion.

4/1993 Legearen aldaketa: 8/2006 Legea

Euskadiko Kooperatiben Legearen Erregelamendua indarrean jarri ondoren, 2006. urtean zehazki, 4/1993 Legearen bigarren aldaketa onartu zen, eta abenduaren 1eko 8/2006 Legean argitaratuta geratu zen. Indarrean zegoen legeria nazioarteko kontabilitate-arau berrietara harmonizatzeko premiari erantzuten zion aldaketa horrek. Izan ere, nazioarteko kontabilitate-araudiak eragotzi egiten zuen kooperatiben kapital sozialari egindako ekarpenak, nahitaezkoak zein borondatezkoak, baliabide propioetat hartzea, bazkideek horiek itzultzeko baldintzarik gabeko eskubidea dute-eta.

Ildo horretan, beraz, nazioarteko kontabilitate-araudiak zuzenean egiten zuen talka orduko Euskadiko Kooperatiben Legearen 63. artikulua konfigurazioarekin, artikulua horrek arautzen baitzuen bazkideek beren ekarpena itzultzeko eskubide eztaba daezina. Horrek, artikulua idazkera bere horretan mantenduz gero, eragin larriak izango lituzke kooperatibek hirugarrenen aurrean duten kaudimen-irudian, eta, era berean, ondorioak kooperatiben ekonomia-jardueraren garapenerako.

Hortaz, beharrezkoa izan zen bazkideen berreskurapen-eskubidea kontabilitate-irizpide berriekin harmonizatzea. Horrela, euskal kooperatibetan, bazkideek kapital sozialari egindako nahitaezko eta borondatezko ekarpenak egiazki baliabide propio gisa kontabilizatu ahal izango ziren, balio eta printzipio kooperatiboetara eragin gabe eta Euskadiko Kooperatiben Legearen espirituari erasan gabe.

Lege-aldaketa honi esker, besteak beste, kooperatiba bakoitzak erabaki zezakeen, nahi izanez gero, sozietate-estatutuetan aurreikustea kapital sozialari egindako ekarpen ez-galdagarri baina kooperatibaren erabakiz berreskuragarri ziren ekarpenak egoteko aukera. Horrek aukera emango luke bazkideen ekarpenak baliabide propio gisa kontabilizatzeko.

6/2008 Legea, Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikiei buruzkoa

Euskal kooperatibei buruzko legeriaren beste mugarri bat 2008an Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikiei buruzko Legea onartzea izan zen. **6/2008 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikiei buruzkoa**, aitzindaria izan zen Estatuan, eta lan elkartuko eta ustiapen komunitarioko kooperatibak sortzeko aukera ireki zuen, gutxienez 2 bazkiderekin eta gehienez 10ekin. Europako erakundeak enpresa-ekimen berriak abian jartzeko beharrezko baldintzak sinplifikatzea ahalbidetzera bideratutako hainbat ekimen onartzearen inguruan erakusten ari ziren sentsibilizazio progresiboari erantzuten zion lege horrek. Mugimendu kooperatiboak, errealitate horretatik kanpo bizi ezin zela eta kooperatiba txikien ekintzailtza ahalbidetu behar zuen dinamikari bidea eman behar ziola jabeturik, bere arautzea aldatzeko erabakia hartu zuen, lehenago merkataritza-esparru orokorrean egin zen bezala. Kooperatiba-sozietate txikiak modu bereizgarrian ekintzaile izateko premia horri erantzuten dio, eta kalitatezko enplegua sortzen du autogestio-formulak erabilita.

11/2019 Legea

Legearen azken aldaketa 2019an izan da, honako lege honen onarpenaren bitartez: **11/2019 Legea, abenduaren 20koa, Euskadiko Kooperatibena**.

Euskal kooperatibismoari lotutako erakundeek oso neurri handian eskatu duten erreforma da, eta haien erabateko adostasunarekin onartu da. Lege horrek oreka bilatu nahi du malgutasun operatiboaren eta identitate kooperatiboaren artean, kooperatibek merkatu globalean jardun ahal izan dezaten eta tresnak izan ditzaten beste erakunde batzuekin baldintza operatibo berberetan lehiatu ahal izateko.

Are gehiago, lege horren asmoa da, alde batetik, aurreko lege-xedapena —4/1993 Legea— indarrean jarri zenetik bertan sartu ziren aldaketa guztiak eta gainerako araudi osagarria testu bakar batean bategitea; elementu jakin batzuen zaharkitzei konponbidea ematea; proiektu kooperatibo bakoitzera egokitutako arautze-autonomia indartzea; eta, azkenik, arau kooperatiboaren interpretazioan eta aplikazioan segurtasun juridikoaren maila txertatzea.

Hala, araudi berri horrek, mundu lehiakor eta konplexu bati erantzuteko asmoz, honako hauek aintzat hartzen ditu besteak beste:

* *Kooperatibaren eta bazkideen erantzukizuna* argitzen du, kooperatiben bazkideen erantzukizun-araubidearen zehaztasun handiagoa eskainita. Hala, legeak aurreikusten duenez, kooperatibak erantzungo du sozietatearen

zorrez uneko eta geroko ondare guztiarekin, eta kooperatibako bazkideen erantzukizuna kapital sozialari egindako ekarpenek mugatuko dute.

* *Gobernantzaren* esparruan, gardentasun handiagoa ekartzen du bai kooperatibentzat bai bazkideentzat berentzat. Legearen asmoa da kooperatiben funtzionamendu demokratikoa eta parte hartzeari bide ematen dion funtzionamendua bermatzea, eta, aldi berean, kudeaketa eta kontrolen eraginkortasuna bermatzea. Ildo horretan, aldaketak batez ere administrazio-organoan zentratzen ditu, hots, zuzendaritza-kontseiluan.

Hala, administratzaileen eginbeharrei dagokienez, legeak aurreko araudian baino modu zabalagoan eta ez hain generikoan garatzen ditu diligenza- eta leialtasun-eginbeharrak. Era berean, berariaz arautzen da inongo jarduerarik ez garatzeko eginbeharra, ez bere kabuz ez besteren kontura, baldin eta horrek lehia egiten badio kooperatibari edo haren interesekiko gatazka sortzen badu. Eta, azkenik, arautzen denez, enpresa-diskrezionalitateari atxikitako erabaki estrategikoen eta negozio-erabakien arloan, ulertuko da enpresaburu onaren arretaren estandarra betetzen dela administratzaileak onustez jardun duenean, erabakiaren xede den gaian interes pertsonalik izan gabe, behar adina informazioarekin eta erabakitzeko prozedura egokiaren arabera jardunez (49. artikulua).

Administratzaileen erantzukizunei dagokienez (50. artikulua), doloz edo erruz jardutearen erantzukizuna sartzten da, erantzukizuna izateko administratzaileengana ere zabaltzea arautzen da, eta, erantzukizunei begira, ez da kontuan hartzen kargua ordaindua den ala ez.

Halaber, nabarmendu behar da, administratzailearen karguaren ordainsariari dagokionez, oro har kargua doakoa izango dela ezartzen bada ere, araudi berriak aurreikusten duela kargu horiek ordainduak izan daitezkeela. Batzar nagusiak finkatuko du urtean zenbat ordainduko den. (45. artikulua).

Adierazi beharra dago, azkenik, areagotu egiten dela administrazio-organoaren profesionalizazioa. Izan ere, administratzaileen herenak ere bazkide ez izatea onartzen da, non eta estatutuetan berariaz debekatzen ez den. (43.2 artikulua).

* *Berregituratzeko eragiketeki* eta, zehazki, eraldaketari dagokionez: (a) kendu egin da Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak (EKGK) zuzendaritza-kontseiluaren txostena homologatzeko betekizuna, eta, betekizun horren ordez, zuzendaritza-kontseiluaren txostena batzarrak erabakia hartu aurretik EKGKri jakinarazteko betebeharra ezarri da lege berrian; (b) kendu egin da zaintza-batzordeak horretan esku hartzeko betekizuna; eta (c) berrikusi egin da eraldaketaren ondoriozko erakundeko partaidetza-kontu gisa EKGKri egiaztatu behar zaion ondarearen izaera

eta zenbatekoa. Hala, aplikatzekoa den legeriak aditu independentearen txostena eskatzen badu eta eraldaketaren ondoriozko erakundearen balantzean minusbalorazioen bat erregistratu behar bada, legeak adierazten du minusbalorazio hori EKGKren eskueran jarritako funtsen balioari aplikatuko zaiola.

Bestalde, berriaz arautzen da kooperatiba bat erakunde ez-kooperatibo baten alde osorik nahiz partzialki zatitzeko aukera; eta berriaz arautzen da, orobat, kooperatibaren ondarearen zati bat edo batzuk banantzeko aukera, azkendu gabe, banandutakoa kooperatiba edo erakunde ez-kooperatibo sortu berri bati edo batzuei edo lehendik daudenei blokean eskualdatuz.

Legeak adierazten du, gainera, honako kasu hauetan EKGKren esku jarriko direla borondatezko erreserba-funts banaezinak: (a) beste mota bateko erakunde batek kooperatiba bat xurgatzearen ondoriozko bat-egitea; (b) eraldaketa; (c) ondarearen zati bat edo batzuk erakunde ez-kooperatibo batera edo batzuetara bereiztea; edo (d) kooperatiba bat guztiz edo zati batean zatitzea erakunde ez-kooperatibo baten alde.

* *Kooperatiba motei* dagokienez, junior kooperatiba deritzenetan, etxebizitza-kooperatibetan eta garraio-kooperatibetan egin dira berrikuntza gehienak.

Hala, segurtasun juridikoaren ondorioz, beharrezkotzat jo da legean bertan bi kooperatiba mota berri arautzea: a) “junior kooperatibak”, gehienbat hezkuntzaren mundukoak, eta, b) garraio-kooperatibak. Azken horien barruan bi azpimota identifikatu dira: lan elkartukoak eta garraiolarienezko zerbitzuak.

Extebizitza-kooperatibei dagokienez, aurreko funtsezko egiturari jarraikiz birkonfiguratu dira.

Aipatu beharra dago, gainera, lan elkartuko kooperatibetan ehuneko bost puntu handitu dela kooperatibetan emandako lan ez-kooperatiboaren muga —proportzioa % 25etik % 30era igo da—, egiaztatutako premia praktikoei erantzuteko.

* Kooperatibaren kudeaketa bera errazten da *teknologiaren erabileraren* bitartez. Hala, besteak beste, legeak bitarteko elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiltzea aurreikusten du, batzarrak deitzea eta egitea bezalako prozesuak errazteko.

* Ikuspuntu sozietariorik, lege berriak *genero-berdintasunaren* aldeko neurriak eta hizkuntza inklusiboa erabiltzearen aldekoak sustatzen ditu. Gainera, organoetan bazkideen presentzia orekatua proposatzen du, berdintasun- eta kontziliazio-neurriak kontuan hartuta.

* *Administrazioarekiko harremana* modernizatzen du, eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatuta dauden eta jarduera egiaztatuta duten kooperatiben % 60 baino gehiago elkartzen duen entitatea jotzen du berariazko agente sozialtzat, euskal kooperatibismo osoaren bitartekari eta ordezkariatzat, edo, kooperatiba horietako bazkide kopurua erregistro horretan inskribatuta dauden eta jardunean ari diren kooperatibetako bazkide gutziarikiko % 60 baino handiagoa denean.

* *Arau-hausteen eta zehapenen* araubideari dagokionez, zehatzeko araubide kooperatiboaren sistematika eta oinarritzko egitura mantenduta, legeak doikuntza bat sartu du arau-hausteen (148. artikulua) eta dagozkien zehapenen (149. artikulua) taulan.

* Bestalde, Eusko Jaurlaritzan lan-eskumena duen sailaren esku uzten da *ikuskaritza-ahalmena* esleitzea (147.1 artikulua), eta, era berean, zehatzeko gaitasuna (149.6 artikulua), baina Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluari esleitzen dio printzipio kooperatiboak beteko direla zaintzeko eginkizuna.

* Aldaketa batzuk sartzen dira *asoziazionismo kooperatiboaren* inguruan.

Kooperatiben federazioei dagokienez, legeak egokitu egiten du elkartutako erakundeen gutxieneko muga, dagokion federazioak Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkari-tza-izaera izan dezan, eta % 40tik % 50era igotzen du muga hori.

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluari dagokionez, lege-egoitzan argitzen da haren urteko kontuak aplikatzekoa den finantza-informazioaren esparru arauemailearekin bat etorritik formulatzeko premia.

Era berean, haren eginkizunei dagokienez, arbitraje- edo jurisdikzio-bidearen aurreko barne-inpugnazio kooperatiboaren bidea agortzeko betebeharra gehitzen da legean arbitraje-eginkizunari dagokionez. Halaber, urteko kontuen auditoretza aplikatzekoa den finantza-informazioaren esparru arauemailearekin bat etorritik egiteko betebeharra aurreikusten da.

* Kooperatibei *erabakiak hartzeko* malgutasun eta arintasun handiagoa ematen zaie, besteren konturako kontratazio handiagoak egiteko aukera emanaz. Aukera ematen zaie, halaber, krisi ekonomikorik izanez gero erabakiak azkoz ere bizkorrago eta arinago hartzeko, betiere zuzendaritza-kontseiluak aurreikusten badu.

Azken batean, lege horren bitartez aukera ematen zaio kooperatibari bere jardura ekonomikoa ahalbidetu dezaketen erabaki jakin batzuk hartzeko. Eta kooperatiba izango da, barnean, bere erabaki-organoei hantarketa serioa egin beharko duena malgutzeko-neurri horiek zein neurritaraino gauzatzen dituen erabakitzeko.

Kooperatiben fiskalitatea

Botere publikoei kooperatibak sustatzeko eta bereziki babesteko agintzen dien Konstituzioaren 129.2 artikulua babesean, kooperatibek araubide berezia dute, betetzen duten gizarte-eginkizuna ezagutzeko formula gisa. Haien ezaugarriak kontuan harturik, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoek beren eskumenak erabili dituzte araudi fiskal espezifikoak garatzeko. Gaur egun honako hauek daude indarrean: 16/1997 Foru Araua, kooperatiben zerga araubideari buruzkoa, Arabako lurralde historikokoa; 2/1997 Foru Araua, Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzkoa, Gipuzkoako lurralde historikokoa; eta, 6/2018 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko kooperatiben araubide fiskalari buruzkoa.

Arau horietan, kooperatiba-forma duen sozietate orori aplika dakizkiokeen doikuntza-arau jakin batzuk jasotzen dira, baita kooperatibentzako zenbait onura fiskal ere, baldintza jakin batzuk betetzen badituzte eta kooperatiba babestutzat edo, hala badagokio, kooperatiba bereziki babestutzat hartzen badira.

Alde horretatik, foru-arau horiek kooperatiba babestuentzako arau eta onura zehatzak jasotzen dituzte, beren emaitzak sozietateen gaineko zergan zergapetzeari buruzkoak; eta zenbait salbuespen eta hobari jasotzen dituzte ondare-eskualdaketan eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan eta tokiko beste zerga batzuetan, hala nola ekonomia-jardueren gaineko zergan eta ondasun higiezinaren gaineko zergan, erakunde eskudunek hala ezartzen badute. Bestalde, bazkideek jasotzen dituzten errentekiko betebeharrak batzuk ere biltzen dituzte, eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergak zergapetu behar ditu.

2.3. IDEIA NAGUSIAK: EUSKAL MUGIMENDU KOOPERATIBOAREN EZAUGARRIAK

Dentsitate eta aniztasun kooperatiboa

Euskal mugimendu kooperatiboak kooperatiben dentsitatea (sortutako kooperatiba eta enplegu kopurua) eta kooperatiben aniztasuna (formula kooperatiboa erabiltzen duten sektoreak eta gaur egun dauden kooperatiba motak) ditu bereizgarri.

Kooperatibek euskal ekonomian duten pisu espezifikoa (aldagai nagusiak: enplegua, establezimendu kopurua, banaketa sektoriala)

Kooperatibek sortutako enplegua

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomiaren barruan, kooperatibek osatzen dute establezimendu eta enplegu kopuruari dagokionez pisu handiena duen familia. Hurrengo taulan ikus dezakegun bezala, kooperatibek 53.390 enplegu sortzen dituzte, hots, gizarte-ekonomiak 2018an sortutako enpleguaren % 88,1. Gainera, enplegu kooperatiboak enplegu osoaren % 5,7 hartzen du Euskal Autonomia Erkidegoan 2018. urtean.

9. ilustrazioa. Establezimenduen eta enplegu ordainduen banaketa (EAE, 2018)

	2018	
	Establezimenduak	Enpleguak
GEFK	3.337	60.609
Kooperatibak	2.590	53.390
SLak	747	7219
GEBF	1.623	28.251
Fundazioak	762	13045
Enplegu-zentro bereziak	106	9.986
Onura publikoko elkarteak	418	4.013
Gizarteratzeko enpresak	70	719
ENSak	85	233
Arrantzaleen kofradiak	17	91
BGAE	165	74
GUZTIRA	4.937	87.693

Iturria: Gizarte Ekonomiaren 2018ko Estatistika eta 2019ko aurrerapena

Kooperatibek sortutako enpleguaren bilakaera-dinamikari erreparatzen badiogu, hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, etengabe egin du gora, nahiz eta 2008 eta 2014 artean 3.000 enplegu inguru galdu. Dena den, galera hori berreskuratu egin da gaur egun.


10. ilustrazioa. Enplegu kooperatiboa 1996-2018 aldian (EAE)

	Enplegu kooperatiboak
1996	32.574
1998	41.698
2000	36.825
2002	47.531
2004	47.797
2006	49.760
2008	50.359
2010	48.092
2012	47.944
2014	47.322
2016	49.883
2018	53.390

Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Eusko Jaurlaritza

Enplegu kooperatiboaren bilakaerarekin jarraituz, hurrengo grafikoan enplegu kooperatiboan izandako bilakaera desberdina ikus daiteke (Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren Gizarte Ekonomiari buruzko Inkestaren datuak) Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu osoarekin alderatzean (Eustaten datuak). Horrela, krisiaren unean (2008. eta 2010. urteak) kooperatibetan enpleguaren beherakada enpleguaren jaitsieraren oso antzekoa izan zen, baina azken urteetan enpleguaren susperraldia neurri handiagoan gertatu da kooperatiben esparruan, eta bi urtez behingo hazkunde-tasak ekonomiaren gutzitako orokorra baino handiagoak izan dira urtero. Analizatutako azken aldian, euskal kooperatibismoaren enplegua nabarmen hazi da, bi urtez behingo hazkundea % 7ra iritsiz, eta EAEko lan-merkatuaren % 4,2ra iritsi da gutxi gorabehera (Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendako (JEGID) enplegu-datuaren arabera).

11. ilustrazioa. EAEko enplegu kooperatiboaren eta guztizko enpleguaren bi urtez behingo hazkunde-tasak (2006-2018)



Iturria: Kooperatiben datuak: Lan eta Justizia Saila. Gizarte Ekonomiaren Estatistika. Establezimendu guztien datuak: Eustaten Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda. Bi urtez behingo hazkunde-tasen datuak

Esan beharra dago, gainera, enplegu kooperatiboak EAEko enplegu osoan duen pisuak 2008az geroztik joera arin baina gorakorra duela, hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, eta horrek euskal kooperatibismoak duen osasun ona ikusarazten du, 2018. urtean EAEko enplegu kooperatiboa enplegu osoaren % 5,7ra iritsi baita.

12. ilustrazioa. Enplegu kooperatiboak EAEko enplegu osoaren gainean duen pisu erlatiboaren bilakaera (2006-2018)



Iturria: Lan eta Justizia Saila. Gizarte Ekonomiaren Estatistika. Enplegu kooperatiboak EAEko enplegu osoaren gainean duen pisu erlatiboa

Datu estatistikoak hainbat iturritatik datoz, eta, beraz, ezin da konparazio sakon edo zorrotzik egin; hala ere, interesgarria da euskal kooperatibismoak Estatukoarekin alderatuta duen pisua ezagutzea. Datu hori Gizarte Ekonomiako Espainiako Enpresen Konfederazioak (CEPES) eskaintzen du. Horren arabera, Estatuan kooperatibetan lan egiten duten 314.381 pertsonetatik 60.066 EAEkoak dira. Horrek esan nahi du Estatuako enplegu kooperatiboaren % 19 inguru Euskal Autonomia Erkidegoan dagoela¹. Horrek erakusten du zenbaterainokoa den euskal kooperatibismoak Estatuan duen garrantzia.

Establezimendu eta enpresa kooperatiboen kopurua

Kooperatibismoaren pisua baloratzekoan kontuan hartu behar den beste aldagai bat **egun dagoen establezimendu eta enpresa kopurua** da. Ildo horretan, azpimarratu behar da azken urteotan EAEn establezimendu kopuruak gora egin duela kooperatibentzat, lurralde horretan establezimendu guztien kopuruak orokorrean behera egin duen arren.

13. ilustrazioa. Establezimendu kooperatiboen kopurua eta guztizko establezimendu kopurua (EAE, 2008-2018)

	Establezimendu kooperatiboak	Bi urtez behingo aldakuntza	EAEko establezimenduak guztira	Bi urtez behingo aldakuntza
2008	1.937		203.911	
2010	2.071	6,9%	191.057	-6,3%
2012	2.236	8,0%	184.471	-3,4%
2014	2.275	1,7%	176.879	-4,1%
2016	2.420	6,4%	175.674	-0,7%
2018	2.590	7,0%	173.849	-1,0%

Iturria: Kooperatiben datuak: Lan eta Justizia Saila. Gizarte Ekonomiaren Estatistika. EAEko establezimendu guztien datuak: Eustaten Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

Interesgarria da, halaber, establezimendu kooperatiboen bilakaera enpresa-tamainaren arabera analizatzea.

¹ CEPESen datuak Eusko Jaurlaritzak eskainitakoekin bat ez badatoz ere, iturri desberdinetatik baitatoz, euskal kooperatibismoak Estatu osoan duen garrantzi handiaren ikuspegia eskaintzen digute.

14. ilustrazioa. Establezimendu kooperatiboen kopuruaren bilakaera, dimentsioaren arabera (2016-2018)

	Establezimenduak 2016	Establezimenduak 2018	Bilakaera 2016 - 2018
5 enplegu edo gutxiago	1.080	1.225	13,4%
6-15 enplegu	303	312	2,9%
16-50 enplegu	172	174	1,2%
51-100 enplegu	107	106	-0,9%
101-200 enplegu	197	204	3,6%
201-500 enplegu	137	124	-9,5%
500 enplegu baino gehiago	424	445	5,0%
GUZTIRA	2.420²	2.590	7,0%


Iturria: Lan eta Justizia Saila. Gizarte Ekonomiaren Estatistika²

Deigarria da 5 enplegu baino gutxiagoko establezimenduen hazkundera (% 13,4) eta 500 enplegu baino gehiagoko establezimenduen (% 5).

Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak (Konfekoop) eskaintzen dituen datuetan ere islatzen da gehikuntza hori. Hurrengo grafikoan ikus daiteke kooperatiba kopuruak etengabe gora egin duela azken urteetan.

² Gizarte Ekonomiaren Estatistikaren (2018) edizio honetan doikuntza bikoitza egiten da establezimendu kopuruaren kuantifikazioan; alde batetik, 500 enplegu baino gehiagoko enpresen artean 86 establezimendu gutxiago zenbatzen dira, zorrozki enpresa- edo merkataritza-establezimenduak izango ez liratekeen enpresaren egoitza nagusiko sail-unitateekin lotutakoak; bestetik, 101-200 enpleguko akademia edo euskaltegien kasuan, aurrez aurreko eskolak ematearekin lotutako establezimendu guztiak zenbatzen dira, eta, hortaz, enplegu-geruza horretako enpresen artean guztira 128 establezimendu aintzat hartzen dira. Oro har, +42 establezimendu kooperatiboko zuzenketa zenbatzen da.

15. ilustrazioa. EAEko enpresa kooperatiboen kopuruaren bilakaera (2009-2019)



Iturria: Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa

Estatuko guztizkoari dagokionez, CEPESek eskaintako datuei esker ikus dezakegu zer-nolako izan den enpresa kopuruaren bilakaera EAEn zein Estatuan. Hurrengo taulan ikus ditzakegu Espainiako (CEPESek emandako datuak) eta EAEko (Konfekooppek eskaintako datuak) kooperatiben guztizko kopurua erakusten duten datuak. Bi erakundeek eskaintzen dituzten datuak ezin dira konparatu, datuen iturriak desberdinak dira-eta. Hala ere, euskal kooperatibismoaren gero eta garrantzi handiagoaren ikuspegia eskaintzen digute berriz ere.

16. ilustrazioa. EAEko enpresa kooperatiboen kopuruaren bilakaera
(2009-2018)

	Espainia	Urtetik urterako aldakuntza	EAE	Urtetik urterako aldakuntza	Euskal kooperatibismoak Estatuko guztizkoaren gainean duen pisua
2009	23.219				
2010	22.595	-2,7%	823		3,6%
2011	22.022	-2,5%	868	5,5%	3,9%
2012	21.499	-2,4%	927	6,8%	4,3%
2013	21.499	0,0%	965	4,1%	4,5%
2014	21.412	-0,4%	1005	4,1%	4,7%
2015	20.258	-5,4%	1049	4,4%	5,2%
2016	20.792	2,6%	1110	5,8%	5,3%
2017	20.958	0,8%	1160	4,5%	5,5%
2018	19.954	-4,8%	1189	2,5%	6,0%

Iturria: CEPES eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua

Gainera, Estatuan bilakaera gorabeheratsua izan da, azken urteetan igoerak eta jaitsierak izan baititu, baina EAEn, aurreko grafikoan ikusi dugun bezala, igoera etengabea eta egonkorra izan da.

Enplegu kooperatiboaren banaketa sektoreen arabera

Enpleguaren sektoreen arabeko banaketari dagokionez, enpleguaren banaketa sektorialak kooperatibetan izan duen bilakaera kontuan hartuz gero, datuek erakusten dute zerbitzuen sektorearen pisu espezifikoak gora egin duela (2018an % 55,8), industria-sektorearen kaltetan, 5 puntu galdu baititu 2008 eta 2018 artean. Industria-sektorearen pisu erlatiborik txikiena 2014an izan zen. Horrek erakusten du industriako enplegua pixka bat suspertu dela azken urteetan. Hau da, sektore kooperatiboaren hirugarren sektorerako joera ikus badaiteke ere, industria-sektorearen pisua oso garrantzitsua da oraindik ere: 2018an % 41,3. Hori da euskal kooperatibismoaren beste ezaugarri azpimarragarrienetako bat.

Europar Batasunaren politikaren ildotik, zeinak bere industria-oinarriaren sendotasunaren aldeko apustua egiten baitu garapen-estrategia gisa, EAE manufaktura-industria indartsu samarra mantentzen duten

herrialdeen artean kokatzen da, zerbitzuen sektorearekiko pisua galdu arren, azpisektore kooperatiboan gertatzen den bezala. Euskal ekonomiaren sendotasuna ezin da bere ekoizpen-sarearen industria-espezializazio erlatibotik bereizi, ezta bere produktuen garapen teknologikotik eta enpresa nagusiek beren fabrikazio-prozesuen kalitatea eta efizientzia hobetzeko eginkizunetik ere (ORTEGA, 2018:9). Ildo horretan, datuek agerian uzten dute euskal kooperatibismoak lurraldeko ekonomiari egiten dion ekarpen erlatiboa areagotu egiten dela fokua industria-sektorean jartzen den heinean.

17. ilustrazioa. Enplegu kooperatiboaren banaketa sektoriala (2008-2018)

	2018	2016	2014	2012	2010	2008
Lehen sektorea	0,3%	0,3%	0,3%	0,2%	0,3%	0,4%
Industria	41,3%	41,4%	40,7%	43,6%	43,4%	46,3%
Eraikuntza	2,6%	2,2%	2,1%	2,7%	2,6%	2,2%
Zerbitzuak	55,8%	56,1%	56,9%	53,5%	53,7%	51,1%

Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Eusko Jaurlaritzza

Beraz, esan daiteke bilakaera horrek euskal mugimendu kooperatiboaren bereizgarri den industria-espezializazioa eta euskal industriari egiten dion ekarpen espezifiko nabarmentzen dituela, EAeko industria-kooperatibismoak guztizko enplegu kooperatiboaren % 40 baino gehiago hartzen baitu.

Ekarpen hori nabarmenagoa da lurraldeko trakzio-enpresen esparruan. Trakzio-enpresei erreparatzen badiegu (500 enplegatu baino gehiagoko manufaktura-industriako enpresak), ikus dezakegu 29 trakzio-enpresa horien % 31 kooperatibak direla. Eta gizarte-ekonomiako enpresa guztiak kontabilizatzen baditugu, datu hori % 37ra iristen da (ORTEGA, 2018).

Eusko Jaurlaritzaren arabera³, enpresa kooperatibo handiak (500 enplegu baino gehiagokoak) izan dira, % 14 inguruko hazkundearekin, euskal gizarte-ekonomiaren osotasunean enpleguaren hazkundera bultzatu dutenak; 5 enplegu baino gutxiagokoak % 4,7 eta 6-15 enpleguakok % 5,8.

EAEn maila globalean, hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, industria-sektoreko enpleguak % 25,6 inguru hartu zuen 2008an, eta % 22ra jaitsi zen 2018an. Esan genezake, hortaz, pisu erlatiboaren jaitsiera enplegu kooperatiboan izandakoaren antzekoa dela. Jaitsiera hori konpentsatu egin

³ Gizarte Ekonomiaren 2018ko Estatistikaren eta 2019ko aurrerapenaren aurkezpena, 2020ko uztailaren 2an egina.

du, halaber, zerbitzu-sektorean izandako igoerak, 6,7 puntuko gehikuntza izan baitu, enplegu kooperatiboan izandako gehikuntza baino handiagoa. Nabarmentzekoa da, halaber, ekonomian, oro har, eraikuntzako enplegua hiru puntu inguru jaitsi dela, baina kooperatiben kasuan ia konstante mantendu dela, eta eskuragarri dagoen azken urtean ere pixka bat handitu dela. Horrek agerian uzten du eraikuntzan diharduten euskal kooperatibek alternatibak bilatzeko egindako ahalegin handia.

18. ilustrazioa. EAEko enplegu osoaren banaketa sektoriala (2008-2018)

	2018	2016	2014	2012	2010	2008
Lehen sektorea	1,2%	1,1%	1,0%	0,9%	0,9%	1,2%
Industria	22,0%	20,9%	21,5%	23,6%	23,7%	25,6%
Eraikuntza	5,3%	5,2%	5,3%	6,4%	7,6%	8,4%
Zerbitzuak	71,5%	72,8%	72,2%	69,1%	67,8%	64,8%
GUZTIRA	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%

Iturria: Eustat. BJAren datuak. Urteko batezbestekoak

Enplegu kooperatiboak guztizkoaren gainean duen pisuari dagokionez, maila sektorialean, hurrengo taulako datuek egonkor-tasun handia erakusten digute. Izan ere, puntu bat baino gehiago handitzen da industrian eta eraikuntzan.


19. ilustrazioa. Enplegu kooperatiboak EAEko enplegu osoaren gainean duen pisua, sektoreen arabera banatua

	2018	2016	2014	2012	2010	2008
Lehen sektorea	1,6%	1,8%	1,8%	1,2%	1,8%	1,6%
Industria	10,7%	10,9%	10,2%	9,9%	9,4%	9,3%
Eraikuntza	2,8%	2,3%	2,2%	2,3%	1,7%	1,3%
Zerbitzuak	4,5%	4,3%	4,2%	4,1%	4,1%	4,0%
GUZTI	5,7%	5,5%	5,4%	5,3%	5,1%	5,1%

Iturria: Kooperatiben datuak: Lan eta Justizia Saila. Gizarte Ekonomiaren Estatistika. EAEko datuak: Eustat. BJA inkesta. Urteko batezbestekoak

Enplegu kooperatiboak EAeko enplegu osoaren gainean duen pisua kontuan hartzen badugu, sektore guztietan eta hiru lurralde historikoetan, honako grafiko hau lortzen dugu 2018. urterako:

20. ilustrazioa. *Enplegu kooperatiboak EAeko enplegu osoaren gainean duen pisu erlatiboa, sektorearen eta lurralde historikoaren arabera (2018)*



Iturria: Kooperatiben datuak: Lan eta Justizia Saila. Gizarte Ekonomiaren Estatistika. EAeko datuak: Eustat. BJA inkesta. Urteko batezbestekoak

Grafiko horretan, nabarmentzekoa da Gipuzkoako industriako enplegu kooperatiboaren pisu handia, eta agerian uzten du MONDRAGON taldeak lurralde historiko horretako industria-testuinguruan duen garrantzia; izan ere, kooperatibetan sortutako enplegua industriako enplegu guztiaren % 18 da.

Azkenik, nahiz eta Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituen datuak eta CEPESek eskaintzen dituenak a priori konparagarriak ez izan, ikus daiteke zer-nolakoa den euskal enplegu kooperatiboak industria-sektorean duen garrantzia estatuko kooperatibismoaren aldean. Euskal enplegu kooperatiboa Estatuko enplegu kooperatibo guztiaren % 19 zen gutxi gorabehera, baina industriaren sektorean ehuneko hori % 30etik gorakoa da, hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, eta agerian geratzen da EAeko industria-kooperatibek pisu handia dutela, batez ere mugimendu kooperatiboaren barruko enpleguari dagokionez.

21. ilustrazioa. Euskal enplegu kooperatiboak Estatuko guztizkoaren gainean duen pisua, sektoreen arabera (2018)

SEKTOREA	Euskal enplegu kooperatiboak Estatuko guztizkoaren gainean duen pisua
Lehen sektorea	0,5%
Industria	32,6%
Eraikuntza	13,8%
Zerbitzuak	14,2%

Iturria: Euskal kooperatiben datuak: Lan eta Justizia Saila. Gizarte Ekonomiaren Estatistika. Estatuko datuak: CEPES

Aniztasun kooperatiboa

Aztertu dugun moduan, euskal kooperatibismoak gizarte-ekonomian, euskal ekonomian oro har eta industria-sektorean bereziki hartzen duen pisua du bereizgarri. Baina, gainera, euskal mugimendu kooperatiboa nabarmentzen da ekonomian eta gizartean funtsezkoak diren sektoreak kooperatibizatzeagatik: eduki teknologiko handiko industria-sektoreak, finantzak, kontsumoa, nekazaritza, ikerketa edo hezkuntza. Aniztasun handia dago kooperatiba motaren ikuspegitik, baita kooperatibak kokatzen diren sektorearen ikuspegitik ere. Ezohiko ezaugarria da, eta horren ondorioz, euskal eredu kooperatiboa bereziki berezia da mundu osoan ikuspuntu kualitatibotik. Munduko lurralde gutxitan dago formatu kooperatiboko ekonomia bat, herrialdeko ekonomian funtsezkoak diren trakzio-sektoreei ekiteko gai dena.

Hona hemen grafiko hau, kooperatibek jarduten duten sektorearekiko aniztasun kooperatiboa irudikatzen duena.

- Junior kooperatibak
- Gizarteratze-kooperatibak
- Enpresak sustatzeko kooperatibak

Ikuspuntu kontzeptualetik, kooperatibak mi multzo handitan bilgenitzake:

- Lan elkartuko kooperatibak: bazkideek beren lana ematen dute hirugarrenentzako ondasunak eta zerbitzuak elkarrekin ekoizteko.
- Erabiltzaileen kooperatibak: bazkideei ondasunak eta zerbitzuak ematen dizkietenak, hots, bazkideak dira jardueraren hartzaileak. Kontsumoa da kooperatiba horietan kooperatibizatzen dena.


Lan elkartuko kooperatibek batez ere industria-sektorean hartzen duten dimentsioa eta pisua da euskal kooperatibismoaren ezaugarri berezietako bat.

Erabiltzaileen kooperatibak, bestalde, askotarikoak dira. Kategoria horretan sar daitezke, besteak beste, kontsumo-kooperatibak, etxebizitza-kooperatibak, irakaskuntza-kooperatibak, kreditu-kooperatibak edo nekazaritzako elikagaien kooperatibak.

Kooperatiben hirugarren kategoria bat ere badago, kooperatiba misto edo integralena, zenbait bazkide mota integratzen dituena: laneko bazkideak eta bazkide erabiltzaileak. Kooperatiba mistoen kalifikazioa Kooperatiben 11/2019 Legeak araututako edozein motari eslei dakiok.

Lan elkartuko kooperatibek mugimendu kooperatiboaren osotasunean duten garrantzia eta pisua nabarmentzekoa da benetan. Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak emandako 2019. urteko datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan 3.195 kooperatiba daude eta horietatik 2.359 lan elkartuko kooperatibak dira. Lan elkartuko kooperatiben dentsitate hori euskal mugimendu kooperatiboaren bereizgarria da.

23. ilustrazioa. EAEko kooperatiben errolda

2019 CENSO COOPERATIVO / KOOPERATIBEN ERROLDA 2019							
	KOOPERATIBAK GUZTIRA	 KONFEKOOP Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa Confederación de Cooperativas de Euskadi					
		Kooperatibak	Bazkideak guztira	Langileak guztira	Bazkide langileak	Besteren konturako langileak	Fakturazioa (milioi euro)
Lan elkartuko kooperatibak	2.359	1.074	22.457	35.709	22.457	13.252	8.541
Irakaskuntza-kooperatibak	100	88	57.024	6.819	2.599	4.220	-
Kreditu-kooperatibak	1	1	11.588	1.888	1.743	145	-
Nekazaritzako elikagaien kooperatibak	116	60	6.115	595	52	543	292
Kontsumo-kooperatibak	40	10	1.128.715	11.351	8.075	3.276	
Garraio-kooperatibak	41						
Etxebizitza-kooperatibak	446						
Beste batzuk	92						
GUZTIRA	3.195	1.233	1.225.899	56.362	34.926	21.436	-

Iturria: Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa

Lan elkartuko kooperatibetan, “bazkide” eta “langile” izateak berekin dakar izaera bikoitz hori duten pertsonen kooperatibaren kudeaketan, jabetzan eta emaitzetan parte hartzea. Euskal kooperatibak bereziak dira bazkide langilearen figura hori industria-kooperatibetan edo ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko kooperatibetan ez ezik, hezkuntza-kooperatibetan, kontsumo-kooperatibetan, nekazaritza-kooperatibetan edo kreditu-kooperatibetan ere integratzen dutelako. Beste mugimendu kooperatibo batzuetan batere ohikoak ez diren kooperatiba mistoek edo integralek aukera ematen dute proiektu kooperatiboaren parte diren bazkide edo eragile motek neurri handiagoan inplikatzeko eta integratzeko. Irakaskuntzaren esparruan kooperatiba integralen adibide ugari daude, bazkideak, alde batetik, jardueraren erabiltzaileak edo hartzaileak direnak (gurasoak eta/edo ikasleak), eta, bestetik, ikastetxe kooperatibo horretako langileak.

Enplegu duina eta kalitatezkoa sortzea eta mantentzea

Kooperatiben ekarpen garrantzitsuenetako bat enplegu duina eta kalitatezkoa sortzea eta enplegu hori mantentzeko erakutsi duten ahalmena da.

Kooperatiben erresilientzia: krisi-testuinguruetan enplegua mantentzea

Kooperatibek, beren lorpen eta mugekin, enpresa eraginkor eta denboran jasangarrien benetako lekukotasuna ekartzen dute, eta enpresa-jarduera epe luzera begira ulertzen dute. Kooperatibek krisi-testuinguruetan irauteko eta enplegua mantentzeko gaitasuna erakutsi dute.

Literatura akademikoak eta garatutako ikerketek berresten dute kooperatibek erresistentzia handiago dutela atzeraldi ekonomikoetan jarduera eta enplegua mantentzeko dagokionez. Euskal errealitatearen bilakaerak kooperatiben ezaugarri hori berresten du.

Erresilientziak lotura estua du kooperatiben erantzunkidetasunarekin eta autoexijentziarekin. Alde batetik, kooperatiben zati handi batek baditu mekanismo batzuk, krisi-testuinguruetan enplegua eta enpresaren jasangarritasuna mantentzeko ahaleginak egitea ahalbidetzen dutenak, hala nola aurrerakinen maila murriztea, bazkideak beste kooperatiba batzuetan birkokatzea, lan-egutegi malguak ezartzea edo kooperatiben artean laguntza ekonomikoak ematea.

Bestalde, eta neurri errektibo horietatik harago, kooperatiben erresilientzia-ahalmena, batez ere, etorkizuneko jasangarritasunera bideratutako enpresa-politiken emaitza da, hala nola emaitzak kapitalizatzearen aldeko apustua, prestakuntzaren aldeko konpromisoa edo I+G+Bko inbertsio sistematikoa.

Ildo horretan, azken krisi ekonomikoari (2008-14) buruzko datuak adierazgarriak dira: krisi-urteetan kooperatiba kopuruak gora egin zuen, baina EAEn oro har euskal enpresen % 13,72 desagertu ziren. Era berean, kooperatiben bilakaera positiboa nabarmentzen da sozietate mugatuaren bilakaera negatiboaren aldean (ehunaren % 9,21 galtzen dute), eta, batez ere, sozietate anonimoen bilakaera negatiboaren aurrean, krisiaren ondorioz haien laurdenak baino gehiago desagertu baitira (ORTEGA ETA LOYOLA, 2018).

24. ilustrazioa. Enpresa kopuruaren bilakaera nortasun juridikoaren arabera (EAE, 2008-2014)

	2008	2010	2012	2014	Aldakuntza 2014/2008
Enpresak guztira	184.290	171.345	165.517	159.001	-13,72%
Sozietate anonimoa	8.964	8.194	7.215	6.453	-28,01%
Sozietate mugatua	46.534	47.349	44.189	42.246	-9,21%
Sozietate kooperatiboa	1.895	2.029	2.194	2.233	17,83%

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID). Eustat. Sozietate kooperatiboen datuak: ORTEGA ETA LOYOLA (2018)

Antzeko emaitzak aurkitzen ditugu establezimendu kopurua konparatzean. Nabarmentzekoa da sozietate kooperatiboen kopuruak gainerako sozietateen aldean izan duen bilakaera positiboa.

25. ilustrazioa. Establezimendu kopuruaren bilakaera nortasun juridikoaren arabera (EAE, 2008-2014)

	2008	2010	2012	2014	Aldakuntza 2014/2008
Enpresak guztira	203.911	191.057	184.471	176.879	-13,26%
Sozietate anonimoa	13.580	12.630	11.552	11.047	-18,65%
Sozietate mugatua	52.242	53.463	50.115	48.084	-7,96%
Sozietate kooperatiboa	1.937	2.071	2.236	2.275	17,45%

Iturria: guztizko datuak, sozietate anonimoenak eta sozietate mugatuenak: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID), Eustat. Kooperatiben datuak: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Lan eta Justizia Saila, Eusko Jaurlaritza.

Enpleguari dagokionez, EUSTATen datuen arabera, kooperatibek krisialdian izan duten bilakaera (enpleguak % 6,03 egin du behera 2008 eta 2014 artean) autonomia-erkidego osoan izandakoa (oro har % 9,88 egin du behera) baino nabarmen positiboagoa izan da. Sozietate mugatuek enpleguaren % 9,62 galdu zuten eta sozietate anonimoek % 20 baino gehiago (ORTEGA, 2018).

26. ilustrazioa. Enpleguaren bilakaera forma juridikoaren arabera
(EAE, 2008-2014)

	2008	2010	2012	2014	Aldakuntza 2014/2008
Guztira	942479	906044	873121	849335	-9,88%
Sozietate anonimoa	271213	251214	231907	215541	-20,53%
Sozietate mugatua	279755	277586	262059	252845	-9,62%
Sozietate kooperatiboa	50.359	48.092	47.944	47.322	-6,03%

Iturria: guztizko datuak, sozietate anonimoenak eta sozietate mugatuenak: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID), Eustat. Kooperatiben datuak: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Lan eta Justizia Saila, Eusko Jaurlaritza.

Kooperatiben enpleguak EAEko ekonomia osoan duen pisu erlatiboa handitu egin da 2008 eta 2014 artean. 2008an kooperatiben enpleguak EAEko enpleguaren % 5,1 hartzen zuen, 2014an % 5,3raino handitu zen eta 2018an % 5,7ra iritsi zen.

27. ilustrazioa. Enplegu kooperatiboak EAEko ekonomian duen pisu erlatiboa

	Enplegu kooperatiboaren pisu erlatiboa
2008	5,1
2010	5,1
2012	5,3
2014	5,4
2016	5,5
2018	5,7

Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Lan eta Justizia Saila, Eusko Jaurlaritza

Gainera, 2008-2014 aldian kooperatibetan enpleguaren portaera positiboagoa izan da sektore guztietan, sektoreak oro har EAEn izan duen bilakaerarekin konparatuz gero, eta sozietate anonimoekin konparatuta, enplegua kalteberagoa dela ikusten baita erreferentziatzko sektorea dena dela ere. Kooperatibek eraikuntzan izan duten bilakaera hobea nabarmentzen da (-% 8,55), enpleguak EAE osoan (-% 45,5) eta sozietate anonimoetan (-% 45,9) izan duen bilakaera negatiboaren aldean. Industriari dagokionez, kooperatibetan enpleguak (-% 17,5) EAEko industria-enpleguak baino bilakaera hobexegoa izan du (enpleguaren

% 22 galdu da krisialdian), eta sozietate anonimoetan baino bilakaera nabarmen hobea, enpleguaren % 28,8 suntsitu baita 2008az geroztik (ORTEGA, 2018:14).

Enplegu duina eta kalitatezkoa

Kooperatibek pertsoneri ematen dieten zentraltasuna erakunde horiek sortzen duten enplegu motan islatzen da. Helburua da enplegu kalitatezkoak, duinak eta egonkorak sortzea, horrek ahalbidetuko baitu erakundeen barruan pertsonak modu integralean garatzea. Baldintza soziolaboralak hobetzea eta kalitatezko enpleguak sortzea eta mantentzea da kooperatiben helburu nagusietako bat, batez ere lan elkartuko kooperatibena.

Arestian aipatu dugun moduan, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden kooperatiba gehienak lan elkartuko kooperatibak dira. Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak landutako Kooperatiben Erroldaren arabera, 2019an zeuden 3.195 kooperatibetatik 2.359 lan elkartuko kooperatibak ziren; horrek esan nahi du kooperatiben % 73,8 formula horren pean sortzen direla. Halaber, Konfekoopen guztira 1.233 kooperatiba daude elkartuta 2019an, eta horien % 87,1 lan elkartuko kooperatibak dira.


Euskal kooperatibak bereziak dira bazkide langilearen figura hori industria-kooperatibetan edo ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko kooperatibetan ez ezik, hezkuntza-kooperatibetan, kontsumo-kooperatibetan, nekazaritza-kooperatibetan edo kreditu-kooperatibetan ere integratzen dutelako. Beste mugimendu kooperatibo batzuetan batera ohikoa ez den ezaugarri horrek aukera ematen du proiektu kooperatiboaren parte diren bazkide edo eragile motek neurri handiagoan inplikatzeko eta integratzeko.

Konfekoopen egindako Kooperatiben Errolda berriz ere kontuan harturik, 2019an lan-bazkideak dira irakaskuntza-kooperatibetako langile guztien % 38,1, kreditu-kooperatibako (Laboral Kutxa) langileen % 92,3 eta kontsumo-kooperatibetako langileen % 71,1. Euskal kooperatibismoaren bereizgarri nagusienetako bat da hori.

Enplegua generoaren arabera

Enpleguaren generoaren araberako banaketari dagokionez, datuek erakusten dute euskal kooperatibak enpresa berdinzale samarrak direla. Izan ere, emakumeak langile guztien % 45,7 dira, nahiz eta datu horiek 2016koak baino pixka bat txarragoak izan.

29. ilustrazioa. Enpleguaren generoaren araberako banaketa (EAE, 2018)



Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Eusko Jaurlaritz

Kooperatiben kasuan, emakumeek erabaki-organoetan duten parte-hartzea kontuan hartzekoa da, nahiz eta oraindik asko dagoen egiteko eta hobetzeko. Horrela, guztira, 2018an zuzendaritza-kontseiluetako eta administrazio-kontseiluetako postuen ia % 37 emakumeek betetzen dituzte, eta datu hori hobea da zerbitzu-sektorean, sektore hori gainerakoak baino feminizatuagoa baita normalean. Datu hori, ordea, errealitate parekidea islatuko lukeen enplegu osoaren gaineko emakume langileen % 45,7tik urrun dago. Azpimarratu beharra dago ehuneko hori nabarmen hobetu dela 2016ko aurreko neurketarekin alderatuta, ez baitzen % 32ra iristen.

30. ilustrazioa. Zuzendaritza-kontseiluetako eta administrazio-kontseiluetako presentzia (EAE, 2018) (%)

	Gizonak	Emakumeak
Guztira	63,1	36,9
Lehen sektorea	88,0	12,0
Industria	73,5	26,5
Eraikuntza	90,0	10,0
Zerbitzuak	55,7	44,3

Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Eusko Jaurlaritz

Ezbehar-tasa

Kooperatiba guztiei buruzko daturik ez dugun arren, Mondragon kooperatibetako langileei buruzko datuak interesgarriak izan daitezke zentzu horretan. 2017ko ekitaldiari buruzko MONDRAGON urteko txostenean jasotzen denez, 1.000 langileko istripu kopuruaren adierazlea 27,15 da. Zehazkiago, talde kooperatibo horren industria-sektoreko enpresetan intzidentzia-indizea 34,38 izan zen, EAEko industria-enpresen datu baliokidea baino nabarmen txikiagoa (mila langileko 64,76). Osalanen 2017ko datuen arabera, laneko bajadun istripuen tasarik handiena eraikuntzan izan zen (1.000 langileko 85,73), eta lehen sektorea egon zen bigarren tokian (intzidentzia-indizea 75,36 izan zen). Aipatu den bezala, industrian mila langileko 64,76 erregistratu ziren, eta, azkenik, zerbitzu-sektorean 27,37.

31. ilustrazioa. Industria-sektoreko laneko ezbehar-tasa. Mondragon vs EAE

Siniestralidad Laboral




34,7%

Índice de siniestralidad laboral en las Divisiones Industriales de MONDRAGON

Media de la CAV Industrial: 65,6%



Evolución Índice de Incidencia* de Accidentes Sector Industrial



(*) Índice de Incidencia: Indicador del número de accidentes, con baja superior a 1 día, por cada 1.000 trabajadores.

Iturria: Mondragon: 2017. urteko txostena

Enpresa-izaera

Kooperatibak izaera bikoitzeko erakundeak dira —elkartek eta enpresak—, eta, beraz, bi arrazionaltasun biltzen dituzte barnean: ekonomia- eta enpresa-arrazionaltasuna eta gizarte-arrazionaltasuna.

Kooperatibetan ekonomia- eta enpresa-arrazionaltasuna elkartasuna, demokrazia edo ingurunearekiko konpromisoa bezalako balioak praktikara ekartzeko zeregin nekezarekin uztartzen da. Enpresa-eraginkortasunaren eta balio kooperatiboaren arteko orekaren bilaketa hori euskal kooperatibismoaren funtsezko ekarpenetako bat da.

Euskal eredu kooperatiboan, enpresen eraginkortasuna *sine qua non* baldintzat hartzen da, enpresa eta ekonomia gizatiartzen lagunduko duten gizarte- eta enpresa-proiektu sendoak garatzeko. Era berean, erakundearen izaera kooperatiboak enpresa sendoagoak sustatzen ditu, bazkideek proiektu kolektibo baten parte direla senti dezaten. Ildo horretatik, beste behin aipatu behar da bazkide langile eta lan-bazkide asko daudela euskal kooperatibetan, eta horiek proiektua bereganatzea enpresen arrakastarako funtsezko faktorea dela.

Ildo horretan, esan daiteke euskal eredu kooperatiboaren arrakastaren gakoetako bat bere enpresa-dimentsioaren garapenean datzala. Beste esperientzia kooperatibo batzuek, enpresa-izaera gutxietsi edo ez zaintzeagatik, lehiakortasun-galera handia jasan dute, gizarte- eta enpresa-proiektuaren arrakasta arriskuan jartzeraino, baina euskal kooperatibek uste dute behar-beharrezkoa dela efizienteak eta lehiakorrak izatea beren gizarte-helburuak lortu ahal izateko. Lehiakortasuna bilatzea ez da arrazoibide ekonomiko hutsetik ulertzen; aitzitik, gure inguruneko gizarte- eta ingurumen-erronkei erantzuteko ezinbesteko baldintza da. Izan ere, enpresa-dimentsio horren kudeaketari aitortutako balioa euskal kooperatibismoa beste mugimendu kooperatibo batzuetatik bereizten duen ezaugarria da.

Enpresek formatu kooperatiboan izan duten garapen handiak bermatzen du baieztapen hori. Euskal kooperatibak puntako enpresak dira euskal ekoizpen-ehunean, eta eragile garrantzitsuak dira euskal ekonomiaren etorkizuneko erronkei aurre egiteko orduan. Euskal kooperatibek enpresa-dimentsioari eman dioten arreta bereziari esker, nabarmen lagundu dute kaudimen teknologikoa duen euskal industria-sektorea garatzen. Hain zuzen ere, ekonomiaren segmentu estrategikoetan eta trakzio-sektoreetan hartzen dute garrantzi handiena Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatibek (ORTEGA ETA LOYOLA, 2018).

2014. urteari dagozkion datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko 500 langile baino gehiagoko manufaktura-industrien taldea osatzen zuten 27 enpresetatik 10 (% 37) kooperatibak ziren (ORTEGA, 2018:98).

Horregatik guztiagatik, konparatiboki, euskal kooperatibek ekonomian duten pisu espezifikoa beste ekonomia batzuetan duten pisu espezifikoa baino handiagoa da. Euskal kooperatibek 7.756 milioi euro fakturatu

zituzten 2018an —Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren datuen arabera—, % 6 inguruko BPGrako ekarpena egin zuten, eta EAEko enpleguaren % 5,7 hartu zuten (industriako enpleguaren % 11).

Hona hemen euskal kooperatiben enpresa-garapena berresten duten datu batzuk:

32. ilustrazioa. Euskal kooperatiben datu ekonomikoak (2002-2018) (mila eurotan)

	Balio erantsi gordina	Emaizak	Cash flowa
2002	2.027.100	-	-
2004	2.076.225	364.725	778.609
2006	2.519.945	501.807	920.619
2008*	2.507.603	341.452	991.192
2010*	2.476.439	212.820	933.202
2012*	2.394.313	85.049	912.685
2014	2.358.885	80.734	853.623
2016	2.636.355	476.585	905.136
2018	2.704.134	360.889	939.300

Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Eusko Jaurlaritzak

Balio erantsi gordina

Kooperatiben balio erantsi gordinaren eta euskal ekonomia osoaren balio erantsi gordinaren arteko konparazioa egin daiteke. Hala, 2018an EAEn sortutako balio erantsi gordinaren % 4, gutxi gorabehera, enpresa kooperatiboetan sortzen da.

Ez daukagu kooperatibek ekoizpen-sektore bakoitzean duten balio erantsi gordinaren daturik. Hala ere, gizarte-ekonomia osoari dagokion hurrengo taula ikusirik, kooperatibei dagozkien datuek ere % 4 hori baino pisu handiagoa erakutsiko dute industria-sektorean, enplegua analizatzean ikusi den bezalaxe.

33. ilustrazioa. Gizarte-ekonomiak BPG sektorialean duen parte-hartzea (2016 vs 2018)

	2016	2018
Industria	9,7	9,5
Eraikuntza	1,8	1,9
Zerbitzuak	3,1	2,8
GUZTIRA	4,6	4,4

Iturria: 2018ko Kontu Ekonomikoak. Eustat

Emaitzak

Kooperatiben datuak kooperatiba ez direnekin konparatzeko, bi enpresa moten Euskal Autonomia Erkidegoko datuak lortu dira SABI sisteman⁴.

34. ilustrazioa. EAEko kooperatiben eta kooperatiba ez direnen batez besteko emaitza ekonomikoen arteko konparazioa (2010-2018)

Urtea	Enpresa-taldeak	Batez besteko balio erantsia	Ekitaldiko batez besteko emaitza	Batez besteko cash flowa
2018	Kooperatibak	20.305	3.696	6.177
	Kooperatiba ez direnak	1.128	377	499
2016	Kooperatibak	7.469	1.123	1.848
	Kooperatiba ez direnak	960	300	407
2014	Kooperatibak	6.441	61	834
	Kooperatiba ez direnak	770	105	208
2012	Kooperatibak	11.813	649	2.079
	Kooperatiba ez direnak	796	91	201
2010	Kooperatibak	9.663	996	2.343
	Kooperatiba ez direnak	831	131	239
2008	Kooperatibak	13.429	2.553	4.859
	Kooperatiba ez direnak	1.023	248	366

Iturria: SABI

⁴ SABI Balantze Iberikoen Análisi Sistemari (gaztelaniazko Sistema de Análisis de Balances Ibéricos) dagozkion siglak dira. Sistema hori finantza-informazioa eta enpresa-inteligienciazko informazioa lortzeko tresna da, Espainiako 2 milioi enpresa baino gehiagoren urteko balantzeei dagokien informazioa biltzen duena.


Ikus daitekeenez, batezbestekoei dagokienez, enpresa kooperatiboak enpresa ez-kooperatiboak baino dimentsio handiagokoak dira analizatutako aldagai guztietan. Horrexegatik dute garrantzi handia lurralde-mailan horrelako erakundeek.

Fakturazioa

Enpresa kooperatiboen fakturazioari dagokionez, nabarmendu beharra dago Espainian fakturazio handiena duten 598 kooperatibetako 71 Euskal Autonomia Erkidegoan daudela (% 11,87), eta 8 fakturazio handiena duten 20en barruan (% 40).

Euskal enpresa kooperatiboek nazioartean duten pisua ere ikus daiteke World Cooperative Monitor programaren bitartez (2018).


35. ilustrazioa. Erakundeen munduko top 10 fakturazioaren arabera, World Cooperative Monitor programaren arabera



Iturria: World Economic Forum (2018)

Berriz nabarmentzen dugu MONDRAGON kooperatibek guztizko fakturazioari dagokienez duten garrantzi berezia, baita per capita BPGaren ehuneko gisako fakturazioan ere, lehen tokian kokatzen baita mundu-mailako erreferente gisa.

36. ilustrazioa. Erakundeen munduko top 10 per capita BPGaren gaineko fakturazioaren arabera, World Cooperative Monitor programaren arabera



CLASIFICACIÓN DE 2016	ORGANIZACIÓN	PAÍS	FACTURACIÓN/PIB PER CÁPITA 2016	FUENTE
1	Corporación Mondragón*	España	500 546,53	Cepes
2	Basin Electric Power Cooperative	EE. UU.	35 597,36	NCB
3	SACMI	Italia	34 988,90	Aida
4	C.M.C.	Italia	34 323,05	Aida
5	ORES Assets	Bélgica	28 424,82	NBB
6	Eandis System Operator	Bélgica	28 176,64	NBB
7	Oglethorpe Power Corporation	EE. UU.	26 168,40	NCB
8	Tri-State G&T Association	EE. UU.	23 511,62	NCB
9	Central Electric Power Cooperative, Inc.	EE. UU.	21 879,35	NCB
10	AVIA	Países Bajos	20 621,44	NCR

* La cifra del grupo Mondragón incluye la cooperativa de consumidores Eroski

Iturria: World Economic Forum (2018)


Esportazioak

Kooperatibek ekonomiaren esparru estrategikoetan duten garrantzia nazioarteko merkatuetan duten posizioa indartzeko egiten duten ahalegin handiak ere bermatzen du.

Kooperatibismoaren partida ekonomiko garrantzitsuenetako bat esportazioena da. Esportazioen proportzioa handitu egin da guztizko fakturazioan.

Hurrengo taulan ikus dezakegunez, gainera, 2018an gizarte-ekonomiako enpresa esportatzaileen negozio-zifraren % 62,2 esportazioei dagokiela. Datu hori ez dago erabilgarri kooperatibentzat, baina kontuan harturik esportazioen % 93,6 kooperatibek gauzatzen dituztela, ehuneko hori ezin da izan oso desberdina.

37. ilustrazioa. Esportazioek enpresa esportatzaileen guztizko fakturazioaren gainean duten pisu erlatiboaren bilakaera (2006-2018)



Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Eusko Jaurlaritz

38. ilustrazioa. Gizarte-ekonomiaren esportazioen banaketa sektoriala forma juridikoaren arabera (2018, zifra absolutuak milioi eurotan eta % horizontalak)

	GUZTIRA		Sozietate kooperatiboa		Lan-sozietate anonimoa		Lan-sozietate mugatua	
	Abs.	% hor.	Abs.	% hor.	Abs.	% hor.	Abs.	% hor.
Industria	2.993.886.155	100,0	2.811.730.443	93,9	149.046.666	5,0	33.109.045	1,1
Zerbitzuak	42.544.460	100,0	30.701.693	72,2	160.727	0,4	11.682.040	27,5
GUZTIRA (*)	3.036.430.615	100,0	2.842.432.136	93,6	149.207.393	4,9	44.791.085	1,5

(*) Ez du eraikuntza barnean hartzen.

Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Eusko Jaurlaritz

ORTEGAK (2019) aipatzen du, halaber, “kooperatibak nazioarteko merkatuetan duten posizioa indartzeari begira egiten ari diren ahalegin handia”. Nabarmentzen duenez, 2004an guztizko fakturazioaren gaineko esportazioen % 22tik abiatuta, % 36,5era iritsi dira 2016. urtean. Erabilgarri dagoen azken urtean datu horrek beherakada txiki bat izan du, eta 2014koen antzeko mailetara itzuli da (% 35,7).

39. ilustrazioa. EAEko kooperatiben esportazioak (2004-2018)



Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Eusko Jaurlaritz

Esportazioen zifrak enpresaren tamainaren arabera kontuan hartzen baditugu, garbia da enpresa handiek testuinguru horretan duten garrantzia, 500 enplegu baino gehiago dituzten enpresak baitira kooperatibek gauzatutako esportazio guztien ia % 50 egiten dituztenak.

40. ilustrazioa. EAEko gizarte-ekonomiaren esportazioen bolumena enplegu-geruzaren eta forma juridikoaren arabera (2018)

	GUZTIRA		Sozietate kooperatiboa		Lan-sozietate anonimoa		Lan-sozietate mugatua	
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
5 enplegu edo gutxiago	10.108.797	0,3	5.827.860	0,2	261.804	0,2	4.019.134	8,9
6-15 enplegu	32.575.629	1,1	20.475.448	0,7	1.106.962	0,7	10.993.220	24,4
16-50 enplegu	78.239.551	2,6	41.756.701	1,5	23.312.508	15,6	13.170.342	29,3
51-100 enplegu	170.436.244	5,6	146.481.443	5,2	23.954.801	16,1	0	0,0
101-200 enplegu	424.820.743	14,0	408.051.820	14,4	0	0,0	16.768.923	37,3
201-500 enplegu	901.066.613	29,7	800.495.295	28,2	100.571.318	67,4	0	0,0
500 enplegu baino gehiago	1.419.875.497	46,8	1.419.822.892	49,9	0	0,0	52.605	0,1
GUZTIRA	3.037.123.075	100,0	2.842.911.459	100,0	149.207.393	100,0	45.004.224	100,0

Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Eusko Jaurlaritz

Esportazioen helmugari dagokionez, helmuga-aniztasuna nabarmentzen da, eta azken urteetan Europara eta Ameriketako Estatu Batuetara egindako esportazioak suspertu direla antzeman da.

41. ilustrazioa. Esportazioen bolumenaren bilakaera zonen arabera

Urtea	Europa	Asia	AEB	Hego Amerika	Beste batzuk	GUZTIRA
2008	1.832.719.739	187.516.021	23.408.462	161.851.525	73.278.772	2.278.774.520
2010	1.320.051.370	368.215.473	146.944.839	207.929.597	117.840.487	2.160.981.766
2012	1.494.804.809	435.280.252	189.983.063	285.271.918	153.033.743	2.558.373.784
2014	1.591.059.228	397.845.670	199.688.078	204.668.504	138.851.915	2.532.113.395
2016	1.636.089.374	380.517.427	220.765.668	225.462.614	158.032.699	2.620.867.782
2018	1.743.247.962	412.729.329	245.768.470	247.626.333	193.539.365	2.842.911.459

Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Eusko Jaurlaritz

Enpresa-demokrazia: kooperatibak enpresa-demokraziaren esperientziak dira

Eredu kooperatiboak enpresa-esparruko demokraziaren praktika erdigunean jartzen du, eta protagonistei erabakitzeke ahalmena ematen dien antolamendu-eredua egituratzen du. Horrela, kooperatibak “pertsona bat, boto bat” printzipioari jarraitzen dioten egitura demokratikoak dira. Beste enpresa mota batzuekiko funtsezko diferentzietako bat da.

Kooperatibetan, demokraziaren praktika arkitektura instituzional berezi batean hezurramitzen da. Kooperatibaren gobernu-organismoak honako hauek dira: Batzar Nagusia, Zuzendaritza Kontseilua, Zaintza Batzordea eta Gizarte Kontseilua (aukerakoa).

Batzar Nagusia kooperatibaren organo gorena da; bertan biltzen dira bazkide guztiak. Batzar Nagusiak baino ez du izango honako pertsona hauek izendatzeko eta errelokatzeko eskumena: administratzaileak (Zuzendaritza Kontseilua), Zaintza Batzordeko kideak eta likidatzaileak, eta, hala badagokio, Errekurtso Batzordeko eta Gizarte Kontseiluko kideak. Halaber, Batzar Nagusiaren eskumen eskusiboa da, besteak beste, sozietatearen kudeaketa aztertzea, urteko kontuak eta soberakinen banaketa edo galeren egozpena onartzea, barne-araudia eta sozietatearen estatutuak onartzea eta aldatzea, eta estatutuen arabera kooperatibaren egitura ekonomikoan, antolakuntzakoan eta funtzionalean oinarritzko aldaketak eragin ditzaketan beste erabaki guztiak hartzea (Kooperatiben 11/2019 Legea).

Zuzendaritza Kontseilua administratzaileek osatzen duten kide anitzeko organoa da. Berari baino ez dagokio kooperatiba kudeatzea eta ordezkatzeta. Gainera, legeak edo estatutuek sozietatearen beste organo batzuei berariar erreserbatzen ez dizkieten ahalmen guztiak egikaritzen ditu. Administratzaileak bi eta bost urte bitarteko aldi baterako hautatuko dituzte, estatutuek finkatutakoaren arabera, eta kargua doakoa izango da. Administrazio-organismoak ahalorde orokorrak eman eta errelokatu ahal izango dizkie zuzendaritzako edo kudeatzailetzako arduradun bati edo batzuei, kooperatibaren ohiko kudeaketarako. Lehen adierazi bezala, kooperatiben lege berriak aurreko araudian baino modu zabalagoan eta ez hain generikoan garatzen du administratzaileen arduraz eta leialtasunez jokatzeko betebeharrak. 49.1 artikulua honela dio: “Administratzaileek beren karguari dagozkion funtzioak eta legeetan eta estatutuetan ezarritako betebeharrak enpresaburu onaren arretaz bete beharko dituzte, kontuan harturik zer izaera duen haien karguak eta zer funtzio esleitu zaizkien, eta behar besteko neurri hartu beharko dituzte kooperatiba behar bezala kudeatzeko eta ordezkatzeko”.

Zaintza Batzordea gutxienez hiru kidek osatzen dute. Bere eginkizunen artean dago urteko kontuak berrikustea eta horiei buruzko nahitaezko txostena ematea, baita soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruzkoa ere, Batzar Nagusiari aurkeztu aurretik (salbu eta kooperatiba bere egoera-orri finantzarioak kontu-auditoretzaren mende jartzera behartuta badago), edo Batzar Nagusiak gainerako organoetako kideak hautatzeko eta izendatzeko prozesua zaintzea. Kargu hori bateraezina da administratzaile-karguarekin.

Gizarte Kontseilua estatutuetan aurreikusita egon daitekeen aukerako organoa da. Bazkide kooperatibisten ordezkartza-organo horren oinarrizko eginkizunak dira administratzaileei informazioa, aholkularitza eta kontsulta ematea lan-harremanean eragina duten alderdi guztietan. Gainera, alderdi horiei buruzko nahitaezko txostena eman beharko du.

Arestian aipatu dugun bezala, lana kooperatibizatze bokatzea izan da euskal eredu kooperatiboaren ezaugarrietako bat. Hori dela eta, euskal errealitate kooperatiboak lan elkartuko kooperatiben presentzia handia du bereizgarri. Ildo horretan, bazkide langilearen kontzeptua sortzen da, eta bi baldintza aintzat hartzen ditu: aldi berean langilea eta enpresaren jabeak izatea. Lan-bazkideak barnean hartzen dituzten kooperatibetan, erakundearen maila guztietan parte hartzeko aukera irekitzen da: emaitzetan, jabetzan eta kooperatibaren kudeaketan.

Emaitzen banaketari dagokionez, kooperatiben diferentzial nagusia da emaitzak ez direla banatzen pertsona bakoitzak enpresan duen kapitalaren arabera. Ekitaldi ekonomiko bakoitzean, soberakinik izanez gero, eta horretarako berariazko eragozpenik ez badago, egindako lanaren arabera (lan-prestazioa) edo bazkide bakoitzak kooperatibarekin egindako eragiketa, zerbitzu edo jardueren arabera egingo da soberakinaren banaketa. Bazkideen artean banatu beharreko soberakinaren zati horri kooperatiba-itzulkin positiboa deitzen zaio. Gainera, lanagatik jasotzen duten ordainsaria —lan-aurrerakina deritzona— solidarioagoa da, hau da, ordainsari gutxien jasotzen duen pertsonaren eta gehien jasotzen duenaren arteko aldea irizpide solidarioekin bat dator.

Kooperatibetan, beraz, ereduarekin berarekin lotuta dago emaitzetan eta jabetzan parte hartzea. Kudeaketan, hau da, langileek beren lanpostuan duten autonomian eta autogestioan parte hartzeari dagokionez, enpresa mota guztietan susta daiteke —kooperatibak izan edo ez—, eta oso frogatuta dago pertsonak proiektuarekin duten gogobetetze- eta konpromiso-maila handitu egiten dela. Kooperatibetara mugatzen ez den parte-hartzearen esparru horretan ere, enpresa mota guztiei zuzendutako kudeaketako parte-hartzearekin lotutako galdetegietan —Lattitude erabakia, EU parte-hartzea, EBko testuinguruko parte-hartzea, EBko inkestako parte-hartzea—

kooperatiben abantaila nabarmena dago beste forma juridiko batzuk dituzten sozietateekin alderatuta. Hala erakusten du Gipuzkoako lurralde historikoan egindako ORTEGAREN (2019) azterlanak.

ORTEGAK (2019) dioten bezala, “Gipuzkoako kooperatibetako langileek beren enpresetan autonomia- eta gardentasun-maila handiagoak daudela ikusten dute, hau da, jarrera proaktiboagoa hartzen uzten zaie eta erabakiak hartzeko autonomia handiagoa dute. Gainera, informazio gehiago dute enpresa-proiektuari eta enpresaren emaitzei buruz. Era berean, enpresak pertsonak kudeaketan parte hartzea errazten duten eta prestakuntzan inbertitzen duten mekanismoak dituela ikusten dute” (109. or.). Maila positibo horiek langileek hautemandako maila psikosozialetan islatzen dira, batez ere konpromisoaren eta konfiantzaren aldagaietan.

Kooperatibetan, lanpostuan parte hartzea sustatzeko praktikek, erabakietan parte hartzeak, emaitzek eta jabetzak, eredu kooperatiboaren berezkoak direnak, eragin bikoitza dute pertsonak egiten duten lanari ematen dioten motibazioan eta zentzuan (ARREGI ET AL. 2019).

Azken batean, kooperatibek enpresa-eredu aurreratua eskaintzen dute demokrazia eta langileen parte-hartzea enpresaren esparruan praktikan aplikatzeko orduan. Partaidetzazko kudeaketa-ereduak beren borondatez susta ditzaketen kapital-enpresek ez bezala, kooperatibak, beren izaera demokratikoa dela eta, legez behartuta daude gobernantza-eredu bereizi bat garatzera, non, gorago ikusi dugun bezala, erabaki garrantzitsuenak Batzar Nagusian hartzen diren, bazkide guztien bilera-organo gorenaren baita, “pertsona bat, boto bat” maximaren arabera funtzionatzen duena. Erabakiak hartzeko ahalmena bazkideen esku egotea, noski, ez da kontu txikia. Horregatik guztiagatik, kooperatibek aukera ematen dute enpresaren esparruan parte hartzeko eredu integral eta koherente baterantz jotzeko, erakundearen erabaki-ahalmena eta lanaren antolamenduan parte hartzeko kudeaketa-ereduak sustatzeko aukera uztartuz (UDAONDO ET AL. 2019).

Euskal kooperatibak, erreferenteak elkar-lankidetzaren praktikan

Kooperatibak autoantolaketan eta lankidetzan oinarritutako erakundeak dira. Baina lankidetzaz ez da mugatzen erakundearen barruko pertsonen arteko harremanera; aitzitik, kooperatiben artean eta beste erakunde publiko zein pribatu batzuekin lankidetzaz-harremanak ezartzen direnean zabaltzen du bere ahalmen osoa. Kooperatibek berezko joera dute elkarteak eta sareak sortzeko. Kontua da lankidetzaz antolatzea kooperatiben eta lurraldeko beste eragile batzuen arteko elkartasun-mekanismo zehatzen bidez, erronka sozioekonomikoei batera heltzeko. Elkar-lankidetzak sinergiak sortzeko eta lurraldea garatzeko duen ahalmena ikaragarria da.

Euskal mugimendu kooperatiboak erakunde- eta antolaketa-sormenaren dosi handiak erakutsi ditu elkar-lankidetzarako mekanismo zehatz eta berritzaileak garatu dituenean. Ildo horretan, paradigmatikoa da Mondragon Taldearen kasua, mundu mailako erreferentea baita elkar-lankidetzaren garapenari dagokionez. Kooperatibak elkartzeko eta supraegiturak sortzeko mekanismoak garatu dira; kooperatiben beharrei erantzuteko funts komunak (galerak konpentsatzeko nahiz inbertsio berriak bultzatzeko); zailtasunak dituzten kooperatibetatik datozen langileak lan-eskaria duten beste kooperatiba batzuetan birkokatze mekanismoak; eta emaitza ekonomikoak birmoldatzeko formulak (emaitzak kooperatiben artean urtero birbanatzea), besteak beste. Datu gisa, aipatu behar da Mondragonek 11 milioi euro baino gehiago bideratu zituela 2018an zailtasunak zituzten kooperatiben hezkuntzarako eta laguntza solidarioarako.

Elkar-lankidetzak, alde batetik, kooperatiben lehiazeko gaitasuna handitzen du, askotan haien dimentsio eta finantza-gaitasun txikia dela eta, beren kabuz ezin baitiote aurre egin nazioartekotzeari edo irismen handiagoko gizarte- eta enpresa-proiektuak abian jartzeari. Bestetik, elkar-lankidetzak, kooperatiben arteko elkartasunaren printzipioaren adierazpen gisa, sortutako aberastasuna birbanatzeko eta krisiari hobeto aurre egiteko formula bat da. Elkar-lankidetzak, elkartasunaren ideiaaren aplikazio praktikoa gisa duen balioaz harago, faktore erabakigarria izan da kooperatiben enpresa-garapenerako, baita lehia-abantaila nabarmena ere, berrikuntza edo nazioartekotzea bezalako erronkei aurre egiteko orduan.

Elkar-lankidetzak finantzaketa eskuratzea errazten du —Euskal Autonomia Erkidegoko elkar bermatzeko sozietateak (ELKARGI) erakusten duen bezala—, baita garapen kooperatiboa eta kooperatiba berrien sustapena ere —ELKARLAN—; eta, azken batean, mugimendu kooperatiboa indartzea eta zabaltzea.


Kooperatiben arteko eta kooperatiben eta beste eragile batzuen arteko elkar-lankidetzaren beste adibide batzuk honako hauek dira: OlatuKoop sarea, bere burua tokiko eragile sozioekonomikoen eta komunitarioen arteko elkar-lankidetzarako saretzat jotzen duena; eta Euskadiko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea (REAS-Euskadi), erakunde ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko elkar-lankidetzak sustatzen duena.

Kooperatiben orientazio berritzailea

Ebidentziek adierazten dutenez, euskal enpresa-ehunaren barruan, kooperatibak neurri handiagoan bideratzen dira berrikuntza-jardueretarantz. Berrikuntza-jarduerak egiten dituzten kooperatiben ehunekoa EAEko enpresa guztiena baino handiagoa da: % 25,8 eta % 17,

hurrenez hurren (ORTEGA ETA LOYOLA, 2018). EAEko gizarte-ekonomia osoaren mailan, proportzio hori % 22,1ean kokatzen da 2018. urtean, eta % 29,3ra iristen da industria-sektorean.

42. ilustrazioa. Berrikuntza-jarduerak garatzen dituzten enpresen ehunekoa (EAE, 2014)



Iturria: ORTEGA (2019)

Kooperatibek berrikuntzarako duten orientazio berezia azpimarratzen hasi diren beste azterlan batzuek ere datu horiek berresten dituzte. *Orkestra - Lehiakortasunerako Euskal Institutuaren 2015eko azterketek* nabarmentzen dute kooperatibek arlo horretan duten “portaera aparta” dela. Orkestratik azpimarratzen dutenez, errentagarritasunari eta finantza-egoerari zegokienez merkataritza-enpresen aurrean nabarmentzen ez ziren egoera izanda ere, kooperatibak berrikuntzan gailentzen ziren, merkataritza-enpresek baino batez besteko gastu handiagoa egiten baitzuten I+G jardueretan.


ORTEGA ETA LOIOLAK (2018), Orkestraren 2015. urteko lehiakortasun-txostenean oinarrituta, honako hau diote:

- Kooperatibek lankidetzeta-maila handiagoa dute enpresen arteko berrikuntza-jardueretan eta -prozesuetan.
- Kooperatibek ahalegin handiagoa egiten dute berrikuntzan; izan ere, salmenten gutzitza bideratzen dute berrikuntzara, ehunekoetan, gainerako enpresek baino.
- Kooperatibek barne-gaitasun gehiago sortzen dituzte berrikuntza-jarduerak garatzeko.
- Kooperatiben artean enpresa berritzaileen ehuneko handiagoa dago.
- Kooperatibek jarduera berritzaile handiagoa dute, produktuaren berrikuntza handiagoan, berrikuntza ez-teknologikoa handiagoan eta berrikuntza teknologikoa eta ez-teknologikoa konbinatzen dituzten enpresen ehuneko handiagoan neurtuta.
- Kooperatibek portaera hobea dute merkaturatutako produktuen berritasun-mailari dagokionez.


Horrekin guztiarekin esan daiteke euskal kooperatibek industria-esparruan lortu duten garrantzia haien berrikuntza-gaitasunari hertsiki lotuta dagoela. Ildo horretan, azpimarratzekoa da 2017. urtean, industria-esparruan, I+Gra bideratutako baliabideak balio erantsiaren % 8,6 izan zirela.

Atal honetan, egokia da Mondragon Taldearen datuak aipatzea; izan ere, 2017an, EAEn I+Gra bideratutako baliabideen % 12 jarri zituen. Mondragonek, gainera, 15 zentro teknologiko eta I+G unitate ditu, eta horietan 2.000 ikertzailek lan egiten dute gutxi gorabehera (MONDRAGON, 2018):

43. ilustrazioa. MONDRAGONEK I+Gra bideratutako baliabideak



Recursos destinados a I+D



Iturria: Mondragonek EAEn 2018an izandako eragina. MONDRAGONEN aurkezpena (2019ko abendua)

Enpresa kooperatiboek egindako berrikuntzak eragina du enpleguari dagokionez ere. Hala, enpresei berrikuntzak enpleguan duen eraginari buruz galdetzean, kooperatiben % 55,8k berretsi dute berrikuntzak enpleguan eragina izan duela (% 54,6k enplegu kualifikatuan izandako eragina aipatu dute), eta % 3,9k uste dute berrikuntzak enplegu-mailaren murrizketa mugatzea ahalbidetu duela (% 2 enplegu kualifikatuari dagokionez). Interesgarria da datu hau: % 19,6k uste dute berrikuntzak enplegua handitzera eraman dituela, eta proportzioa % 22,6ra igotzen da enplegu kualifikatuaz hitz egiten dutenean.

44. ilustrazioa. 2018an kooperatibetan berrikuntzak enpleguaren gainean izan duen eragin mota eta horren intentsitatea (enpleguaren gaineko berrikuntzaren eragin motaren bat berretsi duten enpresen ehunekoa)

	Enplegu osoa	Enplegu kualifikatua
ERAGINA IZAN DU ENPLEGUAREN GAINEAN	% 55,8	% 54,6
Enplegua handitu egin da	% 19,6	% 22,6
Enplegua mantendu egin da	% 22,1	% 18,8
Enplegu-mailaren murrizketa mugatzea ahalbidetu du	% 3,9	% 2,0
Enplegua murriztu egin da	% 0,2	% 0,3
Ed/Ec	% 10,0	% 10,9

Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Eusko Jaurlaritz

Azkenik, garrantzitsua da azpimarratzea euskal kooperatiben berrikuntza-gaitasuna ez dela esparru teknologikora mugatzen; izan ere, euskal kooperatibek berrikuntza-gaitasun handia erakutsi dute antolaketa-eta gizarte-mailan, lerro hauetan frogatu den bezala: beren egituretan hainbat bazkide mota biltzen dituzten kooperatibak sortzeko gaitasunetik hasi, eta historian zehar eta gaur egun autogestio-behar berriei eta askotarikoei erantzuteko gaitasunera iritsi arte (industria, hezkuntza, kreditua, zainketak, energia, cohousinga, nekazaritza ekologikoa eta abar), kooperatiben arteko lankidetzak bermatzeko mekanismo berritzaileen garapena tartean dela.

Kooperatibak sustraituta eta gizarte-eraldaketarekin konprometituta dauden erakundeak dira

Eredu kooperatiboa lurralde-euskarri sendoa duen eredia da. Kooperatibak lurraldean finkatuta dauden eta haren garapenarekin konprometituta dauden erakundeak dira. Gizarte zibilaren ekimenez sortzen dira, lurraldeari lotutako pertsonen ekimenez. Eta ikusi dugunez, kooperatibetan, erabakitze ahalmena lurraldean bizi diren pertsonengan dago.

Kooperatibetan bazkideak dira erakundearen jabeak, eta horrek azaltzen du zergatik dauden kooperatibak, oro har, beren lurraldean oso sustraituta. Kooperatiba baten helburua da bideragarria izatea, mantentzea eta haztea, baina bazkideek beren helburu sozialak lortzeko aukera izan dezaten. Eta ohikoena da, eta bere homologo kapitalista baino askoz gehiago gainera, bazkide gehienak lurralde berekoak izatea.

Aurrez aurkeztutako fakturazio-datuekin, balio erantsi gordinarekin eta cash flowarekin batera, funts propioen eta batez besteko errentagarritasunaren datuak azter daitezke. Hala, hurrengo taulan gizarte-ekonomiari buruzko datu horiek ikus daitezke. Lehenengo eta behin, datu agregatuak aurkezten dira, sektoreka, industria-sektoreentzako funts propioen errentagarritasuna eta horien banaketa sektoriala forma juridikoaren arabera, adierazle horietan kooperatibismoak duen pisua behatzeko.

45. ilustrazioa. Gizarte-ekonomiaren funts propioen banaketa sektoriala (2016 vs 2018)

	2016		2018	
	Euroak	% ber.	Euroak	% ber.
Lehen sektorea	6.692.783	0,1	10.031.383	0,2
Industria	2.586.547.395	44,5	2.250.593.200	41,0
Eraikuntza	36.893.180	0,6	35.973.693	0,7
Zerbitzuak	3.181.242.302	54,7	3.198.497.417	58,2
GUZTIRA	5.811.375.660	100,0	5.495.095.693	100,0

Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Eusko Jaurlaritzak

46. ilustrazioa. Funts propioen banaketa sektoriala eta funts propioen gaineko errentagarritasunaren erreferentzia (2018)

	Funts propioak	Funts propioen gaineko errentagarritasuna	
		2016	2018
Industria ⁽¹⁾	2.286.566.893	10,8	9,7
Zerbitzuak	3.198.497.417	7,0	6,0
GUZTIRA	5.495.095.693	8,7	7,6

⁽¹⁾ Eraikuntza barnean hartzen du

Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Eusko Jaurlaritz

47. ilustrazioa. Gizarte-ekonomiaren funts propioen banaketa sektoriala forma juridikoaren arabera (2018)

	GUZTIRA		Sozietate kooperatiboa		Lan-sozietate anonimoa		Lan-sozietate mugatua	
	Abs.	% hor.	Abs.	% hor.	Abs.	% hor.	Abs.	% hor.
Lehen sektorea	10.031.383	100,0	9.712.180	96,8	0	0,0	319.203	3,2
Industria	2.250.593.200	100,0	2.059.520.724	91,5	125.692.784	5,6	65.379.692	2,9
Eraikuntza	35.973.693	100,0	23.348.141	64,9	10.262.692	28,5	2.362.861	6,6
Zerbitzuak	3.198.497.417	100,0	3.157.225.989	98,7	14.588.201	0,5	26.683.226	0,8
GUZTIRA	5.495.095.693	100,0	5.249.807.034	95,5	150.543.677	2,7	94.744.982	1,7

Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Eusko Jaurlaritz

Kooperatiben funts propioak 5.249 milioi eurokoak dira, hau da, gizarte-ekonomiako funts propio guztien % 95,5. Industrian eta zerbitzuetan, horren ondorioz, funts propioen gaineko errentagarritasuna % 7,6 ingurukoa da. Datu horiek epe luzerako enpresa-jasangarritasuna, lurralde-sustraitzea eta etorkizuneko belaunaldientzako ondarea bermatzen dituzte.

Ingurunearekiko konpromisoa, gainera, legezko agindu bat da, modu estrukturalan egituratzen dena kooperatiba-heziketa eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako nahitaezko ekarpenaren (COFIP) bidez; horrela, kooperatibek gutxienez beren irabazien % 10 bideratzen dituzte inguruko proiektu sozial eta kulturalak babestera. Euskal gizartearen proiektu eta kolektibo askok jaso dute eta jasotzen dute kooperatiben babesa mekanismo horri esker. Gizarte Ekonomiaren Euskal

Behatokiaren 2017ko datuen arabera, kooperatibek 30.055.095 € bideratu zituzten gizarte-ekintzetara.

Baina COFIPetik harago, euskal kooperatibismoaren funtsezko ekarpenetako bat kalitatezko enplegu egonkorra sortzeko konpromiso sistematikoa izan da, eta enplegua mantentzeko lehentasuna eman zaio kapitala maximizatzeko beste irizpide batzuen aurretik.

Kooperatibek, justizia sozialak gidatuta, aberastasuna modu ekitatezkoagoan sortzeko eta banatzeko sistemak sustatzen dituzte. Kooperatibetan, ekarritako lanaren arabera edo bazkide bakoitzak kooperatiban egindako eragiketa, zerbitzu edo jardueren arabera banatzen dira emaitzak. Gainera, irizpide solidarioagoetara egokitzen diren ordainsari-baremoak ezartzeko joera dute kooperatibek. Alde horretatik, esan dezakegu kooperatibak gizartean eragin handia duten banaketa aurreko palankak direla. Erakundea osatzen duten pertsonen artean aberastasuna eta boterea modu ekitatezkoagoan banatzen dituzten heinean (errentaren lehen mailako banaketa), gizarte berdinizaleagoak eta kohesionatuagoak sortzen dituzte.

Kooperatiben sustraitzea ekoizpena nazioartekotzen den kasuetan ere islatzen da; izan ere, multilokalizazio-estrategiei esker, atzerrian instalazioak irekitzeko oinarria tokiko enpleguari eustea da. Esan genezake, enpresen eta kapitalen aldakortasunaren aurrean, eta horiekin kontrastatuz, kooperatibek beren sendotasuna eta denboran eta espazioan duten iraunkortasuna dutela bereizgarri.

Azpitarratzekoa da, bestalde, pertsonen garapenari eta kapital sozialaren sorrerari egiten dieten ekarpena. Pertsonak eredu kooperatiboan duen zentraltasunak inplikaturako pertsonen garapen pertsonal eta profesionalera bideratutako prestakuntza- eta sustapen-estrategietan inbertitzea dakar berekin. Era berean, kooperatiba bateko bazkide izateari lotutako autogestioa eta bizipenak kultura eta egiteko modu zehatzak sortzen ditu. Lankidetzaren eta elkartasunaren kultura horri esker, lurraldean konfiantzazko sare sozialak ehundu daitezke. Sare horiek funtsezkoak dira ekintza kolektiborako eta “komunitate” sena sortzeko. Kapital sozial hori, ukiezina, oso aktibo garrantzitsua da lurraldearen garapen sozioekonomiko eta kulturalerako.

Kooperatibak, gainera, gizarte zibileko erakundeak diren aldetik, sentikorrek dira gaur egungo erronka sozialekiko, hala nola gizonen eta emakumeen arteko berdintasunarekiko, inklusioarekiko edo ingurumen-jasangarritasunarekiko. Azken horri dagokionez, 2019ko EAEko Industria Ekobarometroan lortutako emaitzek erakusten dute kooperatibek eta, oro har, gizarte-ekonomiako enpresek ingurumenarekiko sentikortasun handiagoa

dutela, baina sentikortasun hori ez dela modu frogagarrian islatzen praktika kooperatiboan. Horregatik, eta idiosinkrasia kooperatiboaren arabera, garapen jasagarriko estrategiaren aldeko apustua egiten duen Europako Itun Berdearen esparru berrian, kooperatibak eta gizarte-ekonomia oro har politika horiek EAEn ezartzeko bidean jarri beharko lirateke⁵.

Nolanahi ere, konparazio bat egiteko enpresa ez-kooperatiboei buruzko daturik ez badaukagu ere, honako taula honetan erakusten da, tamainaren arabera, 2018an prestakuntza-planak, berdintasun-planak edo gizarte-erantzukizun korporatiboari edo balantze sozialari buruzko txostenak dituzten tresnak garatu dituzten kooperatiben ehunekoa.

48. ilustrazioa. 2018an kooperatibetan kudeaketa-tresnak edukitzea
(tresna horiek dauzkaten enpresen ehunekoa)

	5 enplegu edo gutxiago	6-15 enplegu	16-50 enplegu	51-100 enplegu	101-200 enplegu	201-500 enplegu	500 enplegu baino gehiago
Barne-araudia	19,9	39,2	70,0	79,3	94,4	94,6	92,9
Kudeaketa-plana	23,4	27,6	65,4	86,3	97,7	86,9	100,0
Prestakuntza-plana	18,9	46,9	69,0	86,8	92,1	100,0	100,0
Plan estrategikoa	13,4	21,7	55,2	80,3	89,0	86,9	92,9
Lanpostuak baloratzeko eskuliburua	11,2	29,4	56,9	72,3	70,1	93,4	92,9
Jokabide-kodea - Kode etikoa	8,7	18,3	29,0	42,0	56,4	63,6	63,6
Gizarte-erantzukizun korporatiboari edo balantze sozialari buruzko txostena	6,7	8,4	22,2	20,0	29,6	63,7	70,0
Berdintasun-plana eta Familiaren eta lanaren kontziliazioa	4,4	12,0	26,2	26,2	31,9	76,3	79,3

Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Eusko Jaurlaritz

⁵ Mondragon Unibertsitateak —Goi Eskola Politeknikoa—, Aclimak, Ihobek eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak egindako “Gizarte-ekonomiako enpresen ingurumen-sentikortasunaren diagnostikoa” proiektuaren esparruan egindako ikerketa.

Azken batean, kooperatibak zaindu eta hobetu nahi duten ondare baten zaindari gisa identifika daitezke, etorkizuneko belaunaldientzat duten konpromisoaren eta erantzukizunaren erakusgarri. Aurreko guztiagatik eta laburbilduz, esan daiteke euskal kooperatibismoa sustraitutako mugimendu sozioekonomikoa dela, eta Euskal Autonomia Erkidegoko giza garapen jasangarriarekin konprometituta dagoela.

2.4. AZPIFAMILIA KOOPERATIBOAK

Irakaskuntza-kooperatibak

Irakaskuntza-kooperatiba gehienak Konfekoopen elkartuta daude (duela gutxi arte Erkide-Irakaskuntzan), eta hezkuntza-maila guztietan egiten dute lan, hasi haur-hezkuntzatik eta unibertsitatera iritsi arte, lanbide-heziketa tartean dela. Helduak euskalduntzeko kooperatibak (*euskaltegiak*) ere sartzen dira talde sektorial horretan.

49. ilustrazioa. Irakaskuntza-kooperatiba federatuak

TALDEA	Kooperatiba kopurua	Enplegu kopurua
Ikastolen Elkartea	56	4.151
Ikasgiltza	13	945
HETEL	3	144
EIB	3	450
MU	3	471
Euskaltegiak	4	133
Elkartu gabeak	6	124
GUZTIRA	88	6.418

Iturria: Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa (2018)

Guztira, 2018ko datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan 88 irakaskuntza-kooperatiba federatu daude. Kooperatiba motari dagokionez, 48 gurasoen kooperatibak dira (gurasoak erabiltzaile dituzten kontsumo-kooperatibak); 12 irakasleen eta irakasle ez diren langileen kooperatibak (lan elkartuko kooperatibak); eta gainerako 24ak kooperatiba integralak dira, aipatutako bi esparruak uztartzen dituztenak.

Hiru kooperatiba mota horiek, gainera, bazkide kolaboratzaileak integra ditzakete.

50. ilustrazioa. Irakaskuntza-kooperatiben gizarte-errolda

	2017	2018	2019
Kooperatiba elkartuen kopurua	85	88	88
Ikasle kopurua	74.405	75.820	76.319
Enplegu kopurua	6.418	6.688	6.819
Ikasle kopurua	5.163	5.386	5.473
Irakasle ez diren langileak	1.255	1.302	1.346

Iturria: Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa

Kooperatiba horiek, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko sarearen % 35 ordezkatzen dute. Kooperatiba horiek 57.278 bazkidek, 6.688 langilek eta 75.820 ikaslek osatzen dituzte. Irakaskuntza-kooperatibetako ikasleen % 80 gutxi gorabehera ikastolei dagozkie.

Ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten irakaskuntza-kooperatiba federatuen berezitasuna islatzen duten elementuak aipatuko ditugu (BENGOETXEA, 2019):

- **Ekimen kolektiboa:** Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren definizioaren arabera, irakaskuntza-kooperatiba pertsona talde baten ekimen kolektiboa da, hezkuntza-interes komun bati elkarrekin erantzuteko, eta, horretarako, jabetza bateratuko eta kudeaketa demokratikoko enpresa bat sortzen du. Kooperatiba oro bezala, eta atxikimendu askearen printzipioaren arabera, helburu komun hori partekatzen duen pertsona orori irekitako ekimena da.
- **Administrazioarekiko lehentasunezko harremana:** LOEk (2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa) bi ikastetxe mota bereizten ditu: publikoak eta pribatuak. Azken horiek, era berean, itunpekoak (funts publikoekin sostengatuak) izan daitezke ala ez. Irakaskuntza-kooperatibak hezkuntzaren esparruan zerbitzu publikoa ematen duten itunpeko ikastetxe pribatuak dira. Horregatik, ikastetxe kooperatiboekin ituntzearen aldeko lehentasuna ezartzen du lege horrek. Kooperatibak irabazi-asmorik gabekoak direlako bereizten dira, itundu gabeko ikastetxeetan egon litekeen irabazi-asmoaren aldean. Gainera,

azpimarratu behar da itundu gabeko ikastetxeen irakaskuntza-eredua erabat pribatua dela, hezkuntza-itunek ematen duten zerbitzu publikoaren izaerarik gabe.

- **Hezkuntza-zerbitzu publikoaren eredu propioa:** kooperatibek eskaintzen duten eredia administrazioaren mendeko ikastetxe publikoek eta gainerako ikastetxe pribatuek —itunpekoak nahiz ez— eskaintzen dutenaren desberdina da, printzipio kooperatiboak betetzean oinarrituta. Kooperatibak gizarte-ekimenetik edo herri-ekimenetik sortzen dira. Definizioz ezin dira publikoak izan, Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren 4. printzipioak argi eta garbi ezartzen duen moduan. Hezkuntza-zerbitzu publikoa eskaintzen duten itunpeko ikastetxe pribatuak dira. Ildo horretan, irakaskuntza-kooperatibak erakunde publikoetara hurbiltzen dira, planteamendu berberak erakusten baitituzte diskriminaziorik eta elitismorik gabeko zerbitzu publikoaren nozioari dagokionez.
- **Autogestio kooperatiboaren ereduaren berezitasuna:** irabazi-asmorik eza, pertsonen kapitalaren gaineratik duten nagusitasuna eta zerbitzu publikoaren bokazioa ardatz hartuta, ikastetxe publikoekin eta itunpeko ikastetxe pribatu batzuekin partekatzen dituzten elementuak dira. Irakaskuntza-kooperatibek ezaugarri nagusia autogestio kooperatiboaren eredia da, eta, alde horretatik, ikastetxeen gainerako aldaeretatik aldentzen dira. Kudeaketa kooperatiboak esan nahi du ikastetxearen titularrak, baterako jabetzan eta kudeaketa demokratikoan, ikastetxean lan egiten duten langileak izango direla (irakasleak eta administrariak), edo zerbitzuaren erabiltzaileak (gurasoak eta ikasleak), edo, kooperatiba integralen eredu kooperatibo garatuenean, bi kolektiboak.
- **Kooperatiben errealitate finkatua eta hazkunde iraunkorra:** irakaskuntza-kooperatibek azken hamarkadan izan duten bilakaerak argi eta garbi erakusten du bilakaera positiboa izan dela, bai kooperatiba kopuruari dagokionez, bai irakasle kopuruari eta ikasle kopuruari dagokionez. Gainera, kontuan izan behar da euskal kooperatiba gehienek 50 urte inguru dituztela, eta, beraz, ondo finkatuta eta beren tokiko inguruneetan sustraituta dauden erakundeak direla.
- **Hezkuntza-komunitate osoaren interesak harmonizatzea:** hezkuntza-komunitate osoaren konpromisoan oinarrituta jarduten dute irakaskuntza-kooperatibek. Ikasleek, gurasoek, irakasleek eta irakasle ez diren langileek osatzen dute komunitate hori. Kolektiboen interesak proiektu partekatu baten esparruan harmonizatzen ahalegintzen dira. Horixe da kooperatiba integralen kasua.

- **Ikastetxeen titulartasuna:** irakaskuntza-kooperatiben ezaugarri nabarmenetako bat da ikastetxearen titulartasuna kooperatibari berari dagokiola. Lan elkartuko kooperatibak izan daitezke, bazkideak langileak direnean (irakasleak eta irakasle ez diren langileak) (lan elkartuko kooperatibak); kontsumo-kooperatibak (bazkideak erabiltzaileak, ikasleak eta gurasoak direnean); eta kooperatiba integralak, aipatutako bi bazkide motak barne hartzen dituztenean. Azken horietan aurkitzen dugu interesen kontziliazioaren eta helburu komunaren adierazle gorenak.
- **Onura publikoko kooperatibak:** Konfekoopen elkartutako 86 kooperatiben artean, 80 “onura publikoko” kooperatiba deklaratu ditu Eusko Jaurlaritzak. Irabazi-asmorik gabeko kooperatibak dira, eta beren eginkizunak garatzearen bidez laguntzen dute Euskal Autonomia Erkidegoaren interes orokorra sustatzen.

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekimeneko eta onura publikoko kooperatibak eskubide osoko irabazi-asmorik gabeko erakundetzat har daitezke juridikoki eta fiskalki, eta, horrela, onura publikoko elkarteen eta fundazioen parekoak izango dira beren zerga-tratamenduan. Ezaugarri hori euskal kooperatiben bereizgarria eta nabarmena da, Espainiako Estatuko gainerako irakaskuntza-kooperatiben aldean.

Ikastolen mugimendua

Irakaskuntza-kooperatiben barruan, uste dugu ikastolek berariazko aipamena merezi dutela esperientzia aipagarri gisa, bai euskal mugimendu kooperatiboan bertan, bai Europan (ZELAIA, in DEL BURGO, 2013).

Ikastolen mugimendua XX. mendeko 60ko hamarkadan sortu zen, Francoren diktaduraren testuinguruan euskal hizkuntzaren eta kulturaren transmisioa bermatzeko sektore publikoak eta pribatuak asebate ez zuten beharrari erantzuteko.

Ikastolak ibilbidea klandestinitatean eta ikasle kopuru txikiarekin hasi zuen “herri-mugimendu” gisa defini daitezke. Guraso eta irakasleen konpromiso iraunkor eta mankomunatuaren bidez hedatu zen mugimendua, eta autogestioa eta autofinantzaketa izan zen gizarte-mugimendu horren izendatzaile komuna (BASURTO, in DEL BURGO, 2013). Ikastolak garai hartako eskola nazionalaren eta eskola pribatuen —gehien-gehienak erlijiosoak— hezkuntza-alternatiba gisa eraiki ziren, eta berrikuntza pedagogikoa izan zen haien bigarren ezaugarria.

Ikastolen osagaiak, beste esperientzia kooperatibo batzuen kasuan bezalaxe, autogestioa, gizarte-ekimena eta demokrazia dira. Hala ere,

ikuspegi juridikotik, 60ko hamarkadan ikastolek ez zeukaten legeztatzeko irizpide homogeneous. Hezkuntzari buruzko 14/1970 Lege Orokorra aldarrikatu zenetik, kooperatiben legezko formula bere egin zuten ikastola gehienek.

Lege horrek garai berri baten hasiera ekarri zuen ikastolen historian, eta eraldaketa sakona eragin zuen. Ikastolak klandestinitatetik legeztatzeraren igaro ziren, eta horrek haien garapena eta hazkundera ekarri zuen.

Lege horrek aldaketa garrantzitsuak ekarri zituen; besteak beste, hezkuntza-azpiegiturei dagokienez inbertsio handiak egin beharra. Garapen- eta hedapen-prozesu horretan funtsezko zeregina izan zuen Lankide Aurrezkiak kreditu-kooperatibak (gaur egun Laboral Kutxa). Lankide Aurrezkiak laguntza integrala ematen zien ikastolei, eta kooperatibizazio-prozesuan ere laguntzen zien formula hori aukeratu zuten kooperatibei. Baina Lankide Aurrezkiak ikastolen garapenean izan duen zereginaz eta, beraz, formula kooperatibora erakartzeko izan duen gaitasunaz harago, eredu horrek ikastolei aukera ematen zien sortu zirenetik hartutako ezaugarriei eusten jarraitzeko, esate baterako, ikastolen titularrak gurasoak izaten jarraitzea. Azken batean, formula kooperatiboak aukera ematen zuen eskola-esparruan demokrazia praktikatzeko eta hezkuntza-komunitate osoak gizarte-proiektu kolektiboan parte hartzeko.

Ikastola gehien-gehienak irakaskuntza-kooperatiba gisa eratu dira, eta bazkideak erabiltzaileak dira (gurasoak eta/edo ikasleak). Irakaskuntza mistoko kooperatiba gisa edo kooperatiba integral gisa eratutako ikastolak (hau da, guraso edo ikasleek eta kooperatibako langileek sozietate-titulartasuna partekatzen duten kooperatiba gisa eratutakoak), ordea, arrakasta eta garrantzi filosofikoa izan arren, ez dira gainerako irakaskuntza-esperientzia kooperatiboetara hedatu (ZELAIA, in DEL BURGO, 2013).

Ikastolen bilakaera, 70eko hamarkadatik gaurdaino, luzea eta konplexua izan da legezko ikuspegitik, baina baita ikuspegi sozialetik eta politikotik ere. Lan honen helburua ez da mugimendu honen historiaren kontakizun zehatza egitea, hezkuntza-sistemari, euskal hizkuntza eta kulturari eta euskal mugimendu kooperatiboari berari egindako ekarpena nabarmentzea baizik. Hala eta guztiz ere, pintzelkada labur gisa, bere historian 70eko hamarkadatik gaur egunera arte funtsezko bi mugarri aipatu nahi genituzke: alde batetik, 1993an Euskal Eskola Publikoari buruzko Lege polemikoa onartzea, gutxi gorabehera ikastolen herenak sare publikoan integartzeko bidea ireki zuena; eta, bestetik, 2009an Espainiako Estatuko lehen “europar kooperatiba” sortzea, *Euskal Herriko Ikastola* izenekoa, ikastolen federazioetako 78 kooperatibak osatutako bigarren mailako kooperatiba.

Gaur egun, EAEko ikastola guztiak kooperatibak dira juridikoki (fundazioa den bat izan ezik). % 80 gurasoen kooperatibak dira eta % 20 kooperatiba integralak. Lan elkartuko kooperatiba den ikastola bakar bat dago. Gainera, azpimarratu behar da ikastolak, neurri handi batean, berrikuntza pedagogikoaren esparruan aitzindariak izan direla eta izaten jarraitzen dutela.

Ondorio gisa, esan dezakegu ikastolek, irakaskuntza-kooperatibek oro har bezala, bi erronka nagusi dituztela: gainerako ikastetxe pribatuetatik (itunpekoak eta itunpekoak ez direnak) duten aldea ikusaraztea, eta bazkideak —eta hezkuntza-komunitate osoa— gizarte- eta hezkuntza-proiektuan inplikatzera.

Etxebizitza-kooperatibak

EAEen etxebizitza-kooperatibak gora egiten ari dira azken urteotan. Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren arabera, 2002an 123 kooperatiba zeuden eta 2017an 421 (MERINO, 2018).

Etxebizitza-kooperatiba gizarte-egoera ahulenean dauden sektoreen tresna gisa erabili izan da historikoki, etxebizitza arrazoizko prezioan eta jabetza-erregimenean eskuratzeko. Bazkide kooperatibistak sustatzaile bihurtzen ziren eta kooperatiba, adjudikazioa egin ondoren, desagertu egiten zen.

Espainiako Estatuan, oro har, etxebizitza-kooperatibak etxebizitza babestuen parametro kooperatiboei jarraikiz sustatzeari eta eraikitzeari loturik egon dira, etxebizitza babestuei buruzko legeriaren babesean (ETXEZARRETA ETA MERINO, 2018).

Etxebizitza-kooperatibismoak, alde batetik, abantaila ekonomikoak ematen ditu, prezioak arautzen dituen heinean, eta jarduten duen esparru geografikoan etxebizitzaren eskaintzaren eta eskariaren arteko bat ez etortzea orekatzen edo murrizten laguntzen du. Bestetik, erakunde demokratikoak dira, eta bazkideek dute sozietatearen kontrola eta kudeaketa, baita eragiketa guztien kontrol ekonomikoa ere. Hori garrantzi handikoa da, hain zuzen ere, kooperatiba mota horretan, eragiketa horiek bolumen handia lortzen dute-eta. Hala, urteko kontuak ohiko Batzar Nagusiari aurkeztu aurretik, aztertu eta onar ditzan, kontu-auditoretza egin behar du (eta letradu aholkulariari aurkeztu, hala badagokio), sustapena behar bezala garatu dela bermatzeko. Gainera, bazkideek etxebizitzaren diseinuan parte har dezakete, eta premia indibidual eta kolektiboetara egokitu, proiektu partekatu baten esparruan (MERINO, 2018).

Etxebizitza-kooperatiben helburua eta ezaugarriak aipatutakoak badira ere, inork ez du alde batera uzten batzuetan erabilera instrumentala izan

dutela helburu komertzial hutsekin eta/edo argi eta garbi iruzurrezkoak diren helburuekin. Ohikoa izan da formula kooperatiboa erabiltzea finantza-erakundeek emandako kreditu sustatzailea errazago eskuratzeko tresna soil gisa (finantza-erakundeek berek bidea eman diote etxebizitzak araubide kooperatibopean sustatzeko eta eraikitzeako proiektuak finantzatzeari, uste baitute hori dela sustapen-egitatearen arriskua dibertsifikatzeko modurik onena).

Gainera, higiezinak sustatzeko proiektu bati ekiteak dakarren konplexutasuna kontuan harturik, ohikoa da bazkideek laguntza teknikorako sozietate kudeatzaileak kontratatzea. Beste gauza bat da, ordea, sozietate kudeatzaileak berak izatea etxebizitza-kooperatiba “aizunak” eratzen dituztenak. Horrek guztiak lagundu du etxebizitza-kooperatibismoaren izen ona galtzen, irabazi-asmoko erakundeek erabiltzen duten formula instrumental eta iruzurrezkoa den aldetik.

Formula kooperatiboaren erabilera bidegabe horrekin batera, bazkideek ez dituzte ezagutzen beren eskubideak eta betebeharrak, eta, gainera, etxebizitza babestuen kasuan, areagotu egiten da sustapen publikoarekin nahastea, berez araubide kooperatibopeko sustapen pribatua denean, nahiz eta adjudikaziorako baldintzak betetzea administrazio publikoak kontrolatzen duen.

Zentzu horretan, Kooperatiben 11/2019 Lege berria garantistagoa da, eta eraikuntzako eta kudeaketako oinarrizko erabakiak kooperatibistek berek egitea bilatzen du, demokratikoki, eratzen denetik aurrera. Lege berriak, berritasun esanguratsu gisa, letradu aholkulariarena sartu du, nahitaezkoa baita funtsezko eragiketa juridiko-ekonomikoei buruzko irizpena ematea, bazkideen benetako parte-hartzea ziurtatzeko.

Argitu beharra dago, garrantzi handikoa baita, kudeaketa eta erabaki demokratikoak hartzea bateragarria dela kooperatibak sozietate kudeatzaile profesional bat kontratatzearekin, higiezinaren sustapenaren arrakasta bermatzeko, haren konplexutasuna kontuan hartuta.

Etxebizitza-kooperatibismoaren modalitate hori ez bezala, aldi baterako tresna gisa edo iraupen jakineko tresna baita (etxebizitza esleitu arte), azken urteetan beste modalitate bat sortu da: erabilera lagatzeko kooperatibak.

Erabilera lagatzeko etxebizitza-kooperatibetan, eraiki ondoren kooperatibek etxebizitzaren jabetza mantentzen dute, eta bazkideak erabilera-eskubidea baino ez du, eta horretarako errenta, ekarpen edo alokairu bat ordaintzen du (ETXEZARRETA ETA MERINO, 2018:7).

Erabilera lagatzeko kooperatibak ez dira iraungitzen, bizikidetzako kooperatibizatzea baitute xede. Higiezinaren jabea kooperatiba bera da,

eta hainbat esparru partekatzeke espazio komunak sortzeko aukera ematen du: hasi gutxienez, hots, jabetzatik, eta osasun-zerbitzu, garraio, zaintza, jantoki, ikuztegi eta abarretara iritsi arte.

Ekimen horiek, erabilera lagatzeko kooperatiba gisa, cohousing-proiektu bat edo elkarlaneko etxebizitzarena hartzen dute askotan, baina ez nahitaez. Cohousinga bizikidetzaproiektu komun aktiboa da, komunitate-sentimenduak gidatzen duena (ETXEZARRETA ETA MERINO, 2018:10).

Cohousinga ez da nahitaez erabilera lagatzeko kooperatiba gisa garatu behar, baina badirudi formula juridiko egokia dela bizikidetzaproiektuetarako, proiektu horiek oso gogoan baitutuzte diseinuan modu aktiboan parte-hartzea eta ingurumen- eta ekologia-kezka.

Kooperatiben Lege berriak lege-mailara igotzen du etxebizitzakooperatibaren modalitate hori, eta erakundeen onespena ematen dio eta arautze zehatzagoa ezartzen du. Aukera bat da, gainera, botere publikoen etxebizitza babestuen politika sustatzeko eta 2015eko Etxebizitzaren Legeak jasotzen duen etxebizitzarako eskubide subjektiboa gauzatzeko. Ildo horretan, euskal administrazio publikoa aliantza publiko-kooperatiboak sustatzen ari da, horrelako kooperatibak garatzeko erakunde kudeatzaile profesionalen laguntzarekin. Esperientziak oraindik lekukotasunezkoak badira ere —gaur egun EAEn erabilera lagatzeko kooperatiba bat dago erregistratuta—, modalitate horren ahalmen eraldatzailea garrantzitsua da, elkarrekiko laguntzaren eta kolektibitatearen ideia handitzen baitu.

Horregatik guztiagatik, esan dezakegu etxebizitza-kooperatibismoa garapen-potentzial handiko fase berri batean sartzen ari dela. 2017an Bizikoop —etxebizitzak sustatzeko kooperatiben federazioa— sortu izanak indartu egin zen ideia hori, kooperatibei babes instituzionala eta juridikoa eman zien-eta. Gainera, erabilera lagatzeko kooperatibentzat barne-atal bat irekitzea aurreikusten dute.

Etxebizitza-kooperatiben erronkei dagokienez, honako hauek adierazten ditugu:

- Gizarteari helaraztea formula alternatibo hori baliozkoa dela, merkatuak ase ez duen behar bati erantzuten baitio, alegia, etxebizitza duina arrazoizko prezioan eskuratzea bermatzeko premiari. Ildo horretan, garrantzitsua da hainbat une historikotan administrazio publikoarekin lankidetzan etxebizitza babestuen politiken garapenean izan duen rola nabarmentzea.
- Eredu berriak sustatzea eta ezagutaraztea, baita etxebizitza-kooperatibismoa beste helburu komunitario batzuekin konektatzeko aukerak ere; horrek aukera ematen du gizarte-konpromiso

kooperatiboa modu kontzienteagoan eta berritzaileagoan integratzeko (adibidez, ecohousinga).

Nekazaritzako elikagaien kooperatibak

Euskal Autonomia Erkidegoan, nekazaritza-asoziazionismoak kapitalismoaren aurreko eta kooperatibismoaren sorreraren aurreko autoantolaketa-praktiketan ditu sustraiak. Abeltzainen ermandadeak eta auzolana komunitatearen autoantolaketaren adibide garbiak dira.

XIX. mendearen amaieran, nekazariak landa-exodoari, industrializazioari eta nekazaritza-sektorean izandako aldaketei aurre egiteko hartzen duten antolaketa kolektiboaren ondorioz, gaur egun ezagutzen ditugun kooperatiba motak sortzen hasten dira: hornidura-kooperatibak, ustiapen komunitarioko kooperatibak, zerbitzu-kooperatibak eta produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko kooperatibak.

Atal honetan aipamen berezia merezi du nekazaritza-kooperatibek bultzatutako kreditu-kooperatibismoak. 1965ean, Bizkaiko 28 nekazaritza-eta abeltzaintza-kooperatibak, Beyena eta UTECO (Bizkaiko Kontsumoko Kooperatiben Elkarte Probintziala) buru zirela, Caja Rural Provincial de Vizcaya sortu zuten, geroago Caja Rural de Vizcaya - Baserritarren Kutxa izena hartuko duena. 1986an bere jarduera Bizkaitik kanpo hedatu zuen, Caja Rural Vasca - Baserritarren Kutxa izena hartuta, eta 2001ean Ipar Kutxa izena hartu zuen. Ipar Kutxak Lankide Aurrezkiarekin bat egin zuen 2012an, eta Laboral Kutxa izena hartu zuen erakunde berriak⁶.

Gaur egun, nekazaritzako elikagaien euskal sektore federatuan, honako kooperatiba mota hauek bereiz daitezke:

- **Nekazaritzako horniduren eta zerbitzuen kooperatibak:** nekazaritzako elikagaien katearen lehen maila dira. Kooperatiben lehen talde horretan nekazaritzako inputen kooperatibak eta pentsu-fabrikak daude, nekazariari haziak, ongarriak, pentsuak, makineria, arropa eta ekoizteko behar diren beste input batzuk ematen dizkietenak. Talde horretan daude, halaber, albaitaritza-zerbitzuak, ekoizpena optimizatzeko aholkularitza eta abar ematen dituzten aholkularitza-kooperatibak. Hirugarren azpitaldea nekazaritzako makineria erabiltzen duten kooperatibek osatzen dute. Horien helburua da nekazaritzako makineria

⁶ Ipar Kutxa ez bezala, Lankide Aurrezkiak —gaur egun Laboral Kutxa— 1959an sortu zen MONDRAGON kooperatibek bultzatuta. Kreditu-kooperatiba izateaz gain, Mondragon Esperientzia Kooperatiboko kooperatibak sustatzeko eta artikulatzeko eginkizunak hartu zituen bere gain, harik eta 90eko hamarkadan Mondragon Taldea sortu zen arte.

kooperatibizatzea, bi helbururekin: ahalik eta gehien erabiltzea eta ustiategiko kostua murriztea.

- **Nekazaritza-ekoizpeneko kooperatibak:** ustiapen komunitariokoak edo lan elkartukoak izan daitezke. Ustiapen komunitarioko kooperatiben egitekoa da lurrak eta beste ekoizpen-bitarteko batzuk bateratzea, nekazaritza-ustiategi bakar bat kudeatzeko. Kasu batzuetan, familia-ustiategiaren alternatiba izan daitezke.
- **Eraldatzeko eta merkaturatzeko kooperatibak:** nekazaritza-ustiategien ekoizpena —esnea, haragia, fruta eta barazkiak, zerealak, patatak, ardoa, olioia edo arrautzak— jasotzen duten kooperatibak dira; eskaintza kontzentratu eta produktua eraldatu eta merkaturatzen dute.

51. ilustrazioa. Kooperatiba federatuen banaketa, jarduera nagusiaren eta lurralde historikoaren arabera

JARDUERA NAGUSIA	GUZTIRA	%	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Hornidurak eta zerbitzuak	32	52	14	10	8
Nekazaritza-hornidurak	16	26		7	1
Pentsu-fabrikak	4	6	0	2	2
Zerbitzu teknikoak	8	13	2	1	5
Makineria - Nekazaritzako makineria erabiltzen duten kooperatibak					
Ustiategiak	8	13	5	2	1
Behi-azienda - Ardi-azienda	5	8	4	0	1
Zereala - Erremolatxa - Patata	1	2	1	0	0
Baratzezaintza - Lorezaintza	2	3	0	2	0
Merkaturatzailea	22	35	14	4	4
Zereala	4	6	4	0	0
Esnekiak	2	3	0	0	2
Barazkiak	2	3	0	2	0
Ardoa - Upategiak	8	13	7	1	0
Olioia - Errota	1	2	1	0	0
Haragia	4	5	1	1	2
Arrautzak	1	2	1	0	0
Kooperatibak	62	100	33	16	13
Langileak	687		362	215	110
Bazkideak	9.286		3.481	1.922	3.863

Iturria: Euskadiko Nekazaritzako Elikagaien Kooperatiben Federazioa 2018. urteko txostena

EAEko nekazaritzako elikagaien kooperatibek negozio-bolumen txikia dute: 300 milioi euro inguru fakturatzan dituzte 2018ko datuen arabera. Landa-ingurunean sustraitutako kooperatiba txikiek osatzen dute, eta kasu askotan tokiko jarduera-esparrua dute. Ekoizpen-mailan, nekazaritza-ustiategiak, oro har, oso atomizatuta daude, familia-egiturarekin, produktu anitzekin, askotan lanaldi partzialean aritzen dira eta errentagarritasun desberdina izaten dute. Hala eta guztiz ere, pisu garrantzitsua dute EAEko nekazaritzako elikagaien sektorean.

Azpimarratzekoa da, gainera, landa-ingurunea mantentzeko eta ondarea kontserbatzeko egiten duten ekarpena, baita landa-espazioa artikulatzeko eta egituratzeko egiten dutena ere. Nabarmentzekoa da, halaber, ingurumen-orekaren kontserbazioan duten inpaktua.

Ezaugarri horiek kontuan harturik, sektore horretan planteatzen diren erronkak honako hauek dira:

- Kooperatiba txikien bat-egiteak sustatzea, dimentsio handiagoa eta elkar-lankidetzatza lortzeko, askoz ere sektore kohesionatuagoa eta egituratuagoa lortzeko.
- Gazteak eta emakumeak sektorean sartzea, eta bazkideak gobernantza kooperatiboan gehiago inplika daitezzen sustatzea.
- Balio-katea gehiago menderatzea azken kontsumitzailearengana iritsi arte, balioa gehituz eraldaketaren eta merkaturatzearen bitartez. Eta, horretarako, produktuak kalitatearen, ekoizpen ekologikoaren eta produktu kooperatiboaren arabera bereiz daitezzen sustatzea.
- Teknologia berriak eta berrikuntzaren eta ikerketaren kultura integratzea.
- Elikagaien kalitatean, segurtasunean eta ingurumenarekiko errespetsuan erreferente bihurtzea.

Garraiolarien kooperatibak

Euskadiko Garraiolarien Kooperatiben Federazioa 1992an eratu zen. Gaur egun 6 kooperatibak osatzen dute (2 Bizkaian, 2 Gipuzkoan eta 2 Araban), eta 30 urteko jarduera dute batez beste. Garraio astuneko kooperatibak dira. Esan daiteke kooperatiba horiek EAEko garraio-kooperatiben % 90 inguru ordezkatzan dituztela. Kooperatiba horiek 348 bazkide garraiolari biltzen dituzte; langile autonomoen araubidean daude eta lanerako erabiltzen duten kamioiaren jabeak dira. Besteren konturako 37 langile ere badaude. 2019. urtean, fakturazioa 52 milioi eurokoa izan zen gutxi gorabehera. Fakturazio horren % 90 estatu mailako salgaien

errepideko garraioari dagokio, eta gainerako % 10a nazioarte mailako garraioari.

Garraiolarien Federazioak, ordezkariak instituzionalak, aholkularitza-eta prestakuntza-zerbitzuak emateaz eta kooperatibak indartzera bideratutako beste jarduerak batzuek gain, bigarren mailako kooperatiba bat kudeatzen du, zeinaren helburua baita lehengaiak —hala nola gasolioa, olioia edo gurpilak, aseguruak eta telefonia— erostea eta ondoren garraiolariarentzako prezio onuragarriagoetan banatzea. Erosketa-zentralaren fakturazioa 11 milioi eurotik gorakoa izan zen 2019an.

Garraiolarien kooperatibak gehiegizko komisioak kobratzen zituzten garraio-agentzien bitartekaritza saihesteko sortu ziren. Merkaturatzea da kooperatibizatzen dena: kooperatibak bezeroak bilatzen ditu bazkideentzat, eta haiekin negoziatzen ditu garraiolariak beren lana egiteko baldintzak. Halaber, administrazio-lanak egiten dituzte, hala nola fakturazioa eta beste zerbitzu batzuk, hala nola gorago aipatu dugun erosketa-zentrala. Kooperatibekin, beraz, langileentzako lan-baldintza duinagoak sustatzen dira.

Azkenik, aipatu behar da EAE kooperatibismoaren erreferentzia dela sektore horretan, hartzen duen pisu erlatiboagatik. Garraiolarien kooperatibek bazkideek elkar ezagutzea ahalbidetzen duen dimentsioa dute. Horrek, duten identitate-zentzu indartsuarekin batera, bazkideek gobernantza kooperatiboan oso aktiboki parte hartzea eragiten du. Elkar-lankidetzak edo kooperatiben arteko lankidetzak ere sektore horretan oso sustraituta dagoen jardunbidea da, eskariari elkarrekin aurre egiteko (adibidez, kooperatiba bakar baten ahalmena gainditzen duen kamioi-bolumena eskatzen duten azpiegitura-obra handietan).

Sektoreko kooperatiben erronka nagusia oso fokalizatuta dago. Garraiolarien lanari balioa emateaz eta haien lan-bolumena eta fakturazioa handitzeaz gain —2008ko krisiarekin lan-bolumenaren % 23-24 galdu zen—, lan elkartuko kooperatibak sortzea da federazioaren helburu nagusia. Lurreko Garraioak Antolatzearen Erregelamendua 2019an indarrean jarri izanaren ondorio da hori, aldaketa garrantzitsuak ekartzen baititu sektorean, jarduerak egikartzeko garraiolariaren edo garraio-operadorearen titulua beharko da-eta. Lanbide-gaitasunaren ziurtagiri hori lortzeko hautagaiak batxilergoko titulua edo baliokidea eduki beharko du gutxienez, edo erdi-mailako LHko titulua. Betekizun horrek zaildu egiten du bazkide berriak erakartzea, eta, beraz, federazioa proiektatzen ari da garraiolarien kooperatibak pixkanaka lan elkartuko garraio-kooperatiba bihurtzea. Horietan, kamioia kooperatibaren jabetzakoa izango litzateke, eta elkarteko kide diren garraiolariak ez lukete txartel indibidual bat lortu beharrik izango. Garraiolari baimendua pertsona bakarra izan liteke

(kudeatzailletza bere gain hartzen duen pertsona), eta haren baimenaren bitartez kooperatibari atxikitako hainbat pertsonak lan egin lezakete.

2.5. ONDORIOAK ETA ETORKIZUNENKAK

Atal honetan laburbilduko ditugu, gaingiroki, euskal mugimendu kooperatiboaren ondorio nagusiak eta etorkizuneko erronkak.

Berezitasuna eta garrantzia

Kooperatibismoa gizarte-ekonomiaren barruko familiarik garrantzitsuena da (enpleguaren % 88), eta pisu nabarmena du euskal ekonomian: 7.756 milioi euroko fakturazioa 2018an, EAEko BPGaren % 6 eta enplegu osoaren % 5,7 (eta industriako enpleguaren % 11).

Gainera, ikuspegi kualitatibotik, euskal mugimendu kooperatiboa bere aniztasunagatik nabarmentzen da. Ia jarduera-sektore guztietan dago, eta beste kooperatiba-mugimendu batzuetan ez bezala, industriak du leku nagusia (% 41,3 eta % 22 euskal ekonomian).

Enplegu duina eta kalitatezkoa sortzea eta mantentzea, euskal mugimendu kooperatiboaren *leitmotiv* nagusia, haren ekarpen handietako bat da zalantzarik gabe. Aldi berean, erronka handienetako bat da enpresa kooperatiboentzat globalizazioaren, digitalizazioaren eta lan-merkatuaren polarizazioaren garaian.

Mugimendu kooperatiboa indartu eta garatzeko ahalmena, enpresa-izaera balio kooperatiboekin orekatuta finkatzeko, berrikuntzaren eta pertsonen prestakuntzaren alde egiten jarraitzeko eta eredia suspertzen ari diren sektoreetara —hala nola elkarlaneko etxebizitza edo energia— hedatzeko erakusten duen gaitasunaren arabera izango da.

Enpresa-demokrazia eta pertsonen zentraltasuna

Lan elkartuko kooperatiben dentsitatea da euskal mugimendu kooperatiboaren bereizgarrietako beste bat. Dauden 3.195 kooperatibetatik 2.359 lan elkartuko kooperatibak dira. Lan elkartuko kooperatibetan bazkideek jabetzan, emaitzetan eta kudeaketan parte hartzen dute. Baina ez dago kooperatibistarik gabeko kooperatibarik, hau da, proiektu kolektibo bat bultzatu eta zuzentzeko zeregina kontzienteki beren gain hartzen duten subjektu libre eta autonomorik gabekorik. Kooperatiba, formula juridiko edo antolamendu-formula bat izateaz harago, batez ere

kultura bat da, enpresa egiteko eta ulertzeko modu bat, eta gizarte- eta enpresa-proiektuarekin konprometitutako pertsona erantzunkideak ditu protagonista. Kooperatibek aktiboki sustatu behar dituzte elkartasuna eta demokraziaren kalitatea, diskurtsoaren eta jardunbide kooperatiboaren arteko koherentzia handiagoa ziurtatzeko.

Pertsonen gaitasunak eta ahalmenak hezkuntzaren bitartez garatzea da kooperatibismoak jarraitu dituen estrategia nagusietako bat. **Hezkuntza**, pertsonen kontzientzia-maila handiagoak erdiesteko, talentua indartzeko eta konpetentziak garatzeko aukera ematen dien garapen integraleko prozesu gisa ulertua, erabakigarria da, oraindik ere, mugimendu kooperatiboa indartzeko eta garatzeko.

Enpresa-izaera

Enpresa-izaera nabarmena duen euskal kooperatibismoan, enpresa-eraginkortasuna ezinbestekoa da gizarte- eta enpresa-proiektu sendo eta jasagarriak garatzeko.

Berrikuntzaranzko orientazioa eta euskal kooperatibek enpleguari eta jarduerari dagokienez erakusten duten erresilientzia-gaitasun handia, zalantzarik gabe, beren enpresa-sendotasuna finkatzearen aldeko apustu horri lotuta dago.

Hala eta guztiz ere, euskal kooperatibismoaren berezitasuna eta ekarpenak ez dira oso ezagunak gizartean. Enpresa-eredu kooperatibo hori **ikusaraztea, balioestea eta zabaltzea**, batez ere gazteen artean, ezinbesteko helburua da mugimendua sendotzeko estrategian.

Elkar-lankidetzan jardutea

Euskal kooperatibismoaren beste ezaugarri berezi bat da elkar-lankidetzari —kooperatiben arteko elkartasun-printzipioaren adierazpena— izaera estrategikoa eman izana, eta horrek kooperatiba berriak sortzea ahalbidetu du, baita haien garapen teknologiko eta lehiakorra ere, testuinguru globalizatu eta arras lehiakorrean ekosistema kooperatibo erresilienteagoak sustatze aldera.

Printzipio hori, ordea, ez da modu berean aplikatzen. Sektore eta talde kooperatibo batzuetan jardunbide aurreratua eta instituzionalizatua dago, baina beste batzuetan nahiko mugatua da oraindik ere. **Mugimendu kooperatiboaren integrazio handiagoa** sustatzeak, elkar-lankidetzaren sektorialaren eta intersektorialaren bitartez eta beste eragile ekonomiko, sozial eta kultural batzuekiko lankidetzaren bidez, lurraldea garatzeko ahalmen ikaragarria irekitzen du.

Gizarte-eraldaketarekiko konpromisoa

Lerro hauetan ikusi ahal izan dugunez, kooperatibek aberastasuna modu ekitatezkoagoan sortzen eta banatzen laguntzen dute, eta, horrekin batera, gizarte berdinzaleagoak eta kohesionatuagoak eraikitzen. Kooperatibak lurraldean sustraituta eta haren garapenarekin konprometituta dauden erakundeak dira.

Euskal kooperatibek 5.249 milioi eurora iristen diren funts propioak daukate (industrian eta zerbitzuetan, funts propioen gaineko errentagarritasuna % 7,6koa da gutxi gorabehera). Datu horiek epe luzerako enpresa-jasangarritasunaren aldeko konpromisoa bermatzen dute, datozen belaunaldiei ondarea uzteko asmoari dagokionez.

Halaber, kooperatiben etorkizuna euskal gizartearen egungo erronka handiekin loturik proiektatzea —hala nola ingurumen-jasangarritasuna, genero-berdintasuna, biztanleriaren zahartzea, kultura-aniztasuna edo digitalizazioa— kooperatiben bereizgarri diren bokazio eraldatzailea eta gizarte-konpromisoa eskatzen dituen erronka saihetsezina da.

2.6. ERREFERENTZIAK ETA ITURRIAK

- ALTUNA, L. (2008). *La experiencia cooperativa de Mondragón. Una síntesis general*. Eskoriatza: Lanke-Huhezi, Mondragon Unibertsitatea.
- ARREGI ET AL. (2019). *Participación de las personas trabajadoras en Gipuzkoa: bienestar, rendimiento, territorio*. Arrasate: Mondragon Unibertsitatea.
- ARRIETA L. (1998). *El movimiento cooperativo en Euskadi (1884-1936)*. Bilbo: Sabino Arana Fundazioa. Hemendik berreskuratua: https://www.academia.edu/30518633/El_Movimiento_cooperativo_de_Euskadi_1884-1936_Mondragón_Corporación_Cooperativa-Fundación_Sabino_Arana_Bilbao_1998
- BENGOETXEA, A. (2019): Cooperativas de Enseñanza: un modelo singular basado en el compromiso de la comunidad educativa. Hemendik berreskuratua: <https://www.gezki.eus/pdfs/d9381d9126.pdf>
- BURGO GARCÍA, U. DEL (2013). El movimiento cooperativo de las ikastolas: su revisión conceptual desde la perspectiva de las empresas sociales. *Gizarte Ekonomiaren Euskal Aldizkaria-Revista Vasca de Economía Social*, (10) 71-96. Hemendik berreskuratua: <http://www.ehu.es/ojs/index.php/gezki/article/view/12749>
- 213/1999 DEKRETUA, maiatzaren 11koa. Dekretu honen bidez, Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Gorena arautzen da, *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria* (106), 1999/06/07, 9618-9626, <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/1999/06/9902434a.pdf>
- 61/2000 DEKRETUA, apirilaren 4koa, Gizarte Ekimeneko Kooperatibak arautzen dituen, *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria* (82), 2000/05/03, 6884-6886, <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2000/05/0001870a.pdf>

- 58/2005 DEKRETUA, martxoaren 29koa, Euskadiko Kooperatiben Legearen Erregelamendua onartzen duena, *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria* (73), 2005/04/19, 6823-6840, <https://www.euskadi.eus/boju2/datos/2005/04/0501979a.pdf>
- 59/2005 DEKRETUA, martxoaren 29koa, Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren antolaketa eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duena, *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria* (108), 2005/06/09, 10973-11019, <https://www.euskadi.eus/boju2/datos/2005/06/0502953a.pdf>.
- ETXEZARRETA, A. & CANO, G. & MERINO, S. (2018): Las cooperativas de viviendas de cesión de uso: experiencias emergentes en España. *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, (92) 61-86.
- GUÍA (2009). *Guía para la implantación de medidas de igualdad en las cooperativas*, Arrasate: Elkar Ikertegia S.Coop. Hemendik berreskuratua: <https://www.konfekoop.coop/fitxategiak/Argitalpenak%20-%20Publicaciones/Medidas%20de%20Igualdad%20en%20las%20Coops.pdf>
- 4/1993 LEGEA, ekainaren 24koa, Euskadiko Kooperatibena. *Estatuko Aldizkari Ofiziala* (35), 2012/02/10, <https://www.boe.es/buscar/pdf/2012/BOE-A-2012-2011-consolidado.pdf>
- 27/1999 LEGEA, uztailaren 16koa, Kooperatibena, *Estatuko Aldizkari Ofiziala* (170), 1999/07/17, 27027-27062, <https://www.boe.es/eli/es/l/1999/07/16/27>
- 1/2000 LEGEA, ekainaren 29koa, Euskadiko Kooperatiben Legea aldatzen duena, *Estatuko Aldizkari Ofiziala* (299), 2011/12/13, 134066-134077, <https://www.boe.es/eli/es-pv/l/2000/06/29/1>
- 8/2006 LEGEA, abenduaren 1ekoa, Euskadiko Kooperatiben Legearen bigarren aldaketarena, *Estatuko Aldizkari Ofiziala* (266), 2011/11/04, 115419-115422, <https://www.boe.es/eli/es-pv/l/2006/12/01/8>
- 6/2008 LEGEA, ekainaren 25ekoa, Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikiei buruzkoa, *Estatuko Aldizkari Ofiziala* (212), 2008/09/03, 95702-95711, <https://www.boe.es/eli/es-pv/l/2008/06/25/6>
- 11/2019 LEGEA, abenduaren 20koa, Euskadiko Kooperatibena, *Estatuko Aldizkari Ofiziala* (14), 2020/01/16, 3994-4087, <https://www.boe.es/eli/es-pv/l/2019/12/20/11>
- LOYOLA, A., UDAONDO, A. & URIARTE, L. (2019). El diferencial de la empresa cooperativa. In Eroski, *Entra sin llamar: Eroski, 50 años contigo 1969-2019* (52-59). Hemendik berreskuratua: https://corporativo.eroski.es/wp-content/uploads/2019/03/eroski_50-aniversario-cast.pdf
- MERINO, S. (2018). La realidad de las cooperativas de viviendas en la Comunidad Autónoma del País Vasco. *Gizarte Ekonomiaren Euskal Aldizkaria-Revista Vasca de Economía Social*, (15) 273-300.
- MONDRAGON (2018). [lineal]. *Informe anual*. Hemendik berreskuratua: <https://www.mondragon-corporation.com/2019urtekotxostena/assets/downloads/esp/informe-anual-2018.pdf>
- ORKESTRA (2015). *Informe de Competitividad del País Vasco 2015. Transformación productiva en la práctica*. Bilbao: Universidad de Deusto. Hemendik berreskuratua: <https://www.orkestra.deusto.es/competitividadcapv/imgs/informes/2015-orkestra-informe-competitividad.pdf>
- ORTEGA, I. (2018). *Aportaciones de las cooperativas a los retos del tejido productivo vasco*. Eskoriatza: Mondragon Unibertsitatea.

- ORTEGA, I. & LOYOLA, A. (2018). Territorio, Retos y Cooperativismo. *Cuadernos de Lanki*, (12), Eskoriatza: Mondragon Unibertsitatea.
- ORTEGA, I. (2019). Empresas participadas por las personas trabajadoras y su contribución al territorio. En ARREGI ET AL. *Participación de las personas trabajadoras en Gipuzkoa: bienestar, rendimiento, territorio*. Arrasate: Mondragon Unibertsitatea.

Lan-sozietateak Euskal Autonomia erkidegoan: kontakizuna

Aitor Bengoetxea Alkorta

Jon Morandeira Arca

GEZKI (Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua)
UPV/EHU

3.1. SARRERA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LAN-SOZIETATEEN ERREALITATEA

Oinarrizko nozioak

Lan-sozietatea lan-izaerako merkataritza-sozietatea da. Merkataritza-izaera du, sozietate mugatua edo sozietate anonimoa delako, baina lan-profil nabarmena du. Merkataritza-sozietatea bere forman, eta lan-sozietatea bere espirituan.

Sozietate anonimo edo mugatuen kapitalaren erdia baino gehiago sozietate horietan lan-harreman mugagabearen bidez lan egiten duten langileena da. Hortik datorkie lan-izaera. Lan-sozietate mugatuen kasuan, sozietate-partaidetzak izango dira; lan-sozietate anonimoetan, akzioak.

Funtsezko beste betekizun bat da bazkide langile bakoitza gehienez kapital sozialaren herenaren titularra izan daitekeela, aurrerago ikusiko diren salbuespen jakin batzuk izan ezik.

Beraz, berez, merkataritzako lan-sozietateak dira. Kapital gehiena edo guztia bertan lan egiten duten pertsonena duten enpresak. Horregatik, pertsona horiek bazkide eta langile dira aldi berean. Beren enpresako jabeak eta langileak.

Beraz, lan-sozietatea merkataritza-sozietatea da, kapital-sozietatea, zalantzarik gabe. Hortik aurrera, bere berezitasuna bere helburu nagusian datza: bere langileentzako kalitatezko enplegu egonkorra sortzea edo mantentzea, eta ez mozkin maximizatzea.

Horregatik, lan-sozietateak gizarte-ekonomiako enpresak dira, autoenpleguaren gizarte-helburuak lehentasuna baitu kapitalaren errendimenduaren gainetik.

Lan-sozietateetan ekintzaitza kolektiboko esperientzia ikusten da, gutxienez hiru langileren aldetik, pertsona bakoitzeko kapital sozialaren jabetzaren herenaren gehienekoaren betekizunaren arabera.

Autoenplegu kolektiboko eredu baten aurrean gaude, halaber; izan ere, langileek beren burua enpleguz hornitzen dute, beraiek sortutako eta, erabat ez bada ere, gehiengoz behintzat kontrolatzen dituzten enpresen barruan. Lan elkartuaren bidez gauzatzen den autoenplegu kolektiboa. Besteren konturako soldatapeko lanaren eredu hegemonikoaren formula alternatiboa, baita autoenplegu autonomoarena ere.

Lan-sozietatea figura juridiko berezia da, Espainiako zuzenbidean sortua, zuzenbide konparatuan existitzen ez dena. Bazkide langileen eta beren enpresaren arteko lan-harremana soldatapeko lan-harreman arrunt gisa eratzen da, nahiz eta materialki lan elkartua izan, eta lan-kontratuaren bitartez bideratzen da. Beraz, bazkide langileen lan-harremanari lan-zuzenbidea aplikatzen zaio, enpresako bazkide ere izan arren.

Kasu batzuetan, bazkideek ez dute lan-harremanik lan-sozietatearekin; bazkideak dira, baina ez soldatapeko langileak; kasu horretan, langile autonomoak dira.

Hala, lan-sozietateetan hitzarmen kolektiboak negoziatu eta egiten dira, kapital-sozietate arruntetan bezala —lan-sozietate ez direnetan—. Normalean, lan-sozietateetan enpresa-hitzarmenak adosten dira. Erreferentziatzko hitzarmen sektoriala zuzenean aplikatzen denean, oso ohikoak dira enpresaren barne-akordioak, hitzarmen sektorialak kasuan kasuko lan-sozietatearen berezitasunetara egokitzeke.

Lan-sozietatearen eredia lan elkartuko beste ereduarekin konparatzen badugu, hots, lan elkartuko kooperatibenarekin, elementu komunak eta desberdintasunak aurkituko ditugu. Bi eredu horietan, pertsona berberak dute bazkide eta langile izaera bikoitza. Baina lan-sozietateetan, esan bezala, zuzenbideak dualtasun hori aitortzen du, eta pertsonak harreman bikoitza dute beren enpresarekin: sozietate-harremana eta lan-harremana. Lan elkartuko kooperatiben kasuan, alabaina, bazkide langileen eta haien kooperatibaren artean lotura juridiko bakarra dago, sozietate-lotura, eta horrek esan nahi du lan-araudia ez dela aplikatzen eta haien lan-baldintzak kooperatiba-autogestioaren bidez zehazten direla.

Baina lan-sozietatearen araubide juridikoak ez du eskatzen langile guztiak bazkide izatea. Enpresa horiek bazkide ez diren soldatapeko langileak kontrata ditzakete, baina gehienez ere bazkide langileen urteko

orduen % 49 lan egiteko mugarekin, desgaitasuna duten pertsonen egindako lana izan ezik, hori ez baita kontuan hartzen ondorio horietarako.

Jatorria

Lan-sozietateek 1970eko hamarkadako petrolioaren krisian izan zuten jatorria. Krisi horrek langabezia-egoera larria ekarri zuen, eta testuinguru horretan sortu ziren lan-sozietateak. Lehen esperientzia horietan protagonistek beharra gidari erabili zutela esan genezake. Porrot egiten zuten enpresa kapitalisten enplegua salbatzeko jaio ziren, eta enpresa eredu berri bat sortu zuten: langileek berreskuratutako enpresa. Lehentasuna beren enplegua mantentzea zen, nahiz eta lan-baldintzak okerragotu (soldata, lanaldia eta abar), oinarrizko elkartasun-printzipio batean oinarrituta.

Lehen esperientzia gisa, Sociedad Anónima Laboral de Transporte Urbanos de Valencia (SALTUV, 1963) nabarmendu behar da. Euskal esparruan, lehen lan-sozietatea industria-enpresa bat da, “Herramientas de Precisión” izenekoa. 1972an sortu zen Bilbon, eta, gaur egun ere, HEROSLAM izenarekin, ASLEn elkartutako lan-sozietate bat da. Gerorago eratu zen IRIMO SAL, hori ere industria-sektorean (ZUMARRAGA, 1979).

Oro har, lan-sozietateen lehen esperientzietan, krisian zeuden enpresetako agintari sindikalek protagonismo nabarmena izan zuten, eta, askotan, laboralizazio-prozesuen lidergoa hartu zuten. Sindikatuen lankidetzaz, beraz, erabakigarria izan zen lehen lan-sozietateak eratzeke orduan, enplegua bermatzeko ahaleginean, lehen arakatu gabeko enpresa forma baten esperimentazioarekin lortu ahal izan baitzen.

Aurrerago, mugimendu sindikalak hasieran garatutako zereginak beren gain hartu dituzten enpresa-elkarteen egiturak garatzen joan ziren. Euskal kasuan, Euskadiko Lan Sozietateen eta Partaidetzapekoen Enpresa Elkartek (ASLE) hartu zuen bere gain lan hori. Elkarteak 1982an sortu zen eta gaur egun arte iraun du.

Lan-sozietateek bide luzea egin dute, sortu zirenetik gaur egun finkatu diren arte. Hasieran, legez aitortu aurretik, LOE (lan-objektu ezezaguna) esaten zitzaien.

Enpresa-eredu berriaren legezko erregularizazioaren bultzatzaile politiko nagusia Rafael Calvo Ortega izan zen, Unión de Centro Democraticoko (UCD) Gobernuko Lan-ministroa trantsizio-garaian (1978-1980). Horrela, lan-sozietateek zuzenbide positiboan duten lehen erregulazioak ministro horren sinadura darama, eta 1979ko urtarrilaren 12ko Ministro Aginduan dago, Lana Babesteko Funts Nazionalaren Inbertsio Plana jasotzen duenean (1979ko urtarrilaren 22ko BOE).

1986ra arte itxaron behar da lan-sozietateei buruzko lehen legea promulgatu arte. Lege horrek lan-sozietate anonimoen kategoria baino ez du jasotzen (15/1986 Legea, apirilaren 25ekoa, Lan Sozietate Anonimoen buruzkoa, 1986ko apirilaren 30eko BOE). Lege horren helburua zen enpresen itxierak eta, ondorioz, enpleguen galerak ezaugarritutako egoera bati erantzun positiboa ematea, hau da, langileek berek porrot egin zuen enpresa-proiektu bat berreskura zezaten sustatzea. Sozietate anonimoak bakarrik arautzen zituenez, porrot egiten zuten enpresa handietan jarri zuten arreta.

Geroago, Lan Sozietateei buruzko Legeak (martxoaren 24ko 4/1997 Legea) (1997ko martxoaren 24ko BOE) berrikuntza garrantzitsu gisa sartu zuen lan-sozietate mugatuaren figura. Lege horren bidez, jauzi kualitatiboa egin zen lan-sozietatearen figura hedatzeko, eta, krisian zeuden enpresak berreskuratzeko eredu gisa ez ezik, enpresa-ekintzaitzarako *ex novo* formula gisa ere planteatu zen. 1997ko legeak enplegua sortzeko metodo gisa aipatzen du lan-sozietatea, aurreko enpresaren birmoldaketa-prozesuak aipatu gabe, 1986ko aurreko legeak egiten zuen bezala. Gainera, ate juridikoa irekitzen zaio kapital-enpresa txikiak lan-sozietate mugatuaren formularen bidez laboralizatzeko aukerari.

Lan-sozietateei bizitza ematen dieten egoerei dagokienez, esan dezakegu jatorrian krisian zeuden enpresak birmoldatzea zela funtsean; izan ere, langileek beren enpresaren jabetza eskuratzen zuten enpresa salbatzeko eta, horrela, beren enplegua mantentzeko. Gaur egun, lan-sozietateak, gehienbat, ekintzaitzeta-jarduera gisa eta enpresa-ondorengotza gisa sortzen dira; bigarren kasuan, normalean, enpresaburuak erretiroa hartzearen ondorioz.

Indarrean dagoen lege-araubidera iristen gara Lan Sozietateei eta Partaidetzapekoei buruzko Legearen bidez (urriaren 14ko 44/2015 Legea) (2015eko urriaren 15eko BOE). Lege horrek partaidetzapeko sozietatea jasotzen du, lan-sozietate mugatuei eta lan-sozietate anonimoen gehitutako figura berri gisa. Azpimarratu behar da partaidetzapeko sozietatea ez dela lan-sozietate bat, ez baititu horretarako eskatzen diren baldintzak betetzen.

Partaidetzapeko sozietatean langileek enpresan parte hartzeko hainbat formula aurki ditzakegu. Kapitallean, enpresaren zuzendaritzan edo haren emaitzetan parte hartzea. Baina kapitalaren jabetzaren gehiengoa izatera iritsi gabe, lan-sozietateetan gertatzen den bezala.

Hain zuzen ere, hiru dimentsioko partaidetza da lan-sozietateen ezaugarria: kapitalekoa, zuzendaritzakoa eta emaitzetakoa.

Lege-araubidea

Indarrean dagoen 1978ko Konstituziora jotzen badugu, ikusiko dugu ez dagoela lan-sozietateei buruzko berariazko aipamenik. Manurik hurbilekoena 129.2 artikulua da, honako hau xedatzen baitu: *Botere publikoek eraginkortasunez bultzatuko dituzte enpresan parte hartzeko moduak, eta, legeria egoki baten bitartez, sozietate kooperatiboak sustatuko dituzte. Era berean, bitartekoak jarriko dituzte langileei produkzio-bideen jabetzara iristen laguntzeko.*

Lan-sozietateak bat datoz, argi eta garbi, enpresan parte hartzea sustatzeko Konstituzioaren aurreikuspenarekin, langileek kapital sozialaren gehiengoaren jabetzan parte hartzea dakarte-eta. Gehiengoaren jabetza edo jabetza absolutua daukatenez, langileek enpresaren ibilbidea ere zuzentzen dute (zuzendaritzan parte hartzea), eta enpresaren emaitza ekonomikoetan parte hartzen dute. Begien bistakoa da, halaber, langileak ekoizpen-bitartekoen jabetzara iristeko formula bat direla lan-sozietateak, Konstituzioaren 129.2 artikuluan adierazitakoari jarraikiz.

Horrenbestez, botere publikoek lan-sozietatearen eredia sustatu behar dute, horrela Konstituzioaren 129.2 artikulua agindua betetzeko. Deigarria da manu horrek adieraztea sozietate kooperatiboak sustatu behar direla, lan-sozietateak aipatu gabe. Arrazoiak hertsiki kronologikoa da. Konstituzioa 1978ko abenduan onartu zen, eta lan-sozietateak jasotzen dituen lehen araua, gorago ikusi dugun bezala, 1979ko urtarrilekoa da. Konstituzioak ez ditu lan-sozietateak aipatzen, onartu zenean materialki existitzen baziren ere, juridikoki ez zeudelako enpresa-eredu espezifiko gisa.

Lan-sozietateei aplikatu beharreko legeriari dagokionez, lehenik haien legeria espezifiko aplikatuko zaie, indarrean dagoen Lan Sozietateei eta Partaidetzapekoei buruzko Legean (urriaren 14ko 44/2015 Legea) jasotakoa. Ordezko izaeraz, merkataritza-sozietate mugatuei eta anonimoei buruzko araudia aplikatuko zaie, gaur egun Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuan araututa dagoena.

44/2015 Legeak garbi uzten du merkataritza-sozietate mugatu edo anonimoen aurrean gaudela, eta lan-atributua gorago aipatutako baldintza hirukoitzaren arabera dela: langileen jabetzako kapital sozialaren gehiengoa; langile baten jabetzako herena gehienez; eta bazkide langileek urtean egindako orduen % 49 gehienez, bazkide ez diren langileentzat.

Pertsona bakoitzeko jabetzaren herenaren gehieneko betekizunaren kasuan, sozietatea hasieran bi bazkide langilek eratu ahal izango da, kapital soziala ehuneko berrogeita hamarrean banatuta, betiere 36 hilabeteko gehieneko epean egoera erregularizatzen badute eta ezarritako herenaren

gehieneko mugara egokitzen badira; hortaz, gutxienez beste pertsona bat sartu beharko da bazkide gisa.

Herenaren gehieneko muga salbuetsi egiten da, halaber, bazkideak erakunde publikoak, irabazi-asmorik gabeko erakundeak edo gizarte-ekonomiakoak direnean; kasu horretan, partaidetzak muga hori gainditu ahal izango du, kapital sozialaren ehuneko berrogeita hamarrera iritsi gabe.

Baldintza horiek betetzen direnean, dagokion lan-agintaritzak, agintaritza zentralak edo autonomikoak administratiboki lan-sozietatetzat joko du sozietate anonimoa edo mugatua. Eta, horren ondorioz, enpresa dagokion Lan Sozietateen Erregistro Zentralean edo Autonomikoan inskribatuko da. Enpresa horiek Merkataritza Erregistroan ere inskribatzen dira, eta lan-sozietateak direla jasoarazten da.

Lan-sozietateetan bi bazkide mota egon daitezke, batzuk aldi berean langileak direnak eta beste batzuk langile ez direnak, eta hori akzioen (lan-sozietate anonimoetan) edo partaidetzen (lan-sozietate mugatuetan) lege-araubidean islatzen da. Lehenengo kasuan, lan-arloko akzioak edo partaidetzak izango dira; bigarrenean, mota orokorrekoak.

Bazkide ez diren langileek lan-sozietatean duten posizioari dagokionez, legeak bazkide langile bihurtzearen alde egiten du, legezko hainbat neurriren bidez.

- Alde batetik, akzioak edo partaidetzak salduz gero, horiek eskuratzeko konkurrentzia badago, bazkide ez diren langile mugagabeek izango dute lehentasuna, enpresan duten antzinasunari zuzenean loturik. Ondoren, legezko lehentasun-hurrenkeran, bazkide langileak, mota orokorreko bazkideak (langile ez direnak) eta lan-sozietatea bera datoz.
- Bazkide langileren bat hiltzen bada, lan-sozietatearen estatutuek lehentasunez eskuratzeko eskubidea ezar diezaiekete bazkide ez diren eta lan-harreman mugagabea duten langileei.
- Kapital-zabalkuntzaren kasuetan, bazkideek beren gain hartzen ez dituzten akzio edo partaidetzei dagokienez, lan-harreman mugagabea duten bazkide ez diren langileek izango dute haiek erosteko lehentasuna, Batzar Nagusiak bestelakorik erabaki ezean.
- Bazkide langile baten lan-harremana azkentzen bada, bazkide ez diren langileek haren akzioak edo partaidetzak eskuratzeko lehentasuna izatearen araua errepikatzen da.
- Sozietateak eskuratutako akzio eta partaidetza propioak sozietatean lan-kontratu mugagabea duten langileen alde besterendu beharko dira.

- Azkenik, legeak ezartzen du, halaber, lan-sozietatea administratzen duten pertsonak bazkide ez diren langileak bazkide gisa integratzea ahalbidetu beharko dutela.

Lan-sozietateen araubide ekonomikoari dagokionez, zenbait alderdi nabarmendu behar dira.

Alde batetik, legeak xedatzen du erreserba berezi bat eratu behar dutela, ekitaldi bakoitzeko etekin likidoaren ehuneko hamarrarekin hornituko dena, gutxienez kapital sozialaren bikoitza baino kopuru handiagoa lortu arte. Lan-sozietateak erreserba berezia galerak konpentsatzeko bakarrik erabili ahal izango du, baldin eta helburu horretarako beste erreserba nahikorik ez badago.

Goian adierazitako konstituzio-agindua betetzeko, hau da, lan-sozietateak sustatzeko (enpresan parte hartzea eta ekoizpen-baliabideen jabetza eskuratzea sustatzeko), diru-laguntzak ematen dira lan-sozietateak eratzeko eta bazkide langileak sartzeko.

Lan-sozietateen finantzaketa-iturriari dagokienez, finantza-merkatu arruntean kreditua eskuratzear gain, hiru elementu azpimarra ditzakegu:

- Langabezia-prestazioaren kapitalizazioa.
- Lanpar. Eusko Jaurlaritzaren eta ASLEren ekimenez sortutako funtsa, enpresetako langileek enpresen kapitalean parte har dezaten ahalbidetzeko.
- Elkargi. Elkar bermatzeko sozietatea.

Asoziazionismoa

Indarrean dagoen lan-elkarteen legeak aurreikusten du enpresa horiek enpresa-elkarte espezifikoak sor ditzaketela, enpresa mota horren eredu bereziari erantzuteko.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, lege-aurreikuspen hori ASLEn hezurmamituta dago. Estatu mailan, oraintsu eratu da LABORPAR (lan-sozietateen eta partaidetzapeko enpresen enpresa-federazioa), CONFESAL historikoa ordeztzen duena.

Asoziazionismoa oso komenigarria da lan-sozietateentzat, haien idiosinkrasia berezia ezagutzen duen erakunde bat izan dezaten, haiek ordezkari ditzan eta horren arabera jardun dezan.

Elkarte bat oso baliagarria da lan-sozietateen mugimendua babesteko eta indartzeko. Elkarte horien jardura nagusiak honako hiru alderdi hauetan sailka ditzakegu: solaskidetza, zerbitzuak eta prestakuntza.

- Solaskidetza, lan-sozietate guztien ordezkari gisa, botere publikoen aurrean. Seguruenik, ordezkari-tza-jardura garrantzitsuena eta

gutxien ikusten dena. Funtsezko solaskidetza lege-aldaketei, zerga-gaiei eta, oro har, lan-sozietateak eraginpean hartzen dituzten politika publikoei aurre egiteko.

- Lan-sozietateei zerbitzuak ematea. Hainbat alderdiri buruzko galderei erantzuteko, hala nola alderdi juridikoei, finantzarioei, fiskalei edo merkatu-estrategiei buruzkoei. Ildo horretan, ASLE da kontsultetarako lehen erreferentzia. Hortik abiatuta, aliantzak egitea da bere estrategia, gai espezifikotan adituak diren pertsonen iritzia jasotzeko.
- Lan-sozietateei buruzko prestakuntza espezifikoa eskaintzea, eta haien artean topaketak egitea esperientziak partekatzeke, eta, horrela, parte-hartzearen kultura buruan sartzea, hori baita lan-sozietateen espiritua.

3.2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LAN-SOZIJETATEEN IDEIA NAGUSIAK

Pertsonen zentraltasuna lan-sozietateetan

Kapitalaren eta lanaren arteko gatazka klasikoari dagokionez —kapital-sozietate klasikoetan lehenengo elementua nagusitzen da—, lan-sozietateek bien arteko oreka planteatzen dute. Kapitala ezinbestekoa da, eta enpresek errentagarriak izan behar dute enpresa-proiektuari eusteko. Premisa horretatik abiatuta, enpresaren lehentasunezko helburua da langileei enplegu egonkorra eta kalitatezkoa ematea.

Pertsonak nagusi dira lan-sozietateetan, nahiz eta kapital-enpresak izan; izan ere, sozietate horietako langileak, aldi berean, enpresaren jabekideak dira.

Formalki kapital-sozietateak izan arren, enpresa horietan helburu soziala ez da etekina maximizatzea. Lan-sozietateetan, kapitala enpresaren helburu soziala lortzera bideratutako tresna bat da: aldi berean bazkide eta langile diren pertsonen enplegu egonkorra eta kalitatezkoa ematea, autoenplegu kolektiboko jardunearan.

Lan-sozietateen dinamika ekonomikoan, begien bistakoa da pertsonen enpleguaren lehentasuna, etekinaren maximizazioaren ideiarri nagusitzen baitzaio. Enpresak etekin txikiagoak lortzen dituen arren, lehentasuna enplegua mantentzea da, hurrengo taula ikusita ondoriozta daitekeen moduan; izan ere, azken hiru urteetan gutxi gorabehera 7.200 pertsonak eutsi diote enpleguari.

52. ilustrazioa. Pertsonen zentraltasuna. Egonkortasuna

URTEA	Lan-sozietate anonimoa	Lan-sozietate mugatua	GUZTIRA
2017	3.177	4.082	7.259
2016	2.848	4.288	7.136
2018	3.029	4.190	7.219

Iturria: OVES/GEEB, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ekonomiaren Estatistikatik abiatuta

Egia da, alabaina, lan-sozietateetako eta kooperatibetako langileen kontratu-harremanari erreparatuz gero, bazkideen kopurua murriztu egin dela, baina bazkide ez diren pertsonen kopuruak gora egin du, batez ere, soldatapeko langile finkoen artean.

53. ilustrazioa. Pertsonen zentraltasuna. Egonkortasuna. Enplegu-ehunekoa kooperatibetako eta lan-sozietateetako kontratu-harremanaren arabera

Urtea	Bazkidea	Soldatapeko langile finkoa	Soldatapeko behin-behineko langilea
2017	% 66,70	% 16,40	% 16,90
2016	% 64,10	% 18,70	% 17,20
2018	% 60,20	% 21,10	% 18,70

Iturria: OVES/GEEB, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ekonomiaren Estatistikatik abiatuta.

Pertsonak ardatz dituen izaera sozialeko enpresa bat denez, enpresa-ondarea beti egongo da bazkideen zerbitzura, gaur egun eta etorkizunean. Bere helburu nagusia da lan-bizitzaren proiektu bat ahalbidetzea, lankidetzaren eta elkartasun-araubidean, denboran zehar proiektu partekatu gisa jarraitzearen alde eginez, eta, beraz, besteren konturako soldatapeko lanaren eredu hegemonikotik aldentuz. Gainera, kide izatearen zentzuak autobalorazioa eta konpromisorako motibazioa areagotzen ditu.

Lan-sozietatean krisi ekonomikoa gertatuz gero, pertsonen zentraltasuna barne-malgutasuna lehenesteko politikan islatzen da, besteak beste, soldata murriztea edo lanaldia doitzea bezalako neurrien bidez, eta langileak kaleratzea azken aukera gisa uzten da.

Pertsonak lan-sozietateetan duten zentraltasuna hautemateko beste ikuspegi bat parte-hartzearena da. Adierazi dugun bezala, enpresa-eredu horretan, langileek kapitalean duten partaidetza, nahitaez, kapital gehienarena izan behar da, absolutua ez bada.

Horiek horrela, kapitalaren gehiengoaren jabetzatik dator, zuzeneko ondorio gisa, bazkide langileek beren enpresaren kudeaketan parte hartzea (autogestioa), baita enpresaren emaitzetan parte hartzea ere. Emaitzetan parte hartzearen alderdian, etekinak berrinbertitzeko politika lehenesten da, enpresa-proiektua finkatzeko, dibidenduak banatzearen gainetik.

Kapitaleko partaidetza erdira iristen ez denean, ez ginateke lan-sozietate baten aurrean egongo, eta kasu horietan, normalean, langileek ez dute enpresaren zuzendaritza kontrolatzen, eta kapitalean duten partaidetza emaitzetako partaidetza ekonomikoan islatuko da.

Lan-sozietateen ereduak ere oso egokia da langileen talentuari eusteko. Partaidetza hirukoitzak, kapitalean, zuzendaritzan eta enpresaren emaitzetan, talentuari eusten, hobekuntzak eta berrikuntzak garatzen eta, aldi berean, lurraldean sustraitzen laguntzen du.

Elementu metajuridiko gisa, azpimarra dezakegu lan-harremanak humanizatzearen aldeko apustua egiten duen eredu baten aurrean gaudela, pertsona bakoitza bere berezitasun espezifikoekin errespetatzeari begira.

Lan-sozietateen izaera demokratikoa

Lan-sozietateen enpresa-zuzendaritzari dagokionez, kapital-sozietateak direla hartu behar dugu abiapuntutzat, kapital-sozietateen legeak (uztailaren 2ko 1/2010 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUA) adierazten duen bezala, bazkide bakoitza titular den kapitalaren jabetza-kuotaren arabera hartzen baitira erabakiak. Sozietatearen kontrola kapital sozialaren gehiengoaren jabeek izango dute.

Hortik aurrera, lan-sozietateetan bereizgarria eta erabakigarria da kapitala eta lana pertsona beren eskuetan egotea, gehiengoa behintzat. Kapital sozialaren gehiengoa bazkide langileena da, eta, beraz, demokraziaz hitz egin dezakegu. Demokrazia purua izan dadin —pertsona bakoitzeko boto bat—, kapital sozial osoa bazkide langileen jabetzakoa izan beharko da, mota orokorreko akzio edo partaidetzarik gabe, eta, gainera, pertsona guztiek kapital sozial osoaren proportzio bera izan beharko dute.

Kasuistika askotarikoa izan daiteke. Lan-sozietate batzuetan langile ez diren bazkideak daude, bazkide kapitalistak, kapitalean duten partaidetzarekiko erabakitzeko ahalmen proportzionala izango dutenak. Baina partaidetza, oro har, minoritarioa izango da beti, lan-sozietateei buruzko legeak xedatzen baitu, nolana ere, kapital sozialaren gehiengoa bazkide langileen jabetzakoa izango dela. Nolanahi ere, enpresaren kontrola bazkide langileei dagokie.

Bazkide langileek partaidetza-kuota bera edo desberdina izan dezakete kapital sozialean. Lege-araubideak adierazten du, alderdi horretan, bazkide bakar batek ere ez duela izango kapital sozialaren herena baino gehiago. Beraz, demokraziaren ideia ildotik, langile bakar batek ezin izango du inoiz enpresa kontrolatu. Beti beharko da, gutxienez, bi bazkide langileren arteko adostasuna.

Lan-sozietateetan interes handia duen beste alderdi bat lanaren subiranotasuna da. Horrek esan nahi du langileek demokratikoki kudeatu behar dutela kapital-sozietate guztietan dagoen kapitalaren eta lanaren arteko gatazka klasikoa. Lan-sozietateen kasuan, gatazka lausotu egiten da, beren muinean bederen, bazkideak eta langileak baitira, lanaz gain, kapitalaren gehiengoaren edo kapital osoaren jabeak. Beraz, beren eskuetan dute bi ekoizpen-faktoreen kudeaketa. Kapitala kontrolatzen dute eta kolektiboki erabakitzen dute beren lanaren baldintzei buruz.

Lan-sozietateetan, kapital sozialaren jabetzaren egiturak aukera ematen du kapitalaren eta lanaren arteko interes-gatazkaren eskemaren orde z lankidetzarena eta erantzunkidetasunarena ezartzeko bi alderdietan: enpresaren zuzendaritzan eta lan-baldintzetan. Oreak lortzeko ahaleginak egiten dira, lan-baldintzak enpresaren inguruabarretara egokituta.

Nolanahi ere, lan-sozietateen idiosinkrasiak ez du gatazka desagerrarazten. Lan-sozietateetan gatazkak daude. Gatazka horiek agertzen direnean, elkarriketaren aldeko apustua egiten da arazoa konpontzeko, eta zehapenen aplikazioa azken baliabide gisa uzten da. Gatazkak prebenitzeko eta konpontzeko, funtsezkoa da autogestioko prestakuntza.

Gakoa merkataritza- eta lan-alderdien arteko oreka lortzean datza. Hala, administrazio-kontseilueta merkataritza-gaiak aztertzen dira, eta enpresa-batzordeak lan-gaiak jorratzen ditu. Bi alderdien artean zubiak eraiki behar dira oreka egokia lortzeko, bi dimentsioek elkarri bizkarra emanaz funtziona dezaten saihesteko. Prestakuntza behar da bi norabideetan. Administrazio-kontseiluko kideak lan-arloko gaietan prestatu eta sensibilizatu, eta enpresa-batzordeko kideak negozioaren arloan prestatu.

Lan-sozietateak dualismo sozioekonomikoaren alorrean mugitzen dira: helburu sozialen eta ekonomikoen arteko oreka bilatu behar dute beti, eta horrek berekin dakar bi dimentsioen eta horien artean sor daitezkeen gatazkak modu orekatuan kudeatzea.

Ñabardura garrantzitsu bat egin behar da: lan-sozietateen izaera demokratikoari buruz esandakoa aldi berean bazkide diren langileei buruzkoa da soilik. Bazkide ez diren langileek ez dute parte hartzen ez kapitalaren jabetzan, ez erabakietan, ez enpresaren emaitzetan. Hori hitzarmen kolektiboaren edo lan-kontratu indibidualaren bidez

hobekuntzarik egin ezean, horrek aukera eman baitiezaieke pertsona horiei enpresaren zuzendaritzan edo emaitzetan nolabait parte hartzeko.

Puntu horretan, garrantzitsua eta onargarria da, ikusi dugun bezala, lan-sozietateen legearen orientazio politikoa, zenbait neurri ezartzen baititu bazkide ez diren langileak bazkide bihurtzea sustatzeko. ASLEren politika berbera da, kontratu mugagabea duten langile guztiak bazkide izan daitezen ahalegintzen baita.

Azkenik, sexu-berdintasunaren adierazleari dagokionez, nabarmendu behar da nolabaiteko egonkortasuna dagoela enpleguaren banaketan: % 56 inguru gizonak eta % 44 emakumeak, honako taula honetan adierazten den moduan:

54. ilustrazioa. Izaera demokratikoa. Berdintasuna. Enplegu-ehunekoa kooperatibetako eta lan-sozietateetako kontratu-harremanaren arabera

Urtea	Gizona	Emakumea
2017	% 56,10	% 43,90
2016	% 55,70	% 44,30
2018	% 56,90	% 43,10

Iturria: OVES/GEEB, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ekonomiaren Estatistikatik abiatuta

Lan-sozietateen enpresa-izaera

Lan-sozietateek enpresa-izaera garbia dute. Haien berezitasuna ez datza garatzen dituen ondasunak edo zerbitzuak ekoizteko jarduera ekonomikoan, kapitalaren lan-jabetzan, eta, ondorioz, langileek enpresaren zuzendaritzan eta emaitzetan duten parte-hartzean baizik. Merkatuan berdintasun-baldintzetan lehiatzen dira gainerako enpresekin.

Sozietateek presentzia handiagoa dute industria-sektorean, sortutako balio erantsiari dagokionez, nahiz eta egia den, euskal ekonomian oro har gertatzen den bezala, zerbitzu-sektoreak gero eta protagonismo handiagoa hartzen duela (ikusi 58. taula). Halaber, industriaren nagusitasuna ikusten da sektore bakoitzean duten partaidetzan, euskal ekonomia osoarekin alderatuta (ikusi 59. taula).

55. ilustrazioa. Jasangarritasun ekonomikoa. Errentagarritasun ekonomikoa.
Balio erantsi gordina sektoreen eta forma juridikoaren arabera

2016	Lan-sozietate anonimoa		Lan-sozietate mugatua		GUZTIRA	
	Miloi €	%	Miloi €	%	Miloi €	%
Lehen sektorea	0,00	% 0,0	0,30	% 0,2	0,30	% 0,1
Industria	107,15	% 76,5	78,95	% 58,4	186,10	% 67,6
Eraikuntza	18,65	% 13,3	12,27	% 9,1	30,92	% 11,2
Zerbitzuak	14,35	% 10,2	43,63	% 32,3	57,98	% 21,1
Guztira	140,15	% 100,0	135,16	% 100,0	275,31	% 100,0
2018	Miloi €	%	Miloi €	%	Miloi €	%
Lehen sektorea	0,00	% 0,0	0,40	% 0,3	0,40	% 0,1
Industria	134,98	% 80,5	81,47	% 56,2	216,45	% 69,2
Eraikuntza	17,10	% 10,2	12,43	% 8,6	29,53	% 9,4
Zerbitzuak	15,65	% 9,3	50,58	% 34,9	66,23	% 21,2
Guztira	167,73	% 100,0	144,87	% 100,0	312,60	% 100,0

Iturria: OVES/GEEB, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ekonomiaren Estatistikatik abiatuta

56. ilustrazioa. Jasangarritasun ekonomikoa.
Errentagarritasun ekonomikoa. Kooperatibek eta lan-sozietateek BPGan duten partaidetza

	Jarduera-sektorea			
	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Guzti
2008	9,30	1,30	3,20	4,30
2010	10,00	1,50	3,30	4,80
2012	9,90	1,40	3,00	4,50
2014	9,30	1,30	2,90	4,30
2016	9,70	1,80	3,10	4,60
2018	9,50	1,90	2,80	4,40

Iturria: OVES/GEEB, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ekonomiaren Estatistikatik abiatuta.

Laneko ekintzailletza kolektiboko jardunetik sortutako enpresa da, eta epe luzera irauteko asmoa du. Horren ondorioz, irabaziak berrinbertitzeari ematen zaio lehentasuna, enpresa daukaten eta kontrolatzen duten langileen enplegua jokoan baitago.

Ereduak eskaintzen duen malgutasuna oso positiboa da. Kanpoko inbertitzaileak behar direnean, aukera hori ematen zaie; hala, lan-sozietateak behar duen finantza-injekzioa jasotzen du, baina enpresak bere langileen kontrolpean jarraitzen du.

Nabarmentzekoa da lan-sozietateek krisialdian erresilientzia izateko duten gaitasuna, malgutasuna eta kontzientzia erakusten baitute lan-baldintzak beharantz egokitzeko, modu kontziente eta autogestionatuan.

Horregatik, lan-sozietateak erreferente historikoa dira birmoldaketa-eredu gisa; eta, gaur egun, formulak balio du *ex novo* enpresak sortzeko, edo enpresa langileei saltzen zaien enpresa-ondorengotzen kasuetarako.

Lan-sozietateen komunitatearekiko konpromisoa

Lan-sozietateak, beren izaera bera dela eta, kokatuta dauden lurraldean sustraituta daude, enpresa langileek kontrolatzen baitute, eta kanpoko inbertsioa, gainera, akzio edo partaidetza orokorrak dituzten bazkideen kargura, halakorik badago, minoritarioa izango da.

Lurralde-sustraitze horren ondorioz, lan-sozietateak eragile estrategikoak dira lurraldeen jasangarritasunean. Tokiko enplegua eta aberastasuna sortzen duten erakundeak dira, lanekoak ez diren enpresek baino modu ekitatezkoagoan banatzen dituztenak, eta, beraz, sozialki kohesionatzen dute lurraldea, berdintasun ekonomiko handiagoa sortzen duten heinean.

Enpresen eta lurraldearen arteko lotura finkatzen duten enpresa-proiektuak dira, erabakiguneak, enplegua sortzeko motorrak (ikusi 57. taula) eta baliabide ekonomikoak (ikusi 56. taula) tokian-tokian mantentzea ahalbidetzen dutenak, lurralde lehiakorragoa eta kohesionatuagoa lortzen laguntzeko.

57. ilustrazioa. Aberastasuna sortzea. Lan-sozietateek EAEko enpleguari egiten dioten ekarpena

2018	Lan-sozietate anonimoa	Lan-sozietate mugatua	GUZTIRA	Euskal ekonomia	Garrantzi erlatiboa
EAE	3.029	4.190	7.219	935.100	0,77%
Lehen sektorea	0	14	14	10.800	0,13%
Industria	2.281	2.449	4.730	205.600	2,30%
Eraikuntza	186	360	546	49.800	1,10%
Zerbitzuak	562	1.367	1.929	668.900	0,29%
ARABA	148	389	537	143.000	0,38%
Lehen sektorea	0	0	0	2.500	0,00%
Industria	106	182	288	35.200	0,82%
Eraikuntza	6	45	51	6.700	0,76%
Zerbitzuak	36	162	198	98.600	0,20%
BIZKAIA	1.409	1.723	3.132	481.200	0,65%
Lehen sektorea	0	11	11	4.100	0,27%
Industria	1.075	652	1.727	89.500	1,93%
Eraikuntza	106	215	321	25.100	1,28%
Zerbitzuak	228	845	1.073	362.500	0,30%
GIPUZKOA	1.473	2.078	3.551	311.000	1,14%
Lehen sektorea	0	3	3	4.200	0,07%
Industria	1.100	1.615	2.715	81.000	3,35%
Eraikuntza	75	100	175	17.900	0,98%
Zerbitzuak	298	360	658	207.900	0,32%

Iturria: OVES/GEEB, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ekonomiaren Estatistikatik abiatuta

Lan-sozietateek beren inguruko komunitatearekin duten gizarte-erantzukizuna erabakiak hartzerakoan duten orientazio politikoan bertan islatzen da. Esate baterako, enpresa batek bi alderdi ditu: fabrikazioa eta merkaturatzea. Normalean, merkaturatzeak fabrikazioak baino arrisku txikiagoa izaten du, eta etekin handiagoa, baina fabrikazioa mantentzearen aldeko apustua egiten denean, nahiz eta arrisku handiagoa eta etekin ekonomiko txikiagoa izan, lehentasuna ematen zaio ekoizpen-arlo horretako enpleguari, merkaturatzearekin lotutako enplegua baino askoz ere handiagoa baita. Horrela, tokiko enplegua mantentzearen aldeko apustua egiten da, lehentasuneko helburu gisa, eta kostuak merkatzeko deslokalizazio-estrategiak saihesten dira.

Azken batean, hartzen dituen tokiko komunitatearekiko konpromiso-maila nabarmena erakusten duten enpresak dira. Izan ere, komunitate horretatik datoz langile gehienak edo guztiak. Horregatik, tokiko garapenari eta tokiko gizarte-kohesioari laguntzen diote, enpresen deslokalizazioaren arriskua saihesten duten aldi berean.

3.3. EZAUGARRIAK

Oro har, lan-sozietateen euskal mugimenduaren erreferentzia global gisa, industria-sektorearen nagusitasuna nabarmendu dezakegu, nahiz eta zerbitzu-sektorea aurrera egiten ari den, ekonomia- eta ekoizpen-sistema globalaren bilakaera-ildo berean.

Esparru geografikoan, nabarmentzekoa da Gipuzkoako lurraldeak euskal esparruan izan duen portaera hobea, lurralde horretako langileen partaidetzaren sustapen publikoaren ondorioz neurri handi batean.

Egiazta daiteke, era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko lan-sozietateak Estatuko lan-sozietateak baino tamaina handiagokoak direla batez beste.

Gaur egun, lan-sozietateen eredu tresna bikaina da enpresa-ondorengotza gauzatzeko, erretiroa hartzeko unetik hurbil dagoen enpresaburuaren kasuan, non ez baita belaunaldi-erleborik gertatzen, familiak ez baitu enpresa-proiektuaren buru izaten jarraitu nahi. Horrela, familiak langileei saltzen die enpresa, eta enpresa lan-sozietate bihurtzen da.

3.4. ERRONKAK

Ideologia

Lan-sozietateen mugimenduak, enpresa-eredu espezifikoak den aldetik, koherentzia, motibazioa eta espiritu komuna ekarriko dituen *corpus* ideologiko bat eduki behar du. Hori guztia langileek berek zuzentzen dituzten enpresak direlako oinarritzko printzipioaren inguruan, funtsezko elementu hori oso positiboki baloratuta.

Enpresa-eredu espezifiko baten parte izatearen kontzientzia, hein batean, lan-sozietatea sorrarazten duen egoeraren araberakoa da. Hala, *ex novo* ekintzailatza denean, lan-sozietatearen ereduaren aldeko hautua egiten da, eta, beraz, elementu ideologikoa presente dago. Enpresa-birmoldaketaren fenomenoak direnean, beharrak berak eramaten du

eredua hautatzera, aldez aurreko hausnarketa ideologikorik gabe. Belaunaldi-erreleboa bada eta familiaren belaunaldi berriak lan-sozietatearen ereduaren aldeko apustua egiten badu, elementu ideologikoa presente egongo da.

Langile izatetik bazkide izatera pasatu eta enpresaburu bihurtzeak mentalizazioa eskatzen du. Kapitala jartzea, arriskua bere gain hartzea eta enpresa-erabakiak hartzea. Langileak urrats hori egitera animatzeko, prestakuntza da gakoa, eta metodorik onena konparatiboa: lan-sozietatearen bertuteak eta potentzialtasuna alderatzea, non langileak protagonista diren eta enpresaren norabidea zuzentzen duten, besteren konturako enplegu indibidualarekin, enplegu autonomo indibidualarekin eta enplegu publikoarekin. ASLE da prestakuntza espezifiko horren erantzukizuna bere gain hartu behar duen erakundea.

Langileen jarrera funtsezkoa da. Trebakuntza funtsezkoa da rol-aldaketarako, langile izatetik bazkide langile izatera pasatzeko. Ildo horretan, ASLEk jarrerazko trebakuntzari buruzko kapitulu bat sartu du prestakuntza-programetan, pertsona berak koherentziaz eta orekaz joka dezan bazkide gisa jarduten duenean eta langile gisa esku hartzen duenean. Oreka hori funtsezkoa da enpresa-proiektuaren kohesiorako.

Kudeaketa-moduak eta barne-dinamikak partaidetza- eta lankidetz-estrategietan oinarritutako kulturaren oinarritu behar dira. Prestakuntzaren arloan, lan-sozietateen elkarrekin —gure kasuan, ASLEk— trakzio-jarrera hartu behar dute, eta prestakuntza eta motibazioa eskaini; horrela, enpresen zuzendaritzaren, enpresa-batzordeen eta bazkide langileen ereduarekiko konpromisoa sustatuko dute.

Garrantziko beste alderdi bat interes kolektiboak interes indibidualaren gainetik duen ezinbesteko nagusitasunarena da, enpresa-proiektuaren bideragarritasuna ikusarazten baitu interes indibidual legitimoen aldez aurreko betekizun gisa. Gai horretan, halaber, funtsezkoa da prestakuntza, baita proiektu komunaren bilakaerak norbanakoaren interesak erabat baldintzatzen dituelako kontzientzia ere.

Printzipioak eta balioak betetzen direla bermatzeko, kudeaketa aurreratuko Euskalit eredia eta haren adierazle sorta erabil daitezke gizarte-kohesiorako, partaidetzarako eta balio-auditoretzetarako tresna diagnostiko gisa.

Ikusaraztea

Begien bistakoa da lan-sozietateen euskal mugimenduaren erronka, eredia ikusarazteari dagokionez. Oro har, lan-sozietateak oso ezezagunak dira enpresa-ingurunean. Eta ezagutzen ez dena ez da praktikatzen.

Askotan, enpresa-proiektu batekin ASLEra hurbiltzen denak lan-sozietate bat sortzen du. Kontua da zenbat enpresa-proiektuk ez duten ASLEra jotzen, eredu eta elkarre bera existitzen direnik ez dakitelako.

Sakonki lan egin behar da lan-sozietateen figura gehiago eta hobeto ezagutzera emateko. Ikusgaitasun handiagoa eman behar zaio, lan-sozietateen ereduak enpresa-proiektu askori balio handia eman diezaiokeela sinetsita. Horretarako, ezinbestekoa da aliantzak egitea, komunikazio-oihartzuna areagotzeko. Lan-sozietateek berek alor horretan dituzten aukerak mugatuak dira.

Lan-sozietateak ez dira soil-soilik krisi ekonomikoarekin lotu behar. Lan-sozietatea ez da soilik krisia gainditzeko elementu bat. *Ex novo* ekintzailtzeko formula erakargarria izan behar du, baita enpresa-ondorengotzetarako figura egokia izan ere.

Erakargarritasuna eman behar zaio lan-sozietatearen figurari, bai ekintzaileentzat, bai negozioak langileei transmititu nahi dizkieten enpresen jabeentzat, edo zailtasunak dituen proiektu bat berregituratzeari begira.

Eratzea

Lan-sozietateak eratzeko errazteko, komeniko litzateke eratzeko betekizunak sinplifikatzea, notario-eskrituraren bidez inskribatu behar baitira Merkataritza Erregistroan eta Lan Sozietateen Erregistroan.

Administrazio-tramiteak egin beharraz gain, ekonomikoki garestia izaten da inskripzioa, eta positiboa izango litzateke kostu ekonomikoa murriztea.

Partaidetzen (lan-sozietate mugatuak) eta akzioen (lan-sozietate anonimoak) salerosketari dagokionez, ildo berean, komeniko litzateke betekizun formalak sinplifikatzea.

Bizikidetzak

Bizikidetzak egokia lortu behar da hiru subjektuen artean, hots, bazkide langileen, langile ez diren bazkideen eta bazkide ez diren langileen artean.

Bazkide langileen eta bazkide kapitalisten arteko bizikidetzak egokirako, enpresaren errentagarritasun ekonomikoaren eta lan-baldintzen kalitatearen arteko oreka lortzean datza gakoa. Normalean, lan-sozietatean inbertitzen duten bazkide kapitalistak ez dira espekulatuzaile hutsak, haren dinamikarekin eta espirituarekin zerikusirik ez dutenak, eta, beraz, ez da gatazka garrantzitsurik izaten.

Bazkide langileen eta bazkide ez diren langileen arteko bizikidetzaren alorrean, kide izatearen sentimendua landu behar da langile guztiekin, bazkide izan ala ez.

ASLEren irizpide politiko garbia da lan-harreman mugagabea duten langile guztiak bazkide bihurtzea. Igarobidea erraztu eta aukera hori eskaintzea. Norbaitek egin nahi ez badu, bere aukera pertsonal libre da.

Bazkide ez diren pertsonak bazkide bihurtzea da interes-gatazkak eta konparaziozko bidegabekeriak saihesteko modurik onena. Bazkideek bazkide ez direnek baino soldata handiagoa kobratzen dutenean, egoerak gatazka izateko bidea ematen du. Bazkide ez diren langile asko badaude, lan-sozietatearen figura desnaturalizatu egiten da.

Nolanahi ere, langileak, bazkideak zein bazkide ez direnak, elkarrekin bizi ahal izateko, bidezko ordainsari-politika behar da, langile guztientzako lan-baldintza homogeneousak, enpresari barne-kohesioa emateko.

Finantzaketa

Gaur egun, lan-sozietateen finantza-iturri nagusiak honako hauek dira:

- Bazkideen ekarpenak.
- Langabezia-prestazioaren kapitalizazioa.
- Finantza-erakundeen kreditua.
- Elkargi Elkar Bermatzeko Sozietatea.
- Lanpar funtsa. ASLEren eta Eusko Jaurlaritzaren artean sortutako funtsa, langileek beren enpresetako kapitalean parte hartzea errazteko.
- Lan-sozietateak sortzeko eta bazkide langile berriak sartzeko dirulaguntza publikoak.

Finantzaketa lan-sozietateen erronka garrantzitsua da, askotan disuasio-elementu nagusia izan baitaiteke horrelako enpresa bat eratzeko orduan, honako bi arrazoi hauen ondorioz: finantzaketa lortzeko zailtasuna eta arrisku ekonomikoa bere gain hartzeari uko egitea.

Lan-sozietate askoren dimentsio txikia finantzaketa eskuratzeko eragozpena da, neurri batean, finantza-prestakuntza behar delako sozietate horien barruan.

Komenigarria litzateke bide berriak bilatzea, finantza-tresna berriak, lan-sozietateak eratzea eta, ondoren, bazkide langile berriak sartzeko errazteko.

Sindikatuak

Lan-sozietateen jatorrian, sindikatuek protagonismo nabarmena izan zuten, krisian zeuden enpresak berreskuratzeko tresna gisa bultzatu baitzuten eredia.

Hala ere, gaur egungo ikuspegitik egiazta daiteke sindikatuek, askotan, langileen interesak defendatzeko beren logikaren arabera funtzionatzen dutela, kapitalaren interesei kontrajarrita, eta lan-sozietateetan lanekoak ez diren enpresa kapitalistetan egiten duten antzera betetzen dutela jarduera sindikala.

Hortik aurrera, sindikatuek lan-sozietateetan parte hartzeko eredu konbentzionalaz bestelakoan aurrera egitean datza erronka. Eredu horrek kontuan hartuko ditu mota horretako enpresetan langileen interesen defentsan nagusi izan behar duten espezialitateak, eta sindikatuak lan-sozietatean izan behar duen zereginari buruzko hausnarketaren emaitza izango da; izan ere, eredu hori osagarriagoa da, eta enpresaren estrategiarekin duen konpromisoarekin lotuta dago.

Egungo esku-hartzea, funtsean kapitalari aurre egiteko diseinatua, ez dator bat partaidetzapeko enpresa mota horiekin. Antolamendu sindikala jabetzaren eta lan-indarraren arteko konfrontazioan eta aurkakotasunean oinarritutako lan-harremanak gainditzeko sortu zen, eta espero zitekeen, hortaz, lan-sozietateentzat gatazkatik aldendutako partaidetzapeko arketipo berri bat izatea.

Komenigarria litzateke lan-sozietateetako ordezkariak sindikalek horren inguruko prestakuntza eta kontzientziak izatea. Parte hartzearen alde egin beharko litzateke, gatazkaren kultura gainditzeko saiatuz.

Bazkide langileengan kapitala eta lana batzen direnez, sindikatuek eta administrazio-kontseiluek lan-sozietateetan egiten duten jarduera klasikoa birplanteatu beharko litzateke, gatazka-harremana gainditzeko bidean aurrera eginez, ulermenaren eta orekaren alorrean sartzeko.

Nolanahi ere, oraindik ere harremana dago lan-sozietateen mugimenduaren eta mugimendu sindikalaren artean, CONFESAL (Lan Sozietateen Estatuko Konfederazioa) eta CCOO eta UGT zentral sindikalen arteko 2014ko martxoaren 17ko lankidetzak-akordioak egiaztatzen duen bezala. Horren helburua da lan-sozietatea enplegua sortzeko gai den formula gisa goraiatzea.

Partaidetzapeko sozietateak

Urriaren 14ko 44/2015 Legeak partaidetzapeko sozietateen irudi berria arautzen du lan-sozietateekin batera. Enpresa horietan, legeko gutxieneko

preskripzioetatik harago, langileek partaidetza mailaren bat dute, dela kapitalean, dela enpresaren zuzendaritzan, dela enpresaren emaitzetan.

Zuzenbide konparatuan, partaidetzapeko enpresaren figura oso onartuta dago, Ameriketako Estatu Batuetako ESOP (Employee Stock Ownership Plan) formula erreferentzia nagusizat hartuta.

Horrenbestez, partaidetzapeko sozietateak nazioartean ezagut daitekeen eredua dira, baina ez dira lan-sozietateak, baldin eta lan-sozietate izateko baldintzak betetzen ez badituzte.

Erronka da partaidetzapeko enpresa lehen urratsa izatea, lan-sozietaterako bidean jarrai dezan. Eta hori hainbat egoeratan, hala nola erretiroaren ondoriozko belaunaldi-erreiboko prozesuetan, enpresaren pixkanakako salmentan edo beste batzuetan.

Eustorma gisakoa ere izan daiteke kontrako bidean, hots, deskalifikatutako lan-sozietate bat partaidetzapeko enpresa gisa gera dadin.

3.5. ONDORIOAK

Egindako azterketari esker ikusi ahal izan dugu lan-sozietateen enpresa-eredua oso sustraituta dagoela Euskal Autonomia Erkidegoan. 1972ko “Herramientas de Precisión” enpresaren lehen esperientziatik gaur egunera arte, euskal lurraldean ekintzailtza-ekimen asko sortu dira lan-sozietateen formulapean.

Legeria denboren gorabeheretara egokitzen joan da, urriaren 14ko 44/2015 Legeak erakusten duenez. Lege horrek esparru juridiko egokia eskaintzen du egungo lan-sozietateentzat.

Euskal Autonomia Erkidegoko lan-sozietateen ASLEren inguruko asoziazionismoa nabarmena da, lan-sozietateen mugimenduaren kohesioa erakusten baitu.

Ikusi dugu lan-sozietateek, nahiz eta kapitaleko merkataritza-sozietateak izan, lan-izaera garbia dutela, enpresaren jabetzaren gehiengoa langileena dela kontuan hartuta. Beraz, autoenplegu kolektiboaren helburua gailentzen da, etekina maximizatzearen gainera.

Horregatik, lan-sozietateak gizarte-ekonomiaren familiako kide dira, pertsoneri eta enpresaren helburu sozialari lehentasuna ematen baitzaie kapitalaren gainera.

Enpresa horietako langileak, ahaldunduta, enpresa-proiektuaren benetako protagonistak dira, zentzu laukoitzean: lanaren prestazioa, enpresaren jabetza, enpresaren zuzendaritza eta emaitzen banaketa.

Lan-sozietateak gizarte-ekonomiaren barruan sartzea, halaber, kokatuta dauden komunitateari egiten dioten ekarpenaren alderdian ere ikus daiteke.

Aipatu ditugun erronkak ikuspuntu bikoitzetik ikus daitezke. Alde batetik, egiteko asko dagoela; bestetik, hori egiteko baliabideak badaudela.

Erronkak hainbat alderditan, hala nola ereduia gehiago ikusarazteko beharra; bazkide langileen eta bazkide ez diren langileen arteko bizikidetzaz; finantzaketa-iturriak eskuratzeko aukera hobea; edo sindikatuekiko harremanak.

Hemen azpimarratu nahi genuke, aipatutako erronken artean, komenigarria dela lan-sozietateen mugimenduak *corpus* ideologiko sendoa edukitzea, langileek zuzendutako enpresa-eredu berezi horri forma eta kohesioa emateko, eta enpresa-kudeaketa arruntean erreferentzia gunea izateko.

Alde horretatik, funtsezkoa izan daiteke lan-sozietateetako langileen prestakuntza eta kontzientziazioa. Izan ere, beren enpresa gidatzeko aukera ematen dien proiektu bat dute esku artean, zailtasunekin bada ere, eta aukera hori ez dute eskaintzen lan elkartetik urruntzen diren gainerako enpresa-ereduek, hala nola besteren konturako enplegu indibidual hegemonikoak, autoenplegu indibidual autonomoak eta enplegu publikoak.

Azken batean, lan-sozietatearen figura modu erakargarrian balioestea da helburua, enpresa-eredu espezifiko gisa, bidea eman baitiezaiokie ekintzaitelza kolektiboko, enpresa-birmoldaketako, belaunaldi-txandaketako edo enpresa-ondorengotzako edozein proiekturi.

3.6. ERREFERENTZIAK ETA ITURRIAK

- ASLE (Ed.) (2016). *ASLE y las Sociedades Laborales vascas 1982-2016*. Bilbao: ASLE.
- ANDREU MARTÍ, M. M. (2017). La sociedad laboral del siglo XXI. Significado y configuración, in AA.VV., *El régimen jurídico de las sociedades laborales*, Thomson Reuters-Aranzadi.
- CALVO ORTEGA, R. (2013). *Sociedades laborales*, Madrid: Cívitas.
- CALVO VÉRGEZ, J. (2016) En defensa de las Sociedades laborales: la Ley 44/2015, de 14 de octubre, de sociedades laborales y participadas, y la creación de un nuevo marco jurídico destinado al fortalecimiento de estas entidades”, *Revista Aranzadi Social*, (5).
- CORDERO GORDILLO, V. (2018). El estatuto jurídico del socio trabajador desde la perspectiva del Derecho del Trabajo, en G. FAJARDO GARCÍA (dir.), *Participación de los trabajadores en la empresa y sociedades laborales*, Valencia: Tirant lo Blanch.
- DÍEZ ACIMAS, L. (2016). Régimen jurídico de las sociedades laborales y participadas (análisis de la Ley 44/2015, de 14 de octubre), *Deusto Estudios Cooperativos*, (8).

- FAJARDO GARCÍA, G. (2018). La sociedad laboral. Concepto, calificación y principales características. In G. FAJARDO GARCÍA (dir.), *Participación de los trabajadores y sociedades laborales* (pp.589-630). Valencia: Tirant lo Blanch.
- GARCIA ORTEGA, J. (2018). “Sociedades laborales: cuestiones de seguridad social”, in G. FAJARDO GARCÍA (dir.), *Participación de los trabajadores y sociedades laborales*, Valencia: Tirant lo Blanch.
- 5/2011 LEGEA, martxoaren 29koa, Gizarte Ekonomiari buruzkoa. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, (76) 2011/03/30, 33023-33033. <https://www.boe.es/eli/es/l/2011/03/29/5>
- 44/2015 LEGEA, urtiaren 14koa, Lan Sozietateei eta Partaidetzapekoei buruzkoa. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, (247), 2015/10/15, 95747-95763, <https://www.boe.es/eli/es/l/2015/10/14/44>
- MERINO SEGOVIA, A. (2018). “Sindicalismo y participación en las sociedades laborales”, in G. FAJARDO GARCÍA (dir.), *Participación de los trabajadores y sociedades laborales*, Valencia: Tirant lo Blanch.
- OVES/GEEB (2019/02/28). Área socio-económica. Hemendik berreskuratua: <http://www.oves-geeb.com/es/area-socio-economica>
- PARDO, M. (2017). Descubre los valores y ventajas de la Sociedad laboral ¡Emprende colectivamente! [Blog bateko mezua]. Hemendik berreskuratua: <http://asle.es/2017/01/25/descubre-los-valores-y-ventajas-de-la-sociedad-laboral-emprende-colectivamente/>
- POLO, F. (2018). Otras particularidades de la estructura financiera: la reserva especial. In G. FAJARDO GARCÍA (dir.), *Participación de los trabajadores y sociedades laborales* (pp.911-930). Valencia: Tirant lo Blanch.
- PRIETO JUÁREZ, J. A. (2018). “Régimen jurídico del trabajo asociado en las sociedades laborales”, in G. FAJARDO GARCÍA (dir.), *Participación de los trabajadores y sociedades laborales*, Valencia: Tirant lo Blanch.
- RODRÍGUEZ, A. (2018). El órgano de administración de las sociedades laborales. In G. FAJARDO GARCÍA (dir.), *Participación de los trabajadores y sociedades laborales* (pp.883-910). Valencia: Tirant lo Blanch.
- SENENT VIDAL, M. J. (2018). Derechos, obligaciones y responsabilidad de las personas socias. In G. FAJARDO GARCÍA (dir.), *Participación de los trabajadores y sociedades laborales* (pp.833-882). Valencia: Tirant lo Blanch.

Enplegu-zentro bereziak Euskal Autonomia Erkidegoan: kontakizuna

Enekoitz Etxezarreta Etxarri

Ane Etxebarria Rubio

Jon Morandeira Arca

Aratz Soto Gorrotxategi

Aitor Bengoetxea Alkorta

GEZKI (Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua)
UPV/EHU

4.1. SARRERA

Enplegu-zentro bereziak desgaitasuna duten pertsoneri enplegua eskaintzen dieten erakundeak dira, baita egokitzapen pertsonal eta sozialeko zerbitzuak eskaini ere, pertsona horien enplegarritasuna eta trebetasun soziolaboralak hobetzeko laguntza-formulen bidez.

Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorrean (aurrerantzean, DPEGLO) desgaitasunari buruz jasotako definizioa ontzat emanda, ulertzen da desgaitasuna “urritasun ziur aski iraunkorrek dituzten pertsonen eta horiek gizartean gainerakoen baldintza berberetan bete-betean eta eraginkortasunez parte hartzea mugatzen edo eragozten duten edozein motatako oztipoen arteko interakzioaren emaitza dela”¹.

Enplegu-zentro bereziak, hortaz, oztipo horiek desagerrarazten laguntzen duten eta kolektibo horretako pertsonen parte-hartze osoa eta eraginkorra bideratzen ahalegintzen diren lan-tresnatzat hartzen dira. Beraz, enplegu-zentro berezien helburua da enplegarritasun-

¹ Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 2.a) artikulua.

zailtasun bereziak dituzten pertsoneri enplegu produktibo eta ordaindua ziurtatzea, enplegu arruntera igarotzea ahalbidetzen duten aldi berean (BENGOETXEA, ETXEBARRIA, MORANDEIRA, SOTO, 2019).

Ondoren garatzen dugun kontakizunean, EAEko esperientzia horren ezaugarri nagusiak identifikatzen saiatzen gara, baita gizarte-ekonomiaren unibertsoarekin lotzen duten ideia nagusiak eta etorkizuneko erronka nagusiak ere.

4.2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EHUNAREN EGUNGO ERREALITATEA

Gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziak, gizarteratzeko euskal ereduaren ibilbideko funtsezko kate-maila

1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 43. artikulua da enplegu-zentro bereziak juridikoki definitzen dituena:

Enplegu-zentro bereziak dira merkatu-operazioetan ohikotasunez parte hartuz ondasunak edo zerbitzuak produzitzeko jarduera batean aritzea izanik xede nagusia, desgaitasunen bat duten pertsonentzat enplegu ordaindu bat ziurtatzeko helburua dutenak; aldi berean, bitarteko bat dira ahalik eta era horretako pertsona gehien ohiko enplegu-erregimenera biltzeko. Era berean, enplegu-zentro bereziek, laguntzako unitateen bitartez, desgaitasunen bat duten langileen egokitze pertsonala eta soziala lortzeko behar dituzten doikuntza-zerbitzuak eskaini behar dituzte, kasuan kasuko egoeraren arabera eta erregelamenduz ezarritakoari jarraituz.²

Definizio horretan oinarrituta, enplegu-zentro bereziek hiru eginkizun nagusi betetzen dituzte: desgaitasuna duten pertsoneri ordaindutako enplegua eskaintzea; doikuntza pertsonal eta sozialeko beste zerbitzu batzuk ematea (prestakuntza eta garapena gizarte- eta lan-trebetasunetan) eta ahalik eta pertsona gehien enplegu arruntera igaro daitezen ahalbidetzea.

Horrelako erakundeen izaera finalista edo iragankorra, beraz, ez da zehatz-mehatz zehazten definizioan bertan; izan ere, uste da enplegu arruntera igarotzea erraztuko duten eragileak izan daitezkeela, ahal den guztietan (MORATALLA, 2016).

Enplegu-zentro bereziak, beraz, lan-ingurune iraunkorrak edo iragankorrak direnez, gizarteratzeko eta laneratzeko prozesu horien funtsezko pieza dira, eta, azken batean, desgaitasuna duten pertsonen gure

² 43. artikulua. Desgaitasunen bat duten pertsonak laneratzeko enplegu-zentro bereziak.

Azken batean, laguntza-zerbitzuen multzo bat eskaini nahi da, pertsona bakoitzaren egoera zehatzetara eta oztopo mugatzaileekin duten interakziora egokitzeko, pertsona guztiek, desgaitasun-maila edo desgaitasun-tipologia edozein izanda ere, enplegarritasun-baliabideren bat aukeratzeko eskubide bera izan dezaten.

Orientazio-, bitartekaritza- eta prestakuntza-zerbitzuez harago, desgaitasuna duten pertsonak bi enplegu mota eskura ditzakete: enplegu arrunta (enpresa pribatuan zein administrazio publikoan) eta enplegu babestua. Enplegu arrunta, oro har, desgaitasuna duten pertsonentzat alor nekeza denez, enplegu-zentro bereziek enplegu babestuaren alternatiba eskaintzen dute, desgaitasuna duten pertsonen ezaugarrietara egokitutako lan-eredu espezifiko gisa³. Azkenik, desgaitasunaren larritasunaren arabera, enplegarritasun-arazo handiagoak dituzten pertsonak daude, bai enplegu arruntean, bai babestuan. Gizarte-zerbitzuen sistemaren barruan terapia okupazionala eskaintzen duten zerbitzu okupazionalak eskura ditzake kolektibo horrek⁴.

Horrelako ekimenak sortzearen jatorrian dagoen espiritua da desgaitasuna duten pertsonak lan-inguruneetan sartzeko aukeraren bidez ahalduntzea, gizarte-prestazioen hartzaile pasibo izateari utz diezaioten eta enplegu-politika aktiboaren barruan kolektibo espezifikoak izan daitezten (MORATALLA, 2017).

Enplegu babestuaren euskal mugimendu asoziatiboa

Enplegu-zentro berezien barruan hainbat tipologia daude, bi aldagai nagusiren arabera: zentroa sustatzen duen erakundearen titulartasuna eta, hortaz, erakundearen irabazi-asmoko edo irabazi-asmorik gabeko izaera. Beraz, enplegu-zentro berezien tipologia bakoitzerako sare asoziatiboak daude.

Gauzak zehatzago aztertuta, eta erakunde mota horiek egungo araudiaren betetze-mailari dagokionez zer-nolako benetako portaera duten ikusirik, MORATALLAK (2016) enplegu-zentro berezien lau mota bereiztea proposatzen du:

- Gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziak, gizarte-erakundeek eta hirugarren sektorekoek sustatuak. Desgaitasuna duten pertsonen enplegua sortzea dute helburu, enplegu-zentro berezietako

³ Enplegu-zentro berezietan ezarritako lan-harremanen analisi zehatzagorako, irakurri BENGOETXEA ET AL (2019) ETA MORATALLA (2016).

⁴ Gizarteratzeko eta laneratzeko euskal eremuan eskainitako baliabide guztien analisi zehatzagorako, irakurri BENGOETXEA ET AL (2019).

enpleguaren bidez, batez ere laguntza-premia handienak dituen kolektiboan.

- Desgaitasuna duten pertsonentzako enplegua bultzatzen duten enpresaburu indibidualek (ETEak) sustatutako enplegu-zentro bereziak.
- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 42. artikuluan ezarritako betebeharra, desgaitasuna duten pertsonak kontratatzekoa, betetzen duten erakunde korporatibo handiek sustatutako enplegu-zentro bereziak.⁵
- Kasu askotan desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeko betebeharra betetzen ez duten erakunde korporatibo handiek sustatutako enplegu-zentro bereziak⁶.

Sailkapen hori gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezien aldeko nahitaezko diskriminazioa eskatzeko argudio-oinarri gisa erabil daiteke; izan ere, irabazi-asmorik gabekoak direla kontuan harturik, pentsa daiteke horiek direla gizarte-ekonomiaren printzipioak benetan betetzen dituzten bakarrak (MORATALLA, 2017; BENGOETXEA ET AL, 2019).

EAEn, lurraldeko ia enplegu-zentro berezi guztiak biltzen dituzten hiru sare nagusi daude: Berezilan elkartearen inguruan, irabazi-asmoko enpresek bultzatutako enplegu-zentro berezi gehienak biltzen dira; horietatik harago, sare bakar bati atxiki gabeko gizarte-ekimeneko zentro kopuru bat dago, Ilunion enpresa erreferentzia nagusizat hartuta (ONCE taldeak sustatutako zentroa, gizarte-ekonomiako erakundea); eta, azkenik, EHLABE elkarte dago, lurraldeko gizarte-ekimeneko ia enplegu-zentro berezi guztiak hartzen dituena.

Pisu erlatiboari dagokionez, EAeko enplegu-zentro berezietan lan egiten duten pertsona guztien % 85 inguru EHLABEn elkartutako erakundeetan ari dira lanean. Horri Ilunion enpresan lanean ari diren pertsonak gehitzen badizkiogu (% 4 inguru), egiazta daiteke Euskal Anomia Erkidegoan lan babestuaren gehiengo esanguratsu bat gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziei lotzen zaiela⁷.

Beraz, EHLABEk, Euskal Autonomia Erkidegoko erreferentziatzako sare nagusia den aldetik, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekimen

⁵ Beren jarduera nagusiaz bestelako jarduerak egiten dituzten enplegu-zentro bereziak abian jartzen dituzte, eta, beraz, enplegua sortzen dute.

⁶ Hau da, ez dute betetzen desgaitasuna duten pertsonentzako % 2ko erreserba, neurri horren ordeko neurriak erabiltzen dituzte, soldata txikiak eskaintzen dituzte eta behar diren doikuntzak egin gabe, besteak beste (MORATALLA, 2016:20).

⁷ Datuak hemendik atera dira: EHLABE-2018 Datuen Txostena (<https://www.ehlabe.org/eu/Zifrak/>) eta *Gizarte Ekonomiaren 2018ko Estatistika eta 2019ko aurrerapena* dokumentua, Eusko Jaurlaritzak argitaratua.

publikoko ia enplegu-zentro berezi guztiak bildu ditu 1987an sortu zenetik, eta gaur egun 100 lantoki baino gehiago kudeatzen dituzten 14 erakunde ditu. Enplegu babestu gehiena, beraz, EHLABEn elkartutako erakundeetan biltzen da. Erakunde horiek bereizgarri dute erakunde publikoek (4 erakunde) edo hirugarren sektorekoek sustatuak izatea, eta erakunde sustatzaileen irabazi-asmorik gabeko izaeraren ondorio dira esperientzia horien ezaugarri berezienak, aurrerago zehaztuko ditugunak.

EHLABE elkarteak enplegu-zentro berezi guztientzat betetzen dituen eginkizunen artean, hiru nabarmentzen dira:

- Sektorearen solaskidetzarako eta ordezkaritzarako funtsezko eginkizuna, bai EAEn, bai Estatuan, bai Europan. EAeko administrazioaren mailan, EHLABEk harreman ona du, batez ere, Lan eta Enplegu Sailarekin eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarekin, baita Lanbiderekin ere, enplegu-politika aktiboetarako buruzko guztian. Gobernuaren esparruaz harago, EHLABEk aktiboki parte hartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko sareetan (Sareen Sarea) eta gizarte-ekonomiako sareetan (EGES, OVES/GEEB, GEZKI eta abar). Estatu mailan, EHLABE Enplegu Zentro Berezien Elkartearen Espainiako Enpresa Federazioko⁸ kide da, eta Europa mailan⁹ enplegu babestuko hainbat saretan parte hartzen du (adibidez, European Equal Employment sarean).
- Bigarren jarduketa-eremua koordinazio-lanaren ondorio da, bai sarea osatzen duten enplegu-zentro berezien arteko barne-koordinazioarena bai kanpo-koordinazioarena —batez ere Lanbiderekin—, enplegarritasuneko, orientazioko, prestakuntzako eta enplegu lagunduko zerbitzuei dagokien guztian. Lan horren barruan sartzen dira, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Enplegu Babestuaren EcA Foroa¹⁰ koordinatzea edo Europako proiektuak diseinatzea, koordinatzea eta inplementatzea¹¹.
- Hirugarrenik, eta elkartutako erakundeetatik eguneroko kudeaketari buruz sor daitezkeen zalantzei erantzuteko, EHLABEk erakundeek eskatutako informazio guztia partekatzen du, eta haien artean identifikatutako jardunbide egokiak sustatzen eta erreplikatzeko ahalegintzen da.

⁸ <http://www.feacem.es/>

⁹ <https://www.easpd.eu/>

¹⁰ <https://www.ehlabe.org/es/empleo-con-apoyo/>

¹¹ Europako Gizarte Funtzak finantzaturako proiekturik garrantzitsuenak AukerAbility <https://www.ehlabe.org/eu/aukerability/> eta GazteAbility <https://www.ehlabe.org/es/gazteability/> izenekoak dira.

Sustapen-politika publikoak¹²

EAEko enplegu-zentro berezien esperientziaren indarguneetako bat EAEko administrazio publikoarekin harreman-esparru egonkorra eta konfiantzazkoa hainbat eskalatan ezartzeko gaitasunean datza.

Hala, gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide osoaren fase guztietan eragin ahal izateko eskaintako zerbitzuak konplexuak direnez, enplegu-zentro bereziek solaskidetza arina eta zuzenekoa dute bai arduradun publikoekin, bai Lanbide euskal enplegu-zerbitzuarekin, bai udal ugarirekin. Udal horiek zuzenean parte hartzen dute fundazio sustatzaileen patronatuetan kasu batzuetan, edo zerbitzuak hornitzeko kontratuen bidez erlazionatzen dira.

Lankidetza publikoaren esparru hori sektorea sustatzeko politika publikoen barruan funtsezkoak diren bi tresnaren bitartez bideratzen da: batetik, esparru arautzailea, eta, bestetik, konpentsazio ekonomikoa eskatzen duen araudiak ezarritako finantzaketa-esparrua, “enplegu-zentro bereziek dituzten ezaugarri bereziei begira, eta zentro horiek dagokien eta eskatzen zaien eginkizun soziala bete ahal izan dezaten” (1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 44. artikulua).

Bultzatze-tresna horien trazu nagusiak zirriborrotzen saiatuz, eta bakoitzaren ezaugarri zehatzak xehatzen hasi gabe, honako gogoeta hauek egingu genituzke.

Lege-garapena

Esparru arautzaileari dagokionez, erakunde horien garapen historikoa eta bilakaera arauemailea zehatz-mehatz jasotzen dituzten hainbat azterlan daude (MORATALLA, 2016; BENGOTXEA, 2017). Gaur egun, adostasun handi samarra dago sektorean eragina duten hiru arau nagusiak identifikatzeko:

- Lehenengoa eta nagusia, 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua¹³, gaur egun enplegu-zentro bereziak juridikoki definitzen eta

¹² Atal honetan jasotako balorazio-alderdiak PABLO MORATALLA EHLABEko koordinatzaileari 2020ko maiatzaren 7an egindako elkarrizketa pertsonalean oinarritzen dira. Haren baimenari esker, gainera, lan honetan erreproduzitu ahal izan dira.

¹³ Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua zenbait lege-testu bat egiteko lanaren emaitza da. Zehazki, aurreko hiru lege erregularizatu, argitu eta harmonizatzea du helburu nagusizat: 13/1982 Legea, apirilaren 7koa, desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzeari buruzkoa; 51/2003 Legea, abenduaren 2koa, desgaitasunen bat duten pertsonen aukera-

arautzen dituen araua, Espainiako Estatu Nazio Batuen Batzarrak 2006an onartutako Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioari eta haren Protokolo Fakultatiboari atxikitzearen ondorioz sortu zena, estatu kideen gai horri buruzko legeria egokitzea ekarri zuena (BENGOETXEA, 2017).

- 5/2011 Legea, Gizarte Ekonomiari buruzkoa. Lehen aldiz enplegu-zentro bereziak gizarte-ekonomiaren esparrurako eskubide osoko kidetzat hartzen dituena.
- 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuena. Mota horretako erakundeen onarpen espezifikoan sakontzeaz harago, gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziak neurri handiagoan garatzeko ezin konta ahala aukera ematen du.

MORATALLAK (2016) modu xehatuan aztertzen duenez, Desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzeari buruzko Legea (apirilaren 7ko 13/1982 Legea) onartu ondoren (LISMI izenaz ezaguna), 1985ean, errege-dekretu baten bidez garatu zen Enplegu Zentro Berezien Erregelamendua. LISMI legea indargabetu eta 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan bat egin arren, aurretiazko erreferentzia arauemaile guztiak mantendu egiten dira, horien artean *abenduaren 4ko 2273/1985 Errege Dekretua*, enplegu-zentro berezien funtsezko alderdiak arautu eta ezaugarri garrantzitsuenetako batzuk definitzen dituena: nahitaezko betekizunak plantillaren osaerari eta doikuntza pertsonal eta sozialeko zerbitzuei dagokienez; eta enplegu-zentro berezien ezaugarriak, haien titulartasunari (publikoa/pribatua), izaerari (irabazi-asmokoa / irabazi-asmorik gabekoa edo gizarte-/enpresa-ekimenekoa), desgaitasuna duten pertsonen lan-harreman bereziari, eta jasotzen duten konpentsazio ekonomikoari dagokienez¹⁴.

Legegintzako errege-dekretuaren benetako ezarpenaren azterketa eginez, bi ideia nabarmentzen dira: lehena, arautzea hobetzeko aukera ona galdu dela egiaztatzea, dekretu horrek ez baitu berritzeko asmorik, aurreko legeen bat egitea den heinean; eta bigarrena, batez ere enplegu arrunterako —publikoa zein pribatua— trantsizio-prozesuetan identifikatzen diren arazoak.

Legeak ezartzen duenez, 50 langile baino gehiago dituzten enpresek desgaitasuna duten pertsonen % 2 kontratatu beharko dituzte gutxienez,

berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzkoa; eta 49/2007 Legea, abenduaren 26koa, desgaitasunen bat duten pertsonentzako aukera-berdintasunen, diskriminaziorik ezaren eta irisgarritasun unibertsalaren arloko arau-hausteak eta zigorrak ezartzen dituena (BENGOETXEA, 2017).

¹⁴ Alderdi horien analisi zehatzaigorako, ikusi MORATALLA (2016) eta BENGOETXEA ET AL (2019).

baina euskal enpresa-ehuna batez ere ETE-ek osatzen dutenez, 50 langile baino gehiago dituzten enpresen kopurua ez da oso handia; beraz, betebeharrak horren benetako irismena oso mugatua da. Gainera, betebeharrak horretatik salbuetsita dauden enpresentzat ezarritako ohiz kanpoko neurriek ez dute nahi zen garapena izan: kolektibo horretan enplegua sortzeko asmoz zerbitzuak kontratatzeak eta dohaintzak edo babesleztak erabiltzeak oso eragin mugatua izan du, eta lan-enklabeak eratzea gutxi arakatu den bidea izan da, teknikoki korapilatsua izan da-eta. Elementu positibo gisa, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren jarrera gero eta proaktiboagoa nabarmentzen da, lege horren betetze-mailari buruzko ikuskapena areagotu egiten baitu (informazio- eta zehapen-izaerakoa, Lan Ikuskaritzaren bitartez).

Enplegu publikoari dagokionez, plazen % 7 desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeko erreserbatzeko betebeharrak ere ez da aurreikusitakoaren arabera garatu: funtzio publikoaren arauak zaharkituta geratu dira, eta enplegu publikoaren lege berririk ezean, arau-arloan aurrera egiteko aukerak oso mugatuta daude. Alde horretatik, adibide itxaropentsuak dira azken bi urteetan Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundietatik egiten ari diren adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako lan-eskaintza publiko espezifikoak.

Aipatu beharra dago, azkenik, enplegu arrunterako trantsizioa enplegu autonomoaren edo elkartuaren bidez egitea gutxi erabiltzen diren formulak direla: zenbatespenen arabera, Estatuan desgaitasuna duten pertsonen okupazioaren % 10 inguru norberaren konturako enpleguaren bidez gauzatzen da, eta ehunekoa are txikiagoa da lan elkartuko edo autoenplegu kolektiboko esperientzien kasuan (BENGOETXEA et al, 2019).

Sektorea eraginpean hartzen duten lege nagusien errepeaso arauemailearekin jarraitzeko, beste bi lege bereziko ditugu; izan ere, enplegu-zentro bereziak zuzenean arautzen ez badituzte ere, ahalmen handia dute enplegu-zentro berezien garapen handiagoa ekarriko duen testuinguru arauemaile mesedegarria ezartzeko. Gizarte Ekonomiari buruzko 5/2011 Legeaz eta Sektore Publikoko Kontratuaren 9/2017 Legeaz ari gara.

Lehenengoari dagokionez, 5/2011 Legeak lehen aldiz sartu ditu enplegu-zentro berezien tipologia guztiak gizarte-ekonomiako kide gisa, eta, beraz, sektoreak ikusgaitasuna irabazi du gizarte-ekonomiaren ordezkartza-eragileekin duen solaskidetza berriari esker (CEPES Estatuan; EGES EAEn).

Enplegu-zentro bereziak gizarte-ekonomiaren esparruan sartzea argudiatzen duten hainbat azterlanetan errepikatzen den gaitako bat da “Estatuko enplegu babestuaren sektorean askotariko errealitateak bizi

direla, interes, helburu eta xede oso heterogeneoen ondorio direnak; askotan, gainera, gizarte-ekonomiaren beraren printzipio batzuen antagonikoak ere izaten dira” (MORATALLA, 2016: 19). Uste da, hortaz, legegileak gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziak soilik sartu beharko lituzkeela gizarte-ekonomiako erakunde oso gisa, haiek baitira sektorearen barruan beren jarduera gizarte-ekonomiaren eratze-printzipioetara egokitzen duten bakarrak. Lege hori berrikusteko eta eguneratzeko eskaera horri emandako arreta hutsaren ondorioz, 5/2011 Legea geratzen da, beraz, sektoreari ikusgaitasun handiagoa ematen dion esparru arauemaile gisa, baina geroztiko garapen arauemailerik gabe.

Azkenik, 9/2017 Legea indarrean jartzea aurrerapauso handia izan da enplegu-zentro berezientzat, garrantzi handiko xedapenak jasotzen baititu. Xedapen horien artean, BENGOETXEA ET AL (2019) autorearen arabera, honako hauek nabarmentzen dira: gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezien figura aitortzea eta gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziei eta laneratzeko enpresei erreserbako gutxieneko ehunekoak finkatzea kontratu jakin batzuk edo horien sorta jakin batzuk adjudikatzekeko prozeduretan parte hartzeko eskubidean¹⁵.

Nolabait esan daiteke azken lege horrek sektorearen eskarietako bat jasotzen duela; izan ere, gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziak eta gainerako enplegu-zentro bereziak juridikoki bereizteaz gain¹⁶, kontratu-erreserbak erakunde mota hori besterik ez du hartzen eraginpean, eta,

¹⁵ SPKL indarrean jartzen denetik urtebete igaro baino lehen hartu beharko da erreserba-erabakia. Epe hori amaitutakoan, erabakirik hartu ez bada, Estatuko sektore publikoko kontratazio-organoek ehuneko 7ko gutxieneko erreserba-ehunekoak aplikatu beharko dute; ehuneko hori ehuneko 10era igoko da lege hau indarrean jarri eta handik lau urtera (BENGOETXEA ET AL, 2019).

¹⁶ SPKLren azken xedapenetako hamalagarrenak, DPEGLoren 43. artikuluari 4. apartatua gehitzen dionak, lehen aldiz sartu eta definitzen du gure ordenamendu juridikoan gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezien figura. Manu horrek dioenez, “Gizarte ekimeneko enplegu zentro berezizat hartuko dira artikuluko honen 1. eta 2. apartatuetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta irabazi asmorik gabekoa izan edo bere estatutuetan izaera soziala aitortua duen entitate batek edo batzuek zuzenean edo zeharka sustatuak direnak eta zentroaren ehuneko 50 baino gehiagoko partaidetza dutenak, elkarteak izan, fundazioak izan, zuzenbide publikoko korporazioak izan, gizarte ekimeneko kooperatibak izan edo ekonomia sozialeko bestelako entitateak izan; bai eta merkataritza-sozietateen titulartasunekoak direnak ere, baldin eta sozietate horietan kapital sozialaren gehiengoa aurrez aipatutako entitatearen baten jabetzakoa bada, dela zuzenean, dela zeharka Merkataritza Kodearen 42. artikuluan araututako sozietate nagusiaren kontzeptuaren bitartez. Baina kasu guztietan, estatutuetan edo akordio sozialean beren burua behartuko dute beren etekinak guztiz berrinbertitzera desgaitasuna duten pertsonentzat enplegu-aukerak sortzeko eta beren lehiakortasuna eta ekonomia sozialeko jarduera etengabe hobetzeko, eta aukeratu ahaliko dute

beraz, irabazi-asmorik gabeko enplegu babestua sortzeko sekulako eremua irekitzen du. Hala ere, merkatu-erreserba horien benetako ezarpena ez da arazo teknikorik gabe egiten ari: alde batetik, modalitate horretan garatzen diren lizitazioetan izan daitezkeen aurkaratzeen ondoriozko errezeloak daudelako, eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzak edo foru-ogasunek (azken batean, haiek dira kontratatzen dutenak) ez dutelako egin apustu irmoagoa, eta, horren ondorioz, ez dagoelako EAeko administrazio publiko guztietarako nahitaezko gutxienerako batzuk ezarriko lituzkeen plan arautu bat aplikatzeko aukerarik.

Lankidetzaren publikoa

Enplegu-zentro bereziei ematen zaien bigarren laguntza-ildo instituzionala elkarrekin eskaintzen diren enplegarritasun-programen eta enplegu-zentro berezien bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko ezartzen diren laguntza-lerro ekonomikoen eskutik etorriko litzateke.

Enplegu-zentro berezien aktibo nagusietako bat EAeko administrazio publikoekin sarean lan egiteko gaitasunean datza, maila guztietan: Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, udalak, Euskal Enplegu Zerbitzua. Lankidetzaren hori bereziki ematen da desgaitasuna duten pertsonentzako enplegarritasun-programekin zerikusia duen guztian, baina oinarritzako gizarte-zerbitzuak ere barne hartzen ditu (MORATALLA, 2017).

Finantza-laguntzako lerroei dagokienez, nabarmentzekoa da finantzaketa-esparru egonkorra, LISMIIn ezarritako eta gaur egun 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan jasotako agindu arauemailearen ondoriozkoa, justifikatu izan baita “enplegu-zentro bereziek dituzten ezaugarri bereziei begira, eta zentro horiek dagokien eta eskatzen zaien eginkizun soziala bete ahal izan dezaten” (1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 44. artikulua).

Laguntza publikoen lerroak gaur egun indarrean jarraitzen duten hiru atal handitan egituratu izan dira: enplegua sortzeko laguntzak, lanpostuak mantentzeko laguntzak, eta, azkenik, egokitzapen pertsonal eta sozialeko zerbitzuak hobetzeko laguntzak (MORATALLA, 2016). Laguntza-kategoria horiek hiru finantzaketa-ildo nagusitan banatu dira: kontratu bakoitzean lanbide arteko gutxienerako soldataren % 50 finantzatzea, Gizarte Segurantzako kuoten % 100eko hobaria (desgaitasuna duten pertsonen kontratuetan bakarrik), eta zailtasun handienak dituzten pertsonentzako

enplegu zentro berezian bertan berrinbertitzea edo gizarte ekimeneko beste enplegu zentro berezi batzuetan berrinbertitzea”.

doikuntza-zerbitzu horiek emango dituzten teknikariak kontratatzeko laguntzak¹⁷.

Finantzaketa-esparru horri buruzko balorazioak, orain arte egituran eta zuzkiduretan egonkor mantendu bada ere, enplegua sortzera bideratutako partida guztiak orokorrean berrikusteko eta eguneratzeko beharra erakusten du, bai zuzkidurari dagokionez, bai eskuratzeko betekizunei dagokienez, gizarte-ekimeneko zentroak eta enplegarritasun-zailtasun handienak dituzten kolektiboak benetan lehenesteko (MORATALLA, 2016).

Dimensio sozioekonomikoa eta adierazleak

Alderdi sozioekonomikoari dagokionez, EAerako argitaratu diren azken datuek¹⁸ guztira 37 enplegu-zentro berezi daudela erakusten dute¹⁹. Horietatik 14 gizarte-ekimen publikokoak dira (EHLABEn integratuta), 9.986 pertsona enplegatzen dituzte guztira (8.223 EHLABEn integratutako erakundeetan), eta % 10,4ko hazkunde-tasa dute 2016aren aldean. Bilakaera horrek goranzko joera garbia erakusten du.

Fakturazioaren zifrak ere joera positibo hori berresten du; izan ere, fakturazioa % 20 handitu da, eta zifra hori 374,3 milioi eurora igo da guztira. (EHLABE-2018 Datuen Txostena; Gizarte Ekonomiaren 2018ko Estatistika eta 2019ko aurrerapena).

EHLABEn integratutako erakundeentzat bereizitako datuak ere bilakaera oso positiboa erakusten du: 2013-2018 bosturtekoan 2.000 lanpostu berri sortu dira kolektiboarentzat. Bilakaera hori are positiboagoa da desgaitasun larriagoak dituzten pertsonentzat, desgaitasun intelektuala eta gaixotasun mentala dutenentzat. Hala, lehenengoen artean enplegua mantentzea lortu da, eta aztertutako aldian gaixotasun mentala duten pertsona landunen kopurua ia bikoiztu egin da (EHLABE-2018 Datuen Txostena).

Enplegu babestuaren okupazioaren gorakada horrek, gainera, enplegu arruntean azken krisialdi ekonomikoen ondorioz hautemandako enplegu-suntsipena arintzea ekarri du. Hori kontuan harturik, enplegu babestua

¹⁷ Zerbitzu horiek batez ere desgaitasun intelektuala duten pertsonen, gaixotasun mentala dutenei eta desgaitasun sensorial eta fisikoa duten pertsonen zuzenduta daude, % 65eko desgaitasun-ehunekoa edo handiagoa dutenei. (BENGOETXEA, 2014; MORATALLA, 2016).

¹⁸ *Gizarte Ekonomiaren 2018ko Estatistika eta 2019ko aurrerapena*, Eusko Jaurlaritzak argitaratua.

¹⁹ Lanbideren erregistroko datuen arabera, EAEn guztira 76 enplegu-zentro berezi egongo lirateke erregistratuta, horietako 31 gizarte-ekimenekoak, eta azken horietako 23 EHLABEri atxikiak.

lan-merkatu arruntetik kanporatutako pertsona askoren jomuga bihurtu dela ondoriozta liteke (MORATALLA, 2016).

Enplegua mantentzearen inguruan egiazta daitezkeen datu positiboek, eta, bereziki, enplegarritasun-zailtasun handienak dituzten pertsonen buruzkoek, agerian uzten dute enplegu-zentro bereziak eta, bereziki, gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziak gizarte-ekonomiaren printzipioak lortzeko erakutsi duten konpromisoa.

4.3. ENPLEGU-ZENTRO BEREZIA GIZARTE-EKONOMIAREN PARTE GISA

Lan honetan euskal gizarte-ekonomiako erakunde guztientzat eraiki dugun kontakizunean, gizarte-ekonomiako erakunde guztiek partekatzen dituzten eta haien bereizgarri diren ideia nagusiak funtsezko lau elementu dituzte ardatz: pertsonen zentraltasuna, antolaketa demokratikoa, enpresa-dimentsioa eta komunitatearekiko konpromisoa.

Horietako bakoitzetik aldagai esanguratsuenak identifikatu dira, kuantitatiboki edo kualitatiboki neurtzen direnak, eta ondoren aztertuko ditugu.

Pertsonen zentraltasuna enplegu-zentro berezietan

Enplegu-zentro bereziak desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzea eta laneratzea sustatzeko sortzen dira. Beraz, begien bistakoa dirudi pertsonaren zentraltasunaren eta kapitalarekiko nagusitasunaren alde egiten duen gizarte-ekonomiaren betekizun nagusia betetzen dela.

Pertsonen zentraltasuna sustatzen da lanaren bidez pertsonak ahalduzko logikaren inguruan, egoera ahulenean dauden pertsonen eta kolektiboek zerbitzuak emateko logika asistentzialetik baino gehiago.

Enplegu-zentro bereziak jarduera ekonomikoa duten erakundeak dira, pertsonen eta helburu sozialari lehentasuna ematen dieten kapitalaren gainera, eta lan-esparruetan desgaitasuna duten pertsonen garapen integrala bilatzen dute ororen gainera. Azpimarratu behar da lanak duen balioa, desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzeko bitarteko gisa. Izan ere, lanabes garrantzitsuena da gaur egun erabateko gizarteratze-prozesuetan.

Enplegu-zentro bereziak pertsonak hartzen dituzte ardatz, batez ere laguntza-premia handienak dituzten pertsonenak: desgaitasun intelektuala duten pertsonak (garuneko paralisia, gaixotasun mentala), % 65etik gorako

desgaitasun fisikoa eta sentsoriala dutenak, edo autismoaren espektroko nahasmendua dutenak. Horren erakusgarri dira EHLABEk emandako azken datuak: desgaitasuna duten pertsonen ehunekoak, lanean ari diren pertsona guztien gainekoak, nabarmen gaititzen du legeak ezarritako gutxieneko % 70a, eta gaur egun % 83 inguruko zifretara iristen da; gainera, desgaitasuna duten pertsona horien guztien artean, gehien-gehienak desgaitasun psikikoa duten pertsonak dira, eta % 56 baino gehiago laguntza-premia handiagoak dituzten pertsonak, lehen identifikatutako hiru profilei erantzuten dietenak.

Beste bi adierazle gehitu ditugu, pertsonak horrelako esperientzietan duten zentraltasunaren berri ematen dutenak: **lan-egonkortasunaren** maila eta langileen garapen pertsonala errazten duten **prestakuntza**-mekanismoak.

Kontratu mugagabea duten langileen datua % 75 ingurukoa da EHLABEn elkartutako erakundeetan; datu hori EAEko enplegu-zentro berezi guztien batezbestekoa baino nabarmen handiagoa (% 66) da (EHLABE-2018 Datuen Txostena; Gizarte Ekonomiaren 2018ko Estatistika eta 2019ko aurrerapena).

Prestakuntza-esparruari dagokionez, laguntza-unitateak kontratatzekeo finantzaketa-lerroak enplegarritasun-zailtasun handienak dituzten pertsonen eskakizun espezifikoei erantzuten die nagusiki; adierazi den bezala, EHLABEn elkartutako erakundeen plantilletan erdiak baino gehiago dira. Beraz, ildo horrek zuzkidura txikienetakoa izan arren (% 7,3, 2014rako datua), enplegu-zentro bereziek egiten dituzte ahalegin handienak, konparatiboki, doikuntza pertsonal eta sozialeko zerbitzuei dagokien guztian.

Enplegu-zentro berezien izaera demokratikoa

Salbuespenak salbuespen (Katea Legaia eta Sutargi, biak ere lan-sozietateak), enplegu-zentro berezien errealitatea ez dute osatzen, nagusiki, langileek kontrolatutako enpresa-egiturek; aitzitik, sozietate anonimo edo mugatu gisa eratzen dira, gizarte-ekonomiaren antolamendu-formuletatik kanpoko merkataritza-erakunde gisa.

Hala ere, badira euskal ereduaren hainbat berezitasun, Estatuko gainerako esperientziekin alderatuta, esperientzia parte-hartzaileagoa izatea ekartzen dutenak.

Lehenengo datua EAEko enplegu-zentro berezi gehienak gizarte-ekimenekoak edo ekimen publikokoak izatearen ondorio da; izan ere, EAEko enplegu babestu guztiaren % 85 inguru biltzen dute. Hori dela eta, zentro gehienek hirugarren sektoreko erakundeen edo erakunde

publikoen % 50etik gorako partaidetza dute, —guztiak ere irabazi-asmorik gabekoak—. Euskal kasuan, aipagarria da, gainera, desgaitasuna duten pertsonen inguruan dagoen sare asoziatibo handia, enpresa enblematiko batzuen patronatuak gehiengoz kontrolatzen dituzten elkarte oso indartsuak dituen²⁰.

Euskal kasuaren bestelakotasuna da hori. Izan ere, zentro gehienak gizarte-ekimenekoak direnez, langileek kontrolatzeko eta parte hartzeko ahalmena —zeharka behintzat, dibertsitate funtzionala duten pertsonen elkarteen bitartez— kualitatiboki handiagoa da enpresa pribatuek kontrolatzen dituzten gainerako zentroetan baino. Kultura asoziatibo hori EHLABEk osatzen duen sarean ere islatzen da, atxikitako erakunde guztien lana koordinatzen duen elkarte gisa eratu zen-eta.

Bigarren datuak enpresa horietan ikusten den partaidetza publikoaren mailarekin du zerikusia. Horietako 4 (Usoa, Gallarreta, Ranzari, Indesa) administrazio publiko batek edo gehiagok (foru-aldundiak eta udalak) kontrolatzen dituzte % 100, baina, gainera, asko dira patronatuetan edo enpresaren kapital sozialean partaidetza publikoa duten enpresak (Gurea, Katea Legai, Eragintza... batzuk aipatzearren).

Kontuan hartu beharreko hirugarren elementu bat da doikuntza pertsonal eta sozialeko zerbitzuak eskaintzeko erabiltzen diren laguntza-unitateak batez ere gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezietan erabiltzen direla (MORATALLA, 2016); beraz, mekanismo horien bitartez, zailtasun handienak dituzten pertsonen zuzeneko parte-hartzea sustatu nahi da, pertsona horiek beren “garapen pertsonaleko planak” konfiguratzeko baitituzte, besteak beste ibilbide partikularren diseinuari, prestakuntza-premia espezifikoei eta lan arruntera igarotzeko aukerei dagokienez.

Eta, azkenik, egiazta daiteke, halaber, EHLABEko enpresa gehienetan dagoen sindikalizazio-maila, enpresa-batzorde guztiz funtzionalak baitituzte, beren ekintza sindikalaren ondorioz Estatuko hitzarmen sektorialak hobetzen dituzten hitzarmen propioak lortzen dituztenak.

Kontakizun honetan partekatutako adierazleen sortarekin jarraituz, ondorioztatuko genuke enplegu-zentro bereziak ondo kokatuta daudela antolamendu demokratikoari buruzko adierazleetan:

- **Elkar-lankidetzaren** adierazleari dagokionez, elkar-lankidetzak maila handikoa da, bai barruan, bai kanpoan. Lankidetzak dago enpresen

²⁰ Esate baterako, Gureak, Atzegi elkarteak % 40 kontrolatzen duena, edo Lantegi Batuak, Gorabide elkarteak patronatuan gehiengoa duena. Halaber, Bizgorre enpresa Bizkaiko pertsona gorren elkarteak (Coorvisor) sustatu du, eta RAEP zentroaren kasua ere aipatzekoa da, Asafes elkarteak (gaixotasun mentala duten pertsonen Arabako elkarteak) egindako ahaleginari esker sortua, beste batzuk aipatzearren.

eta hirugarren sektoreko ehun asoziatiboaren artean, enpresen beren artean, EHLABE bezalako sareen bitartez, euskal gizarte-ekonomiako enpresen (EGES) eta hirugarren sektoreko enpresen artean (Sareen Sarea), eta oso modu arinean administrazio publikoarekin, arestian adierazitako lankidetz-modalitate guztietan (enplegarritasun-programak, enpresetako partaidetza publikoa, finantzaketa ekonomikoa eta abar).

- Langileen **parte-hartzeari** dagokionez, lan-sozietate gisa antolatutako bi esperientziak izan ezik, eta parte-hartzea zeharka bideratzeko dauden mekanismo garrantzitsuak kontuan hartuta ere (erabiltzaileen elkarteen eta enpresa-sindikatuaren bidez), enplegu-zentro bereziek hobetzeko tarte handia dute langileek enpresan zuzenean parte hartzeari dagokionez, bai kapitalean, bai kudeaketan.
- Premia handienak dituzten kolektiboen txertatze-maila jasotzen duen **berdintasunaren** adierazleari dagokionez, esan behar da hori dela, eta ez beste bat, EAeko enplegu-zentro berezien *leitmotiv-a*, are gehiago laguntza-premia handienak dituzten pertsonen erdiak baino gehiago plantillan sartzen dituzten gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziena. Analisi horri beharrezko genero-ikuspegia gehituta, egiaztatu da emakumeen parte-hartzeak diskriminazio bikoitzari aurre egin behar diola (emakume izateagatik eta desgaitasuna duen pertsona izateagatik), eta oztopo horiek gainditzeak are konplexutasun handiagoa duela gizonen kasuan baino.

Enplegu-zentro berezien enpresa-dimentsioa

EHLABEko enplegu-zentro bereziak bultzatzen dituen ideia lan-jarduera produktibo eta ordainduarena da, enpresa-ikuspegi ortodoxotik, eta ez dute inongo asmorik desgaitasuna duten pertsonak degrada ditzaketen eta, jakina, ahaldu ezin dituzten laguntza-ereduak bultzatzeko.

EHLABEko erakunde guztiak erakunde dinamikoak eta eragileak dira, jarduera lehiakorren eta kudeaketa profesionalaren bitartez merkatuari balioa ematen diotenak.

Finantzaketa publikoaren esparru egonkorraz gain, autofinantzaketaren eta soberakinen berrinbertsioaren ehuneko handiari esker, finantza-jasangarritasuna eta -sendotasuna lortu dute, eta horri esker ekimen berriak abian jarri ahal izan dituzte. Ildo horretan, esperientzia horien inguruko “mito” batzuk gezurtatu behar dira, finantzaketa publikoarekiko oso mendekotzat jotzen baitira.

Datu errealek, beraz, esperientzia horien **autosufizientzia ekonomikoa** ziurtatzen dute, merkataritza-jardueran oinarrituta, alde batera utzita konpentsazio ekonomikoa jasotzea, batez ere enplegua mantentzeko laguntzen bitartez; laguntza horiek, oro har, langile-gastu guztien % 40 inguru estaltzen dituzte.

Azkenik, oso kontuan hartu beharreko elementuetako bat da esperientzia horiek beren interes-taldeei, lehenik, eta, oro har, gizarte osoari sortzen dioten **itzulera soziala**, administrazio publikoek enplegu babestuari eusteko egindako gastua inbertsio gisa ikusi behar baita, gastu gisa baino gehiago.

Lantegi Batuak fundazioarentzat egindako lehen azterketetatik (RETOLAZA ET AL 2014, 2015, 2016), makina bat kalkulu egin dira mota horretako erakundeek sortutako gizarte-balioa dirutan balioztatzeko, eta, horietan guztietan ondorioztatzen da dirulaguntza publikoaren kontzeptuan egindako ahalegina aise konpentsatzen duela jarduera horiek sortzen duten itzulera sozioekonomikoak, dela sortzen dituzten diru-sarrerara publikoen bidetik (zergak eta Gizarte Segurantzarako ekarpenak), erakundearen jarduerari esker sortutako aurrezki publikoengatik (kotizazio gabeko pentsioak, osasun-prestazioak eta abar), eta, orobat, beren jarduerak eraginpean hartzen dituen interes-taldeetan sortzen duten gizarte-balio espezifikogatik²¹.

Enplegu-zentro berezien komunitatearekiko konpromisoa

Enplegu-zentro bereziek uztartzen dituen komunitatearekin eta lurraldearekin duten konpromisoa lan honetan jorratutako funtsezko hiru adierazlek bermatzen dute gutxienez: enplegua sortzea, kapital soziala sortzea eta ingurumen-jasangarritasunari egiten dioten ekarpena.

Lehenik, enplegu-zentro bereziek enplegua sortzen dute zailtasun handienak dituen biztanleria-sektorean, eta atzeraldi-koiunturretan enplegu hori suntsitu ordez, lurraldeko gainerako enpresek baino **erresilientzia handiagoa** erakusten dute. Alderdi horretatik harago, egiaztatuta geratu da enplegu-zentro berezietan eskainitako enplegu babestua ere erresilienteagoa dela desgaitasuna duten pertsonen

²¹ Lantegi Batuak fundazioan 2007-2011 aldirako egindako lehen azterketetako batek honako hau ondorioztatu zuen: “Azken bost urteetan, Lantegi Batuak fundazioak 440 milioi euro baino gehiagoko balioa sortu du guztira, eta horietatik 184 milioi Administrazioan sartu dira, hots, administrazio publiko guztiek Lantegi Batuak fundazioari eman diotena baino 120.000 euro gehiago. Aipamen berezia merezi du familiei eta minusbaliotasunaren esparruari bideratutako ia 150.000 milioi euroko balio sozial garbi espezifikoa” (RETOLAZA ET AL, 2014: 55).

erakunde publiko eta pribatuetako enplegu arrunta baino, eta, gainera, kapilaritate handiagoa erakusten duela eskualdeka (EHLABE-2018 Datuen Txostena).

Argi dago, gainera, enpleguaren alderdi zorrotzetik harago, enplegu-zentro berezien helburu nagusia desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzea eta laneratzea dela. Izan ere, kolektibo hori historikoki baztertuta eta gizartean marjinatuta egon da. Ezaugarri horrek lurraldean sustraitzen ditu, desgaitasuna duten pertsonak beren ingurune geografikoan dituzten tokiko beharrei erantzuten ahalegintzen diren heinean.

Lurralde-errotze horrek **kapital soziala** sorrarazten du, eta, horren ondorioz, asoziazionismo-maila handia dago. Horrek, aldi berean, partaidetza- eta lankidetzakultura zabaltzen du eta pertsonen arteko konfiantza elikatzen du.

Azkenik, **ingurumen-jasangarritasunari** egiten dioten ekarpenari dagokionez, eta sektore zehatzari buruzko azterlan sakonagorik ezean, euskal gizarte-ekonomia osorako egindako azterlanek ondorioztatzen dute horiek ingurumenarekiko sentsibilitate handiagoa erakusten dutela, eta horrek eraginkortasuna hobetzeko ekintzak eta inbertsio handiagoa dakarrela²². Hala ere, enplegu-zentro berezien barruan ingurumen-zurtagirien ezarpen-mailari edo jardunbide egokiei buruzko daturik ez dagoenez, kontsiderazio jeneralista horiek ez dira behar bezain eztabaidaezinak lan babestuaren esparrurako.

Ingurunearekiko konpromisoari buruzko atala amaitzeko, alderdi hori sobera egiaztatzen duen azken egiaztapen bat egin dugu: hainbat enplegu-zentro bereziren jardueraren zati bat birmoldatzea, 2020ko osasun-krisiak eragindako gizarte-larrialdi gogorreko uneetan behar diren ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko. Gureak taldeak mantalen fabrikazioan eta osasun-materialaren desinfekzioan egindako ekarpena, edo Lantegi Batuak fundazioak eta Usoa enpresak maskarak ekoitzi ahal izateko egindako ekoizpen-birmoldaketa²³ dira esperientzia horiek premia sozial handieneko uneetan erakusten duten gizarte-erantzukizunaren erakusgarririk onena.

²² Gizarte-ekonomiako enpresen ingurumen-sentsibilitatearen diagnostikoa, 2020. (Eusko Jaurlaritzaren barne-dokumentazioa)

²³ <https://www.ehlabe.org/eu/noticias>

4.4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ENPLEGU-ZENTRO BEREZIEN INDARGUNEAK ETA ETORKIZUNEKO ERRONKAK

Enplegu-zentro berezien kontakizun hau amaitzeko, esperientzia horien indargune nagusiak azalduko ditugu, eta etorkizunari begira dituzten erronka garrantzitsuenak eguneratzen saiatuko gara.

Esperientzia horien **indarguneen** edo arrakasta-faktoreen analisia aldeztu aurretik detektatu dute hainbat azterlanek (MORATALLA, 2017; BENGOETXEA ET AL, 2019). Ildo horretan, agerian geratzen da indargune gisa identifikatutako ezaugarri sortak oso estu lotzen dituela gizarte-ekonomiaren berezko logikekin; izan ere, horietako asko modu naturalean lotzen dira gizarte-ekonomiako enpresek partekatzen dituzten printzipioekin (MORATALLA, 2016; BENGOETXEA ET AL, 2019).

Hala, ideia nagusiak multzokatzeko eta gizarte-ekonomiaren printzipioekin lotzeko ahaleginean, indargune nagusiak pertsonen zentraltasun-printzipioarekin edo kapitalarekiko **pertsonen nagusitasunarekin** (edo xede sozialarekin) lotzen direla esango genuke. Ordaindutako enplegua sortzeko eta desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea errazteko formula gisa eraturako erakunde horien xede sozialetik hasi eta enplegarritasun-arazo handienak dituzten pertsonak lehenestera iritsi arte, pertsona bera eta haren garapen osoa etekin ekonomikoari buruzko edozein kontsiderazioen aurretik jartzea da Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-zentro berezien ezaugarri nagusia.

Bigarren elementu bereizgarria **lurralde-sustraitze** handia da, esperientzia horiek sostengatzen eta sustatzen dituen ehun asoziatiboari esker erakusten baitute, eta, horren ondorioz, langileek eta haien senideek erakunde horien parte-hartze eta kontrol demokratiko handiagoa dute. Lurralde-sustraitze hori, halaber, EAEko enplegu-zentro bereziek erakunde publikoekin, hirugarren sektoreko erakundeekin, euskal unibertsitateekin eta gizarte-ekonomiako gainerako eragile sozioekonomikoekin batera parte hartzen duten lankidetzaren egituretan ere islatzen da.

Hirugarren elementu bereizgarria **enpresa-izaera** eta bideragarritasun ekonomiko egiaztatua da, jardueren dibertsifikazioari eta horien kudeaketaren profesionalizazioari esker ahalbidetzen dena. EAEko enplegu-zentro bereziek, enpresa errentagarriak izateaz gain, enpresak berritzeko eta egokitzeko gaitasuna erakusten dute. Horretan oinarrituta, jarduera eta zerbitzu berriak bilatzeari eta abian jartzeari esker, enplegu babestua mantendu ahal izan da, koiuntura ekonomiko eta sozial benetan txarrean egonda ere.

Sektorearen **erronka** garrantzitsuenak identifikatzeari dagokionez, aurretik aipatutako azterlanek ere erakusten dute esperientzia horiek zer alderdirekin borrokatu behar duten.

Erronkak izaera estrukturalagoa duten elementuekin erlazionatuta egon ohi dira (plantillak zahartzea, enplegu-zentro berezien jardueretako batzuk pixkanaka digitalizatzea...), baita enplegu-zentro berezien errealitatea inguratzen duten alderdi orokorragoekin ere: hezkuntza- eta prestakuntza-esparruari dagozkionak (lanbide-heziketako eta unibertsitateko programak egokitu beharra, hezkuntza-arrakala desagerrarazteko), enpresa-esparruari dagozkionak (enplegu-datuak hobetzea eta desgaitasuna duten pertsonak enplegu arruntera igarotzea), edo administrazio publikoari berari dagozkionak (enplegu publikoa neurri handiagoan eskuratzea, eta kontratu publikoen lizitazioan klausula sozialak eta kontratu erreserbatuak aplikatzea).

Enplegu-zentro berezien erronka gertukoenei eta berezkoei erreparatuta, nabarmendu behar da, EAEn enplegua sortzeko eta mantentzeko datuak onargarriak diren arren, esperientzia horien erronka nagusia **desgaitasuna duten pertsonentzako kalitatezko enplegua sortzen jarraitzea** dela, eta, alde horretatik, datu sozioekonomikoak (jarduera-tasa, enplegu-tasa eta abar) gainerako biztanleenak baino nabarmen okerragoak direla.

Enplegu gehiago sortzeaz gain, nahitaezkoztat jotzen da, halaber, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioarekin bat etorritik, **enplegu eskuragarriagoa, irekiagoa eta inklusiboagoa** sustatzen jarraitzea, laguntza-premia handienak dituzten pertsonak lehenetsiz. Alderdi hori guztiz lotuta dago enplegu-zentro berezien laguntza-unitateak indartzearekin.

Enpleguari lotutako bi erronka nagusi horiez gain (enplegu handiagoa eta hobe eta enplegu eskuragarriagoa eta inklusiboagoa), funtsezko erronka, oraindik ere, desgaitasuna duten pertsonen **trantsizio-maila hobetzea** da, zerbitzu okupazionalatik enplegu babestura eta hortik enplegu arruntera igaro daitezen. 2019ko datuen arabera, 76 pertsona igaro dira zerbitzu okupazional batetik enplegu-bideren batera (zerbitzu okupazionalan dauden pertsona guztien % 4), eta beste 205 pertsona enplegu babestutik (edo langabeziatik) enplegu arruntera (EHLABEko enplegu-zentro berezietako langile guztien % 2,4).

Ehuneko horiek erakusten dute trantsizio-prozesu horiek zailtasun berezia dutela, ez baitaude arrakasta-faktore bakar baten mende. Lehenik, desgaitasuna duen pertsonak berak erakusten duen trantsizio-borondatearen mende dago. Bigarrenik, igaro nahi den enplegu arruntean laguntza-unitateak egotearen (edo ez) mende, eta, oro har, enpresa horrek eskaintako lan-baldintzen mende, askotan prekarizazio handiko jarduera-

-sektoreetan. Eta, azkenik, enpresa pribatuek eta administrazio publikoek lanpostu hutsak erreserbatzeko, kontratazio berriak egiteko eta kontratu publikoak lizitzatzeko lege-eskakizunak betetzeari begira erakutsitako konpromisoaren mende dago.

Hori guztia dela eta, ondorioztatzen dugu desgaitasuna duten pertsonak enplegu arruntera igarotzeko trantsizio-maila ez dagoela soilik, ezta nagusiki ere, enplegu-zentro berezien ildo horretako jardunaren mende, nahiz eta hori ez den oztopo enplegu-zentro bereziek lana ematen dieten pertsonen funtsezko helburu bat beren helburutzat hartzeko, 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren enplegu-zentro berezien definizioan jasotzen den bezala.

Azkenik, funtsezkotzat jotzen ditugun alderdi batzuk azpimarratuko ditugu, gizarte-ekonomiako enpresen elementu bereizgarriekin harreman estua dute-eta:

- Aukera zabala dago langileek enpresa horien kudeaketan, kapitalean eta etekinetan **parte-hartze handiagoa izan dezaten sakontzeko**. Aurrez argudiatu den bezala, EAEko enplegu-zentro bereziak Estatuko gainerako enplegu-zentro bereziak baino parte-hartzaileagoak dira, gehienbat irabazi-asmorik gabekoak direlako. Hala ere, oso interesgarritzat jotzen da langileek zuzenean parte hartzeko bideetan gehiago sakontzea, gizarte-ekonomiaren berezkoagoak diren antolaketa-formulen bitartez (kooperatibak edo lan-sozietateak). Laguntza-unitateak indartzeak aukera ematen du pertsona bakoitza autonomoagoa eta burujabeagoa izan dadin bere garapen pertsonaleko plana osatzerakoan. Hala ere, interesgarritzat jotzen da parte-hartze kolektiboko esperientziak bideratzeko bideak arakatzea, bai kudeaketan, bai kapitalean, esperientzia arrakastatsu batzuen²⁴ eta beste berriago batzuen²⁵ bidean.
- Parte-hartze handiago horren barruan dago **desgaitasuna duten emakumeen parte-hartzea**; izan ere, kolektibo horrek diskriminazio bikoitza jasaten du emakume eta desgaitasuna duen pertsona izateagatik. EHLABEk 2019rako emandako datuek erakusten dute egiturazko egitate horrek bere horretan dirauela, gizonen okupazio-tasa beti handiagoa baita emakumeena baino (langileen % 65 gizonak dira oraindik). Ez dirudi EHLABEk azken urteotan sartutako ekintza zuzentzaileek emaitza esanguratsurik izan

²⁴ <http://www.fageda.com/>

²⁵ Nafarroan CEE51 GURE ARTEAN eratu da, Gure Artean enplegu-zentro berezia kudeatzen duen gizarte-ekimeneko kooperatiba. Nafarroan eredu kooperatiboarekin eratzen den lehen enplegu-zentro berezia da, eta desgaitasuna duten pertsonen kooperatibaren kapitalaren % 51 izango dute gutxienez.

duzenik zentzu horretan, salbu eta enplegu arruntera igarotzen diren emakumeak gizonak baino gehiago izatea. Kasu honetan ere era askotako faktoreak izan arren diskriminazio-egoera hori sortzen dutenak (enplegu maskulinizatuak, emakumeek familia-ingurunean gehiago irautea, emakumeentzako politika espezifikorik ez izatea...), enplegu-zentro bereziek enplegu babestuaren gainerako esperientziekin alderatuta bereizgarritzat jo den alderdi bat azpimarratzen jarraitu beharko lukete, hau da, enplegarritasun-zailtasun handienak dituzten pertsonen okupazioa lehenesteko bokazioa, kasu horretan emakumeak izateagatik.

- Hobetu beharreko beste alderdietako bat desgaitasuna duten pertsonen **ekintzaitza kolektiboa gehiago sustatzeko** premian detektatzen da. Lan egiteko lehentasuna ematen zaien pertsonen profilen ondorio diren zailtasun erantsien jakitun izan arren, badago aukera kolektibo horren barruan dagoen lan autonomia elkartzeko (ikus den moduan, desgaitasuna duten pertsonen enpleguaren % 10 inguru hartzen du) eta ahalduntze kolektiboko prozesu berriak sustatzen saiatzeko, jarduera ekonomiko berrien sorrera ekar dezaten.
- Eta, azkenik, **lan-baldintzak hobetzen jarraitzeko erronka**, desgaitasunik ez duten gainerako langileekin parekatze aldera, uko egin ezinezkoa da gure ustez. Desgaitasuna duten pertsonen lan-harreman berezia erregulatzen duten arauak lan-eskubide eta -betebeharren sistema bat jasotzen dute, lan-harreman komunitatetik oso hurbil dagoena, baina berezitasun jakin batzuk dituen (BENGOETXEA ET AL, 2019). Hala ere, kolektibo horrek oraindik ere desgaitasunik ez duten pertsonen kolektiboak baino soldata txikiagoak izateak bidea eman beharko lioke, besteak beste, araudiaren berrikusketa eta eguneratze progresiboari, izaera bereziko lan-harremana mantendu eta sektoreak eskatutako hobekuntza batzuk sartzea bilatzeko (MORATALLA, 2016)²⁶, diskriminazioko eta berdintasunaren aurkako jardunbideetara gain behera etor ez daitezen, NBEren Konbentzioaren oinarritzko printzipioak dira-eta.

²⁶ Hobekuntza horiek zerikusia dute kolektiboaren zahartzearekin, plantillen subrogazioarekin, irisgarritasunarekin eta kontratazio-modalitateekin. Ikusi MORATALLA (2016).

4.5. ERREFERENTZIAK ETA ITURRIAK

- BENGOETXEA ALKORTA, A. (2014). Economía Social e inserción laboral de las personas con discapacidad. *Revista Vasca de Administración Pública / Herri-Arduralaritzako Euskal Aldizkaria*, (99-100) 529-547. Hemendik berreskuratua: <https://www.euskadi.net/r61-s20001x/es/t59aWar/t59aMostrarFicheroServlet?t59aIdRevista=2&R01HNoPortal=true&t59aTipoEjemplar=R&t59aSeccion=38&t59aContenido=22&t59aCorrelativo=1&t59aVersion=1&t59aNumEjemplar=99>
- BENGOETXEA ALKORTA, A. (2017). El empleo de las personas con discapacidad: régimen jurídico básico y algunos apuntes sobre la problemática latente. In FAJARDO, G. (Ed.), *Empleo, innovación e inclusión en la Economía Social* (73-84). Valencia: CIRIEC-España.
- BENGOETXEA, A; ETXEBARRIA, A; MORANDEIRA, J; SOTO, A. (2019). *El modelo vasco de Inclusión Sociolaboral*, Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- EHLABE (2018): Informe de Datos EHLABE-2018 (<https://www.ehlabe.org/eu/Zifrak/>)
- EUSKO JAURLARITZA - GOBIERNO VASCO (2020): *Gizarte Ekonomiaren 2018ko Estatistika eta 2019ko aurrezapena*, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saileko Zerbitzu Zuzendaritza, Kertalderekin lankidetzan.
- CALDERÓN MILÁN, M. J. & CALDERÓN MILÁN, B. (2012). Los Centros Especiales de Empleo como mecanismo de tránsito hacia el mercado de trabajo ordinario. *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, (75) 223-249. Recuperado de <http://www.redalyc.org/pdf/174/17425798012.pdf>
- CORDERO, V. (2012). *Régimen jurídico del empleo de las personas con discapacidad*. Valencia: Tirant lo Blanch.
- MORATALLA SANTAMARÍA, P. (2016). Centros Especiales de Empleo. *CIRIEC-España, Revista Jurídica de Economía Social y Cooperativa*, (29) 235-272. Hemendik berreskuratua: <http://ciriec-revistajuridica.es/wp-content/uploads/029-010.pdf>
- MORATALLA SANTAMARÍA, P. (2017). El modelo vasco de inclusión sociolaboral de personas con discapacidad. *Revista Vasca de Economía Social*, (14) 129-144. Hemendik berreskuratua: <https://www.ehu.eus/ojs/index.php/gezki/article/view/19510/18505>
- REAL DECRETO LEGISLATIVO 1/2013, de 29 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social (LGDPD). *Boletín Oficial del Estado* (289), 3/12/2013, pp.95635-95673, <https://www.boe.es/eli/es/rdlg/2013/11/29/1>
- RETOLAZA, J. L., SAN-JOSE, L., RUIZ-ROQUEÑI, M. & BARRUTIA, J. (2014). Cuantificación del valor social: propuesta metodológica y aplicación al caso de Lantegi Batuak, *Zerbitzuan: Revista de Servicios Sociales*, (55) 17-33.
- RETOLAZA, J. L., SAN-JOSE, L. & RUIZ-ROQUEÑI, M. (2015). Monetizing the social value: theory and evidence, *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, (83) 43-62.
- RETOLAZA, J. L., SAN-JOSE, L. & RUIZ-ROQUEÑI, M. (2016). *Social Accounting for Sustainability: monetizing the social value*, Springer, Heilderberg.
- TOBOSO MARTÍN, M. & ARNAU RIPOLLÉS, M. S. (2008). La discapacidad dentro del enfoque de capacidades y funcionamientos de Amartya Sen. *Araucaria: Revista Iberoamericana Filosofía, Política y Humanidades*, 10(20) 64-94. Recuperado de <http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=28212043004>

Laneratzeko Enpresak Euskal Autonomia Erkidegoan: kontakizuna

Aitziber Mugarra Elorriaga

Kooperatiba Ikaskuntzen Institutua (KII)

Deustuko Unibertsitatea

5.1. SARRERA

Laneratzeko enpresak gizarte-erakunde jakin batzuek eragile ekonomiko tradizionalak —publikoek zein pribatuek— behar bezala konpontzen ez dituzten gizarte-premiei erantzun berritzaileak eskaintzeko gizarteratzearen eta laneratzearen esparruan egindako esplorazioaren emaitza dira. (MARCUELLO ET AL., 2008; ARETXABALA & CARO, 2013).

Euskal Autonomia Erkidegoan, laneratzeko enpresek honela definitzen dute beren burua: “irabazi-asmorik gabeko ekimen ekonomikoak dira, eta gizartean baztertuta edo desabantailan dauden eta lan-merkatuan hasteko zailtasun bereziak dituzten pertsona langabeei laguntza ematea eta gizartean eta lan-munduan txertatzea dute xede” (Gizatea.net).

Historia

90eko hamarkadara jo behar dugu garatutako lehen esperientziak aurkitzeko, Espainian 80ko hamarkadako krisialdian egindako hausnarketan emaitza. Hala jasotzen du ASKUNZEK (2016, 3. or.), “gizarte-bazterketako egoeran eta/edo arriskuan dauden pertsonen gizarteratzearen eta laneratzearen esparruan espezializatutako irabazi-asmorik gabeko esku-hartze sozialeko erakundeen ekimenetan” jatorria duela adierazten duenean. “Prestakuntzaren esparruan —lanaren aurrekoa, okupazionala eta lanekoa, formala eta ez-formala, hezkuntzakoa eta profesionala— eta lan-bitartekaritzaren esparruan —orientazioa eta enplegu-bilaketa— lan egiten duten erakunde horiek esku hartzeko bi

estrategien artean bitarteko lanerako bide berri bat irekitzeko aukera kontuan hartzen dute”. Azken batean, ekimen sozial eta komunitarioaren emaitza dira, “arlo ekonomikoaren bidez laneratzea” bilatzen duena, eta legeriak geroago baino onartu ez zuena, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Ondorioz, haien jatorria inpaktu bereziko gizarte-erronka batean dago, hots, langabezia. 80ko hamarkadaz geroztik arazo larritzat jotzen da, eta horrek zuzeneko ondorioak ditu pertsonen bazterketa ekonomikoan, eta, kasu askotan, arazo horren eragilea da, edo, bestela, “parte hartzeko eta gizarteratzeko beste zailtasun batzuekin —hala nola etxebizitza eskuratzea, osasuna, harreman-sareak, eta herritartasun-eskubideak egikaritzea— konbinatzen da” (ASKUNZE, 2016; ALVAREZ DE EULATE, 2017). Beraz, enplegua funtsezko elementua da *pertsonen bizi-proiektuak* artikulatzeko, baliabide ekonomikoen iturri gisa duten eginkizunaz harago.

Gizarte-ekimen horiek “marjinazio-dinamikak geldiarazteko eta murrizteko” erronka nagusiari erantzuten diote, “zailtasun gehien dituzten biztanle-sektoreei lan-merkatuan integratzeko aukera emateko” (VECIANA, 2007, 19. or.). Enplegu-politika aktiboak inspiratzen dituzte eta, aldi berean, haietaz elikatzen dira. Politika horiek 80ko hamarkadaren amaieran abian jartzen hasi ziren, laneratzeko lehen enpresei laguntzeko (legezko definiziorik gabe artean). Lehen enpresa horiek hainbat erakundetatik zetozen erakunde sustatzaileak¹ izan zituzten jatorri: kasu batzuetan, oinarrizko erlijio-erakundeak, beste batzuetan auzo-elkartek eta laneratzeko erakundeak, betiere boluntarioritza-ekarpen handiarekin. (VECIANA, 2007, 20. or.; PANIAGUA, 2013, 189. or.)

Erakunde horiek hainbat arrazoiengatik enplegua eskuratzeko zailtasun bereziak dituzten —bazterketa sozial eta ekonomikoa, kualifikazio txikia, gizarte-deskonexioa, osasun-arazoak, gizarte- eta harreman-trebetasun mugatuak...— biztanleria-sektoreekin lan eginez garatutako esperientziek “laneratzeko estrategia eta tresnak dibertsifikatu eta pertsonalizatu beharra eskatzen dute” (ASKUNZE, 2016, 4. or.). Eta aitortzen dute langabeen profil bat dagoela, enplegarritasuna hobetzeko prestakuntza espezifiko lan-merkaturako sarbide gutxi gorabehera normalizatua lortzeko nahikoa ez dutenek osatzen dutena (ASKUNZE, 2016; ALVAREZ DE EULATE, 2017). Adibidez, “kualifikazio urria edo zailtasun bereziak dituzten —hala nola hizkuntza gutxi jakitea, lan-esperientziarik eza eta/edo administrazio-egoera anomaloa— immigranteen talde jakin batzuk” (ARETXABALA & CARO, 2013, 150. or.).

¹ Adibidez, Emaús mugimendua —1980an Emaús Fundación Social sortu zuen—, Cáritas, Sartu, Peñascal...

Diagnostiko horretatik sortzen da laneratzeko enpresen berrikuntza nagusia, pertsona bakoitzari bere laneratzeko-prozesuan laguntzen dion ibilbide pertsonalizatua eta benetako lan-ingurune batean gauzatutako prestakuntza praktikoa uztartzen dituen metodologia batean oinarritzen dena (VECIANA, 2007, 20. or.; Gizatea, 2012, 23. or.). Horrela, “prestakuntza-estrategien eta enplegurako zuzeneko sarbidearen arteko bitarteko baliabide” bihurtzen dira, betiere laguntza pertsonalizatuaren bidez. Lan- eta gizarte-arloko trebetasunak eta gaitasunak prestatzeko eta eskuratzeko baliabidea, batez ere lanpostuan (lan-profilarekin zuzenean lotuta ez dauden beste esku-hartze gehigarri batzuk ahaztu gabe), eta “hori guztia, enpresa- eta lan-ingurune ahalik eta normalizatuaren esparruan” (ASKUNZE, 2016, 4. or.; ALVAREZ DE EULATE, 2017, 190. or.).

Erreferentzia gure mugetatik kanpo

Historikoki, Euskal Autonomia Erkidegoa erreferentziatzko lurraldea izan da sektorean, Europako EQUAL ITUN eta EQUAL LAMEGI programetatik. Programa horiei esker, 2000-2007 aldian, enpresa asko sortu eta horiek indartzeko tresnak garatu ziren. Izatez, GIZATEA Euskal Autonomia Erkidegoko Laneratzeko Enpresen Elkarteak, 2007an formalizatuak, rol protagonista izan zuen —urte horretan bertan— Laneratzeko Enpresen Elkarten Federazioa (FAEDEI) sortzeko. Baina alde aurretik ere, laneratzeko euskal enpresek eta haien erakunde sustatzaileek parte-hartze azpimarragarria izan zuten 1998an Laneratzeko Enpresen Espainiako Federazioaren (FEEDEI) sorreran², Espainiako Estatuko laneratzeko enpresen sektore asoziatiboa artikulatzeko lehen urrats gisa.

Hala, Laneratzeko Enpresen Elkarten Federazioaren (FAEDEI) Memoria Sozialaren datuen arabera, 2019an³ laneratzeko euskal enpresak (44) Espainiako Estatuko laneratzeko enpresa guztien (192) %22,4 ziren —laneratzeko enpresak zituzten 16 lurraldeetako bat izateagatik legokiokeen %6aren oso gaineratik—. Gainera, langile guztien % 19 eta laneratzeko enpleguaren % 9,2 zegokien. Kataluniak bakarrik ditu Euskal Autonomia Erkidegoak baino laneratzeko enpresa gehiago (2019an 59), eta biek alde handia ateratzen diete gainerakoei: hurrengoak Madril (16) eta Aragoi (laneratzeko 15 enpresa) dira.

² 1998an eratu zen eta honako hauek izan zituzten sortzaile: AMEI (*Laneratzeko Erakunde eta Enpresen Madrilgo Elkarte*), ACERES, AERESS (*Gizarte Ekonomia Solidarioko Suspertzaileen Espainiako Elkarte*), Cáritas Española, Emaús Fundación Social, REAS eta Anagos Sarea. (FAEDEI, 2009ko Memoria Soziala, 5. or.)

³ 2020ko datuak oraindik ez daude erabilgarri.

59. ilustrazioa. Espainiako laneratzeko enpresen banaketa geografikoa

Distribución geográfica



Iturria: FAEDEI (2019) Memoria Sociala

Laneratzeko euskal enpresek ere formalizatzerakoan gizarte-ekonomiaren forma juridikoen presentzia handiagoa dute bereizgarri, nahiz eta Estatu zein autonomia mailan laneratzeko enpresen %80 baino gehiago juridikoki sozietate mugatu gisa konfiguratu diren. Izatez, 2019an, Estatuan kooperatiba-forma duten 7etatik⁴, gehien-gehienak —ia 4tik 3 (5, %71,4)— EAEkoak dira.

⁴ FAEDEIren 2019 Memoria Sozialak ez ditu jasotzen Kataluniako laneratzeko enpresen datuak. Eta Kataluniako Laneratzeko Enpresen Federazioak (FEICAT) ez du eskaintzen bere 59 bazkideen forma juridikoen daturik.

60. ilustrazioa. Laneratzeko enpresetan inplikaturako forma juridikoak (2019)

Forma juridikoa	Espainia		EAE	
	LANERATZEKO ENPRESAK			
Sozietate kooperatiboa	7	% 5	5	% 12
Lan-sozietatea	8	% 6	1	% 2
Sozietate mugatua	115	% 87	36	% 84
Bestelakoa	3	% 2	1	% 2
Guztira	133	% 100	43	% 100
	HAIEN ERAKUNDE SUSTATZAILEAK			
Elkartea	43	% 29	12	% 22
Kooperatiba	26	% 17	24	% 44
Erakunde publikoa	4	% 3	3	% 5
Fundazioa	58	% 39	11	% 20
Bestelakoa	19	% 12	5	% 9
Guztira	150	% 100	55	% 100

Iturria: bertan landua, FAEDEI eta GIZATEAren 2019ko gizarte-txostenak oinarri hartuta

Eta, ikus dezakegunez, gizarte-ekonomiaren aldeko hobespen horrek eragina du Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde sustatzaileetan ere: laneratzeko enpresa gehienak hirugarren sektoreko erakundeek kudeatzen dituzte, eta argi eta garbi ageri dira forma kooperatiboa duten erakunde sustatzaileak (%44), eta horrek bikoiztu egiten du haien pisua Estatuan lortutakoarekin alderatuta (%17).

5.2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EGUNGO ERREALITATEA

Egungo erradiografia


Gizarte Ekonomiaren bi urtez behingo Estatistiketatik datozen datu ofizialen arabera, 2012an puntu goren bat ikusten da, bai erakunde kopuruari dagokionez, bai lanpostuei dagokienez, bai horrelako erakundeek sortutako balio erantsiari dagokionez.

61. ilustrazioa. EAEko laneratzeko enpresen makromagnitute nagusien bilakaera

LANERATZEKO ENPRESAK	2010	2012	2014	2016	2018
Erakundeak	44	78	76	65	43
Enplegua	1.204	1.252	845	924	719
Balio erantsi gordina	14.433.337	24.197.042	16.187.617	16.535.783	10.045.637

Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Eusko Jaurlaritza

62. ilustrazioa. Enpleguaren bilakaera laneratzeko euskal enpresetan



Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Eusko Jaurlaritza

GIZATEAK laneratzeko 43 enpresa biltzen ditu 2019an, EAEn dauden laneratzeko enpresa guztiak, 1.368 langile⁵, eta horien %61 laneratzeko langileak dira. Eta %63 2019an laneratzeko ibilbidea amaitu ondoren lan-merkatuan sartu diren pertsonen ehunekoa da, norberaren konturako zein besteren konturako lanpostu batean, edo laneratzeko enpresan bertan, baina laneratzekoak ez diren langile gisa.

⁵ % 54 emakumeak eta % 46 gizonak.

Urtean ia 32,1 milioi euroko baterako diru-sarrerak aitortzen dituzte; horietatik, %72 produktu eta zerbitzuen salmenten fakturaziotik datoz⁶, eta %24 besterik ez laguntza publikoetatik⁷. Azkenik, 20,2 milioi eurotik gorako balio erantsi gordina sortu dela zenbatesten dute. Jarduera-sektoreari dagokionez, %72k zerbitzu-sektorean jarduten dute, eta oso atzean geratzen dira industria-sektorea (%14), eraikuntza (%9) eta lehen sektorea (%5).

2019an administrazio publikoei egindako itzulkin ekonomikoa⁸ gutxi gorabehera 4,7 milioi eurokoa izan dela kalkulatu dute. Horrek esan nahi du sortzen den laneratzeko plaza bakoitzeko 8.970,43 euroko ekarpena egiten dela, eta laneratzeko enpresa gisa jasotako laguntza espezifikoaren ia % 62 sektore publikoari itzultzen zaizkiola.

Euskal Autonomia Erkidegoan laneratzeko enpresak formalizatzeko orduan nagusitzen den forma juridikoari dagokionez, gehien-gehienak sozietate mugatu gisa sortu dira (%84), eta gainerakoek (%16) gizarte-ekonomiako formak hartu dituzte: %12 kooperatibak dira, eta %2 lan-sozietateak (GIZATEA, 2019).

Aplikatzekoa den esparru juridikoa

Mota horretako erakundeak beren aitoren juridikoa formalizatu aurretik existitu dira, eta gizarte-politiken, enpleguaren eta gizarteratzearen beste alor batzuetan bezala, lehen arautze-ekimenak zenbait autonomia-erkidegoren esparruan egiten dira⁹, 2007an Laneratzeko enpresen araubidea arautzen duen Legea (abenduaren 13ko 44/2007 Legea) onartu aurretik.

⁶ 2019ko gizarte-txostenaren arabera, salmenta horien % 77 bezero pribatuetatik datoz, eta % 23 besterik ez dira sektore publikora egindako salmentak, baina % 6ko hazkundera izan dute aurreko urteetan sektore publikoari egindako salmenten aldean: “horren adierazgarri da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 4. xedapen gehigarria, administrazio publikoak laneratzeko enpresei lizitazio jakin batzuetan parte hartzeko erreserba-ehuneko bat ezartzera behartzen dituen”. (GIZATEA: 2019ko gizarte-txostena, 14. or.)

⁷ Eta horien artean, gehien-gehienak (% 89) laneratzeko enpresentzako laguntza espezifikoari dagozkie. (GIZATEA: 2019ko gizarte-txostena, 14. or.)

⁸ Gizarte Segurantzako kontribuzioen eta BEZ, SZ, PFEZ eta beste zerga batzuen batura gisa kalkulatu.

⁹ Hurrenkera kronologikoan, Nafarroa 1999an, Euskal Autonomia Erkidegoa 2000n, Katalunia 2002an, Kanariak, Madril, Errioxa eta Balear Uharteak 2003an, Aragoi 2006an, Valentziako Erkidegoa, Gaztela eta Leon eta Galizia 2007an, Estatuko lehen legeriarekin bat etorritik.

Estatuko arau hori laneratzeko enpresek beraiek eskatutako premia bat zen, “administrazio zentralari baitagokio, ez beste inori, lan-legeriaren gaineko eskumena, eta, partzialki, enplegu-politikaren gainekoa”, eta 2007a baino lehen Estatuko araudirik ez izateak argitzen du “Estatuak lan-arloan bultzatu zituen erreformek, batez ere 2000. urteetan, (...) enpresa horiek dituzten baldintza bereziak kontuan hartu ez izana”. (ASKUNZE, 2016, 8-9. or.)

Estatuko 44/2007 Legeak lehen artikuluan ezartzen duenez, “laneratzeko enpresen araubide juridikoa arautzea eta gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen laneratzeari horrelako enpresen bitartez sustatuko duen esparrua ezartzea du xede”. Eta 4. artikuluan honela definitzen ditu: “legez eraturako merkataritza-sozietatea edo sozietate kooperatiboa, gai horretan eskumena duten erakunde autonomikoek behar bezala kalifikatuta, ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko edozein jarduera ekonomiko egiten duena, baldin eta bere helburu soziala gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonak gizarte- eta lan-arloan integratzea eta prestatzea bada, enplegu arrunterako igarobide gisa”.

Araudian finkatutako “enplegu arrunterako igarobidearen” ideia horrek laneratzeko enpresen aukera iragankor edo finalisten arteko eztabaida itxi zuen, eta lehen aukera nagusitu zen. Gainera, arautze espezifiko horrek aurreko esperientzietan landutako beste forma juridiko batzuk erabiltzen jarraitzeko aukera ere itxi zuen: fundazioak eta elkarteak, funtsean (ASKUNZE, 2016, 10. or.), eta gehien erabiltzen den forma juridikoa sozietate mugatuarena da.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren aurreko dekretuak¹⁰ honela definitzen ditu: “ondasunen edo zerbitzuen ekoizpen-egiturak izan beharko dute; gizartean baztertuta edo desabantailan dauden taldeak lan-merkatuan sartzeko helburua izan beharko dute; gainera, gizarteratzeko banan banako proiektuak egin beharko dituzte ikasketa prozesu egoki baten bidez, eta prozesu horrekin, enplegarritasunaren baldintzak hobetzen laguntzeko, trebetasun batzuk lortuko dira: trebetasun sozialak, lanekoak, oinarritzko prestakuntza, laneko kualifikazioa eta merkatuari buruzko ezagupenak”¹¹. Eta definizio hori bera mantentzen da laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzen duen, horietan sartzeko prozedura eta horien erregistroa ezartzen dituen azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuan. Aurreko dekretua eguneratzen du dekretu berri horrek.

¹⁰ Euskal Autonomia Erkidegoan “Gizarte bazterkeriaren aurkako Legea da (maiatzaren 22ko 12/1998 Legea) funtsezko aurrekaria. Bertan adierazten denez, lan-merkatuan parte hartzen ez bada, edo oso neurri txikian hartzen bada parte, ia nahitaez bazterkeria nagusitzen hasiko da. Ikuspegi horretatik sortzen da egitura jakin batzuk arautzeko premia. Izan ere, laneratzeko lanean urteak zeramatzaten arren, arautu gabe zeuden”. (GARCÍA MAYNAR, 2007, 158. or.; GIZATEA, 2012)

¹¹ 305/2000 Dekretua, abenduaren 26koa.

2008ko dekretu horrek, 4. artikuluan, laneratzeko enpresen kalifikazioa lortzeko baldintzak zerrendatzen ditu:

63. ilustrazioa. Laneratzeko enpresen kalifikazioa lortzeko baldintzak

1. *Merkataritzako edo gizarte ekonomiako sozietate bat eratzea.*
2. *Merkatuko edozein sektoretan ondasun-produkzioko edo zerbitzu-prestazioko jarduera ekonomiko zilegi bat garatzea.*
3. *Bere helburu sozialarekiko desberdinak diren jarduerak ez egitea.*
4. *Bere helburu sozialaren xede nagusi gisa edukitzea lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen gizarteratzea eta laneratzeta.*
5. *Bere nortasun juridikoari dagokion erregistroan behar bezala erregistratua egotea.*
6. *Erakunde sustatzaile batek edo batzuek sustatuak eta parte hartuak izatea. Merkatariza-sozietateen kasuan, parte-hartze hori kapital sozialaren % 51koa izango da gutxienez. Kooperatiben eta lan-sozietateen kasuan, parte-hartze hori bazkide kolaboratzaile edo atxikientzat aplikagarriak diren legedietan bildutako gehieneko mugetan kokatu beharko da.*
7. *Balantzeak, emaitza-kontuak eta ondarea bere helburu sozialarekiko desberdinak diren beste jarduera ekonomiko batzuekin lotuak ez izatea.*
8. *Zerga-arloko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduak izatea, eta, kalifikazioa eskatzen den unean, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin edo horren erakunde autonomoekin zorrik ez izatea.*
9. *Kalifikazioa eskatu aurreko urtean bidegabeki kaleratuta lanposturik kendu ez izana.*

Iturria: 182/2008 Dekretua, azaroaren 11koa

Baina 7. artikuluan laneratzeko enpresak sustatzeko erakunde izateko eska daitezkeen baldintzak ere zehazten ditu, horietako asko ere gizarte-ekonomiaren parte baitira:

64. ilustrazioa. Erakunde sustatzaileen kalifikazioa lortzeko baldintzak

1. *Erakunde sustatzailetzat hartuko dira beren helburuen artean pertsona behartsuenen gizarteratzea barnean hartzen duten irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko edo pribatuak, betiere laneratzeko enpresen sorrera sustatzen badute eta enpresa horietan % 51ko parte-hartzea badute gutxienez, eta, hala badagokio, dekretu honen 23.1.e) artikuluan adierazitako gizarte-laguntzako neurriak ematen baditu.*
2. *Kooperatiben eta lan-sozietateen kasuan, parte-hartze hori bazkide kolaboratzaile edo atxikientzat aplikagarriak diren legedietan bildutako gehieneko mugetan kokatu beharko da.*

Iturria: 182/2008 Dekretua, azaroaren 11koa

Berrikiago, Gizarte Ekonomiari buruzko 5/2011 Legeak gizarte-ekonomiaren parte gisa jaso ditu laneratzeko enpresak, eta, gainera, 5. artikuluan, “enplegu-zentro bereziak eta laneratzeko enpresak, beren araudi erregulazialearen arabera halakotzat eratu eta kalifikatuak” ekonomia-interes orokorreko zerbitzuak (EIOZ) ematen dituzten erakundetzat jotzen ditu. Aitorpen hori 2015. urteaz geroztik sartu da lan autonomoaren eta gizarte-ekonomiaren autoenpleguaren, sustapenaren eta promozioaren arloko Estatuko araudian, eta aukera ematen du erakunde horiek aspalditik eskatutako zenbait neurri justifikatzeko, hala nola kontratu publikoen erreserba¹² eta erakunde horiek bultzatzeko laguntza espezifikoak, “ekonomia-interes orokorreko zerbitzutzat hartzen den misioa garatzean gainkostu bat aitortzen zaien eta segurtasun juridikoa ematen dien neurrian”, laguntza publikoen Europako araudiaren aurrean. (ASKUNZE, 2016, 13. or.).

Asoziazionismoa eta ordezkaritza-sareak

2007. urtean, Estatu mailako lege-erregulazioarekin batera, laneratzeko enpresen lehen enpresa-elkarteak sortzen hasi ziren, eta lehenengoetako bat izan zen, urte horretan bertan, *Euskal Autonomia Erkidegoko Laneratzeko Enpresen Elkarte*a (GIZATEA¹³). 2017an formalizatu zen, halaber, *Laneratzeko Enpresen Elkarten Federazioa* (FAEDEI), gaur egun 12 lurralde-elkarte biltzen dituen. *Gizarte Ekonomiako Espainiako Enpresen Konfederazioaren* (CEPES) barruan dago sortu zenetik. Baita *European Network for Social Integration Enterprises* (ENSIE) sarearen barruan ere. Eta, gainera, enpresa horietako askok eta/edo beren erakunde sustatzaileek onartzen dute ekonomia solidarioaren sareetako kide direla, hala nola REAS¹⁴ (*Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea*) eta AERESS¹⁵ (*Gizarte Ekonomia Solidarioko Suspertzaileen Espainiako Elkarte*a).

Sortu zenetik, eta bere eginkizunari erantzunez, Gizateak lan-prozesuen hausnarketa, azterketa, prestakuntza eta sistematizaziorako dinamikak sustatu ditu sektorean, unibertsiteari loturik (MARTÍNEZ & ÁLVAREZ DE EULATE,

¹² Diputatuen Kongresuak 2017ko urriaren 19an onartutako Sektore Publikoko Kontratuaren Lege berriaren (azaroaren 8ko 9/2017 Legea) laugarren xedapen gehigarrian sartuta dago, eta “edozein administrazio publikori aukera ematen dio lizitazioan parte hartzeko aukera soilik gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziei eta laneratzeko enpresei erreserbatzeko”. (ÁLVAREZ DE EULATE, 2017, 196. or.)

¹³ “*Gizatea* hitzak *giza*, *gizarte*a eta *atea* kontzeptuak bateratzen ditu. Horrela, laneratzeko enpresek parte-hartzerako eta gizarte-integratzeko sarbidea ahalbidetzen duten funtzioa adierazi nahi dugu. Hori guztia pertsona protagonista gisa hartzen duen laneratzeko eta gizarteratzeko prozesu baten bitartez egiten da.” (GIZATEA, 2012)

¹⁴ www.economiasolidaria.org

¹⁵ www.aeress.org

2015). 15 urte inguru iraun duen lankidetzaren horri esker, profesionalak beren jardunbideak garatzeko eta hobetzeko erreferentzia gisa erabili dituzten hainbat material garatu ahal izan dira (FERNÁNDEZ, GALARRETA & MARTÍNEZ, 2007; GALLASTEGI & MARTÍNEZ, 2011; MARTÍNEZ, GALLASTEGI & YÁNIZ, 2012).

Euskal Autonomia Erkidegoan, laneratzeko enpresek, Gizatea eratzeaz gain, aktiboki parte hartzen dute eta lankidetzaren aritzen dira beste sare sozial batzuekin. Aipatutako FAEDEI eta REAS erakundeez gain, Gizarte Ekonomiaren Euskal Sarean (EGES), Euskal Autonomia Erkidegoko Hirugarren Sektore Sozialaren Sarean (*Sareen Sarea*) eta Euskadiko Gizarteratzearen aldeko Sareetan (*ekaIN*) integratzen dira, eta “Fiare Banku Etikoa bezalako finantza alternatiboen ekimenetan parte hartzen dute edo bidezko merkataritzaren, birziklatzearen edo tokiko nekazaritza eta nekazaritza ekologikoaren inguruko proiektuak bultzatzen dituzte” (ASKUNZE, 2016, 22. or.), hala nola Merkatu Soziala, laneratzeko euskal enpresek garatutako elkar-lankidetzaren beste adibide batzuen artean. Sareko lan horren helburua beti da “pertsona guztientzat enplegu-aukera inklusiboak eta, azken batean, gizarte kohesionatuagoa, justuagoa eta solidarioagoa sortzea” (GIZATEA, 2019ko gizarte-txostena).

5.3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANERATZEKO ENPRESAREN IDEIA NAGUSIAK

Enpleguaren eta inklusioaren esparruan espezializatutako irabazi-asmorik gabeko erakundeek bultzatutako irabazi-asmorik gabeko ekimen ekonomikoak

Laneratzeko enpresak irabazi-asmorik gabeko espirituarekin oso lotura estua duten ekimen ekonomikoak dira, bai laneratzeko enpresetan bertan, bai erakunde sustatzaileetan, giza eta gizarte-sustapena xede nagusitzat duten ekimen solidarioak dira-eta. Hala jasotzen du Gizateak bere Balioen Adierazpenean, eta irabazi-asmorik gabeko ekimen gisa definitzen ditu.

Gizarte-ekonomia solidarioarekin partekatzen dute indarrean dagoen eredu ekonomikoaren ikuspegi kritikoa, printzipio eta balio alternatiboetan oinarritutako jardunbide ekonomikoaren garapena, eta izaera soziopolitiko eta sozioekonomiko eraldatzaile nabarmena.


Merkatuan beste edozein enpresak bezala jarduten dute

Laneratzeko enpresek bazterketa-arriskuan dauden pertsonen enplegarritasuna hobetzeko “ondasunen edo zerbitzuen ekoizpen-

-egitura” gisa definitzen dute beren burua, eta “enpresa-proiektu serioak eta sendo kudeatuak” izan nahi dute (GIZATEA, 2009, 16. or.). Beraz, merkatuan jarduera ekonomiko bat beste batzuekin lehian garatu behar duten enpresak dira. Beste edozein enpresak bezala, produktibitate-, lehiakortasun- eta efizientzia-irizpideak aplikatu behar dituzte beren eragiketetan, “bai lehia-jarduerari dagokionez, bai barne-funtzionamenduari eta ezartzen diren lan-harremanei dagokienez.” (ASKUNZE, 2016, 5. or.)

Laneratzeko euskal enpresek jarduera-sektore guztietan jarduten dute. Horien artean, zerbitzu-sektorea nabarmentzen da, eta, horren barruan, jatetxe eta catering jarduerak, hondakinen bilketa, kudeaketa eta birziklatzea, eta garbiketa.

65. ilustrazioa. Jarduera-sektoreak



Iturria: GIZATEA, 2019ko gizarte-txostena

Salmentak dira Gizatean elkartutako laneratzeko enpresen diru-sarreraren iturri nagusia: 2019ko datuen arabera, 32.166.302,25 euroko diru-sarrerak dituzte guztira, eta horietatik %72 produktuak eta zerbitzuak saltzearen ondoriozko fakturazioari dagozkio. Salmenta guztien %77 bezero pribatuetatik datoz eta %23 sektore publikotik. Datu horiek erakusten dute laneratzeko enpresek nagusiki merkatu pribatuan jarduten dutela.

Hala ere, sektore publikorako fakturazioak gora egin duela ikusi da, “administrazio publikoak lizitazio jakin batzuetan laneratzeko enpresei zuzendutako erreserba-ehuneko bat ezartzera behartzen dituen Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 4. xedapen gehigarria nolabaiteko eragina izaten hasten den” adierazgarri. (GIZATEA: 2019ko gizarte-txostena, 14. or.)

Beste enpresa batzuek ez bezalako berezko izaera soziala duten ekimenak

Laneratzeko enpresen arrakastak dimentsio bikoitza du: alde batetik, “enpresa horien helburu sozial espezifikuari dagokion arrakasta, bazterketa-arriskuan dauden pertsonak lan-merkatuan sartzean datzana”, baina “laneratzeko prozesu kolektibo horren euskarri den merkataritza-jardueraren helburu sozialari” dagokion arrakastarekin konbinatuta. Eta enpresa horietan, emaitza soziala emaitza ekonomikoaren aurretik dago, azken hori lehenengoaren zerbitzura dagoen tresna gisa ulertuta (RETOLAZA ET AL, 2008, 40. or.), baina proiektuak denboran irauteko eta jasangarria izateko behar dena.

Irabazi-asmorik gabeko erakundeak diren aldetik, laneratzeko enpresek soberakinen % 100 bideratzen dituzte beren egiturak hobetzera edo gizarteratzeko eta laneratzeko jarduerak sustatzera, baina ez dute inoiz etekinik banatzen. Eta ezaugarri definitzaile horrek, haien eginkizun sozialaren baldintzatzaileen ondorio den “merkatuko lehia-desabantaila” batzuekin batera (RETOLAZA ET AL, 2008, 64. or.), ez du aukerarik uzten “errentagarritasuna enpresa-arrakastaren adierazle gisa erabiltzeko”. (RETOLAZA ET AL, 2007, 53. or.). Hala ere, enpresa horiek 2019an merkatuko fakturazioaren ondorioz —batez ere zerbitzu-sektorean (% 72)— lortu dituzte beren diru-sarreraren %72, eta beren bezeroen %77 sektore pribatukoak dira.

Laneratzeko enpresek beren bezero-zorroa handitu eta sektore publikoak zorro horretan duen pisua areagotu nahi dute, erosketa publiko arduratsuko ekimenak sustatzearen bitartez. Haien ustez, “sektore publikoak gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzat sortzen dituen enplegu-aukerak ez dira nahikoak” (ALVAREZ DE EULATE, 2017, 96. or.). Horregatik, administrazio publikoak sentsibilizatzen dituzte klausula sozialak aplikatzearen errentagarritasun sozial eta ekonomikoaren inguruan, halakotzat ulertuta “kontratazio publikoko prozesuetan irizpide jakin batzuk sartzea, eta irizpide horien arabera, kontratuari gizarte-politikako alderdiak gehitzea, alde zuzeneko baldintza gisa (onartzeko irizpidea) eta/edo balorazio-elementu gisa (puntuazioa). (Ruiz et al, 2007, 143. or.). Eta ekonomia-interes orokorreko zerbitzuak (EIOZ) ematen dituzten erakundeentzat erreserbatutako kontratuak¹⁶ aplikatzearen alde egiten dute, administrazio publiko guztiek nahitaez betetzekoak, hala


¹⁶ Klausula sozialaren muturreko kasu gisa, “horien izaera murriztailea hain handia izango litzateke de facto, ezen enpresa mota jakin batek soilik parte hartzea ahalbidetuko bailuke” (RUIZ ET AL, 2007, 143. or.), eta Sektore Publikoko Kontratuen Legean (azaroaren 8ko 9/2017 Legea) txertatuta daude jada.

jasotzen baitu Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (azaroaren 8ko 9/2017 Legea) 4. xedapen gehigarriak.

Helburu nagusia: gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden langabeen enplegarritasuna hobetzea eta gizarteratzea eta laneratzea lortzea

Laneratzeko enpresen identitate-ezaugarria da, hain zuzen ere, “gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonak enplegu-merkatu arruntean sartzeko aukerak” sortzea, eta halaxe aitortzen dute esplizituki beren misioan. Horixe da beren izateko arrazoia, beren lan nagusia: “ibilbide pertsonalizatu baten esparruan, esku hartzeko eta laguntzeko hainbat zerbitzu eskaintzea, konpetentziak eta trebetasunak hobetu ahal izateko enplegarritasun-maila handitzeari begira.” Horrek “baliabide bideratzaile bihurtzen ditu, laneratzekeo prozesu zabalago baten barruan, eta, aldi berean, enpleguak betetzen duen zeregina kontuan hartuta, gizarteratzeko prozesu global batean sartzen dira” (ASKUNZE, 2016, 15. or.).

66. ilustrazioa. Gizarteratzean inplikaturako prozesuak



Iturria: FERNÁNDEZ ET AL., 2007, 16. or.

MARTINEZEK, GALARRETAK ETA AROSTEGUIK adierazten duten bezala, laneratzekeo enpresak “agerian uzten ari dira programa eraginkorra direla laneratzekeo premia konplexuak dituzten pertsonen beharrei erantzutekeo”,

testuinguruko faktoreen eta faktore indibidualen eraginpean dagoen enplegarritasuna hobetzeko prozesu baten bitartez. Laneratzeko enpresek gizarteratzeko eta laneratzeko prozesu/ibilbide bat garatzeko oinarria izango den enplegua eskaintzen dute, eta aukera multzo zabala eskaintzen diete hainbat arrazoiengatik prestakuntza-, lan- edo gizarte-aukeretatik baztertuak izan diren pertsoneri (MARTÍNEZ ET AL., 2019, 79. or.). Horretarako, enplegua sustatzeko aldi baterako kontratuaren modalitate bat daukate¹⁷, laneratzeko enpresentzat diseinatutako berezitasun espezifikoekin¹⁸. Izan ere, legeak eskatzen du plantillaren %30 eta %50 artean¹⁹ gutxienez laneratzeko prozesuan dauden pertsonak izatea. Eta langile guztien lan-baldintzak eta lan-harremanak —laneratzeko langileak izan edo ez— bat datoz laneratzeko enpresa bakoitza kokatuta dagoen jarduera-sektore espezifikoko hitzarmenarekin.

Beraz, enplegu-politika aktibo esaten zaienen barruko ekimenak dira. Eta datuek erakusten dute eraginkorrak direla. Sectoreak sortutako enpleguak gora egin du 2019an, batez ere bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonentzako enpleguak: laneratzeko enpresa elkartuek 1.368 pertsona enplegatu zituzten 2019an; horietatik 836 laneratzeko prozesuan daude, eta laneratzeko enplegu gehien sortu den urtea da 2019a.

Funtsezko metodologia: laguntzeko ibilbide pertsonalizatua

Laneratzen ari den pertsona bakoitzarentzat, laguntza sozial eta teknikoko ibilbide pertsonalizatua eraikitzen da, gehienez ere hiru urtekoa. Ibilbide horretan, laguntza soziala eta tekniko-profesionala ematen da lan-jardunean bertan, eta prestakuntza- eta gizarte-arloko beste laguntza batzuen bitartez.

¹⁷ Hazkundera eta enplegua hobetzeko Legearen (abenduaren 29ko 43/2006 Legea) lehen xedapen gehigarrian aurreikusita dago, eta 12 hilabetetik 3 urtera bitarteko iraupen mugatua du (gehienez). Amaitu ondoren, lan egindako urte bakoitzeko 12 eguneko soldataren baliokidea den konpentsazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea ematen du.

¹⁸ Hala nola lanaldi osoko langile baten lanaldiaren erdia baino lanaldi partzial handiagoa izatea, ordainsaririk galdu gabe lanera ez joateko eskubidea —tratamenduetara joateko, prestakuntzak egiteko edo laneratzeko ibilbide pertsonalizatuan jasotako beste neurri batzuetarako—, emandako zerbitzuen eta lan-jardunaren ziurtagiria lortzea, eta diziplinazko kaleratze-elementu jakin batzuk ez aplikatzea.

¹⁹ 44/2007 Legearen 5c) artikulua honako betebeharrak ezartzen du: “urteko zenbaketan, kalifikatzen direnetik, laneratzeko prozesuan dauden langileen ehuneko jakin bat mantentzea, kontratazio-modalitatea edozein dela ere, gutxienez % 30ekoa jardueraren lehen hiru urteetan, eta plantilla osoaren % 50ekoa, gutxienez, laugarren urtetik aurrera, eta ezingo da izan bi langile baino gutxiago.”

Horretarako, Unibertsitatearekin batera landutako laguntza-eredu bat dago, 2018an eguneratua eta sektoreak partekatua. Enplegarritasuna ebaluatzeko tresna berriak garatu dira, pertsona ez ezik, pertsona bizi den inguruneak eskaintzen dituen aukerak ere ardatz hartzen dituen enplegarritasun-kontzepzioetik abiatuta. EAEtik egindako diseinu hori bereziki berritzailea da esparru horretan, eta nazio mailan laneratzeko enpresa guztietan aplikatutako erreferente bihurtu da, laneratzeko euskal enpresetatik egindako ekarpen espezializatu gisa.

Laneratzeko euskal enpresetan ibilbidea amaitzen duten pertsonak enplegu arruntean sartzea egonkor mantendu da 2019an: ibilbidea amaitu duten laneratzeko langileen %63 lan-merkatu arruntean sartu dira.

Komunitatearekiko konpromisoa

Lanerako enpresek erakutsi dute gizarteratzeko eta laneratzeko tresna eraginkorrak, efizienteak eta jasangarriak direla, bai prestakuntzaren eta lan-prestakuntzaren alderdian, bai enplegua lortzearen alderdian. Gizarte-kohesioari laguntzen diote, enplegu-zerbitzu publikoekin eta gizarte-zerbitzuekin lankidetzan jardunez, eta gizarte-legitimitate progresiboa dute, gizarteratzeko estrategia eta politika aktiboetan gero eta protagonismo handiagoa ematen diena.

Hala erakusten dute beren gizarte-txostenetako datuek, enpresa mota horietan beren jarduerari esker inbertitutakoaren zati handi baten itzulkin fiskala, ekonomikoa eta soziala kontabilizatzen baitute (GIZATEA, 2012, 18. or.):

- Maila fiskalean, ordaindutako jarduera ekonomikoen gaineko zergen bidez eta sortutako nominen bidez, dagozkien Gizarte Segurantzako kotizazioekin eta errenta pertsonalaren gaineko zergekin. 2019an, bide horretatik, sortutako laneratzeko postu bakoitzeko gutxi gorabehera 8.970 euroko itzulkina izan dela kalkulatu dute.
- Maila ekonomikoan, gastu publikoak arinduz, gizarte-prestazioak eta langabezia-prestazioak jasotzen dituzten pertsonak murrizten baitira, baina, era berean, haien jarduerak ekonomia dinamizatzen laguntzen baitu. 2019an enpresa horietako laneratzeko postu bakoitzeko administrazio publikoentzat gutxi gorabehera 7.570 euroko aurrezkoa izan dela kalkulatu dute.
- Maila sozialean, gizarte-kohesioa bultzatuz —plantillen %50 eta %75 artean laneratzeko prozesuan dauden pertsonak dira, eta 2019an horien %63 lan-merkatuan sartzen dira ibilbidea amaitu ondoren— eta “mundu justuagoa eraikitzea” ahalbidetuz.

Gizarte-ekonomia solidarioa indartzearekiko konpromisoa

Euskal Autonomia Erkidegoko laneratzeko enpresak ekonomia solidarioarekin konprometituta daude, eta balio demokratikoak txertatzen dituzte beren lan-estiloan: alde batetik, beren kode etikoan konpromisoa hartzen dute parte-hartzea sustatzeko, “kontsulta- eta erabaki-bideak erabilia” eta “erabakiak hartzeko prozesuetan inplikaturik, ahalik eta horizontaltasun handiena bermatzen ahalegintzeko”, parte-hartzaile guztien erantzunkidetasunarekin artikulatuta.

Parte-hartzea eta beharrezko gardentasuna konbinatzen dituzte, laneratzeko enpresetako parte-hartzaileei zein gainerako eragileei kudeaketarekin, aplikatutako antolaketa-irizpideekin, egindako jarduerekin eta lortutako emaitzekin erlazionatutako alderdien “berri aldizka eman” ahal izateko. Izan ere, urtero aurkezten dute Gizateako enpresen %100en datu taldekatuak biltzen dituen gizarte-txostena.

Beren eguneroko zereginetan aukera-berdintasuna defendatzen dute, “beren kontroletik kanpo dauden inguruabarren ondorioz (zori naturala edo zori soziala) besteekiko desabantaila, diskriminazio, kalteberatasun edo hauskortasun garbia duten pertsonak gizarte- eta lan-esparruan parte hartzeko baldintza berdinetan jartzea ahalbidetzeko.”

Aukera-berdintasunaren alde egiten duten lanaz gain, sentsibilitate berezia garatzen dute genero-berdintasunari dagokionez, eta kudeaketan sartzen dute “emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian desberdinak sistematikoki kontuan hartzea”.

Azken batean, laneratzeko enpresak argi eta garbi kokatzen dira “pertsonak nagusi diren eta helburu soziala kapitalaren gainetik jartzen duten ekimenen esparruan” (ASKUNZE, 2016, 20. or.). Gizarte-ekonomia solidarioaren parte direnez, “indarrean dagoen eredu ekonomikoaren ikuspegi kritikoa, printzipio eta balio alternatiboetan oinarritutako jardunbide ekonomikoaren garapena, eta izaera soziopolitiko eta sozioekonomiko eraldatzaile nabarmena partekatzen dute” (ASKUNZE, 2016, 21. or.), ingurumen-jasangarritasunarekiko konpromisoa barne dela.

Horregatik, arestian adierazi dugun moduan, gizarte-ekonomiaren sare-bilbean integratzen dira. Hala, Gizateak honako sare hauetan parte hartzen du:

- ekaIN - Euskadiko Gizarteratzearen aldeko Sareak.
- Sareen Sarea - Euskal Autonomia Erkidegoko Hirugarren Sektore Sozialaren Sareen Sarea.
- EGES - Gizarte Ekonomiaren Euskal Sarea.
- FAEDEI - Laneratzeko Enpresen Elkartearen Federazioa.
- Euskadiko Finantza Etikoak Elkarteak.

Aliantzetan oinarritutako lankidetzak-ereduak

Sarean lan egitea eta aliantzak sortzea konstante bat da Gizatearen funtzionamenduan eta haren laneratzeko enpresetan. Ildo horretan, Garapen Jasangarrirako 17. Helburuak planteatzen duen erronka, beste 16 GJHak lortzeko aliantzak sortzeari buruzkoa, zehazki kateatzen da laneratzeko enpresen egiteko moduarekin, guztiontzako lan duinari buruzko 8. GJHan aurrerapenak bilatzeko.

Izatez, Gizateak Euskal Autonomia Erkidegoan laneratzeko enpresek abian jarritako hainbat esperientzia identifikatu ditu. Izan ere, “sektore publikoaren, sektore pribatuaren eta gizarte-sektorearen arteko lankidetzak-esperientziak eta aliantzak” arakutzen ari dira, 17.17 jomuga lortzen laguntze aldera: “aliantza publiko-pribatuak eta gizarte zibilarekiko aliantzak sustatzea”. Eta esperientzia horiek jendaurrean ikusgai jartzen ari da²⁰, 2030 Agenda betetzen lagundu nahi duten beste administrazio publiko eta enpresa pribatu batzuentzat erreferente izan daitezen, enplegu inklusiboa sortzeko, gizarte-erakundeen eta laneratzeko enpresen eskutik. Aurkezpen modura:

1. Oarsotek SL (Oarsoaldea, Gipuzkoa) laneratzeko enpresaren sustapen publiko-pribatua 2005az geroztik, familia-kargak dituzten eta laguntza-sarerik ez duten guraso bakarreko emakumeen laneratzeko errazteko. Oarsoaldeko (Gipuzkoa) udalek lankidetzan jarduten dute Garapen Agentziaren eta Rubitec SA enpresaren bitartez.
2. Berziklatu SL (Ortuella, Bizkaia) laneratzeko enpresaren sustapen publiko-soziala 2007az geroztik, beste helburu batzuen artean, laneratzeko enplegua sortzeko Bizkaian sortutako bolumen handiko hondakinen tratamendu integralaren bitartez. Lankidetzan jarduten dute Bizkaiko Foru Aldundiak eta Garbiker enpresa publikoak (%100 Bizkaiko Foru Aldundiaren jabetzako enpresa, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari atxikia), eta, sektore sozialaren aldetik, Emaus Bilbao S.Coop eta Rezikleta S.Coop sozietateek.
3. Urbegi Inserción SL laneratzeko enpresa sortzea industria-jarduera berriz kokatzearen bitartez (Zornotza, Bizkaia) 2012az geroztik, kalteberatasun-egoeran dauden pertsonentzat enplegua sortzeko. Lankidetzan jarduten dute Draxton Atxondo enpresak (lehen Funchosa) eta Urbegi fundazioak eta Urbegi Inserción laneratzeko enpresak.

²⁰ ALVAREZ DE EULATE, L. ET AL. (2019) Tejiendo alianzas público-privadas para la generación de empleo e inserción. *Noticias de la Economía Pública, Social y Cooperativa CIDEA*, (60) 55-68.

4. Debabarrenean (Gipuzkoa eta Bizkaia) laneratzeko enpresak sortzeko proiektua 2018az geroztik, eskualdean baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak laneratzeko, ahal dela industria-sektorean. Lankidetzan jarduten dute Debabarreneko Garapen Agentziak (DEBEGESA) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Laneratzeko Enpresen Elkarteak (GIZATEA).
5. “Laneratuz” programa (Oñati, Gipuzkoa) 2019az geroztik, Oñatin gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden eta lan-merkatu arruntean sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea sustatzeko. Lankidetzan jarduten dute ULMA talde kooperatiboak eta Oñatiko Udalak (Gipuzkoa).

5.4. ETORKIZUNeko ERRONKAK

2018an, bi urteko gogoeta-prozesu baten ondoren, Gizateak zenbait erronka eta ildo estrategiko identifikatu zituen, bai laneratzeko euskal enpresek, bai Gizateak, bai haien enpresa-taldeak aurrera egiteko. Horien helburua da, hain zuzen ere, enpresen hobekuntza sustatzea eta erakunde-eta gizarte-elkarrizketarako kuota handiagoak eta hobeak lortzea. Erronka horiek, orain, COVID-19aren eta COVID-19aren ondoko agertokiaren aurrean berrikusi beharko dira.

Erronka horiek, funtsean, honako lau hauetan laburbiltzen dira:

1. Gure enpresetan laneratzeko prozesuan dauden pertsonen kopurua nabarmen handitzea. Hiru urtetan kopuru hori hirukoizteko helburua planteatzen da.
2. Enplegu-politika publikoen esparruan ebaluatutako emaitza onak lortu dituzten pertsonen ehunekoa hobetzea.
3. Laneratzeko enpresen presentzia geografikoa Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde guztietara zabaltzea.
4. Gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuetan aintzat hartutako tresna eta eragile garrantzitsuetan laneratzeko enpresak behar bezala sartzea, gure gizarteko enpleguaren eta gizarteratzearen erronken tamainaren eta konplexutasunaren mailan.

Erronka horiei heldu ahal izateko, honako hauek proposatu ditu Gizateak:

Sektorearen hazkundea bultzatzea

- Estatu mailako laneratzeko enpresen aldeko arau-garapenak sustatzea, FAEDEIren bitartez, eta Euskal Autonomia Erkidegoko laneratzeko enpresentzako araudi berriak idazten aktiboki parte hartzea.
- Laneratzeko enpresentzat interesgarriak diren proposamenak helaraztea enpleguarekin, gizarte-ekonomiarekin edo inklusioarekin erlazionatutako beste arau-garapen batzuetan.
- Laneratzeko enpresak enplegu-, gizarte- eta inklusio-arloko estrategia eta politika aktiboetan sartzea erakunde- eta eskumen-maila guztietan.
- Klausula sozialak eta kontratu erresebatuak bultzatzea, eta, horrela, laneratzeko enpresak kontratazio publikora iristea ahalbidetzea.
- Tokiko garapen-planetan edo ekonomia sustatzeko bestelako politiketan eta enpresa arrunten gizarte-erantzukizuneko jardunbideetan merkatu berriak garatzeko dauden aukerak baloratzea eta aprobetxatzea.
- Bazkide diren laneratzeko enpresen arteko harremanak eta elkar ezagutzea eta ondasunen eta zerbitzuen barne-kontsumoa erraztuko duten espazioak eta jarduerak sustatzea.
- Berrikuntza edo jarduera-sektore berriak identifikatzea sustatzen duten dinamikak bultzatzea.

Funtsezko eragileak azpimarratzea

- Erakunde publikoekin (Enplegu eta Gizarte politiketako Saila, Lanbide, foru- eta toki-administrazioak) elkarriketa-maila handia mantentzea, laneratzeko enpresen sarea eta sektorea ezagutzea lortzeko.
- Sareak eragile politiko eta sozialekin (erakunde politikoak, sindikalak, enpresa-erakundeak) duen elkarriketa-maila eta harremana areagotzea.
- Garapena sustatzea eta gizarte-ekonomiako sareekiko lankidetzaz-espazioetan aktiboki parte hartzea, Gizarte Ekonomiaren Euskal Sarean (EGES) parte hartzearen bitartez.
- FAEDEIn aktiboki parte hartzea, eta, horren bitartez, European Network of Social Integration Enterprises (ENSIE) sarean, eta laneratzeko enpresen beste lurralde-elkarte batzuekin lankidetzako eta elkar laguntzako harremana mantentzea.
- Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarearekin (REAS Euskadi) eta ekonomia solidarioaren eragileekin (Fiare Banku Etikoa, Merkatu Soziala) lankidetzaz estua bultzatzea.

- Euskadiko Gizarteratzearen aldeko Sareak (ekaIN) finkatzen laguntzea, eta espazio partekatuen garapena sustatzea.
- EAEko hirugarren sektore soziala egituratzeko eta indartzeko prozesuan laguntzea, Sareen Sarean parte hartzearen bitartez.

Euskal gizartean ikusaraztea

Beharrezkoa da laneratzeko enpresen balio erantsiaren, izaera berritzailearen eta itzulkin ekonomiko eta sozialen ikusgaitasuna areagotzea:

- Balantze sozialaren emaitzen urteko zabalkundearekin jarraitzea eta datuen analisisan sakontzea.
- ‘Laneratzeko enpresa’ markaren hedapena sustatzera zuzendutako jarduketak garatzea.
- Gizatea eta laneratzeko euskal enpresak gizartean bultzatzeko komunikazio-tresnak garatzea eta abian jartzea.

Laneratzen laguntzeko eredia finkatzea

- Laneratzen laguntzeko lanerako tresnak hedatzea eta eskura jartzea.
- Eredua ebaluatzeko eta hobetzeko prozesuak gauzatzea.
- Laneratzen laguntzearekin erlazionatutako gaietan prestakuntza-ekintzak sustatzea.
- Laneratzeko langileak lan-merkatu arruntera igarotzeko lan-bitartekaritzako zereginetan aurrera egitea.

Gizatea laneratzeko enpresen Euskal Autonomia Erkidegoko erreferentziatzeko sare gisa indartzea

- Bere elkarrizketa instituzionala eta soziala sustatzea, eta laneratzeko enpresei zerbitzuak eskaintzeko gaitasuna areagotzea.

5.5. ONDORIOAK

— **Enplegua funtsezko elementua da *pertsonen bizi-proiektuak* artikulatzeko, baliabide ekonomikoen iturri gisa duten eginkizunaz harago**

Langabezia eragin berezia duen gizarte-erronka da, eta 80ko hamarkadaz geroztik arazo larritzat jo dute. Horrek zuzeneko ondorioak ditu pertsonen bazterketa ekonomikoan, eta, askotan, gizartean parte hartzeko eta gizarteratzeko beste zailtasun batzuekin konbinatzen da.

— **Laneratzeko enpresak gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko ekimen ekonomikoak dira**

Langabeen profil bat dago, enplegarritasuna hobetzeko prestakuntza espezifikoa lan-merkatuan sartu ahal izateko nahikoa ez dutenek osatzen dutena. Pertsona horien garapen integralerako, laneratzeko enpresek metodologia berritzailea aplikatzen dute, laneratzeko prozesuan laguntzeko ibilbide pertsonalizatua eta benetako lan-inguruneko prestakuntza praktikoa konbinatzen dituen. Hala, enplegu arruntera igarotzeko aukera emango dieten lanerako eta gizarterako trebetasunak eta gaitasunak eskuratzen dituzte.

— **Laneratzeko enpresak gizarte-ekimenetik sortu dira, lege-onarpena ondoren baino lortu ez duten esperientzia gisa**

Mota horretako erakundeak beren aitorten juridikoa formalizatu aurretik existitu dira: Euskal Autonomia Erkidegoan 2000n arautu zen, eta 2007an 44/2007 Legea onartu zen, laneratzeko enpresen aitortpena Estatu mailako lan-legerian txertatzeko funtsezkoa. Eta Gizarte Ekonomiari buruzko 5/2011 Legeak gizarte-ekonomiaren parte gisa aitortu eta ekonomia-interes orokorreko zerbitzuak (EIOZ) ematen dituzten erakundetzat jotzen ditu.

— **Lanerako enpresek erakutsi dute gizarteratzeko eta laneratzeko tresna eraginkorrak, efizienteak eta jasangarriak direla**

Inbertitutakoaren zati handi baten itzulkin fiskala, ekonomikoa eta soziala eskaintzen dute, diru-sarrerara publikoei laguntzen diete, gastu publikoak arintzen dituzte eta gizarte-kohesioa ahalbidetzen dute. Enplegu-zerbitzu publikoekin eta gizarte-zerbitzuekin lankidetzan jarduten dute, eta gizarte-legitimitate progresiboa dute, gizarteratzeko politika aktiboetan gero eta protagonismo handiagoa ematen diena.

— **Sektore Publikoko Kontratuen Legeak (azaroaren 8ko 9/2017 Legea), 4. xedapen gehigarriaren bitartez, ekonomia-interes orokorreko zerbitzuak ematen dituzten erakundeei, hala nola laneratzeko enpresei, kontratuak erreserbatzera behartzen ditu administrazio publikoak**

Laneratzeko enpresek beren bezero-zorroan sektore publikoak duen pisua areagotu nahi dute, horrela bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonentzat lanpostu gehiago sortzeko, kontratu-erreserba betetzearen bitartez.

— **Euskal Autonomia Erkidegoko laneratzeko enpresak ekonomia solidarioarekin konprometituta daude**

Laneratzeko enpresak irabazi-asmorik gabeko erakundeak dira, eta haien erakunde sustatzaileek ere hala izan behar dute. Indarrean dagoen

eredu ekonomikoaren ikuspegi kritikoa, printzipio eta balio alternatiboetan oinarritutako jardunbide ekonomikoen garapena, eta izaera soziopolitiko eta sozioekonomiko eraldatzaile nabarmena partekatzen dute.

5.6. ERREFERENTZIAK ETA ITURRIAK

- ALVAREZ DE EULATE BADA, L. (2017). Empresas de inserción vascas: una herramienta eficaz y eficiente para la inclusión sociolaboral. *Zerbitzuan*, (64) 189-2011. <https://doi.org/10.5569/1134-7147.64.13>
- ALVAREZ DE EULATE, L. COZAR, S.; MARTINEZ, E. & MELIAN, S. (2019) Tejiendo alianzas público-privadas para la generación de empleo e inserción. *Noticias de la Economía Pública, Social y Cooperativa CIDEA*, (60), 55-68.
- ARETXABALA, M. E. & CARO, A. (2013). Las empresas de inserción vascas y sus entidades promotoras como ejemplo de buenas prácticas en la integración sociolaboral del colectivo de inmigrantes más vulnerable. *GEZKI*, (10) 149-188. Hemendik berreskuratua: www.ehu.es/ojs/index.php/gezki/article/download/12755/12734
- ASKUNZE ELIZAGA, C. (2016). Empresas de Inserción en la economía social. Herramientas para la inclusión sociolaboral, *Revista Jurídica de Economía Social y Cooperativas*, (29) 15-46. Hemendik berreskuratua: <https://www.economiasolidaria.org/biblioteca/empresas-de-insercion-en-la-economia-social-herramientas-para-la-inclusion-sociolaboral>
- 305/2000 DEKRETUA, abenduaren 26koa, laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzeko, enpresotan sartzeko prozedura ezartzeko, eta laneratzeko enpresen erregistroa sortzeko dena, *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria* (24), 2001/02/02, 1900-1913, <https://www.euskadi.eus/bojv2/datos/2001/02/0100592a.pdf>
- 182/2008 DEKRETUA, azaroaren 11koa, laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzen duena, horietan sartzeko prozedura eta horien erregistroa ezartzen dituen, *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria* (225), 2008/11/24, 28250-28264, <https://www.euskadi.eus/bojv2/datos/2008/11/0806515a.pdf>
- FAEDEI (2019). *Memoria Social 2018*, Madrid: Federación de Asociaciones Empresariales de Empresas de Inserción. Hemendik berreskuratua: <http://www.faedei.org/images/docs/documento77.pdf>
- FAEDEI (2020). *Memoria Social 2019*, Madrid: Federación de Asociaciones Empresariales de Empresas de Inserción. Hemendik berreskuratua: <http://www.faedei.org/images/docs/documento83.pdf>
- FERNÁNDEZ, A., GALARRETA, J. & MARTÍNEZ, I. (coords.) (2007). *Manual de acompañamiento en las empresas de inserción: proceso y herramientas. Una propuesta desde la práctica*, Bilbao: REAS Euskadi. Hemendik berreskuratua: https://www.economiasolidaria.org/sites/default/files/reaslibrary/attachments/laguntzarako_eskuliburua.pdf
- GALLASTEGI, A. & MARTÍNEZ-RUEDA, N. (coords.) (2011). *La Mejora de los Procesos de Acompañamiento en las Empresas de Inserción*. Bilbao: Gizatea. Hemendik berreskuratua: https://www.gizatea.net/uploads/migration_files/gizatea/Procesos.pdf
- GIZATEA (2009). *Código de Ética de Gizatea y de sus empresas de inserción asociadas*. Bilbao: Gizatea. Hemendik berreskuratua: <http://www.gizatea.net/codigo-de-etica-de-gizatea-y-de-sus-empresas-de-insercion-asociadas/>

- GIZATEA (2012). *Las empresas de inserción: una herramienta para la inclusión social*. Bilbao: Gizatea. Hemendik berreskuratua: <http://www.gizatea.net/publicaciones/las-empresas-de-insercion-una-herramienta-para-la-inclusion/>
- GIZATEA (2018). *2017ko gizarte-txostena. Gizarteratzeko eta Laneratzeko Enpresak Euskadin*, Bilbo: Gizatea. Hemendik berreskuratua: <https://www.gizatea.net/wp-content/uploads/Gizatea-Memoria-2017-eus.pdf>
- GIZATEA (2019). *2018ko gizarte-txostena. Gizarteratzeko eta Laneratzeko Enpresak Euskadin*, Bilbo: Gizatea. Hemendik berreskuratua: <https://www.gizatea.net/wp-content/uploads/Gizatea-Memoria-2018-eus.pdf>
- GIZATEA (2020). *2019ko gizarte-txostena. Gizarteratzeko eta Laneratzeko Enpresak Euskadin*, Bilbo: Gizatea. Hemendik berreskuratua: <https://www.gizatea.net/wp-content/uploads/Gizatea-Memoria-2019-eus.pdf>
- 44/2007 LEGEA, abenduaren 13koa, laneratzeko enpresen araubidea erregulatzen duena, *Estatuko Aldizkari Ofiziala* (299), 2007/12/14, 51331-51339, <https://www.boe.es/eli/es/l/2007/12/13/44/con>
- 27/2009 LEGEA, abenduaren 30ekoa, enplegua mantentzeko eta sustatzeko eta langabeak babesteko presako neurriei buruzkoa: hamabigarren xedapen gehigarria. *Laneratzeko enpresen araubidearen erregulazioaren aldaketa. Estatuko Aldizkari Ofiziala* (315), 2009/12/31, <https://www.boe.es/eli/es/l/2009/12/30/27>
- 5/2011 LEGEA, martxoaren 29koa, Gizarte Ekonomiari buruzkoa. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, (76) 2011/03/30, 33023-33033. <https://www.boe.es/eli/es/l/2011/03/29/5>
- 9/2017 LEGEA, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora, *Estatuko Aldizkari Ofiziala* (272), 2017/11/09, <https://www.boe.es/eli/es/l/2017/11/08/9/con>
- MARTÍNEZ-RUEDA, N., GALLASTEGI, A. & YÁÑIZ, C. (2012). *Evaluación y medición de competencias profesionales básicas en las Empresas de Inserción*. Bilbao: Gizatea.
- MARTÍNEZ-RUEDA, N. & ALVAREZ DE EULATE, L. (2014). “Mejorando los procesos de acompañamiento en las Empresas de Inserción: una experiencia de colaboración entre Gizatea y la Universidad de Deusto”, *Lan Harremanak Revista de Relaciones Laborales*, 29(2), 236-244. Hemendik berreskuratua: https://www.ehu.eus/ojs/index.php/Lan_Harremanak/article/view/12037
- MARTÍNEZ-RUEDA, N.; GALARRETA LASA, J. & ARÓSTEGUI BARANDICA, I. (2018). Empleabilidad y empresas de inserción: modelo de prestaciones y apoyos. *Zerbitzuan*, (67) 79-93. <https://doi.org/10.5569/1134-7147.67.06>
- 49/2010 ERREGE DEKRETUA, urtarrilaren 22koa, Lan eta Immigrazio Ministerioko Laneratzeko Enpresen Administrazio Erregistroa sortzen duena, *Estatuko Aldizkari Ofiziala* (29), 2010/02/03, <https://www.boe.es/boe/dias/2010/02/03/pdfs/BOE-A-2010-1660.pdf>
- RETOLAZA AVALOS, J. L., RUIZ ROQUEÑI, M., ARAUJO DE LA MATA, A. & MUGARRA ELORRIAGA, A. (2008). Eficiencia en las empresas de inserción y apoyo público, en *Zerbitzuan, Revista de Servicios Sociales*, (44) 39-54. Hemendik berreskuratua: <http://www.zerbitzuan.net/documentos/zerbitzuan/Eficiencia%20en%20empresas%20de%20insercion.pdf>

- RETOLAZA ÁVALOS, J. L., SAN JOSÉ, L. & TORRES PRUÑONOSA, J. (2013). Las empresas de inserción en España: ¿una oportunidad perdida? *Gezki* (10) 97-123. Hemendik berreskuratua: <http://www.ehu.es/ojs/index.php/Gezki/article/viewFile/12751/12730>
- RUIZ ROQUEÑI, M., RETOLAZA AVALOS, J. L. & MUGARRA ELORRIAGA, A. (2007) Cláusulas sociales y mercados tutelados: herramientas para la competitividad de las empresas de inserción, en *CIRIEC-España. Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, (59) 123-151. Hemendik berreskuratua: <https://core.ac.uk/download/pdf/7071341.pdf>
- VECIANA, P., FONTANELLA, M. & SIMÓN, H. (2007). *Las empresas de inserción en España*. Barcelona: Fundació Un Sol Món-Obra social Caixa Catalunya. Hemendik berreskuratua: http://sid.usal.es/idocs/F8/FDO19719/empresesin_cas.pdf

Arrantzaleen kofradiak Euskal Autonomia Erkidegoan: kontakizuna

Francisco Javier Arrieta Idiakez

Gonzalo Martínez Etxeberria

Josune López Rodríguez

Instituto de Estudios Cooperativos (Institute of Cooperative Studies) (IEC)
Deusto University

6.1. SARRERA

Definizioa

Arrantzaleen kofradiak legez eta doktrina zientifikoaren arabera definitzen dira.

Lege-definizioekin hasita, Estatuko Itsas Arrantzari buruzko Legearen arabera (martxoaren 26ko 3/2001 Legea): “Zuzenbide publikoko korporazioak dira, irabazi-asmorik gabekoak, interes ekonomikoak ordezkatzeko dituztenak, eta itsas arrantzaren eta arrantza-sektorearen antolamenduaren arloan eskumena duten administrazioen kontsulta- eta lankidetzako organo gisa jarduten dute” (45.1 artikulua). Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, Arrantzaleen kofradiei buruzko Legearen arabera (ekainaren 25eko 16/1998 Legea): “Zuzenbide publikoko korporazioak dira, nortasun juridikoa dutenak, eta —beren xedeak betetzeko— jarduteko gaitasuna dutenak. Kofradiak legez eratzen dira, arrantza sektoreak parte hartzeko eta elkarlanean aritzeko modua eduki dezan herri administrazioekiko harremanetan, zertarako eta arrantzaren, itsaski bilketaren eta akuikulturaren interes orokorra defendatzeko eta arrantzako produktuen antolamendu eta merkaturatze egokia defendatzeko” (1. artikulua).

CEPESek, bestalde, Gizarte Ekonomiaren printzipioetara askoz hobeto egokitzen den definizioa eskaintzen du; izan ere, bere iritziz arrantzaleen kofradiak “zuzenbide publikoko korporazio sektorialak dira, irabazi-asmorik gabekoak, arrantza-ontzien armadoreen eta erauzketa-sektoreko

langileen interes ekonomikoak ordezkatzeko dituztenak, itsas arrantzaren eta arrantza-sektorearen antolamenduaren arloan eskumena duten administrazioen kontsulta- eta lankidetzako organo gisa jarduten dutenak, eta garatzen duten kudeaketak beren bazkideen premiak eta interesak asetzeko du xede, tokiko garapenari, gizarte-kohesioari eta jasangarritasunari laguntzeko konpromisoarekin”¹.

Jatorriak

Definizio horiek ondare historiko garrantzitsu baten emaitza dira. Horrela, bada, Euskal Autonomia Erkidegoko arrantzaleen kofradien jatorria “Behe Erdi Aroan agertoki kontinentalean hedatzen den korrante korporatibistaren barruan” kokatu behar da (ERKOREKA, 1991, 32. or.). Zehazkiago, kofradiak Kantauriko kostalde osoan XIV. mendearen bigarren erdialdetik aurrera ezin hobeto antolatutako erakundeak zirela esan dezakegu (ARRIETA, 2007, 34. or.).

Lehen fase batean, “herri bereko arrantzale profesional guztien bilerak” besterik ez ziren izan; “santu baten izenpeko egiten ziren, eta beren patroiz izendatzen zuten, erlijio-eginbeharrak gauzatzeko” (LLEDÓ, 1943, 130. or.). Ondoren, bigarren fase batean, lanbide- edo gremio-elkarte gisako kofradia sortu zen (RUMEU, 1944, 30., 55.-56. or.). Orduan ikus daiteke erakunde horren benetako izaera juridikoa. Izan ere, kofradiak beren ordenantzen bidez hasi ziren itsasoko eta arrantzako jarduerara arautzen, alderdi guztietan, lehen faseko erlijio eta ongintzako helburuak barne. Arrazoi osoz esan izan da “erakunde horietan arlo espiritualak ezin hobeto senidetzen zela arlo materialarekin, sozialarekin eta ekonomikoarekin” (LLEDÓ, 1943, 130. or.).

Antolaketa horren garrantzia begien bistakoa da iraultza industrialak iritsi ondoren ere irauten duela ikusten badugu, gremioek behera egiten dutenean. Horrela, XIX. eta XX. mendeetan, “itxura instituzional desberdinen pean, kofradiak kostaldeko eremu baten ustiapen ekonomikoa modu kolektiboan ziurtatzeko sistema bat ekarri zuten” (FRANQUESA, 2005, 4. or.).

Zuzenbide publikoko korporazioak

Zuzenbide publikoko korporazioaren izaera, hain zuzen ere, garai bakoitzeko gorabeheren arabera instituzionalki egokitzen joateko izan duten gaitasun berezi horren ondorio da. Zehazki, frankismora jo behar da arrantzaleen kofradiak lehen aldiz zuzenbide publikoko korporazio gisa

¹ https://www.cepes.es/social/entidades_cofradias_pescadores (azken kontsulta: 2019ko otsailaren 24a).

identifikatzeko. Trantsizioan, 31/1977 Errege Lege Dekretuak oinarriak ezartzen ditu, modu berrituan bada ere, kofradiei izaera bera ematen jarraitzeko. Eta xedapen horretan oinarrituta, arrantzaleen kofradiak arautzeaz arduratu diren estatuko eta autonomia-erkidegoetako arauak kalifikazio horri eutsi diote. Baina, zer dakar halakotzat hartzeak eta zernolako garrantzi juridikoa du? Horri dagokionez, ohar hauek egin daitezke (REBOLLO ET AL., 1996, 29.-38. OR.).

- Arrantzaleen kofradiak korporazioak izateak esan nahi du kofradia horiek osatzen dituzten pertsonak direla haien funtsezko elementua, eta pertsona horien borondatea dela korporazioarena osatu behar duena. Horregatik egituratzen dira barnean, goi-mailako organoetan taldearen ordezkagarritasuna bermatzen duten tekniken arabera.
- Korporazio sektorialak dira, osatzen dituzten pertsona guztiak arrantzarekiko harreman profesionala bereizgarri duen giza talde batekoak direlako.
- Zuzenbide publikoko korporazioak dira, botere publikoak sortu dituelako helburu jakin batzuetarako, eta horiexek dira artatu behar dituztenak. Ezaugarri horrek lotura berezia du administrazio publikoarekin, baina zehaztu behar da botere publikoen eragina askoz txikiagoa dela arrantzaleen kofradietan antzeko beste korporazioetan baino, eta, orobat, administrazio-jarduera gutxiago egiten dituztela. Egia esan, badirudi justifikatuta dagoela zuzenbide publikoko korporazio gisa mantentzea, arrantza-politikan inplikaturako helburu publikoak lortzeko beharrezkoak izaten jarraitzen baitute. Hau da, talde jakin bati interesatzen zaion baina gizarte-garrantzi orokorra duen jarduera pribatu bat hartzen da kontuan. Hain zuzen ere, jarduera horren garapen egokia bermatzeko ematen zaie arrantzaleen kofradiei zuzenbide publikoko korporazioaren izaera. Administrazioa, bestalde, zaintza-lana egitera mugatzen da.

Azken buruan, adierazi da zuzenbide publikoko korporazio sektorialak “oinarri eta helburu pribatuko erakundeak direla, baina dimentsio publikoak, interes publikoarekin duten lotura dela eta” (PANIAGUA, 2011, 215. or.). Zehazki, interes publikoarekiko loturaren ondorio den dimentsio publiko hori arestian adierazi den ideian islatzen da. Izan ere, Arrantzaleen kofradiei buruzko Legearen (ekainaren 25eko 16/1998 Legea) 1. artikulua arabera, «kofradiak legez eratzen dira, arrantza sektoreak parte hartzeko eta elkarlanean aritzeko modua eduki dezan herri administrazioekiko harremanetan, zertarako eta arrantzaren, itsaski bilketaren eta akuikulturaren interes orokorra defendatzeko eta arrantzako

produktuen antolamendu eta merkaturatze egokia defendatzeko». Gainera, defentsa hori tokiko garapenaren aldeko konpromisoarekin erlazionatzen dela uler daiteke.

Ildo horretan, arrantzaleen kofradien estatutuek berek ezartzen dutenez, kofradiek “administrazioaren kontsulta-organo gisa jarduten dute, arrantzaren interes orokorreko gaiei dagozkien arauak prestatzen, aplikatzen eta lantzen, baita administrazioarekiko lankidetzako-organo gisa jardun ere, arrantzaren, itsaski-bilketaren eta akuikulturaren erauzketa-industria eta horien merkaturatzea garatzeko eta hobetzeko ekintzen edo erreformen alorrean, betiere sektorearen interes komunari begira” (ikus Armintzako, Bermeoko, Lekeitioko, Zierbenako eta Santurtziko arrantzaleen kofradien estatutuak).

67. ilustrazioa. Arrantzaleen kofradien helburuak

- *Herri administrazioekiko elkarlanerako eta kontsultarako erakunde izatea, hala arrantza jardunari nola arrantza, itsaski bilketa eta akuikulturako produktuak merkaturatzeari dagokienez.*
- *Lege xedapenei, neurri egiturazko eta sozioekonomikoei, jarduera planei eta arrantzako produktuen merkaturatzea arautu eta antolatzeari buruzko txostena eta proposamenak egitea eta Administrazioari igortzea.*
- *Herri administrazioek —arrantza profesionalean eragina duten gaietan— eskuordeturiko eginkizunak betetzea, zeinek bere lurralde eremuaren barruan.*
- *Arrantzako produktuak legez ezarritako arauekin bat etorritik lehorreratu eta saltzeko behar diren neurriak hartzea.*
- *Harrapatu eta saldutako kopuruei buruzko estatistikak egin eta aurkeztea, arrantza arloan eskuduna den Sailaren jarraibideen arabera.*
- *Itsasontzien eta eskifaiako kideen segurtasuna zaintzea.*
- *Administrazio- eta aholkularitza-zerbitzua ematea Gizarte Segurantzarekin eta prestazio osagarriekin lotutako eragiketa guztietan.*

Iturria: Armintzako, Bermeoko, Lekeitioko, Orioko, Zierbenako, Santurtziko, Donostiako, Getariako, Hondarribiko eta Pasaiaiko arrantzaleen kofradien estatutuak

Autonomia-printzipioa

Hori guztia oinarri hartuta, doktrina zientifikoak honako hau baieztatzen du: “administrazioaren tutoretzak ez du eraginik jarduera ekonomikoan eta enpresa-jardueran, edo ez, behintzat, merkatuari zuzendutako eta beste operadore batzuekin (handizkariak, sukaldariak eta abar) hitzartutako kofradia-akordio autonomoak hartzea eragozteko” (PAZ

CANALEJO, 2012, 136. or.). Hau da, arrantzaleen kofradiak, zuzenbide publikoko korporazioak izan arren, eta, beraz, juridikoki administrazio publikoen mendekoak izan arren, askatasuna dute sektorearen interesen defentsan lan egiteko (CERVERA, 2010, 23. or.).

Hain zuzen ere, Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 11ko 89/1989 Epaiak garbi uzten du zuzenbide publikoko korporazioak ez direla administrazioan integratzen, eta ezin direla erakunde publiko deszentralizatutzat jo, hargatik eragotzi gabe helburu pribatuekin batera helburu publikoak ere betetzea (4. arrazoibide juridikoa). Bestalde, Konstituzio Auzitegiaren uztailaren 18ko 132/1989 Epaiak azpimarratzen du helburu publiko horiek betetzeko administrazioekiko lankidetzaren behar dela, eta berriz ere nabarmentzen du horrek ez duela esan nahi administrazio horietan integratzen direnik (6. arrazoibide juridikoa). Eta ildo beretik jotzen du Konstituzio Auzitegiaren uztailaren 20ko 139/1989 Epaiak ere (2. arrazoibide juridikoa).

Ondorioztatu behar da, horrenbestez, arrantzaleen kofradiak zuzenbide publikoko korporazioak hartzeak ez duela eragotzen gizarte-ekonomiako erakundetzat hartzeko aukera. Izan ere, ñabardura horiek egin ezean, pentsa liteke arrantzaleen kofradiak aurkezten duten zuzenbide publikoko korporazioaren izaerak berez eragotzen duela Gizarte Ekonomiari buruzko Legearen (martxoaren 29ko 5/2011 Legea) 4. artikuluan jasotzen diren gizarte-ekonomiaren printzipio orientatzaileetako bat betetzea, hau da, “botere publikoekiko independentziari” buruzkoa. Hain zuzen ere, egindako ñabardurekin bat etorriz, Arrantzaleen kofradiei buruzko Legeak berak (ekainaren 25eko 16/1998 Legea) honako hau ezartzen du: “Kofradiak autonomia izango dute beren interes eta baliabide propioak kudeatzeko, eta kofradien jarduna Zuzenbide pribatuaren menpean egongo da. Hori guztia gorabehera, Zuzenbide publikoak arautuko ditu kofradien eraketa, antolamendu eta hauteskunde prozedurarekin zerikusia duten egintzak, baita Zuzenbide publikoko korporazioa izatearen ondorioz egiten diren egintza administratiboak ere” (2.2 artikulua)².

Ildo horretan, gogoan izan behar da arrantzaleen kofradien eginkizuna dela «beren ondasun eta eskubideak eta edozein tituluren bidez eskuratzen dituztenak kudeatu eta administratzea» (4.k artikulua). Hala, arrantzaleen kofradien estatutuek ere berariaz aipatzen dituzte haien autonomia funtzionala eta ekonomikoa (ikusi Armintzako, Bermeoko, Donostiako, Lekeitioko, Getariako, Hondarribiko, Pasaiako, Zierbenako eta Santurtziko arrantzaleen kofradien estatutuak), edo “beren ekintza-eremuaren barruko autonomia osoa” (ikusi Orioko Arrantzaleen Kofradiaren Estatutuak).

² Ildo beretik jotzen dute berariaz Orioko Arrantzaleen Kofradiaren Estatutuek.

Adierazitako guztia dela eta, arrantzaleen kofradiek «botere publikoekiko independentziari» buruzko printzipioa agian bete ez izana alde batera utzita, badirudi, lehen batean, gizarte-ekonomiako erakundetzat jo litezkeela, Gizarte Ekonomiari buruzko Legearen (martxoaren 29ko 5/2011 Legea) 5.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Lehen batean diogu, zeren arau horren 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, kalifikazio hori bidezkoa ez dela frogatzeko aukera egongo bailitzateke. Horregatik, hurrengo atalean, bidezkoa da jakitea ea, praktikan, arrantzaleen kofradiek 4. artikuluan jasotako gainerako printzipio orientatzaileak betetzen dituzten. Gainera, 2. eta 5. artikuluen uztarduraren arabera, kofradiek, gizarte-ekonomiako gainerako erakundeek bezala, beste bi baldintza bete behar dituzte: alde batetik, jarduera ekonomikoa garatzea, eta, bestetik, bai kideen interes kolektiboa, bai interes ekonomiko eta sozial orokorra, edo biak asebetetzea (ARRIETA, 2014, 40. or.).

Azken batean, praktikan arrantzaleen kofradiek printzipio eta baldintza horiek guztiak betetzen dituztela egiaztatzearen emaitza izango da arrantzaleen kofradiei sostengu publikoa ematea justifikatuko duena, gizarte-ekonomiako benetako erakundeak diren aldetik, *nomen iuris* alde batera utzita. Hau da, modu egokian baino ezin da neurtu Euskal Autonomia Erkidegoan dauden arrantzaleen hamaika kofradien³ inpaktu sozioekonomikoa, datuez harago. Izan ere, kofradia horiek 2019ko abenduaren 31n 35 pertsonari ematen zieten enplegua, 315 kofrade edo langile elkartu zituzten, eta 62 itsasontzi, eta 17.247 tonako guztizko ekoizpen-bolumen merkaturatua lortu zuten, hots, 26.352.560 euroren zenbateko baliokidea lehen salmentan (Eusko Jaurlaritzari entregatutako 2019ko Ekoizpen eta Merkaturatze Planari buruzko txostena).

Baina arrantzaleen kofradiek aipatutako eskakizunak betetzen ote dituzten aztertzen hasi aurretik, komeni da ikustea doktrina zientifikoak haien ezaugarri edo elementu batzuk nabarmentzen zituela, gizarte-ekonomiak berezkoak dituenak, gizarte-ekonomiako erakunde gisa konfiguratu baino askoz lehenago ere.

Hala, FRANQUESAK (2005, 5.-6. or.) honako eginkizun hauek nabarmentzen ditu, besteak beste: beren eremu geografikoan lanean ari diren arrantzale guztiak hartzen dituzte barnean; erakundeak egitura demokratikoa du, bi ordezkari-talde hartzen dituena: jabeak eta marinelak. Talde bakoitzak kide kopuru bera aukeratzen du kidego exekutiboetarako; nahitaezkoa da bere kideentzat kofradiaren enkantean saltzea; ezin dituzte etekinak metatu eta soberakinak azpiegiturak

³ Zierbenako, Santurtziko, Armintzako, Bermeoko, Lekeitioko, Ondarroako, Hondarribiko, Pasaia, Donostiako, Orioko eta Getariako arrantzaleen kofradiak.

hobetzera bideratzen dira (normalean arrantzaleen kofradiek itsasontzi, aparailu, izotz eta abarretarako ekipamendua duten dendetatik hornitzen dira), edo kideen artean birbanatzen ditu (adibidez, pentsio gehigarriak erretiratutako kideentzat edo alargunentzat, jai erritualak eta abar); Europako Batzordeak, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Industriako Sailak ezarritako lege-esparruaren barruan, arau gehigarriak ezar ditzakete: arrantza-denbora kontrolatzea, eremuan arrantza-aparailu jakin batzuk onartzea edo debekatzea, erreserbak edo debekualdiak ezartzea, eta abar.

CERVERA PAZEK (2010, 18.-28. or.), bere aldetik, azterketa enpiriko bat egin ondoren, ondorioztatu du arrantzaleen kofradiak, zuzenbide publikoko korporazioak izan ala ez, gainerako ezaugarriengatik gizarte-ekonomiaren esparruan koka daitezkeela. Zehazki, bere azterketan honako emaitza hauek azpimarra daitezke:

- Borondatezko elkarteak dira afiliazioari dagokionez, eta ez dago arrazoi sozial, politiko, erlijioso edo sexukoetan oinarritutako diskriminaziorik.
- Helburu berberak dituzten eta antzeko ekoizpen-jardueretan aritzen diren gizabanakoak biltzen dituzte, autolaguntza praktikatzeko asmoz, eta, horrela, arrantza-sektoreko mugimendu asoziazionistari esker bakarrik lor daitezkeen onurak lortzeko.
- Zintotasunaren, gardentasunaren, erantzukizunaren eta gizarte-bokazioaren balioetan inspiratutako oinarri etikoa dute.
- Kudeaketa demokratikorako mekanismoak edo erabaki-mekanismo demokratikoak erabiltzen dituzte. Kofradeak dira beren ordezkariak sufragio bidez erabakitzen dituztenak. Hartara, boterea kapitalaren esku egotetik lanaren esku egotera igarotzen da. Armadoreak (kapitala edo enpresaburua, nahiz eta askotan beren ontzietako langileak ere izan), patroiak (aldi berean armadoreak izan daitezke) eta marinela (edo langileak adiera hertsian esanda) kofradietan elkartuta daudenez, boterea haien artean banatzen da ordezkari-mekanismo proportzionalen bidez, eta beti eskatzen da bi aldeak bertan egotea, eta bat ere ez bestearen kalterako. Era berean, demokrazia ekonomikoaz hitz egin daiteke, bazkideek definitzen baitituzte arrantzaleen kofradiaren jarduketako ildoak.
- Legez behartuta daude bazkideei informazioa ematera, kudeaketan gardentasuna egon dadin.
- Kokatzen diren komunitateen garapen jasangarria bilatzen dute.
- Ondarea arrantzaleen kofradiarena da, eta ez kofradeena.

6.2. ARRANTZALEEN KOFRADIA GIZARTE-EKONOMIAREN PARTE GISA

Pertsonen zentraltasuna arrantzaleen kofradietan

Pertsonen zentraltasuna, arrantzaleen kofradien ezaugarri gisa, hasiera batean, “irabazi-asmorik gabeko” erakundearen izaerarekin lotzen da, horrekin “justizia sortutako aberastasunaren banaketan edo ekitatea” aipatzen dela uste baita (MORENO RUIZ, 2000, 59. or.). Ezaugarri hori Arrantzaleen kofradiei buruzko Legean (ekainaren 25eko 16/1998 Legea) jasotzen ez bada ere, Estatuko Itsas Arrantzari buruzko Legeak (martxoaren 26ko 3/2001 Legea)⁴ eta CEPESek emandako definizioen parte da. Estatutuen artean, bestalde, Donostiako Arrantzaleen Kofradiako Estatutuek bakarrik aipatzen dute ezaugarri hori (cfr. 3., 4., 32. eta 33. artikulua). Ildo horretan, gainera, honako ñabardura hauek egiten dira:

- a) “Kofradeen kuotek kofradiaren gastuei eta haren helburuak betetzeko gastuei eusteko behar den zenbatekoa baino ez dute hartu beharko” (3. artikulua).
- b) “Baldin eta [ekitaldi ekonomikoan] soberakinen bat edo superabiten bat badago, hurrengo ekitaldiko funtsei gehituko zaio, kofradeen kuotak eta ekarpenak ahalik eta neurritsuenak izan daitezten une oro, eta hori guztia kontuan harturik kofradia honek ez duela bere diru-sarrerekin inolako irabazi-asmorik; aitzitik, bere kostuen eta gastuen aurrekontuak eta beste zerbitzu osagarri batzuk eta bere gizarte-ekintzak finantzatzeko inbertsioak estaltzea da asmo bakarra” (32. artikulua).

Hain zuzen ere, bigarren ñabardura horretan ikus daitekeen moduan, irabazi-asmorik gabeko erakundea denez, kofradiaren jarduera ekonomikotik lortutako emaitzak haren xede den helburu sozialari aplikatzen zaizkio, eta hori bat dator Gizarte Ekonomiari buruzko Legearen (martxoaren 29ko 5/2011 Legea) 4. artikuluan ezarritako lau printzipio orientatzaileetako bigarrenarekin. Ildo berean, kofradiak desegiten diren kasuetan, Elantxoben, Mundakan eta Mutrikun gertatu den bezala, estatutuek, oro har, aurreikusten dute egon daitekeen kapitalaren gerakina, gauzatu gabe dauden betebeharrak bete ondoren, helburu sozialetarako edo udalerrriaren intereseko edo ongintzako helburuetarako erabili behar dela. Kasu batzuetan, alabaina, gerakinaren xedea Batzar Nagusiaren Osoko Bilkurak erabakitzen duenaren esku uzten da, eta, bereziki, Santurtziko Kofradiaren Estatutuen kasuan, adierazten da lehentasuna izango duela

⁴ cfr. 45.1 artikulua.

bazkideen arteko banaketak, bazkideen antzinatasunarekiko zuzeneko proportzioan. Horrek garbi uzten du, berriz ere, pertsonaren zentraltasuna kapitalaren gainetik dagoela.

Era berean, arrantzaleen kofradien estatutuetan jasotako alderdi askotan antzeman daiteke pertsonen zentraltasuna. Horixe gertatzen da, hain zuzen ere, arrantzaleen kofradien helburu nagusiarekin; izan ere, arrantzan, itsaski-bilketan eta akuikulturaren aritzearen ondoriozko jarduerak areagotu eta garatzen dira, haien errendimendua eta itsasoko langileen ongizate morala eta materiala handitzeko. Egia esan, jarduera horien errendimendua handitzeak kideen interes kolektiboa areagotzen du; azken betekizun hori ezinbestekoa da, lehen esan bezala (*supra* 1), juridikoki gizarte-ekonomiako erakunde baten existentziaz hitz egin ahal izateko, martxoaren 29ko 5/2011 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Eta helburu hori lortzeko ezarritako xedeen artean, pertsonaren zentraltasunari lotutako alderdiak ere jasotzen dira, aipatutako 5/2011 Legean jasotako gizarte-ekonomiaren printzipio orientatzaileetako hirugarrenak aipatzen duen barne-elkartasunaren sustapenaren ikuspegitik, hala nola:

- a) Arrantza- eta merkaturatze-jardueran bazkideen interes orokorrak defendatzea.
- b) Kideentzako prestakuntza-, jolas-, kultura- eta gizarte-jarduerak sustatzea eta garatzea. Interes berezia sortzen du itsasertzeko patroia-entzako titulua lortzeko zubiko erdi-mailako zikloen deialdiaren bitartez egiten ari den prestakuntza-jarduerak. Helburua da ikasketarik gabeko pertsonen erdi-mailako titulazioak eskuratu ahal izatea, eta horrela erakargarriagoa izatea itsasoan lanean jarraitzea. Horretarako, pertsona horiek, beren esperientzia egiaztatze hutsarekin, profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko aukera ematen dieten irakasgai batzuk baliozkotzea lortzen dute. Horrek esan nahi du DBHren baliokidea lortzea, erdi-mailako ikasketak —hala nola makinista edo aipatu dugun itsasertzeko patroia— egiteko sarbide-proba gisa.
- c) Ahal den neurrian, arrantzaleen eta haien familien aldeko laguntza-ekintza areagotzen eta osatzen saiatzea, adineko arrantzalea edo baliaezintasuna duena hobetzeko behar den guztia adostuz. Alde horretatik, kofradia batzuetan, ekitaldi ekonomikoaren amaieran etekinak badaude, etekin horien zati bat erretiratutako kofradeei bideratzeko ohitura dago. Eta beste horrenbeste gertatu da, historikoki, osasun-aseguru pribatuaren kuoten ordainketarekin (adibidez, IMQ). Estatutuei dagokienez, aipatzekoa da Donostiako Kofradiaren Estatutuetan jasotzen den aurreikuspena. Horren

arabera, kofradiak bere bazkideei abalak edo fidantzak ematea erabaki dezake kreditu-erakunde ofizialen aurrean, baldin eta abal edo fidantza horiek bazkide interesdunen arrantza-jarduerekin zerikusia duten eragiketei badagozkie (cfr. 36. artikulua).

- d) Lanbide-jardueren eremuaren barruan kofradeen artean planteatutako auziak ebaztea, betiere horien guztien interes komunak badira.
- e) Enpresaburuan eta langileen arteko bizikidetzaz askea eta justua erraztea, interes komunak indartze aldera.
- f) Bazkideek banaka edo taldeka bere eskueran jar ditzaketen arrantza-baliabideak kudeatzea.
- g) Beren ondasun eta eskubideak eta edozein tituluren bidez eskuratzen dituztenak kudeatu eta administratzea.

Era berean, aipatutako barne-elkartasunari lotu behar zaizkio usadio eta ohituretan oinarritutako edo barne-araudietan ezarritako zenbait jardunbide. Usadio eta ohitura horien artean, gaur egun nabarmendu beharra dago, duen garrantziagatik, berdelaren eta antxoaren gehieneko kupoen sistemari aplikatutakoa nabarmendu behar da: ontzi batek dagokion gehieneko kupoa harrapatu duenean, oraindik gehieneko kupoa lortu ez duten ontziei ematen die soberakina. Gainera, neurri horrek arrantzaren zentzuzko erabilera ahalbidetzen du, eta gehiegizko harrapaketak ez dira alferrik galtzen. Bestalde, barne-araudien artean, Gipuzkoako Arrantzaleen Kofradien Federazioan dagoen atoiari buruzkoa nabarmentzen da. Atoi hori hainbat ontzik elkarri emandako laguntzaren adibide ona da, batez ere itsas zabalean matxurak gertatzen diren egoeretan.

Nolanahi ere, ezin da ulertu barne-elkartasun hori arrantzaleen kofradien funtsezko beste ezaugarri bat aipatu gabe: bazkide izateko borondatezko izaera edo ate irekiaren printzipioa. Ezaugarri edo printzipio hori Arrantzaleen kofradiei buruzko Legearen (ekainaren 25eko 16/1998 Legea) 7. artikuluan aintzat hartzen da, eta, era berean, arrantzaleen kofradien estatutuetan ere jasota dago. Kontua da ontzietako armadoreek eta eskifaiako kideek, basea kofradiari dagokion portuan badute, eta profesionalki arrantzan aritzen badira, aukera izatea askatasun osoz kofradiako kide izateko, jarduera horretan aritze hutsagatik eta kofradian sartzeko eskatuta. Ondorioz, Zuzendaritza Batzordeak sarbidea ukatu ahal izango du soilik eskatzaileak kofradiaren estatutuak betetzen ez baditu edo alde zuzenetik bete ez baditu.

Arrantzaleen kofradien izaera demokratikoa

Kofradiako kide gisa onartu ondoren, kofrade edo bazkide guztiek eskubide eta betebeharrak berberak dituzte. Baina, zalantzarik gabe,

berdintasun hori, batez ere, kudeaketa demokratiko eta parte-hartzailean islatzen da, lehentasuna ematen baitio erabakiak pertsonen arabera hartzeari, Gizarte Ekonomiari buruzko Legearen (martxoaren 29ko 5/2011 Legea) 4. artikuluan jasotako gizarte-ekonomiaren lehen printzipio orientatzailean adierazten den bezala.

Izan ere, demokrazia parte-hartzailearen oinarria begien bistan dago Arrantzaleen kofradiei buruzko Legean (ekainaren 25eko 16/1998 Legea), hauxe baitio: “Egoitza portua kofradiaren lurralde eremuan duten ontzien jabeek eta haien menpean dauden lan-kontratupeko langileek osatuko dituzte arrantzaleen kofradiak, baldin eta jarduera profesionaltzat badute arrantza” (6.1 artikulua). Baieztapen horretan, arrantzak lanbide-jarduera gisa eraginpean hartzen dituen bi alderdien interesen defentsa egiten da, antzinako gremioen antolaketa-eskemari jarraikiz. Eta, oinarri horren arabera, demokrazia parte-hartzailea arrantzaleen kofradietako zuzendaritza-organoen osakeran islatzen da.

Hala, aipatutako 16/1998 Legearen arabera, Batzar Nagusia “kide guztien ordezkari organo nagusia eta gainerako artezkaritza organoen kontrolerako organo nagusia da” (17.1 artikulua). Izan ere, «ontzi-jabeen eta haien menpeko lan-kontratupeko langileen ordezkariak osatuko dute, sektore bien ordezkari parekidearen irizpidearen arabera» (17.2 artikulua). “Hala ere, kofradiaren biltzar orokorra kofradiako kide guztiek osaturik egon daiteke, estatutuek horrela xedatuz gero; edonola ere, botoa emateko, parekidea izango da sektore bien ordezkari” (17.2 artikulua, *in fine*), eta halaxe aurreikusten da, adibidez, Donostiako (cfr. 14. artikulua), Getariako (cfr. 12. artikulua) eta Pasaiaiko (cfr. 12. artikulua) arrantzaleen kofradien estatutuetan. Hala ere, ezin da alde batera utzi kofradien estatutuek onartzen dutela Batzar Nagusia kofradiako kide guztiek osatzeko aukera, botoa ematerakoan ordezkari parekidea izatea ezertan galarazi gabe, kasu partikularretan, hala nola kontuak ematean, aurrekontuak onartzean, edo estatutuek nahiz indarrean dauden lege-xedapenek hala eskatzen duten beste edozein kasutan, edo Batzar Nagusiko kideek hala erabakitzen dutenean (adibidez, Armintzako, Bermeoko, Ondarroako, Lekeitioko, Zierbenako eta Santurtziko kofradien estatutuek). Beste kontu bat da Batzar Nagusira gainerako kofrade guztiak joan ahal izatea, hitzarekin baina botorik gabe, Hondarribiko (cfr. 14. artikulua) eta Orioko (cfr. 14. artikulua) arrantzaleen kofradien estatutuetan ezartzen den bezala.

Bestalde, zuzendaritza-batzordea eta lehendakaria Batzar Nagusiko kideen artean hautatzen dira (18.b artikulua). Gainera, “lehendakariak, lehendakariordeak eta biltzar orokorreko zenbait kidek osatuko dute zuzendaritza batzordea. Azken horiek biltzar orokorrak berak aukeratuko ditu, biltzarrean aurreikusitako ordezkari parekidearen irizpide bereberri

jarraituz” (19.2 artikulua), baina ezin da alde batera utzi salbuespen bat dagoela Armintzako Kofradiaren Estatutuen kasuan, zeren lege-agindua hautsi eta aldatu egiten baita irizpide hori eta zuzendaritza-batzordea bost kidek osatzearen alde egiten baita, lehendakaria eta lehendakariordea barne; horietatik lau armadoreak izango dira eta bat eskifaiako kidea, guztiak ere Batzar Nagusia osatzen duten armadoreen eta eskifaiako kideen ordezkariak —eta horien artean— hautatuak.

Era berean, arrantzaleen kofradien kudeaketa gardena da. Alde batetik, Batzar Nagusiak, kofrade guztien ordezkari-organoa gorenaren aldetik, eta egitura parekidea duenez, gai garrantzitsuetan jarduketara gardena gauzatzea ahalbidetzen duten eskumenak dituelako. Horien artean daude, besteak beste: diru-sarreraren eta gastuen aurrekontuak onartzea; kuotak edo derramak onartzea; aurrekontu-ekitaldiko balantzea eta egoera-orri finantzarioak edo ustiapen-kontuak onartzea; edo, kofradiaren memoria, proiektuak eta jarduketara-programak onartzea. Eta, bestetik, estatutuen arabera, kide guztiek dutelako kofradiaren jarduketaren eta funtzionamenduaren eta eraginpean hartzen dituzten gaien berri izateko eskubidea. Eta, alderantziz, estatutuaren arautzen da, halaber, kofradeek isilpekoak ez diren gaien buruzko informazio fidagarria eta arduratsua emateko duten betebeharrak, kofradiak hala eskatzen duenean.

Era berean, kudeaketaren gardentasunaren jardunbide egoki gisa, Orioko Arrantzaleen Kofradiaren Estatutuaren aurreikusitakoa aipa daiteke, kanpoko kontu-auditoretza egiteko betebeharrari dagokionez⁵.

Arrantzaleen kofradien enpresa-dimentsioa

Zalantzarik gabe, arrantzaleen kofradiek, irabazi-asmorik gabeko erakundeak izan arren, jarduera ekonomikoak egiten dituzte, hala nola itsasoko produktuak saltzea, izotza fabrikatzea eta sozietate instrumentalak sortu eta benetan gobernatzea. Hala, kofradien estatutuek, haien xedeak arautzean, zehazkiago aipatzen dute “komenigarritzat jotzen diren interes komuneko zerbitzuak sortzea eta sustatzea, hala nola, arrantza-lanabesen salmentak, ekonomatuak, izozte-instalazioak, izotz-fabrikak, ontzitegiak, arrantza-ontzietan parte hartzea”, “arrantza-produktuak antolatze eta merkaturatzeko sistemak ezartzea”, eta “erauzketa- eta kontserbazio-prozesua teknifikatzeko eta kalitatezko arrantza-produktuak aurkeztu, normalizatu eta merkaturatzeko neurriak har daitezkeen bultzatzea”. Zehazki, itsasoko produktuen salmentari dagokionez, azpimarratu behar da kofradiako kideek nahitaez saldu behar dituztela harrapaketa guztiak kofradiaren enkantean.

⁵ cfr. 46. artikulua.

Aitzitik, arrantzaleen kofradiak ez dute enpresa-jarduera bat zuzenean egikaritzen, ez direlako enpresak, zuzenbide publikoko korporazioak baizik (ARRIETA IDIAKEZ, 2014, 39. or.). Zeharka, ordea, beste erakunde edo enpresa batzuekin elkartzearen bitartez, praktikan egikaritzen dute. Hala, arrantzaleen kofradien estatutuetan berariaz aipatzen da, haien xedeen artean, “Elkartze prozesuak bultzatzea eta lankidetzak komertzialerako hitzarmenak edo lanbide arteko akordioak formalizatzea beste erakunde eta enpresa batzuekin, arrantzaren eraginkortasun eta errentagarritasuna lortzeko eta baita arrantzako produktuak eraldatu eta merkaturatzeko prozesuetan parte handiagoa izateko ere”. Are gehiago, Arrantzaleen kofradiei buruzko Legearen (ekainaren 25eko 16/1998 Legea) zioen adierazpenak berak ere xede hori aipatzen du, eta errealitate sozioekonomikoak ezartzen dituen egokitzapenen eta zeregin berriak ezartzea gomendatzen duten inguruabarren testuinguruan kokatzen du.

Ildo horretan, adibide ona da Matxixako Moluscos SL enpresa, 2015ean Ondarroan sortua, eta, besteak beste, Ondarroako eta Lekeitioko arrantzaleen kofradien, Gipuzkoako Arrantzaleen Kofradien Federazioaren, Azti Fundazioaren eta Arrankoba SL eta Itsaskorda SL enpresen partaidetza duena, Kantauri itsasoan akuikultura-ekoizpeneko (muskuiluak eta ostrak) lehen itsas poligonoa sortzeko asmoz. Azken buruan, hori adibide bat besterik ez da, arrantzaleen kofradiak enplegu-modu berrien nitxo gisa (adibidez, akuikultura, arrain-manipulazioa, turismoa) jardun dezaketela erakusten duena.

Era berean, arrantzaleen kofradien arteko lankidetzak nabarmendu behar da, baita Bizkaiko kofradiak Bizkaiko Arrantzaleen Kofradien Federazioan integratzea eta Gipuzkoako kofradiak Gipuzkoako Arrantzaleen Kofradien Federazioan integratzea ere, haien xedeak hobeto betetzeko.

Eta, azkenik, ez da ahaztu behar arrantzaleen kofradiak finantza-erakundeekin akordioak sustatzen dituztela, arrantza-jarduera garatzean finantza-tresnak ahalik eta hobekien erabiltzeko, eta administrazio publikoekin akordioak formalizatzen dituztela, merkatuak identifikatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza-produktuen propagandarako eta sustapenerako kanpainak egiteko.

Arrantzaleen kofradien komunitatearekiko konpromisoa

Arrantzaleen kofradiak tokiko garapenarekiko konpromisoa erakusten dute; izan ere, lanpostuak sortzeaz gain, jarduera ekonomikoa sustatzen dute eta dagozkien udalerrietara itzultzen diren diru-sarreraren iturri dira.

Gainera, beste erakunde eta enpresa batzuekin lankidetzan jardun eta elkartzeak konpromisoa erakusten du tokiko garapenarekin ez ezik, gizarte-

-kohesioarekin ere. Arrantza-sektorearen egungo gainbeheraren aurrean, garrantzi handia hartzen dute arrantza-jarduera dibertsifikatzera edo osatzera bideratutako ekimenek. Ildo horretan, bereziki nabarmendu behar da Toki Garapenerako Estrategia, 2016ko otsailaren 16an eratutako «Itsas Garapen Elkarte, FLAG»⁶ Arrantza eta Akuikultura Sektorako Toki Ekintzako Taldeak gauzatzen duena. Estrategia horretan Bizkaiko eta Gipuzkoako Arrantzaleen Kofradien Federazioek ere parte hartzen dute, eta Itsasoko eta Arrantzako Europako Funtsetik (IAEF) Euskal Autonomia Erkidegorako datozen arrantza-eremuen garapen jasangarriko laguntza ekonomikoen bidea da.

Tokiko mailan, «Bermeo Atunaren Munduko Hiriburua» elkarte aipatu behar da, 2018ko martxoaren 27an sortua. Elkarte horretako kide dira, Arrantzaleen Kofradiarekin batera, Azti Fundazioa, Bermeoko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Atunontzi Izozteileen Armadoreen Elkarte Nazionala (ANABAC), Atunontzi Izozteile Handien Elkarte (AGAC) eta Zallo SA, Serrats SA, Salica SA eta Gaviota SL enpresak.

Azkenik, ingurumen-jasangarritasunari dagokionez, azpimarratzekoak dira, alde batetik, Bizkaiko eta Gipuzkoako Arrantzaleen Kofradien Federazioek sinatutako Kantauriko Inguraketa Arrantzako Ontzidiaren Arrantzalekuetako Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea eta Helburuak, eta, bestetik, bi federazioek antxo- eta hegaluze-arrantzalekuetarako lortutako MSC ziurtagiria (*Marine Stewardship Council*)⁷.

6.3. ONDORIOAK

— **Arrantzaleen kofradiak, zuzenbide publikoko korporazioak izan arren, botere publikoekiko independenteak dira**

Arrantzaleen kofradiak zuzenbide publikoko korporaziotzat hartzeak ez du eragozten gizarte-ekonomiako erakundetzat hartzeko aukera, gizarte-ekonomiako erakundeen ohikoa den «botere publikoekiko independentziaren» printzipio orientatzailea betetzen da-eta, arrantzaleen kofradiak beren interesak eta baliabide propioak kudeatzeko autonomia baitute, eta beren jarduera trafikiko pribatuari baitagokio.

⁶ Informazio gehiago izateko, ikusi web-orria: <http://www.itsasgarapen.eus/es/>

⁷ *Marine Stewardship Council* (MSC) irabazi-asmorik gabeko nazioarteko erakunde bat da, *itsasoko produktuuen merkatua jasangarritasunerantz eraldatzen* laguntzeko sortua. MSC erakundeak kudeatzen du harrapaketa basatiko arrantzalekuetarako ekoetiketatze-programa bakarra, gizarte- eta ingurumen-estandarrek finkatzeko *ISEAL jardunbide egokien kodearekin* bat datorrena. Gidalerro horiek *FAOren arrantza arduratsurako jokabide-kodean* oinarritzen dira (www.msc.org/es).

— **Arrantzaleen kofradiak beren kideen interes kolektiboa bilatzen dute**

Arrantzaleen kofradien helburu nagusia da arrantzan, itsaski-bilketan eta akuikulturaren aritzearen ondoriozko jarduerak areagotu eta garatzea, haien errendimendua eta itsasoko langileen ongizate morala eta materiala handitzeko. Horrenbestez, jarduera horien errendimendua handitzeak kideen interes kolektiboa areagotzen du.

— **Arrantzaleen kofradiak, ate irekiaren printzipioa betetzeaz gain, demokratikoak, solidarioak eta gardenak dira beren kideei dagokienez**

Arrantzaleen kofradietan sartzea borondatezkoa da eta ate irekiaren printzipioari erantzuten dio. Kontua da ontzietako armadoreek eta eskifaiako kideek, basea kofradiari dagokion portuan badute, eta profesionalki arrantzan aritzen badira, aukera izatea askatasun osoz kofradiako kide izateko, jarduera horretan aritze hutsagatik eta kofradian sartzeko eskatuta. Ildo horretan, kofrade edo bazkide guztiek eskubide eta betebeharrak berberak dituzte. Berdintasun hori, batez ere, arrantzaleen kofradietako zuzendaritza-organoen osieran gauzatzen den kudeaketa demokratiko eta parte-hartzailean islatzen da. Halaber, arrantzaleen kofradiak barne-elkartasuna sustatzen dute hainbat ekintzaren bitartez: arrantza- eta merkaturatze-jardueran bazkideen interes orokorrak defendatzea, prestakuntza-jarduerak, arrantzaleen eta haien familien aldeko laguntza-ekintza, eta usadio eta ohituretan oinarritutako edo barne-araudietan ezarritako zenbait jardunbide. Gainera, arrantzaleen kofradien kudeaketa gardenak da, eta kide guztiek dute informatuak izateko eskubidea.

— **Arrantzaleen kofradiak, irabazi-asmorik gabeko erakundeak izan arren, jarduera ekonomikoak egiten dituzte, eta, zeharka, enpresa-jarduerak ere egikaritzen dituzte**

Kofradiak irabazi-asmorik gabeko erakundeak dira, eta, horregatik, arrantzaleen kofradien jarduera ekonomikotik lortutako emaitzak haien xede den helburu sozialari aplikatzen zaizkio. Irabazi-asmorik gabeko erakundeak izan arren, jarduera ekonomikoak egiten dituzte. Ez dute enpresa-jarduera bat zuzenean egikaritzen, ez direlako enpresak, zuzenbide publikoko korporazioak baizik, baina, zeharka, beste erakunde edo enpresa batzuekin elkartzearen bitartez, praktikan egikaritzen dute. Arrantzaleen kofradiak enplegu-modu berrien nitxo gisa ere (adibidez, akuikultura, arrain-manipulazioa, turismoa) jardun dezakete.

— **Arrantzaleen kofradiak lankidetzan jarduten dute elkarrekin eta beste erakunde pribatu zein publiko batzuekin**

Arrantzaleen kofradiak elkarrekin lankidetzan jarduten dute, eta Bizkaiko kofradiak Bizkaiko Arrantzaleen Kofradien Federazioan integratuta daude eta Gipuzkoako kofradiak Gipuzkoako Arrantzaleen Kofradien Federazioan integratuta, haien xedeak hobeto betetzeko. Era berean,

arrantzaleen kofradiek akordioak sustatzen dituzte finantza-erakundeekin eta akordioak formalizatzen dituzte administrazio publikoekin.

— Arrantzaleen kofradiek tokiko garapena, gizarte-kohesioa eta ingurumen-jasangarritasuna sustatzen dituzte

Arrantzaleen kofradiak tokiko garapenarekin konprometituta daude; izan ere, lanpostuak sortzeaz gain, jarduera ekonomikoa sustatzen dute eta dagozkien udalerrietara itzultzen diren diru-sarreraren iturri dira. Eta beste erakunde eta enpresa batzuekin lankidetzan jardun eta elkartzearen ondorioz, gizarte-kohesioarekin ere konprometituta daude. Era berean, ingurumen-jasangarritasunarekiko konpromisoa dute.

6.4. ERREFERENTZIAK ETA ITURRIAK

- ARRIETA IDIAKEZ, F. J. (2014). Concreción de las entidades de la Economía Social. *REVESCO*, (116) 33-56. https://doi.org/10.5209/rev_REVE.2014.v116.45717
- ARRIETA IDIAKEZ, F. J. (2007). *La Seguridad Social de los trabajadores del mar en el Derecho español*. Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- CERVERA PAZ, A. (2010). Percepción cooperativa de las Cofradías de Pescadores: un estudio empírico. *REVESCO*, (103) 7-32. Hemendik berreskuratua: <https://revistas.ucm.es/index.php/REVE/article/view/REVE1010440007A>
- ERKOREKA GERVASIO, J. I. (1991). *Análisis Histórico-Institucional de las Cofradías de Mareantes del País Vasco*. Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- FRANQUESA I ARTÉS R. (2005). Las Cofradías en España. Papel económico y cambios estructurales. In *Quaderns Blaus*, Universitat de Girona. Càtedra d' Estudis Marítims, QB015.
- 16/1998 LEGEA, ekainaren 25ekoa, Arrantzaleen kofradiei buruzkoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, (129), Gasteiz, Espainia, 1998/07/10, 147206-147221, <https://www.boe.es/boe/dias/2011/12/31/pdfs/BOE-A-2011-20659.pdf>
- 3/2001 LEGEA, martxoaren 26koa, Estatuko Itsas Arrantzari buruzkoa. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, (75), 2001/03/28, <https://www.boe.es/buscar/pdf/2001/BOE-A-2001-6008-consolidado.pdf>
- 5/2011 LEGEA, martxoaren 29koa, Gizarte Ekonomiari buruzkoa. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, (76) 2011/03/30, 33023-33033. <https://www.boe.es/eli/es/l/2011/03/29/5>
- LLEDÓ MARTÍN, J. (1943). *La Pesca Nacional*. Madrid: Ediciones Pegaso.
- MORENO RUÍZ, R. (2000). *Mutualidades, Cooperativas, Seguro y Previsión Social*. Madrid: CES.
- PANIAGUA ZURERA, M. (2011). *Las empresas de la economía social. Más allá del comentario a la Ley 5/2011, de Economía Social*. Barcelona: Marcial Pons.
- PAZ CANALEJO, N. (2012). *Comentario sistemático a la Ley 5/2011, de Economía Social*. Valencia: Tirant lo Blanch.
- REBOLLO PUIG, M., FALCÓN Y TELLA, R. & LÓPEZ BENÍTEZ, M. (1996). *Naturaleza y régimen jurídico de las Cofradías de Pescadores*. Córdoba: Servicio de Publicaciones Universidad de Córdoba.
- RUMEU DE ARMAS, A. (1944). *Historia de la Previsión Social en España*. Madrid: Editorial Revista de Derecho Privado.

Eraldaketarako nekazaritza-sozietateak Euskal Autonomia Erkidegoan: kontakizuna

Aratz Soto Gorrotxategi

*GEZKI (Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua/
Institute of Cooperative Law and Social Economy)
University of the Basque Country UPV/EHU*

7.1. SARRERA

Esan dezakegu eraldaketarako nekazaritza-sozietateak direla ezezagun handiak, bai gizarte-ekonomiaren barruan, bai handik kanpo, gizartean oro har. Horretan, batez ere, bi faktore erabakigarrik dute eragina.

Lehenik, eraldaketarako nekazaritza-sozietateen jarduera lehen sektorean kokatzeak haien ikusgaitasun txikiari laguntzen dio (are gehiago, gizarteak ez ditu batere ezagutzen); izan ere, sektore horretako jarduera ekonomikoek —nekazaritza-sektorekoak barnealdean eta arrantza-sektorekoak kostaldean—, oro har, ez dute ezagumendu handirik, oso pisu kuantitatibo urria baitute lurraldearen jarduera ekonomikoan. Hala ere, garrantzi kualitatibo ukaezina eta ikaragarria dute naturarekiko, ingurumenarekiko eta elikadura-burujabetzarekiko harremanari dagokionez.


Bigarrenik, nekazaritza-kooperatiben figuraren existentziak zuzeneko eragina du ezjakintasun horretan; izan ere, bi figura juridikoak aukera baliodunak dira landa-eremuko asoziazionismoa helburu ekonomiko-sozialekin ahalbidetzeko. Horrek, alde batetik, dauden / sortu diren eraldaketarako nekazaritza-sozietateen kopurua mugatzen du, eta, bestetik, landa-eremuko esperientzia asoziatibo horien ezagutza eta identifikazioa ezkututzen du.

68. ilustrazioa. EAEko eraldaketarako nekazaritza-sozietateen makromagnitude nagusien bilakaera

SAT	2010	2012	2014	2016
Entidades	103	97	87	79
Empleo	104	248	239	170
VAB	1.728.935	5.312.731	8.023.843	7.097.322

Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Eusko Jaurlaritza

69. ilustrazioa. EAEko eraldaketarako nekazaritza-sozietateetako enpleguaren bilakaera



Iturria: Gizarte Ekonomiaren Estatistika, Eusko Jaurlaritza

Definizioa

Eguno legeriari jarraituz, eraldaketarako nekazaritza-sozietateak honela definitzen dira: “helburu ekonomiko-soziala duten sozietate zibilak, nekazaritzako, abeltzaintzako edo basogintzako produktuak ekoitzi, eraldatu eta merkaturatzeko, landa-ingurunean hobekuntzak egiteko, nekazaritza-sustapena eta -garapena egiteko eta helburu horretarako balio duten zerbitzu komunak emateko” (1776/1981 Errege Dekretua).

Hau da, izaera sozio-ekonomikoko sozietateak dira, pertsona batzuek elkartzeko borondatearen bidez sortuak, eta kolektiboki lehen sektorean jarduten dute, pertsona horien helburu partikularrak lortzea eta komunitatearen interesa bateratuz, zehazkiago, landa-ingurunearena.

Aipatu behar da mota horretako sozietateei buruzko legeria laxoaren ondorioz (eraldaketarako nekazaritza-sozietateei buruzko Errege Dekretuak 14 artikulua besterik ez ditu, eta estatutu bidez arautzeko alderdi asko uzten ditu) mota eta tamaina askotako eraldaketarako nekazaritza-sozietateak daudela, lur batzuen ustiapen komunerako eratzten diren familia-sozietate txikietatik hasi eta ehunka pertsona biltzen dituzten eta horien guztien uzta eraldatzen aritzen diren eraldaketarako nekazaritza-sozietateetara iritsi arte, bi adibide besterik ez ematearren.

Aurrekariak

Nahiz eta eraldaketarako nekazaritza-sozietateen onarpen formala eta legezkoa nahiko berria izan (erregelamendua 1987koa da), haien berehalako jatorriak gerraoste zibilaren garaikoak dira, frankismoaren garaian Nekazaritza Kolonizatze Talde Sindikalak¹ agertu zirenekoak. Talde horiek garai hartako ekoizpen- eta hornidura-arazoei aurre egiteko sortu ziren, nekazariak elkarri laguntzeko asmoz (ROMAN, 2008), eta nekazarien eta Estatuaren arteko bitarteko erakunde gisa eratu ziren, sektoreko jarduera ekonomikoa gauatzeko baldintzak hobetzeko azken helburuarekin (VARGAS, 2012).

Garai urrunagoetara ere joan gaitezke; izan ere —jakina da—, euskal mundu landatarreko asoziazionismoa eta elkarrekiko laguntza oso garrantzitsuak izan ziren landa-eremuko bizimodua arautzeko orduan. Artzaintza-lanetan lankidetzan aritzeko ohiturek eta tradizioek, hala nola larreen erabilera komunitarioak edo kontzejuen edo auzo-komunitateko beste erakunde batzuen garrantziak (haien egiturak, batzarrak eta karguak), edo komunitatearen bizitza orokorrari eragiten dioten beharrak betetzeko nahitaezko auzolanak erakusten dute egitate kooperatiboak/asoziatiboak kapitalismoaren aurreko garaietan zuen tradizioa eta garrantzia.

Nahiz eta ezin den lotura zuzena eta zalantzarik gabea ezarri —ezta gutxiagorik ere— esperientzia horien eta eraldaketarako nekazaritza-sozietateen edo beste erakunde batzuen —gaur egun ulertzen ditugun bezala— ‘oraintsuko’ agerpenaren artean, esan dezakegu tradizio horiek eta beste batzuek oraindik eragina dutela euskal subkontzientean, eta landa-asoziazionismoaren idiosinkrasia ulertzen laguntzen duten faktoreetako bat direla.

¹ Talde horiek erregulatu zituen araua “Tokiko intereseko kolonizazioari buruzko Legea” izan zen, 1940. urtean.

Egungo dimentsioa

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2019. urtearen hasieran, eraldaketarako 92 nekazaritza-sozietate zeuden guztira. Lehen esan bezala, sozietate horien pisu kuantitatiboa ez da oso esanguratsua biltzen duten enpleguari dagokionez (euskal gizarte-ekonomiako enpleguaren % 0,2 hartzen dute), baina gutxienez bi faktore hartu behar dira kontuan. Lehenik, aipatu dugun bezala, nekazaritzako elikagaien kooperatibak asoziazionismoaren eta elkarrekiko laguntzaren baliozko beste formula bat direnez, esperientzia asoziatiboak eta izaera sozialekoak bi sozietate-formen artean ‘banatzen’ dira. Bigarrenik, eraldaketarako nekazaritza-sozietateen guztizko kopuruak nabarmen egin du behera 1980ko hamarkadan gailendu zenetik (-% 19), baina nekazaritzako elikagaien kooperatiben eta eraldaketarako nekazaritza-sozietateen arteko bateragarritasunari buruz aipatutakoa kontuan harturik, ikus daiteke erakunde horietako gehienek biziraupen handia dutela.

Zenbait eraldaketarako nekazaritza-sozietate elkartu edo elkarrekin batu daitezke eraldaketarako nekazaritza-sozietateen elkarte bat eratzeko. Elkarte horrek nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasuna ditu, baina Euskal Autonomia Erkidegoan ez dago eraldaketarako nekazaritza-sozietateak ordezkatzeko dituen federazioirik edo sareririk.

7.2. ERALDAKETARAKO NEKAZARITZA-SOZIETATEA GIZARTE-EKONOMIAREN PARTE GISA

Sozietate horiek komun dituzten eta gizarte-ekonomiako gainerako familiekin partekatzen dituzten puntu nagusietako bi pertsonen nagusitasuna eta kideen interesen eta interes orokorraren arteko konbinazioa dira, landa-sektoreko asoziazionismoaren forma espezifikoarekin. Gizarte-ekonomiako familia gehienekin partekatzen dute, halaber, sozietatea profesionalek eratzea (gure kasuan, landa-inguruneko pertsonak), hainbat zerbitzu komun lortzeko, hala nola hornidurak, merkaturatzea edo ustiapena, eta, beraz, jarduera ekonomiko bat garatzen dute. Erakundeen izaera demokratikoari edo landa-ingurunearen jasangarritasunarekin duten inplikazioari eta konpromisoari lotutako alderdiek ere gizarte-ekonomiaren familia handi eta askotarikoan kokatzen dituzte.

Pertsonen zentraltasuna eraldaketarako nekazaritza-sozietateetan

Eraldaketarako nekazaritza-sozietateek jarduera ekonomikoaren erdigunean jartzen dute pertsona, azken helburua izanik, eta ez kapitalarentzako erabilgarritasun edo errentagarritasun hutsa lortzeko

bitartekoa; izan ere, nekazaritza-ustiategien titularrak eta nekazaritzako langileak erakundean aktiboki parte hartzeko elkartzen dira, guztien onura lortzeko. Pertsonen batasun batek osatzen du eraldaketarako nekazaritza-sozietatea, eta haien beharrak asetzea da helburua.

Hau da, elkarrekiko interesa duten forma asoziatiboak dira, eta haien existentzia-logika horretarako elkartzen diren pertsonen eskariak edo beharrak asetzean datza.

Eraldaketarako nekazaritza-sozietateen izaera demokratikoa

Pertsonak eta helburu sozialak kapitalaren aurrean duten nagusitasuna eraldaketarako nekazaritza-sozietatearen kudeaketa demokratikoaren bidez adierazten da Batzar Nagusian, hori baita erabakitze organo gorena. Egia da, nolana ere, sozietatearen estatutuek boto plurala ezarri ahal izango dutela bazkideentzako betebeharrak ekonomikoak dakartzaten erabakiak hartzeko.

Eraldaketarako nekazaritza-sozietatea sortzeko gutxienez hiru bazkide behar dira (nekazaritza-ustiategien titularrak edo nekazaritza-langileak izan daitezke, alde batetik, edo nekazaritza-helburuak dituzten pertsona juridikoak; baina azken horiek ezin izango dute inola ere eduki lehen bazkide motak duena baino kapital sozial handiagoa), eta kapitalari egindako ekarpenek ezin izango dute kapital osoaren herena gaingitu. Beraz, mugak ezartzen zaizkio aurrez aipatutako boto pluralaren botereari.

Bestalde, eraldaketarako nekazaritza-sozietateek kudeaketaren inguruko gardentasuna dute bereizgarri; izan ere, bazkide guztiek eskubide bera dute eraldaketarako nekazaritza-sozietatearen alderdiei buruzko informazioa eta gardentasuna izateko, eta horrek indartu egiten du pertsona guztien parte-hartze erreala, aktiboa eta kontzientea.

Azkenik, sozietate horien botere publikoekiko independentzia aipatu behar da, administrazio publikoen injerentziak saihesteko beste ezaugarri garrantzitsu bat da-eta.

Eraldaketarako nekazaritza-sozietateen enpresa-dimentsioa

Sarreran adierazi den moduan, hainbat pertsona elkartzeko helburua ekonomikoa da nagusiki, baina ez da nahitaez eksklusiboa. Bestela esanda, ekarpen ekonomiko eztabaida ezina dute, batez ere lehen sektoreak euskal ekonomian duen garrantziak behera egin duen testuinguruan.

Gainera, bazkideen eta/edo, oro har, komunitatearen helburu soziala betetzera bideratutako erakundeak izateak eta enpresa kapitalistak baino

demokratikoagoak izateak eragina du enpresa-jardunbideen ezarpenean. Jardunbide horiek enpresa-kultura bat osatzen dute, eta proiektu kolektiboaren epe luzerako jasangarritasuna lehenesten dute interes laburragoen edo koiunturalagoen aurretik.

Eraldaketarako nekazaritza-sozietateen komunitatearekiko konpromisoa

Eraldaketarako nekazaritza-sozietateak definitzean ikusi dugu honela ezaugarritzen direla: “helburu ekonomiko-soziala duten sozietate zibilak (...) landa-ingurunean hobekuntzak egiteko, nekazaritza-sustapena eta -garapena egiteko eta helburu horretarako balio duten zerbitzu komunak emateko”. Hots, erakunde horien idiosinkrasiaren beraren ondorioz, haien jarduera ekonomikoa landa- eta gizarte-ingurunea errespetatuz egiten da; izan ere, nekazaritza-ustiapenarekin jarraitzeko, natura-baliabideen epe ertain eta luzeko jasangarritasuna bermatu behar du.

Bestalde, sozietate horiek lurraldearekin eta komunitatearekin duten sustraitzea begien bistakoa da: ekoizpen-prozesuen kontrola bazkideen esku geratzen da, eta kapital sozialaren zatiak ezin dira pertsona horiengandik aldentu, ustiatzearen titulartasunak eskuz aldatzen ez badira behintzat (hori, nagusiki, ondorengotzen bidez gertatzen da).

Azkenik, eraldaketarako nekazaritza-sozietateen jarduera ekonomiko bereziaren izaerak ondarea sortzen du, etorkizuneko belaunaldiei utzi nahi diena, eta, gainera, lurraldean irauten duen eta hari itzultzen zaion aberastasuna sortzen du.

Laburbilduz, erakunde horiek lurraldeen jasangarritasunaren irizpidea betetzen dute beren “eragin hirukoitzetik”: ekonomikoa (jarduera lurraldean bertan gauzatzen da, eta, hortaz, sortutako aberastasuna modu ekitatezkoagoan banatzen da lurraldean), soziala (emaitzen banaketa zeharka egiten da gizartearen) eta ingurumenari dagokiona (lurra bera, natura bera da erakunde horien ekintza eta inpaktuari zuzenean eusten diona, eta, horrenbestez, erakunde horiek errespetuz eta modu orekatuan jarduten dute bertan).

7.3. ONDORIOAK

— Eraldaketarako nekazaritza-sozietateek landa-ingurune- asoziazionismoaren forma ordezkatzeko dute

Gutxi ezagutzen diren erakundeak badira ere, eraldaketarako nekazaritza-sozietateek partaideen interesak eta interes orokorra lortzea

ahalbidetzen dute, hori baita gizarte-ekonomiako familia guztien elementu nagusia.

— **Eraldaketarako nekazaritza-sozietateak erakunde demokratikoak dira**

Batzar Nagusian bazkide guztiek hartzen dute parte, eta erabakiak hartzeko organo gorena da. Bertan botoa parekidea da, erabaki ekonomiko batzuetan izan ezik, baldin eta bazkideek hala erabakitzen badute. Gainera, boto pluralak mugak ditu.

— **Eraldaketarako nekazaritza-sozietateak lurraldean eta gizartean sustraituta daude inongo zalantzarik gabe**

Erakunde horien jarduera bera lurraldean baino ezin da gauzatu; beraz, ingurune hurbilarekin duten harremana funtsezkoa da, eta ekoizpen-prozesuak bazkideen esku daudenez, deslokalizazioak saihesten dira.

— **Eraldaketarako nekazaritza-sozietateek sekulako potentziala dute toki- eta lurralde-garapen jasangarrian laguntzeko**

Eraldaketarako nekazaritza-sozietateek, pertsonen eta horiek ezartzen diren komunitateen premiak lehenesten dituzten formula kolektiboen bidez, argi eta garbi eta zuzenean laguntzen dute lurralde-garapenean, modu jasangarrian.

Potentzial hori begien bistakoa da kontuan hartzen baditugu lurralde-jasangarritasunaren “eragin hirukoitza”, lehenetasunez demokratikoa dela, interes indibidualak eta kolektiboak uztartzen dituela eta, azkenik, jarduera ekonomikoak berak elikadura-burujabetza lortzeko bidean garrantzia handia duela.

7.4. ERREFERENTZIAK ETA ITURRIAK

MAULEÓN MÉNDEZ, E. & GENOVART BALAGUER, J. I. (2016). La inclusión de la sociedad agraria de transformación en la ley de economía social. pretensión del legislador o realidad en la praxis empresarial. *CIRIEC-España. Revista Jurídica de Economía Social y Cooperativa*, (29) 147-184. Hemendik berreskuratua: <http://ciriec-revistajuridica.es/wp-content/uploads/029-007.pdf>

1776/1981 ERREGE DEKRETUA, abuztuaren 3koa, Eraldaketarako nekazaritza-sozietateak arautzen dituen estatutua onartzen duena, *Estatuko Aldizkari Ofiziala* (194), 1981/08/14, 18736-18738, <https://www.boe.es/eli/es/rd/1981/08/03/1776>

ROMÁN, C. (2008). Las Sociedades Agrarias de Transformación en España: un análisis histórico. *CIRIEC-España. Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, (63) 65-87. Hemendik berreskuratua: http://www.ciriec-revistaeconomia.es/banco/6303_Roman.pdf

VARGAS, C. (2012). *Sociedades Agrarias de Transformación. Empresas agroalimentarias entre la economía social y la del mercado*. Madrid: Dykinson.

Mutualitateak Euskal Autonomia Erkidegoan: kontakizuna*

Francisco Javier Arrieta Idiakez

Gonzalo Martínez Etxeberria

Josune López Rodríguez

*Instituto de Estudios Cooperativos (Institute of Cooperative Studies) (IEC)
Deusto University*

8.1. SARRERA

Gizarte Ekonomiari buruzko Legeak (martxoaren 29ko 5/2011 Legea) berariaz onartzen die mutualitateei gizarte-ekonomiko erakundeen izaera (cfr. 5.1 artikulua). Onarpen horretatik abiatuta, eta arau horretan mutualitatez hartu behar dena zehazten ez dela kontuan harturik, komeni da zehaztea halakotzat hartu behar direla bai aseguru-mutualitateak bai gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak (PANIAGUA, 2011, 195. or.; PAZ CANALEJO, 2012, 102. or.; ARRIETA, 2014, 43. or.).

Hala, aseguru-mutualitateak honela definitzen dira, aseguru pribatuak antolatzeari eta gainbegiratzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 29ko 6/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 9. eta 10. artikuluetan ezarritakoaren arabera: “izaera sozialeko aseguru-erakunde pribatua, aseguru-esparruaren berariazkoa, irabazi-asmorik eza eta estalduraren izaera erreflexiboa bereizgarri dituen, eta bazkideei, pertsona fisikoei edo juridikoei zuzentzen zaiena” (Diccionario del Español Jurídico, 2016).

Dena den, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak emandako informazioaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten aseguru-mutualitateen artean, honako hauek nabarmendu

* Ikerketa honen zati bat autoreek argitaratutako artikulua batean dago: “Las mutualidades en Euskadi como entidades de la economía social”, in *GIZAEKOA - Revista Vasca de Economía Social*, 17 (2020), 181-196.

daitezke: (a) PAKEA, Prima finkoko aseguruen mutualitatea; (b) ASEMAS - Prima finkoko aseguru eta berraseguruen mutualitatea (derrama pasiboarekin); (c) Itsas arriskuko mutualitatea, prima finkoko aseguruen sozietatea (MURIMAR); (d) Arabako landa-eraikinetako suteen kontrako elkarrekiko aseguruen sozietatea, prima finkoko aseguruen mutualitatea; (e) SURNE, Prima finkoko aseguru eta berraseguruen mutualitatea. Hala eta guztiz ere, komenigarria litzateke Euskal Autonomia Erkidegoan jarduten duten aseguru-mutualitate guztien zerrenda eguneratua eskaintzea, termino ekonomiko eta sozialetan duten pisua hobeto baloratu ahal izateko.

Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, mutualitate horiek borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen (BGAE) bidez artikulatzean datza berezitasuna.

Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek (BGAE) Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) duten garrantzia, batez ere, Gizarte Segurantzaren sistemako prestazioen gainean betetzen duten eginkizun osagarrian datza. Horrela, EAEko herritarren estaldura-ideala eta ongizatea kuantitatiboki eta kualitatiboki handitu daitezke. Kasu horretan, kontingentzia pertsonalak estaltzen dituzten BGAEak dira.

Baina badira ondasunak babestera bideratutako BGAEak ere, hala nola etxebizitzak, etxeko ostilamendua, lan-tresnak, azienda, uztak, basoak eta itsasontziak babesten dituztenak.

Hori guztia euskal herriaren espiritu “komunitarista” izenda daitekeenarekin lotzen da, herrialdeko erakunde tipikoetan islatua, kofradia, ermandade edo mutualitateen forma tradizional batzuen pean eratutako gizarte zibil benetakoak, Erdi Arotik existitzen direnak.

Egia esan, erakunde horiek guztiak bizitza ulertzeko eta sentitzeko modu baten proiektzioa dira, herrialdearen orografiak baldintzatzen duena eta pentsamolde kristauaren eragin handia duena.

Gizarte-antolamenduan aurrera egin ahala, gizarte-babeserako hainbat forma garatuko dira. Horrela, bada, foru-zuzenbideak familiaren erakundeen eta oinordetzen bitartez emandako babes hasiberriak (UNAMUNO, 1902, 43. or. eta hurrengoak; ARRIETA IDIAKEZ ETA LOPEZ RODRÍGUEZ, 2012, 194-198) bidea eman zien gizarte-elkartasunaren forma berriei, hala nola mendien aprobetxamendu komunei (VICARIO ETA DE LA PEÑA, 1901, 92-106; UNAMUNO, 1902 50. or. eta hurrengoak), trukerako edo auzolanerako elkarrekiko lan-prestazioei (UNAMUNO, 1902, 54. or.) edo ‘lorrak’ izeneko gauza edo animalien ekarpenei (UNAMUNO, 1902, 55-56).

Horrela lortu zen elkartzeko-modu guztiz mutualistetara iristea. Horien artean aipatzekoak dira suteen aurkako ermandadeak edo suteen aurkako elkarrekiko aseguru sozietateak (VICARIO ETA DE LA PEÑA, 1901,

234-245), ganaduaren gaineko edo ganaduaren arriskuen aurkako elkarrekiko aseguru ermandadeak (VICARIO ETA DE LA PEÑA, 1901, 246-259; UNAMUNO, 1902, 56-63), arrantzaleen edo itsasgizonen kofradiak (VICARIO ETA DE LA PEÑA, 1901, 260-312) eta hileta-izaerako elkarrekiko elkarteak (VICARIO ETA DE LA PEÑA, 1901, 314-317).

Erakunde mutualista horiek guztiak beren arauen arabera eraendu ziren, autogobernantzako eta autogestioko araubidean. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, 1836an gremioak abolitu ondoren ere iraun zuten. 1887ko Elkarteen Legea promulgatu zenean, erakunde horiei ere aplikatu zitzaizen, legeak berariaz aipatzen baitzituen gremioak, elkarrekiko sorospen-sozietateak eta aurreikuspen-sozietateak.

Hala ere, Espainiako gizarte-aseguruen erregulazioarekin, Gizarte Segurantzaren Sistemaren zuzeneko aurrekari gisa, mutualismoaren erregulazio berezia aurreikusten hasi zen, Estatuaren eta eskualde autonomoen arteko eskumen-esleipen desberdinarekin, gai biei zegokienez.

Hala, 1931ko Espainiako Konstituzioak Espainiako Estatuari ematen zion aseguru orokorren eta sozialen araubideari buruzko legeria, nahiz eta, Gorteen iritziz, eskualde autonomoei egokitu zekiekeen legeria hori betearaztea, haien gaitasun politikoaren neurrian (cfr. 15.8 artikulua). 1936ko Euskal Estatuak (“Euzkadi’ren Berjabetasun-Araudia”), berriz, Espainiako Konstituzioaren 16. eta 17. artikuluetan xedatutakoaren arabera, ezartzen zuen Euzkadiren eskumenekoa zela mutualitateen legeria eskusiboa eta zuzeneko betearazpena (cfr. 2.e artikulua).

Erregimen frankistak iraun zuen artean, Estatuak arautu zituen erakunde tradizionalak. Alde batetik, kofradietako kideen gizarte-babesa 1919an itsas istripuetarako gizarte-aseguruen erregulazioarekin estatalizatzen hasi zena (ARRIETA IDIAKEZ, 2007, 71-79), babesten jarraitu zuten, lehenik, gizarte-aseguruek, lan-mutualitateek eta izaera bereziko erakunde mutualistek (ARRIETA IDIAKEZ, 2007, 119-130), eta, gero, Gizarte Segurantzako Sistemak (ARRIETA IDIAKEZ, 2007, 151-158). Bestalde, 1941eko Mutualitateen Legea “espíritu bereziki sozial eta pribatuarekin” egikaritutako aurreikuspena arautzeaz arduratu zen, “eta, horretarako, hura interpretatzen duten erakundeek beti hartzen dute mutualismoaren edo elkarte zibilaren forma” (cfr. Zioen adierazpena). Arau horren 1. artikulua argi uzten zuen bere aplikazio-esparruan sartzen zituela ermandadeak eta hileta-izaerako elkarrekiko elkarteak, baita arrantzaleen kofradiak berak ere, baldin eta horiek beren nahitaezko gizarte-aurreikuspena borondatezko gizarte-aurreikuspen pribatuarekin osatu nahi bazuten. Manu horren arabera, “lege honen ondorioetarako, mutualitatetzat edo montepiotzatzat hartuko dira izendapen horrekin edo beste edozeinekin, eta irabazi-asmorik gabe, izaera sozialeko edo ongintzako aurreikuspen-

-modalitate bat egikaritzen duten elkarteak, beren bazkideak edo haien ondasunak eraginpean egon daitezkeen ustekabeko eta aurreikusteko moduko inguruabar edo gertaeretatik babeste aldera, bazkideen zuzeneko ekarpenen bidez edo beste erakunde edo pertsona babesle batzuetatik datozenen bitartez”. Hala ere, ezartzen zen elkarte horiek beren estatutuen edo indarreko legeriarekin bat zetozen erregelamenduen bidez arautu behar zirela, Lan Ministerioak onartu ondoren (cfr. 2. artikulua). Horrela irau zuten.

Demokrazia ezartzearekin batera, 1978ko Espainiako Konstituzioak 41. artikuluan, *in fine*, ezartzen du Gizarte Segurantzako Sistemarako laguntza eta prestazio osagarriak askeak izango direla.

1979ko Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak, alabaina, eskumen eskusiboa esleitzen dio EAERI Gizarte Segurantzaz integratuta ez dauden mutualitateen arloan (cfr. 10.23 artikulua).

Eskumen-titulu horretan babestuta onartu zen, hain zuzen ere, Gizarte Emendiotarako Borondatezko Erakundeei buruzko Legea (urriaren 27ko 25/1983 Legea). Legearen zioen adierazpenean jasotzen den bezala, legeak mutualitateetarako lege-esparru berri bat ezarri nahi du, herrialdearen berezitasunetara egokitua, eta administrazioaren jarduketara modernizatu nahi du, administrazioaren eta mutualismoaren harremanean eraginkortasuna, garapena eta progresismoa nagusi izan daitezten. Horregatik, hain eremu zabala antolatu eta garatzeko asmoz, mutualitatearen kontzeptuaren ordez borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundearena (BGAE) ezarri da, ez era askotako esperientzia eta erakunde ugariak bateratzeko, biltzeko baizik, horien azken helburua baita, irabazi-asmorik gabe, bazkideak babestea beren bizitza, baliabideak edo jarduera arriskuan jar ditzaketentz gertakarietatik.

Izan ere, indarrean dagoen Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko Legeak (ekainaren 25eko 5/2015 Legea), euskal zuzenbide zibilararen printzipio eratzailak aipatzean (cfr. Atariko tituluaren II. kapitulua), “jabetzaren euskal kontzeptzioa jabetzaren funtzio sozialak eta solidaritate-printzipioak modulatzeko dutela” esan ondoren, ezartzen du “legeek Euskal Zuzenbide Zibileko jabetza forma berezi desberdinak babesteko dituztela, hots, auzo-jabetza, familia-jabetza eta gizarte-jabetza, betiere aplikatu beharreko aldiko errealitate sozialera egokitu daitezten”. Eta ondareari buruzko zuzenbidearen printzipioak arautzean (cfr. I. titulua), “kofradia, ermandade edo mutualitateen forma tradizionalen batean eratutako sozietate zibilak” aipatzen ditu, eta 5/2015 Legearen beraren mende jartzen ditu eta zehazten du sozietate horien arauak izango direla haien estatutuak eta barne-arauak, betiere horiek guztiak ez direnean 5/2015 Legearen

aurkakoak, berori garatzeko ematen diren arauen aurkakoak eta ordezeko legeriaren aurkakoak (cfr. 16. artikulua).

Dena den, 25/1983 Legearen ordez, indarrean dagoen otsailaren 23ko 5/2012 Legea ezarri zen, Estatuko eta Europar Batasuneko (EB) esparruan izan diren gertaera garrantzitsuak kontuan harturik, autonomia-erkidegoko legeria sakon erreformatzea komeni baitzen (cfr. Zioen azalpena, I. atala). Gertaera horiek, aldi berean, erronka bihurtu ziren.

Europar Batasunak, Europako bilakaera demografikoa ikusirik, behin eta berriz esan du gizarte-segurantzako sistema publiko klasikoak indartzeko eta osatzeko formulak bilatu behar direla, betiere, sistema publikoei uko egin gabe, belaunaldien arteko elkartasuna eta gizarte-kohesioa lortzeko ezinbesteko tresna diren aldetik. Gainera, hertsiki eskatzen du formula osagarriak bultzatzeko eta garatzeko, jarduera ekonomikoaren sektore edo enpresen esparruan eta negoziazio kolektiboak bultzatuta (cfr. Zioen azalpena, II. atala).

Estatuari dagokionez, bestalde, nabarmendu behar da pentsio-plan eta -funtsei buruzko legeria agertu dela Estatuan, aseguru pribatuak antolatu eta ikuskatzeko legeriatik bereizita. Hori garrantzi handikoa da BGAEak EAEko pentsio-funstat har daitezkeelako, eta kontuan izan behar da, gainera, BGAEak 5 urte lehenago arautu zirela eta berezitasun garrantzitsuak dituztela. Berezitasun horiei esker, Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Federazioak bertan federatuta dauden BGAE-*ei* buruz emandako informazioaren arabera, 2019ko abenduaren 31n 25.939 milioi eurotik gorako ondarea daukate, hots, EAEko BPGaren % 32,72 baino gehiago, eta ehuneko hori Estatuko pentsio-funtsek eta gainerako sistema osagarriek ordezkaturakoa (% 8,8) baino askoz ere handiagoa da.

Azken batean, indarrean dagoen legeak bilatu nahi du BGAEak ahalik eta gehien egokitzea demografia-, gizarte-, ekonomia- eta finantza-testuinguruaren bilakaeratik eratorritako erronka berriei eta, bestalde, aurreikuspen-sistema kolektiboak bultzatzea, batez ere enplegu-sistemak (cfr. Zioen azalpena, II. atala).

8.2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENEN ERAKUNDEEN EGUNGO ERREALITATEA

BGAE-ek EAEn gaur egun duten errealitatea azaltze aldera, ondoren horien lau alderdi aztertuko dira, haien izateko arrazoia ulertu ahal izateko.

Gizarte-ekonomiaren printzipioak bere gain hartzea

Gaur egun, BGAEak —hori da, ikusi den moduan, 25/1983 Legeaz geroztik gizarte-aurreikuspeneko mutualitateei emandako izendapen propioa— gizarte-ekonomiako erakundeak dira, Gizarte Ekonomiari buruzko Legeak (martxoaren 29ko 5/2011 Legea) ezarritakoaren arabera (cfr. 5.1. artikulua).

Ondorioz, erakunde horien jokabidearen oinarri diren printzipio orokorrak erabat onartzen dituzte. Printzipio horien artean, honako hauek nabarmendu behar dira: kideei zerbitzua emateko helburua, etekinak lortzearen gainetik; kudeaketa-autonomia; erabakiak hartzeko prozesu demokratikoak; eta pertsonak eta lana kapitalaren gainetik nagusitzea etekinen banaketan. Hori guztia indarrean dagoen 5/2012 Legean islatuta geratzen da (PÉREZ URALDE, 2012, 88. or.). Izan ere, 2. artikulua borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erregimenaren funtsezko printzipio hauek ezartzen ditu, eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak oinarri horien gainean osatu beharko dira eta funtzionatu beharko dute:

- a) Ekarpenak eta prestazioak direnak direlarik ere (estatutuetan etorriko dira zehazturik, erakunde bakoitzaren ezaugarrien arabera), bazkide guztiek eskubide eta betebeharrak dituzte.
- b) Irabazi-asmorik ez. Ezin da dibidendurik banatu, ezin da merkataritza-negozio itxurakorik ezkutatu duen entregarik egin, eta ezin da, bazkideak erakartzeko lanean, bitartekarien edo agenteen bitartekaritza ordaindu.
- c) Erakundearen kudeaketak gardena izan behar du. Bazkideei eta onuradunei behar duten informazio guztia eman behar zaie, betiere arauetan jartzen duena kontuan hartuta.
- d) Gobernu-organoek egitura eta osaera demokratikoak dituzte. Organo horiek aukeratzeko orduan, kontuan izan behar da atzetik duten kolektiboa ordezkatu behar dutela. Organo-kideek lan egiteko behar duten informazio guztia izan behar dute.
- e) Gobernu-organoetan parte hartzeagatik ez da ezer ordaintzen. Inork, benetan, betearazte-egitekorik betetzen baldin badu, eta erakundearen estatutuetan jartzen baldin badu halakoak ordain daitezkeela, batzarrari eska dakioke ordaintzea onartzeko.
- f) Ezin da bazkide bilakatzeko inolako mugarik egon, betiere estatutuetan, erakundearen helburuen arabera, zer jartzen duen kontuan hartuta.
- g) Baliabideak eraginkortasunez, eragimenez eta berritu beharrekoa berrituz kudeatu behar dira.

Printzipio horiek guztiak indartu egiten dituzte, halaber, 5/2012 Legearen eta haren Erregelamendua onartzen duen urriaren 27ko 203/2015 Dekretuaren artikuluetan jasotzen diren gizarte-ekonomiako erakunde batzuen ezaugarri tipikoek. Zehazki, honako ezaugarri hauek dira: irabazi-asmorik gabeko erakundea izatea (cfr. Legearen 5. artikulua), BGAE-en gobernu-batzordeko kideen prestakuntzari ematen zaion garrantzia (cfr. Legearen 55. artikulua) eta bazkideen eta onuradunen informazioari ematen zaiona (cfr. Erregelamenduaren 46.etik 50.era bitarteko artikulua).

Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundearen definizioa eta motak

Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak, geroak ekar dezakeena aurreikusiz, bazkide arruntei eta onuradunei 5/2012 Legean zehazturik dauden kontingentzietarako babesa irabazi-asmorik gabe eskaintzen dieten instituzioak direlako ideia abiapuntu hartuta (cfr. 5/2012 Legearen 5. artikulua), zenbait mota bereizi behar dira (cfr. 5/2012 Legearen 7. artikulua).

Alde batetik, estalitako kontingentziak kontuan harturik, honako BGAE hauek bereiz daitezke:

- (a) *Kontingentzia pertsonalak* estaltzen dituztenak (cfr. 5/2012 Legearen 24. artikulua). Zehazki, honako kontingentzia hauek dira, Legean bertan eta Erregelamenduan aurreikusitako definizioen eta ezaugarrien arabera:
 - (a.1) Erretiroa.
 - (a.2) Ezintasun iraunkorra edo lanerako baliaezintasuna.
 - (a.3) Heriotza.
 - (a.4) Mendekotasuna.
 - (a.5) Luzaroko langabezia.
 - (a.6) Gaixotasun larria.
 - (a.7) Aldi baterako ezintasuna.
 - (a.8) Enplegua lortzeko laguntzak.
 - (a.9) Jaiotza eta adopzioa.
 - (a.10) Ezkontza, edo indarrean dagoen legearen araberako izatezko bikotea.
 - (a.11) Gastu medikoak.
 - (a.12) Ikasketa ofizialak.
 - (a.13) Osasun laguntza, ebakuntzak eta osasun zentroetako egonaldiak.
 - (a.15) Gizarte-aurreikuspenarekin lotutako beste antzeko batzuk.

(b) *Bestelako kontingentziak* estaltzen dituztenak (cfr. 5/2012 Legearen 25. artikulua)¹:

- (b.1) Ondasunak: etxebizitza, etxeko ostilamendua, lan-tresnak, ganadua, uztak, basoak, ontziak edo bere lan-jarduerari edo ogibideari lotutako beste edozein ondasun.
- (b.2) Ehorzketaren gastuak eta zerbitzuak.

Bestalde, Bazkideak eta bazkide arteko loturak nolakoak dituzten gorabeheran, honako BGAE hauek bereiz daitezke (cfr. 5/2012 Legearen 7.b artikulua):

- (a) *Banakako modalitateko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak.* Halakoetan, finantza-erakundeak dira bazkide sustatzaileak edo babesleak. Finantza-erakunde horiek, pertsona fisikoak diren bazkide arruntei, lege honetan jasota datozen kontingentzia pertsonaletarako babesa ematen diete. Bazkide horien artean, aurretiaz, ez dago erakunde horietara biltzeko erabakigarri den inolako loturarik.
- (b) *Enpleguko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak.* Kideen eta bazkide babeslearen artean lan-harremana dago edo egon da; edo, funtzionarioen edo estatutupekoen kasuan, zerbitzu-harremana; edo, kooperatibetan eta lan-sozietateetan, bazkide langileek edo laneko bazkideek izaten dutena. Erakundera biltzea erabakitzeak arrazoi nagusia, edonola ere, negoziazio kolektiboan lortutako akordioa, enpresa-ituna edo enplegatzailearen erabaki bere kasakoa izango zen.
Bazkideek, elkarren artean, beren lanbidearekin zerikusia duen loturarik baldin badaukate, bazkide arrunt horien borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak ere enplegukoak izango dira.
- (c) *Elkartekide modalitateko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak.* Kideek elkarte-motako harremana dute beren artean, ez lan-arlokoa eta ezta lanbidearen ingurukoa ere.
- (d) *Bereizi gabeko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak.* Kideen arteko loturak ez dira lan-arlokoak, eta estaltzen dituzten kontingentziak ez dira pertsonalak.

Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetako bazkideak eta onuradunak

BGAE-etan hainbat bazkide mota izan daitezke (cfr. 5/2012 Legearen 16. artikulua):

¹ BGAEak bestelako kontingentzia horiek estaltzen baditu, ezin izango du estali kontingentzia pertsonalik (cfr. 5/2012 Legearen 25.2 artikulua).

- a) Bazkide sustatzaileak: Pertsona fisiko nahiz juridikoak, edozein motatakoak eta izaeratakoak, eratzeko gogoz eta hasieran behar den dirua jarriz BGAE bat sortzen eta eratzen parte hartu dutenak, eta erakunde horretako gobernu-organoetan dabiltzanak, indarrean dagoen araudiaren arabera, erakundearen estatutuetan ezarrita dagoen moduan.
- b) Bazkide babesleak: Beren jardunaren bidez edo hitzartutako ekarpenen bidez BGAE baten edo gizarte-aurreikuspeneko plan baten garapenean eta aurrerabidean parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridikoak, zuzeneko onurarik jaso gabe jarduten dutenak, baina beren gobernu-organoetan parte hartuz, estatutuek agintzen duten moduan.
- c) Bazkide oso edo arruntak: 5/2012 Legeak ezarritakoaren arabera, beren buruentzat edo beren onuradunentzat prestazioren bat lor dezaketen pertsona fisikoak. Arriskupean daudenak gauzak direnean, arriskuan dauden ondasunen gaineko eskubideren bat edo zilegizko interesen bat dutenak.

Bazkide arruntak modalitate hauetakoak izan daitezke:

- (c.1) Bazkide aktiboak: beren kabuz edo beren izenean dabilen norbaiten bidez egin dituzten ekarpen ekonomikoen ondorioz, beren buruentzako edo beren onuradunentzako prestazioren bat jasotzeko eskubidea dutenak.
- (c.2) Bazkide pasiboak: bazkide aktiboak izan ondoren, prestazioaren zuzeneko titular bihurtu direnak, subjektu babestu gisa, dena delako kontingentzia gertatu ondoren.
- (c.3) Bazkide etenak: bazkide aktibo izan ondoren, ekarpenik egiten ez dutela geratu direnak, ez beren kabuz ez beren izenean dabilen inoren bidez.

Baina bazkideez gain, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetan onuradunak ere artatzen dira, hau da, eragilearekin daukaten harremana dela-eta, kontingentzia gertatu eta gero prestazioaren titular bihurtzen diren pertsona fisikoak (cfr. 5/2012 Legearen 16. artikulua).

Bai bazkideek eta bai onuradunek eskubidea dute BGAEaren gobernu-organoetan parte hartzeko eta bertan ordezkatuta egoteko, BGAE-en printzipio inspiratzaileen —eskubide- eta betebehlar-berdintasuna eta gobernu-organoen egitura eta osaera demokratikoa— eta, hortaz, gizarte-ekonomiako erakundeen lehen printzipio orientatzailearen —pertsonak eta helburu soziala kapitalaren gainetik lehenestea, kudeaketa demokratiko eta parte-hartzaileari dagokionez— adierazpen garbi gisa (cfr. 5/2011 Legearen 4.a artikulua).

Gizarte-aurreikuspeneko planen definizioa eta modalitateak

Gizarte-aurreikuspeneko planak akordio batzuk izaten dira, berezko nortasun juridikorik gabeak. Itxuraz, kontratuak dira, edo elkarte-eratzailak, edo osaerako egintzak, edo arautzailak, eta bi gauza taxutu eta arautu behar dituzte: aldian aldiko ekarpenen eta prestazioen araubidea; eta eskubidea aitortzeko baldintzak, bai erretiroa hartu behar denerako, eta baita, hala egin beharra egokitzen denean, kontingentzia hauetarako ere: heriotza, mendekotasuna, baliaezintasuna, denbora luzeko enplegurik eza edo gaixotasun larria. Gizarte-aurreikuspeneko planak prestazio-erregelamenduetan formalizatzen dira, eta, prestazio horiek zehazteko, banakako kapitalizazio-sistema finantzario eta aktuarialak aplikatzen dituzte (cfr. 5/2012 Legearen 8. artikulua).

Definizio horretatik abiatuta, gizarte-aurreikuspeneko planen zenbait modalitate bereiz daitezke (cfr. 5/2012 Legearen 9. artikulua).

Alde batetik, bazkideen artean dagoen loturaren arabera, planak honelakoak izan daitezke:

- a) *Gizarte-aurreikuspeneko banakako planak*: egin beharreko gauza bakarra planera biltzea da, bazkideen artean aurretiaz inolako loturarik egon gabe.
- b) *Enpleguko gizarte-aurreikuspeneko planak*: kideen artean nolabaiteko lotura bat behar da: lanekoa, funtzionarioena edo estatutupekoa, edo, kooperatibetan eta lan-sozietateetan, bazkide langileak edo laneko bazkideak izatea. Planeko bazkide osoak langile autonomoen kolektiboetakoak izanagatik ere, plana enpleguko modura kalifika daiteke, baldin eta kolektibo horiek lanbide-elkarte, merkataritza-ganbera edo ordezkari-erakunde bidez eratu badira eta haiek badihardute bazkide sustatzaile edo babesle gisa. Gainera, enpleguko gizarte-aurreikuspeneko planetan, bazkide babesleak eta horien kolektiboak ere sar daitezke, aurreikuspen-planaren ezaugarriak errespetatuz.
- c) *Gizarte-aurreikuspeneko elkartekide modalitateko planak*: kideen artean elkarte-motako loturaren bat egotea eskatzen dute.

Bestetik, ekarpenen eta prestazioen araubidearen arabera, planak honelakoak izan daitezke:

- a) *Ekarpen finkatuko gizarte-aurreikuspeneko planak*: aurretiaz zehazturik daukate bazkideen ekarpenak zenbatekoa izan behar duen edo zenbateko hori nola zehaztu behar den, baina ez du zerikusi zuzenik eta berehalakorik bihar-etzi jasoko duten prestazio zehatzarekin, eta prestazioaren zenbatekoa ez dago alde aurretik bermaturik. Beste aukera bat ere badago: plan hauetan,

ondarearen zati alikuota bakoitzaren zenbateko zehatza kanpotik bermaturik egotea. Halakoetan, beste izen bat izango dute: gizarte-aurreikuspeneko plan bermatuak.

- b) *Prestazio finkatuko gizarte-aurreikuspeneko planak*: plan hauetan, zehazturik egoten dena da bazkide pasiboek edo onuradunek jaso beharreko prestazioa zenbatekoa izango den edo nola zehaztu behar den, betiere, estalita dagoen dena delako kontingentzia gertatu eta bete beharreko betekizunak eta baldintzak betetzen baldin badira.
- c) *Gizarte-aurreikuspeneko plan mistoak*: plan hauetan, aurreko formula bateko eta besteko ezaugarriak aurkituko ditugu, aldi berean.

8.3. BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEEN IRISMENA

Aurreko atalean BGAEen errealitatea eta izateko arrazoia azaldu ondoren, atal honetan horien benetako irismena eskainiko da, kuantitatiboki eta kualitatiboki, eta, aldi berean, hala dagokionean, horien inguruan dauden ideia nagusiak edo hobetu daitezkeen alderdiak nabarmenduko dira.

Horretarako, dira EAEn gaur egun dauden BGAEen bi federazioen eskura jarritako galdetegietatik ateratako datuak kontuan hartuko: Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Federazioa, gehienbat kontingentzia pertsonalak estaltzeko BGAEak ordezkatzeko dituenak, eta Sutearo Federazioa, ondasunak estaltzeko edo babesteko BGAEak ordezkatzeko dituenak.

Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Federazioan federatutako borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak

Haien izaera juridikorako hurbilketa eta pentsio-funtsekiko desberdintasun nagusiak

BGAE federatuek aurreikuspen-jarduera egiten dute, batez ere bazkideen pentsio publikoa osatzera bideratua, pentsio publikoa eta pentsio osagarria ahalik eta gehien hurbildu daitezeko jardunean jasotako azken soldatara.

BGAE-ek eta Estatuko pentsio-funtsek helburu bera dute: pentsio publikoa osatzea. Hala ere, badituzte desberdintasun batzuk:

- a) BGAEak Euskal Autonomia Erkidegoaren tresna propioa eta espezifikoa dira, Eusko Legebiltzarretik eta Eusko Jaurlaritzatik datorren euskal araudiak erregulatzen duena.
- b) BGAE-ek nortasun juridiko propioa dute eta ez dute erakunde kudeatzailerik behar beren ondarea administratzeko.
- c) Irabazi-asmorik gabeak dira.
- d) Gobernu-organoak beren bazkideek osatzen dituzte, eta haien osaera demokratikoa da.
- e) Horiek gainbegiratzea eta kontrolatzea Eusko Jaurlaritzari dagokio, eta ez Estatuko Administrazioari.

*Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen
Federazioaren eta bertan federatutako BGAE-en antolaketa*

Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko araubidearen oinarriko informazio-printzipioen artean —borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek horien arabera eratu eta funtzionatu beharko dute— honako hau dago: gobernu-organoek egitura eta osaera demokratikoak dituzte. Organo horiek aukeratzeko orduan, kontuan izan behar da atzetik duten kolektiboa ordezkatu behar dutela. Organo-kideek lan egiteko behar duten informazio guztia izan behar dute.

Kolektibo sozialak gutxienez % 50eko ordezkari-tza du enplegu-sistemen gobernu-organoetan.

Gobernu-batzordeak, erakundearen administrazioaz, zuzendaritzaz eta ordezkari-tzaz arduratzen den organoak, emakumeen eta gizonen ordezkari-tza orekatua izan behar du, erakundearen presentzia-ehunekoa kontuan hartuta.

BGAE-en gobernu-organoek berehala eta zuzenean dute beren eskueran Erakundeari buruzko informazio erabilgarri guztia, eta gardentasuna da haien kudeaketaren informazio-printzipioetako bat.

Erakundearen estatutu-etan jaso ahal izango da betearazte- edo administrazio-eginkizunak dituzten batzordekideei ordainsariak emango zaizkiela edo gastuak ordainduko zaizkiela. Eraginkor izan daitezen, batzar nagusiak onartu beharko ditu.

Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Federazioaren kasuan, erakunde guztiek dute federazioaren eta haren zerbitzuen funtzionamenduaren eta egoeraren berri izateko. Beharrezkotzat jotzen badute, teknikari baten zerbitzuak erabil ditzakete.

Federazioa hainbat ataletan egituratzen da. Atal horiek lanerako elkarteak dira, eta erakunde federatuen taldeen interesak ordezkatzen dituzte, haien

identitatea babesteko. Gaur egun 4 atal daude: enpleguko BGAE-ena, banakako BGAE-ena, BGAE elkartuen eta bereizi gabeko BGAE-ena.

Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Federazioan federatutako borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak: haien eguneroko dinamikaren datu eta alderdi garrantzitsuenak

A) Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Federazioan federatutako borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak

2019ko abenduaren 31n 60 BGAE zeuden Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Federazioan federatuta: bereizi gabeko modalitateko 1, modalitate elkartuko 2, enpleguko 26 eta banakako 31.

Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Federazioak eskainitako datuen arabera, 2019ko ekitaldian BGAE federatuetara egindako ekarpenak 853 milioi eurotik gorakoak izan ziren. Zenbateko hori honela banaka daiteke:

- (a) Elkartekide modalitateko BGAE-en Atala: 247.000 euro.
- (b) Enpleguko BGAE-en Atala: 428 milioi euro.
- (c) Banakako BGAE-en Atala: 425 milioi euro.

Bestalde, BGAE federatuetako bazkideek jasotako prestazioak 884 milioi eurotik gorakoak izan ziren 2019an.

Prestazioak errenta moduan, kapital moduan edo modu mistoan jasotzen dira (kapital-errenta konbinazioa edo alderantziz). Hala ere, Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Federazioak adierazi du ahalegina egin beharko litzatekeela errenta moduan kobratzea sustatzeko, BGAE-en helburu soziala baita Gizarte Segurantzak ordaintzen dituen aldizkako pentsioak behar besteko zenbatekoan osatzea.

Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saileko Finantza Politikako Zuzendaritzaren Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren 2018ko txostenean jasotako informazioarekin kontrastatu behar da: “Gizarte Aurreikuspen Osagarria Euskal Autonomia Erkidegoan (bigarren eta hirugarren zutabea) - Laburpena”².

Txosten horren arabera, Gizarte Segurantzarekiko prestazioak ematen dituzten 77 BGAE zeuden EAEn 2018an. BGAE horien artean, 2 elkartuak ziren, 44 enplegukoak eta 31 banakakoak.

² 2019ko ekitaldiari dagokion txostena ez da espero 2020ko urrira edo azarora arte.

Enpleguko BGAEak 44 dira. Horiematik 40k enpresa dute beren aurreikuspen-planen jardun-eremua, eta 4 BGAE, berriz, sektorialak dira, beren aurreikuspen-planek enpresa multzo bat hartzen baitute barruan: BGAE batek, Mondragon Korporazioko kide diren kooperatibak; beste batek, Gipuzkoako hitzarmen kolektibo probintzial jakin batzuei heltzen dieten enpresak; eta bi BGAEk, sektore publikoko langileak (batek, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileak, eta besteak, Foru eta Toki Administrazioak).

Bestalde, banakako 31 BGAE-etatik, bostek 300 milioi eurotik gorako balantze-zifra dute, eta 25.000 bazkide baino gehiago.

Ondoren jasotzen dira 2018. urteari dagozkion BGAE modalitate guztien balantze-zifrak:

70. ilustrazioa. Datuak BGAE motaren arabera (I)

MODALIDAD	Número de Entidades	Cifra Balance	%/Total
EPSV con Planes de Previsión			
Asociada	2	21.228.524,55	0,09%
Empleo	44	13.409.480.995,84	54,01%
Individual	31	11.395.309.176,57	45,90%
TOTALES	77	24.826.018.696,96	100%

Fuente: Dirección de Política Financiera

2018an, 1.135.778 pertsona zeuden aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en barruan. Azterketa genero-ikuspegitik eginez gero, gizonak bazkide kopuru osoaren % 56 ziren; emakumeak, berriz, % 44.

71. ilustrazioa. Datuak BGAE motaren arabera (II)

MODALIDAD	Nº de Entidades	Socios Hombres	%Total	Socios Mujeres	% Total	Total Socios/as
EPSV con Planes de Previsión						
Asociada	2	1.267	85,15%	221	14,85%	1.488
Empleo no preferente	44	279.881	57,60%	206.055	42,40%	485.936
Individual	31	353.880	54,58%	294.474	45,42%	648.354
TOTALES	77	635.028	55,91%	500.750	44,09%	1.135.778

Fuente: Dirección de Política Financiera

Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en tamaina edo dimentsioaren ikuspuntutik, txostenak adierazten du 2018an BGAE-ek, batez beste, 14.750 bazkide zituztela; banakako BGAE-ek 20.915 batez beste;

enpleguko BGAE-ek 11.044 batez beste, eta BGAE elkartuek 744 batez beste. Ohartarazten du, alabaina, nahiko handiak diren batezbesteko horiek “minifundismo” handia ezkututzen dutela BGAE-en kolektiboan, batez ere enpleguko BGAE-en artean. Horrela, enpleguko BGAE gehien-gehienek (% 68) 1.000 bazkide baino gutxiago dituzte, eta 6 erakunde besterik ez dituzte 5.000 bazkide baino gehiago. BGAE-en ondarea kontuan hartzean ere aipatutako “minifundismoa” agertzen da. Izan ere, tamaina txikiko erakunde askok, aurreikuspen-planak dituzten BGAEen ia % 86k, batezbestekoaren azpiko ondarea dute (322 milioi), eta tamaina handiko gutxi daude. Eta berdin gertatzen da enpleguko BGAE-etan nahiz banakakoetan. BGAE-en % 13k (25.000 bazkide baino gehiago dituztenek) ondarearen % 80 dute.

Aurreikuspen-planak dituzten BGAEen 2018. urteko ekarpenei eta prestazioei dagokienez, aipatutako txostenean jasotzen den taula hau kontsulta daiteke³:

72. ilustrazioa. Datuak BGAE motaren arabera (III)

MODALIDAD	Número	Aportaciones	%/Total	Prestaciones	%/Total
EPSV con Planes de Previsión					
Asociada	2	294.791,13	0,04%	287.430,01	0,05%
Empleo	44	318.631.762,68	43,82%	418.939.071,80	65,98%
Individual	31	408.281.272,49	56,14%	215.696.771,01	33,97%
TOTALES	77	727.207.826,30	100%	634.923.272,82	100%

Fuente: Dirección de Política Financiera

2018ko abenduaren 31n ekarpenak egiten ari ziren pertsonak 1.405,10 euro eman zuten batez beste (1.463,21 euro gizonen kasuan eta zertxobait gutxiago, 1.327,34 euro, emakumeen kasuan).

Prestazioei dagokienez, aipatutako txostenean jasotzen den taula hau kontsulta daiteke:

³ Taulan ageri diren datuak aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etan kontingentzia jakin batzuetarako egindako ekarpen eta prestazioei buruzkoak dira: erretiroa, heriotza, mendekotasuna, baliaezintasuna, iraupen luzeko langabezia eta gaixotasun larria, hain zuzen; hau da, aurreikuspen-planen bidez eman daitezkeen prestazioak. Datu horietan ez dira ageri, beraz, beste gizarte-prestazio batzuk jasotzeko egiten diren ekarpen eta prestazioak, hala nola aldi baterako ezintasuna, enplegurako laguntzak eta zenbait prestazio mediko. Enplegurako BGAE batzuek ematen dituzte horrelako prestazioak, baina ezin har daitezke bigarren edo hirugarren zutabeko multzokotzat.

73. ilustrazioa. Prestazioei buruzko datuak

JUBILACION					
Número de Asociados			Importes		
Hombres	Mujeres	Total	Hombres	Mujeres	Total
28.573	12.937	41.510	355.954.424,97 €	124.319.642,28 €	480.274.067,25 €
INCAPACIDAD PERMANENTE					
Número de Asociados			Importes		
Hombres	Mujeres	Total	Hombres	Mujeres	Total
4.987	1.667	6.654	34.649.685,26 €	11.013.534,27 €	45.663.219,53 €
DEPENDENCIA					
Número de Asociados			Importes		
Hombres	Mujeres	Total	Hombres	Mujeres	Total
11	10	21	1.028.003,04 €	135.097,72 €	1.163.100,76 €
DESEMPLEO LARGA DURACION					
Número de Asociados			Importes		
Hombres	Mujeres	Total	Hombres	Mujeres	Total
540	394	934	2.647.985,27 €	1.298.542,08 €	3.946.527,35 €
ENFERMEDAD GRAVE					
Número de Asociados			Importes		
Hombres	Mujeres	Total	Hombres	Mujeres	Total
32	29	61	204.076,27 €	233.968,01 €	438.044,28 €
TOTAL SOCIOS/AS PASIVOS					
Número de Asociados			Importes		
Hombres	Mujeres	Total	Hombres	Mujeres	Total
34.143	15.037	49.180	394.484.174,81	137.000.784,36	531.484.959,17
FALLECIMIENTO					
Número de beneficiarios/as			Importes		
Hombres	Mujeres	Total	Hombres	Mujeres	Total
4.263	14.375	18.638	25.141.536,54 €	78.296.777,11 €	103.438.313,65 €
TOTAL SOCIOS/AS PASIVOS/BENEFICIARIOS					
Número de Asociados			Importes		
Hombres	Mujeres	Total	Hombres	Mujeres	Total
38.406	29.412	67.818	419.625.711,35 €	215.297.561,47 €	634.923.272,82 €

Fuente: Dirección de Política Financiera

Txostenean ondorioztatzen den moduan, 2018. urtean aurreikuspen-planak dituzten BGAE-ek, osotasunean hartuta, prestazioetan izandako gastu osoaren % 76 erretiro-kontingentziarekin lotuta zegoen eta % 16 bazkide arrunt baten heriotzaren ondorioz jaso zuten onuradunek. Bestalde, prestazio guztien % 66 (419.625.711,35 euro) gizonek jaso dituzte; emakumeek, berriz, prestazioen % 34 jaso dituzte (215.297.561,47 euro). Jasotako prestazioen batez besteko zenbatekoa 9.362,16 euro izan zen. Alabaina, azterketa generoaren arabera eginez gero, emakumeek jasotako batez besteko zenbatekoa (7.320,06 euro) gizonek jasotakoa (10.926,05 euro) baino nabarmen txikiagoa da.

Prestazioak kobratzeko moduari dagokionez, txostenak ohartarazten du, enpleguko eta banakako BGAEak kontuan harturik, jasotakoaren ia % 50 kapital gisa jaso dela. Horri dagokionez, txosten horretan jasotzen den taula hau kontsulta daiteke:

74. ilustrazioa. Prestazioei buruzko datuak

Forma de cobro	Nº socios/as pasivos	Importe	Importe medio anual	Importe medio mensual
Renta actuarial	31.091	232.421.499	7.475,52	623
Renta financiera	13.137	72.559.176	5.523,27	460
Capital	16.392	294.836.165	17.986,59	
Total	60.620	599.816.840,01		

Fuente: Dirección de Política Financiera

Hala ere, enpleguko BGAEen kasuan, kobratzeko modu nagusia errenta aktuariala da, eta hori bat dator BGAEen helburu sozialarekin, BGAE-en helburu soziala baita Gizarte Segurantzak ordaintzen dituen aldizkako pentsioak behar besteko zenbatekoan osatzea.

Dena den, txostenean azpimarratzen denez, 2018an agerian geratu da banakako BGAE-etako bazkideak pixkanaka prestazioa errenta aktuarial gisa kobratzeko eskatzen hasi direla.

(B) Bazkide sustatzaileak eta babesleak, eta bazkide oso edo arruntak

Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Federazioak ohartarazten duen moduan, zaila da gaur egun zenbat bazkide sustatzaile eta babesle dauden kalkulatzea, kopurua 1 eta 8.700 artean egon baitaiteke (Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Federazioko kide den BGAE sektorialak (Geroa BGAE) 2019. urtean zituen 20 sektoretako enpresen kopurua).

Bestalde, 2019ko abenduaren 31n, kontu edo posizio kopurua kontuan harturik, oso zaila baita zehaztea zenbat dauden bikoiztuta edo zenbat bazkidek dituzten ekarpenak etenda, 1.141.811 bazkide oso edo arrunt zeuden, Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Federazioak emandako informazioaren arabera.

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saileko Finantza Politikako Zuzendaritzaren Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren 2018ko txostenaren arabera —“Gizarte Aurreikuspen Osagarria Euskal Autonomia Erkidegoan (bigarren eta hirugarren zutabea) - Laburpena”—, 65 urtetik gora bazkide arruntak bazkide guztien % 10,7 besterik ez dira. 65 urtetik beherakoen kolektiboa bakarrik kontuan hartzen bada, aurreikuspen-planetako kideen batez besteko adina 48 urtekoa da. Batezbesteko hori berdin-berdina da bai emakumeentzat, bai gizonentzat. Nabarmendu beharra dago enpleguko BGAE-ek pertsona gazteagoak sartzeko aukera ematen dutela.

Genero-ikuspegiari dagokionez, aipatutako txostenaren arabera, 2018an emakumeak bazkide guztien % 44 ziren eta ekarpenen % 40 egin zituzten.

Txostenak ondorio garbia ateratzen du horren inguruan: emakumeen ekarpenak, osotasunean hartuta, bazkide kopuruari dagokionez duten banaketa portzentuala baino % 4 txikiagoak dira.

(C) Bazkideentzako informazioa

Oro har, aurreikuspen-planak integratzen dituzten BGAE guztiek honako informazio hau ipiniko dute bazkide arrunten eta onuradunen eskura:

- a) Erakundearen estatutuak, atxiki diren planaren erregelamendua eta gobernu-organoen eraketa.
- b) Hala estatutuei nola erregelamenduari buruzko aldaketak, baita gobernu organoen eraketan gertatutakoak ere.
- c) Inbertsio Printzipioen Adierazpena eta honek bere baitan jaso beharko du inbertitu diren aktiboen ondorioz edo horien kudeaketan erabilitako teknikak direla medio zein arrisku-profil dagoen (handia, ertaina edo txikia).
- d) Aurreikuspen-plan bakoitzean aplikatu beharreko portzentajea zehaztuko da, administrazio-gastu kontzeptu moduan aplikatu beharrekoa eta planaren ondarearen gainean hainbat gastuk —balore higiezinak saldu eta erosteagatik bitartekaritza izandakoek, alegia— ekarritako ehunekoa, balore horien zorroaren errotazio-ratioaren ondorioz izandakoak.
- e) Erakundearen auditoreen nortasuna.
- f) Bilakaera historikoa gai hauei buruz: aurreikuspen-planaren ondarea; errentagarritasunari dagokionez urtean ezarritako helburuak; eta hiru ekitaldietako bakoitzean, edo ekitaldiak hiru baino gutxiago izango balira, plana dagoenetik itxi diren ekitaldietan planak lorturiko errentagarritasuna.
- g) Kasuan kasuko kontingentziei dagozkien ekarpenei eta prestazioei aplikatu beharreko zerga-araubideari buruzko informazioa.
- h) Etorkizuneko pentsio-eskubideen estimazioari buruzko informazioa, gizarte-aurreikuspeneko erakundearen arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak ezarritakoaren arabera (gaur egun, Ekonomia eta Ogasun Sailari dagokio eskumen hori).
- i) BGAEak inbertsioak egiten dituenean, kontsiderazio sozialak, etikoak edo gobernu korporatibokoak kontuan hartzen dituen ala ez. Ez baditu kontuan hartzen, zergatik ez dituen hartzen azaldu beharko du.

Zehaztutako prestazioko sistemaren aurreikuspen-planetarako, gutxienez urtean behin Erakundeak bazkide arrunt eta onuradun bakoitzari

honako gaiei buruzko ziurtagiria bidaliko dio: aldi bakoitzean eginiko ekarpen zuzenak edo egotzitakoak; bazkidearen eskubide ekonomikoek, betiere eskubide horiek badaude, aldi horren amaieran eduki dezaketen balio ekonomikoa; eta aldian ordainduriko prestazioen zenbatekoa. Halaber, kudeaketa-txosten laburtua bidaliko du, bazkideekin harreman telematikoa daukanean izan ezik.

Bazkideei erretiroa hartu aurreko fasean eman beharreko informazioari dagokionez, etorkizuneko pentsio-eskubideen estimazioari buruzko informazioaz gain, erakundeek bazkide bakoitzari eman beharko diote, legez erretiroa hartzeko adinera iritsi baino bi urte lehenago gutxienez, erretiro-prestazioa kobratzeko dituen aukerei buruzko informazioa.

Azkenik, bazkide pasiboei eta onuradunei prestazioa kobratzen duten fasean eman beharreko informazioa honako hau da:

- a) Zor dizkieten prestazioei eta prestazio horiek ordaintzeko aukerei buruzko informazioa emango diete erakundeek bazkide pasiboei eta onuradunei.
- b) Bazkide pasiboek eta onuradunek inbertsioaren arriskuaren maila esanguratsua beren gain hartzen dutenean, BGAEak argi eta garbi informatuko du zirkunstantzia horri buruz.

(D) Abantaila fiskalak edo zerga-arlokoak

BGAE-ek eta horiek osatzen dituzten bazkideek aldekotzat jo daitekeen zerga-tratamendua dute; izan ere, haien helburua, hau da, pentsio publikoa osatzea, gizartearentzat garrantzi handikoa dela irizten zaio, eta, hortaz, tratamendu fiskal onuragarria merezi duela.

Zehazki, BGAE-ei aplikatu beharreko zerga-araubidearen edukiari dagokionez, Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Federazioaren web-orrian jasotakoari lotzen gataizkio (<https://epsv.org/fiscalidad/#page-content>).

Horri dagokionez, zehaztu behar da Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Federazioak uste duela BGAE-ei aplikatu beharreko indarreko zerga-araubidea berrikusi egin beharko litzatekeela, ekarpenen murrizketa-mugak behatuta edo, halakorik ezean, lehendik dagoenaren pareko zerga-onura ezarrita, baita errenta gisa ordaindutako ordainketen tributazioa hobetuta ere, errenta jasotzeko beste modu batzuk bezain erakargarria izan dadin behintzat. Uste du, halaber, lehentasunezko enpleguko BGAEak zerga-arloan hobetu beharko liratekeela, Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-babes osagarria orokortzeko tresna egokiak diren aldetik.

(E) Eskubide ekonomikoak pilatutako erreserben kontura erreskatatzeko eskubidea

BGAE federatuetako bazkideek alde zuzenetik erabil dezakete hamar urtetik gorako antzinatasuna duten banakako modalitateko edo modalitate elkartuko gizarte-aurreikuspeneko planetara egindako ekarpenei dagozkien eskubide ekonomikoen zenbateko osoa edo partziala. Bestalde, enpleguko BGAE-ek alde zuzenetik erabiltzeko aukera hori jasotzen dute soil-soilik 5/2012 Legea indarrean jartzean erreskate-aukera hori zuten planetan eta data horretan zeuden eskubide ekonomikoen arabera.

Erreskateak premia-arrazoiei loturik egon ohi dira.

Erreskateen kopuruari eta zenbatekoei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saileko Finantza Politikako Zuzendaritzaren Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren 2018ko txostenean horri buruz jasotakoari lotzen gataizkio.

75. ilustrazioa. Erreskateei buruzko datuak

	EPSV Asociadas	%	EPSV Empleo	%	EPSV Individuales	%	Total EPSV
Número Rescates	7	0,03%	113	0,47%	24.026	99,50%	24.146
Importe de los Rescates	10.203,03	0,01%	2.215.570,07	1,44%	152.120.347,64	98,56%	154.346.120,74

Fuente: Dirección de Política Financiera

Genero-ikuspegitik, 2018. urtean erreskatatu zuten gizonen proportzioa % 57 izan zen; jasotako kopurua, berriz, % 62.

COVID-19aren ondorioz sortutako egoera bereziari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Finantza Politikako zuzendariak 2020ko martxoaren 25eko *Ebazpena* eman zuen, zeinaren bidez baimena ematen baita COVID-19aren ondorioz enplegua aldi baterako erregulatzeko espedientea edo enplegua erregulatzeko espedientea ezinbestean aplikatu behar izan zaien BGAE-etako bazkideek langabezia-prestazioa kobra dezaten.

Erakunde federatuek adierazitakoaren arabera, COVID-19aren inpaktua handiagoa izan da informazio-eskariari dagokionez, prestazioa kobratzeko eskubidea benetan egikaritzeari dagokionez baino.

(F) BGAE-en baliabideen kudeaketaren eraginkortasuna, efizientzia eta berrikuntza

Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Federazioak adierazitakoaren arabera, honako alderdi hauek nabarmendu behar dira BGAE-en baliabideen kudeaketaren eraginkortasunari, efizientziari eta berrikuntzari dagokienez:

- a) Soilik bazkide arrunten eta onuradunen intereserako inbertitzen da, eta, batez ere, ELGAko merkatu antolatuetan.
- b) Banaketa estrategiko egokia gauzatzen da zorroko aktibo mota desberdinen artean (*asset allocation*), denboran aski egonkorra izango dena; horrek ez du esan nahi etengabe doitu edo berrorekatuko ez denik, zehaztutako marjina batzuen barruan, merkatuen bilakaeraren arabera.
- c) Dibertsifikazio-politika egokia gauzatzen da, bai zorroa osatzen duten aktibo moten artean, bai aktibo mota bakoitzaren barruko balioen artean, arriskua kontrolatzeko oinarritzko elementua baita.
- d) Zorroen kudeaketa aktiboa gauzatzen da, baloreen hautaketa egokiaren bitartez eta merkatuek etengabe ematen dituzten aukerak aprobetxatuz.
- e) Funtsaren likideziaren kudeaketa egokia gauzatzen da, aktiboen likidazioa azkar egitea ahalbidetzeko, sor daitezkeen ordainketei aurre egiteko.
- f) (Politika zorrotzak hartzen dira arriskuak kudeatzeko eginkizunei, barne-auditoretzari eta, hala badagokio, eginkizun aktuarialari eta kanpora ateratzekoari dagokienez (Gobernu ona)).
- g) Inbertsioen kudeaketa sozialki arduratsua gauzatzen da, oso positiboki baloratuko duena boto-politika aktiboa eta gardena izatea, Gobernu Korporatibo Ona bultzatzeko asmoz, eta enpresa-jarduerak gizartean eta ingurumenean dituen ondorioak aintzat hartzea.
- h) Hala badagokio, bizi-zikloaren arabera inbertitzeko estrategia inplementatzen da.

(G) Inbertsio sozialki arduratsua

BGAE federatuek eta Federazioak berak inbertsio sozialki arduratsuaren aldeko konpromiso garbia eta irmoa hartu dute. Konpromiso hori ia aho batez hezurramitzen da erakunde federatuen inbertsio-printzipioen adierazpenetan.

BGAE-en inbertsioek eta horiek osatzen dituzten aurreikuspen-planetakoez honako printzipio hauei jarraitu beharko diete:

- a) BGAE-en aktiboak euren bazkide arrunt eta onuradunen onerako bakarrik inbertituko dira. Interes-gatazkarik balego, erakundeak zaindu beharko du inbertsioa bazkide diren pertsonen onura defendatzeko bakarrik egingo dela.
- b) BGAE-en aktibo gehienak merkatu erregulatuetan inbertituko dira. Inbertsioak gauzatzerakoan BGAE-ek jarraitu beharko dituzten irizpideak segurtasun, errentagarritasun, likidezia, dibertsifikazio, barreiatze, moneta-kongruentzia eta epeen araberakoak izango dira, beren helburuak lortzeko egokiak direnak kontuan hartuta.
- c) BGAE-ek titulartasuna eta erabiltzeko askatasuna eduki beharko dituzte ondasun eta eskubideen gainean, non inbertsioak gauzatuko dituzten.

Era berean, BGAE-ek bazkide osoei eta onuradunei jakinarazi behar diete erakundeak inbertsioetan gizarte-, ingurumen-, etika- edo gobernu-konsiderazioak kontuan hartzen dituen. Ez baditu kontuan hartzen, zergatik ez dituen hartzen azaldu beharko du. Esparru horretan politika bat duenean, deskribatu egin beharko du, labur-labur behintzat, eta baztertzeko, integratzeko edo inplikatzeko estrategiak zehaztu beharko ditu. Aipatuko du, halaber, zein aktibotan aplikatzen den, eta, hala badagokio, inbertsio sozialki arduratsuen politika horren aplikazioa nola egiaztatuko den.

Nolanahi ere, BGAE-en araudiak egokitzen jo dituen aktiboetan bakarrik inbertitu behar dute BGAE-ek (cfr. 92/2007 Dekretuaren 11.3 artikulua). Inbertsioaren helburua ahalik eta errendimendu onenak lortzea da, bazkide eta onuradunekin dituzten pentsio-konpromisoak behar bezala betetzeko.

(H) Bazkideen prestakuntza

Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Federazioak emandako informazioaren arabera, prestakuntzaren arloan nabarmendu behar da 2019ko martxoan egin zela gizarte-aurreikuspen osagarriaren arloko oinarrizko hamargarren ikastaro presentziala, Eusko Jaurlaritzak sustatua eta federazio horrek antolatua, Deloitte enpresaren laguntzarekin. Horrez gain, Federazioak aldi berean behin antolatzen ditu BGAE-en inbertsioen kudeaketari buruzko ikastaro praktikoa.

2019an, Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Federazioak 2020an irekian ikusi ahal izango diren prestakuntza-bideoen edizioa sustatu zuen. Halaber, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin sustatu zuen BGAE-*ei* buruzko lehen Legearen 35. urteurrenari buruzko lanikidetzaliburu baten edizioa. Liburu hori ere modu librean eskuratu ahal izango da 2020an Federazioaren web-orrian (*www.epsu.org*).

- (I) Federazioa osatzen duten BGAE-en eta Federazioaren beraren gobernu-batzordeetako kideen prestakuntza

Federazioa osatzen duten BGAE-en eta Federazioaren beraren gobernu-batzordeetako kideek lanbide-kualifikazio, ezagutza eta esperientzia egokiak izan beharko dituzte, erakundearen kudeaketa ona eta zuhurra ziurtatzeko.

- (J) Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Federazioak bertan federatutako BGAE-en funtzionamenduari ematen dizkion hobekuntzak

Hauek dira Federazioak betetzen dituen eginkizunak, erakunde federatuei abantaila garbiak ematen dizkietenak:

- a) Erakunde federatuen ordezkari mota guztietako erakunde eta egoitzen aurrean, aurreikuspenaren interes orokorrei buruzko gaietan.
- b) Gizarte-aurreikuspen osagarriaren sektorea Gizarte Aurreikuspenaren Euskal Kontseiluan ordezkatzea.
- c) Borondatezko gizarte-aurreikuspenaren sustapena eta prestakuntza bultzatzea.
- d) Erakunde federatuen interes orokorrak defendatzea.
- e) Laguntza teknikoa eta juridikoa.

Halaber, Federazioari legez dagokio erakunde elkartuen edo horien eta bazkideen arteko gatazketan, hala badagokio, adiskidetzeginkizunak betetzea. Aipatu beharra dago, alabaina, orain arte sortutako gatazkek oso txikiak izan direla eta erraz konpondu direla.

- (K) Borondatezko gizarte-aurreikuspena bultzatu eta sustatzea

Borondatezko gizarte-aurreikuspena sustatzeari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak Federazioarekin lankidetzan dihardu prestakuntzaren eta zabalkundearen arloan (prestakuntza-ikastaroak, jardunaldiak eta mintegiak, eta abar), eta ekimen horiek finantzatzen laguntzen du.

Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Federazioak emandako informazioaren arabera, borondatezko gizarte-aurreikuspenaren sustapena eta zabalkundea, funtsean, honako hauen bidez bideratzen da: jardunaldiak eta mintegiak antolatzea; nazioko eta nazioarteko foroetan modu erregularrean parte hartzea; erakundeekiko eta komunikabideekiko harremanak areagotzea; eta prestakuntza-lana egitea (ikastaroak, bideoak, liburuak, etab.).

Erakunde federatuek, bestalde, mota guztietako publizitate-bitartekoak eta -euskarriak erabiltzen dituzte publizitate-jarduera egiteko.

(L) Estatuko eta nazioarteko erakundeekin konfederatzea

Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Federazioa *Espainiako Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitateen Konfederazioko* kide nabarmena da, ordezkari bat du *PensionsEurope*, Europako pentsio-elkarte garrantzitsuenean, eta Europako Sektore Publikoko Pentsioen Elkarteko (*EAPSPI*) kidea da, behatzaile gisa.

(LL) BGAEa gizarte-bazterketa saihesteko mekanismo gisa

Enplegua eta, bereziki, gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen enplegua sustatzea BGAE-en helburua ez bada ere, egia da BGAE-en babes-ekintzaren barruan luzaroko langabeziaren kontingentzia sartzan dela. Hau da, enplegua galtzea edo, langile autonomoen kasuan, jarduera etetea, baldin eta honako irizpide hauen arabera erregelamenduz garatuko diren baldintzak betetzen badira:

- a) Legez langabezia egoeran egotea, ordaindutakoaren araberako prestazioa kobratzen duela urtebetez, non eta ez zaion hori baino lehen prestazio hori amaitu.
- b) Ez bada ordaindutakoaren araberako langabezia-prestaziorik jasotzen, prestazioa berehalakoan jaso daiteke.

Sutearo Federazioan federatutako borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak

Haien izaerara hurbiltzea, ohiko aseguru-etxeetatik bereizteko

Sutearo Federazioan federatutako BGAEak ohiko aseguru-etxeen antzekoak dira, dagokion BGAEarekin sinatutako kontratuan ezarritako kasuen ondorioz aseguraturako ondasunetan sor daitezkeen kalteen aurrean erantzuten baitute, hala nola sutea, leherketa, tximista, euria, haizea, lapurreta eta harria, eta hirugarrenei eragin dakizkiekeen kalteen ondoriozko erantzukizun zibila kudeatzeaz ere arduratzen dira. Hala ere, desberdintasun nagusi hau dute:

- a) Sutearo Federazioan federatutako ermandadeak, edo “sutearoak”, ez dira konpainiak edo merkataritza-erakundeak, bazkideek osatu eta kudeatzen dituzten elkarri laguntzeko erakunde, elkarte edo taldeak baizik.

- b) Sutearo Federazioan federatutako sutearoen erabakiak bazkideen eskuetan daude. Bazkideak dira, elkarrekin eta biltzar bidez, laguntzen irismena eta beren eguneroko jarduna zuzentzen duten funtzionamendu-arauak erabakitzen dituztenak.
- c) Sutearo Federazioan federatutako sutearoen helburu soziala ez da irabazia lortzea, bazkideen ekarpenak sor daitezkeen ezbeharren gastuak eta kudeaketa-gastuak ordaintzeko erabiltzea baizik; gerakina bazkide bakoitzaren “poltsan” geratzen da, haren izenean.
- d) Sutearo Federazioan federatutako sutearoak landa-eremuko baserriak edo etxebizitzak babestean oinarritzen dira, lehenik eta behin, eremu horretan eratu zirelako lehen ermandadeak, eta, bigarrenik, aseguru-etxe tradizionalak eskaintzen zituzten konponbideak ez zetozelako bat etxebizitza mota horien beharrekin.

Horrek guztiak erakusten du, zalantzarik gabe, zintzo betetzen dela gizarte-ekonomiako erakundeen lehen printzipio orientatzailea, pertsonak eta helburu soziala kapitalaren gaintetik nagusitzeari buruzkoa, BGAE horiek modu demokratikoan eta parte-hartzailean kudeatzen baitira.

Hurrengo atalean printzipio horretan sakonduko da, federazioaren antolaketa eta federatutako sutearo bakoitza kontuan hartuta.

Sutearo Federazioaren eta federatutako sutearo bakoitzaren antolaketa

Ondoren, Sutearo Federazioaren eta bertan federatutako BGAE bakoitzaren —sutearo edo ermandade deritze— antolaketa osatzen duten 8 kudeaketa-organoak bereizten dira.

(A) Federazioaren Batzar Nagusia

Federazioaren Batzar Nagusia sutearo federatu guztietako konpromisarioek osatzen dute (sutearoko bat eta 50 bazkideko beste bat; beraz, gutxienez SUTEAROKO 2 eta gehienez 6).

Batzar Nagusia da gai guztiak aztertu eta erabakitzeko organo gorena.

(B) Sutearo bakoitzaren Batzar Nagusia

Batzar Nagusia, bazkide guztiek osatua, erakundearen gobernu-organo gorena da. Bertan gai guztiak azter daitezke, eta bere erabakiek bazkide guztiak behartzen dituzte.

Sutearo bakoitza, federatuta dagoenez, Federazioaren mende dago hari lagatako kudeaketa-gaietan eta sutearo federatuaren gehiengoak hartutako erabakietan. Sutearo bakoitzak ordezkarien edo konpromisarioen bitartez parte hartzen du Federazioaren Batzar Nagusian, afiliazioaren proportzioan.

(C) Zuzendaritza Batzordea

Sei sutearoren ordezkariak, Federazioko lehendakariak eta lehendakariordeak, Zaintza Kontseiluko ordezkari batek eta Sustapen Kontseiluko beste batek osatzen dute.

Kudeatzailtzak eta bulegoaren ordezkariak batek parte hartzen dute, eta txostenak eta idazkaritza-lanak egiten dituzte.

Batzarren artean Zuzendaritza Batzordeari dagokio Federazioaren zuzendaritza. Batzar Nagusiaren erabakiak betetzea eta betearaztea da haren lana, baita Federazioaren eta bazkideen kudeaketa egokiaz arduratzea ere, estatutuak eta legeria betez.

Urtean behin, gutxienez, sutearo bakoitzaren ordezkari batek osatutako Zuzendaritza Batzorde hedatua egiten da.

(D) Sutearo bakoitzaren Zuzendaritza Batzordea

Auzo edo eremu bakoitzeko ordezkari batek osatzen du, hurrenkera alfabetikoaren arabera txandakatuta. Ordezkari kopurua aldakorra da, afiliatutako pertsona kopuruaren eta auzo edo eremuen zatiketaren arabera. Gaur egun, sutearo bakoitzaren batzordea osatzen duten pertsonen kopurua 2 eta 13 bitartekoa da.

Batzarren artean, berari dagokio kudeatzeko Federazioari laga ez zaion guztiaren erantzukizuna.

Era berean, dagokionean, Federazioaren Zuzendaritza Batzordean parte hartzen du.

Eskualdeko bileretara, Federazioaren Batzorde hedatura eta Federazioaren Batzarrera joaten da, sutearo bakoitzari afiliazioaren arabera dagokion kopuruan.

(E) Sustatzaileen Kontseilua

8 pertsonak osatzen dute, ermandade edo sutearo sustatzaile bakoitzeko bat. Sutearoek beren filosofia mantentzeko zaintza da kide

horien egitekoa. Norabidea aldatzen dela ikusten badute, ezohiko Batzar Nagusirako deialdia egin dezakete.

(F) Zaintza Kontseilua

Lehendakari izan diren azken hiru pertsonak eta egungo lehendakariak eta lehendakariordeak, Sustatzaileen Kontseiluaren ordezkari batek eta Kudeatzailetza betetzen duen pertsonak osatzen dute. Federazioaren eta sutearoen eguneroko martxa zaintzea eta Gobernu Batzordeari laguntzea eta aholku ematea du eginkizun.

(G) Diziplina Batzordea

5 sutearoren 5 ordezkari osatzen dute, eta bazkideen arteko gatazka-harremanak ebaztea du eginkizun.

(H) Federazioaren kudeatzailetza eta bulegoa

Sutearo bakoitza ere kudeatzen duen taldea da, sutearoen Federazioari laga baitiote kudeaketa; hala, Federazioaren bulegoaren eskuetan uzten diren lan guztiak sutearo bakoitzaren izenean egiten dituen lanak dira era berean; beraz, haien kudeaketa-organoa ere bada.

Sutearoen eguneroko dinamikaren datu eta alderdi garrantzitsuenak

(A) Sutearoen datuak

Federazioan guztira 4.194 bazkide daude elkartuta, eta 5.069 dira horiek izenpetutako kontratuak.

Bazkide horiek sutearo edo ermandadeen inguruan elkartzen dira, eta, horiek, era berean, Sutearo Federazioa osatzen dute. Azpimarratu beharra dago bazkide guztiak bazkide aktiboak direla.

Azken urteotan (2015, 2016, 2017, 2018, 2019) 269 baja kontabilizatu dira, eta hiru izan dira, funtsean, ohiko arrazoiak: etxebizitza saltzea, lehiakideengana joatea eta jarraitzeko interesik ez izatea.

Sutearo Federazioan elkartutako sutearoetako bazkideek egindako ekarpenen zenbatekoari dagokionez, batez besteko ekarpena etxebizitzaren balioaren arabera kalkulatzen da: 900-1000 euro inguru aseguratutako milioi bakoitzeko.

Sutearo Federazioan federatutako sutearoetako bazkideek jasotako prestazioei dagokienez, 2019an 1.030.000 euro jaso zituzten, zuzeneko ordainketen bidez jaso gainera.

(B) Bazkideentzako informazioa

Sutearo Federazioak bere bazkideei informazioa bideratzeari dagokionez, adierazi beharra dago Federazioak urtero helarazten dituela bere kontuak Federazio eta ermandade mailan, baita gastua sortzen duten errealitate guztien berri eman ere. Eskubide eta betebeharrei eta prebentzio-neurriei dagokien informazio guztia ere helarazten du.

(C) Abantaila fiskalik edo zerga-abantailarik ez

Sutearo Federazioko bazkideek ez dute abantaila fiskalik edo zerga-abantailarik jasotzen bazkide izateagatik, ezta kontratuak izenpetzeagatik ere.

(D) Lankidetzaren, elkartasuna eta hurbiltasuna balio gisa

Federazioaren eta sutearoen balio korporatibo nagusiak lankidetzaren, elkartasuna eta hurbiltasuna dira, jarduteko printzipio gisa eta ohiko aseguru-etxeekiko elementu bereizgarri gisa ulertuta.

Sutearoek zuzenean kudeatzen dituzte ezbeharrak. Horregatik, hain zuzen ere, baliabideak kudeatzean, hurbiltasuna da eraginkortasunaren, efizientziaren eta berrikuntzaren adibiderik onena, bai erakundea barrurantz kudeatzean, bai ezbeharrak kanporantz kudeatzean.

Hurbiltasun hori, era berean, Federazioan eta sutearoetan parte hartzeko dauden mekanismoetan ere antzematen da: Batzar Nagusiaren bitartez parte hartzea eta bazkideen ekarpenak webgunearan, postaren eta beste bide batzuen bidez egitea, beti parte hartzeko bideak eskainiz.

(E) Sozialki arduratsuak ez diren inbertsioak

Federazioak gauzatzen dituen inbertsioak FINECOren bitartez egiten dira eta ez dira sozialki arduratsuak.

(F) Prestakuntzarik ez

Ez dago bazkideen prestakuntza espezifikorik prebentzioari buruzko ez gain, eta horrek eragina du aurrez deskribatutako gobernu-organismoetan.

Horrek gatazka handia sortzen du une honetan gobernu-batzorde profesionalizatuak izatera behartzen duten lege-planteamenduekin.

(G) Dauden gatazkak

Dauden gatazkak, batez ere, ezbeharren eta etxeari/etxebizitzari buruzko arauen aplikazioaren ondorioz sortzen dira.

(H) Borondatezko gizarte-aurreikuspena bultzatu eta sustatzea

Sutearo Federaziotik borondatezko gizarte-aurreikuspena bultzatu eta sustatzeko modua oinarrizkoa da, «ahoz ahokoa» eginez eta aseguratutako etxebizitzak mantentzeko tradizioaren bidez, etxebizitza horiek eskualdatu arren.

Federaziotik garatzen diren publizitate-ekintza bakarrak soilik bazkideei zuzendutakoak dira, baita horiek mantentzeko egindakoak ere.

Botere publikoek ez dute Sutearo Federazioan sartuta dauden sutearoak sustatzeko, laguntzeko eta bultzatzeko neurririk; aitzitik, sutearoek gero eta zailtasun handiagoak dituzte beren gizarte-helburuekin jarraitzeko. Federazioak BGAE-en Lege berriarekin «homogeneizatzeko arriskuaz» hitz egiten du.

(I) Konfederaziorik ez Estatuko eta nazioarteko erakundeekin

Federazioa ez dago ez konfederatuta, ez inongo erakunderekin elkartuta, ez Estatuan ez nazioartean.

8.4. EZAUGARRIAK

Gizarte-ekonomiako erakundeen printzipio orientatzaileei loturik jardunbide egokitzat hartzeko modukotzat edo paradigmaticotzat jotzen diren lau kasu analizatuko dira atal honetan.

Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko lehentasuneko erakundeak eta planak

BGAE-en eta dagozkien gizarte-aurreikuspeneko planen barruan, 5/2012 Legearen berrikuntza gisa nabarmendu behar dira borondatezko

gizarte-aurreikuspeneko lehentasunezko erakundeak eta planak, gizarte-aurreikuspen osagarriak gerora izango duen garapenaren funtsezko elementu gisa eratzten dira-eta (cfr. Zioen azalpena, III. atala).

Gizarte-aurreikuspen osagarria EAEko herritarren artean hedatzeko bokazioa haien jatorria eta eraketa hitzarmen kolektiboetan edo enpresa-itunetan izatearekin identifikatzen da. Horietan, halaber, bazkideak sartzeraotan diskriminaziorik ez izatearen printzipioak agintzen du.

Era berean, alderdi soziala ekonomikoaren gainetik lehenesten dutela azpimarratu behar da. Izan ere, BGAE modalitate horren eta haren gizarte-aurreikuspeneko planen alde egiteak ordezko errenta handiagoak bermatzea dakar, babestutako kontingentziak gertatzen direnean, Gizarte Segurantzako Sistemaren ondorioz ematen diren prestazioen osagarri gisa; horrela, prestazioak nahikoak izatea eta ongizatea areagotzea ahalbidetuko da. Alde horretatik, prestazioaren nagusiki errenta moduan jasotzen da, egindako ekarpenak erreskatatzea eragozten da eta eskubide ekonomikoen mugikortasuna mugatzen da. Azken batean, prestazioek xede bat dute, argi eta garbi zehaztutako helburu soziala.

Hori guztia bat dator gizarte-ekonomiako erakundeen hirugarren printzipio orientatzailearekin, barneko eta gizartearekiko elkartasuna sustatzeari buruzkoarekin. Izan ere, Gizarte Segurantzaren Sistematik jasotako prestazioen osagarri diren prestazio batzuk bermatzeak, dagokion lehentasunezko BGAEko bazkide eta onuradunei mesede egiteaz gain, gizarte-babeserako partida publikoetan aurrezkoa sortzen du, tokiko garapenari laguntzen dio eta kalitatezko enpleguaren adierazpen garbia da.

Hala ere, eskumena duen administrazio-organoak BGAE bat lehentasunezkoztat jo dezan, beharrezkoa da BGAE hori enplegukoa izatea, 5/2012 Legean ezarritakoaren arabera eratztea (cfr. 12. artikulua) eta gizarte-aurreikuspeneko lehentasunezko planak soilik barne hartzea (cfr. 5/2012 Legearen 11. artikulua). Zehazki, enpleguko gizarte-aurreikuspeneko planetako batzuk izango dira lehentasunezkoak, hain zuzen ere, 5/2012 Legean ezarritako prozeduraren arabera sortu (cfr. 42. artikulua) eta honako baldintza hauek betetzen dituztenak (cfr. 14. artikulua):

- a) Inor ez diskriminatzeko printzipioa. Gizarte-aurreikuspeneko lehentasunezko planetan, gutxienez urtebeteko antzintasuna daukaten langile guztiek izan behar dute bazkide osoak izateko aukera, baita lan-harreman berezia dutenek ere; kooperatiben eta lan-sozietateen kasuan, bazkide langile edo laneko bazkide guztiek; eta langile autonomoen kasuan, kolektibo osoak.
- b) Gutxienez zertatik babestu beharko duten. Gutxienez, kontingentzia hauek estali beharko dituzte: erretiroa, heriotza eta

- baliaezintasuna edo ezintasun iraunkorra (lan-harremana amaitzea baldin badakar), edo parekoak.
- c) Alde biek egin beharreko ekarpena. Negoziazio kolektiboan zehaztuko da zenbateko ekarpenak egin behar diren, eta bazkide babesleen eta bazkide osoen artean egin beharko dira. Baina, autonomoen kasuan, edo –kooperatibetan eta lan-sozietateetan— bazkide langileen edo laneko bazkideen kasuan, planeko erregelamenduan zehazturik datozenak izango dira gizarte-aurreikuspeneko planera egin beharreko ekarpenak.
 - d) Mugikortasuna. Eskubide ekonomikoak inora mugitzekotan, enpleguko gizarte-aurreikuspeneko lehentasunezko beste plan batzuetara izan beharko du, ez beste inora.
 - e) Erreskaterik ez. Dirua erregelamenduetan zehazturik dauden kontingentzietatik babesteko besterik ez da izango. Eskubide ekonomikoak ezin dira aurretiaz itzuli.
 - f) Prestazioak. Erretiroek, heriotzek eta baliaezintasunek edo lan-harremana amaitzea dakarten ezintasun iraunkorrek eragiten dituzten prestazioak estatutuetan edo erregelamenduetan zehaztuta dagoen moduan jasoko dira. Biziarteko errenta modura aitortu eta ordainduko dira, baina bada finantza-errentak ordaintzeko aukera ere —gutxienez hamabost urtez iraun beharko du—, umezurtz-prestazioetan izan ezik. Salbuespen modura, bada beste aukera bat ere, prestazio horiek kapital modura jasotzea. Izan beharko du estatutuetan edo erregelamenduetan jasotako egoeretan, edo errenta ez denean erregelamenduetan zehazturik datozen ehunekoetara edo kopuruetara iristen. Gainerako prestazioak planeko erregelamenduan zehazturik dagoen moduan jasoko dira.
 - g) Jarraipen-batzordea. Plana lehentasunezkoa izatea nahi baldin bada, enpleguko gizarte-aurreikuspeneko plana taxutzen duten akordioetan, jarraipen-batzorde paritario bat osatu beharra ere aurreikusi beharko da (alegia, aldeek ordezkari-kopuru bera), non eta ez diren hiru baldintza hauek betetzen: plana borondatezko gizarte-aurreikuspeneko lehentasunezko erakunde baten barruan egotea; plan hori erakundeak duen bakarra izatea; eta erakundearen gobernu-batzordea paritarioa izatea. Plan edo erakunde batzuetan ez da derrigorra izango jarraipen-batzordea edo gobernu-batzordea paritarioa izatea, hain zuzen ere, autonomoentzako edo kooperatibetako eta lan-sozietateetako bazkide langileentzako edo laneko bazkideentzako erakunde edo planetan.

- h) Izena. Artikulu honetako baldintzak betetzen baldin badituzte, enpleguko gizarte-aurreikuspeneko planek, jatorriz duten izenari, «lehentasunezko» erantsi beharko diote.

Kudeaketa gardena, demokratikoa eta parte-hartzaileak borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen gobernu-organoetan

BGAE-en gobernu-organoen kudeaketa ezin hobeki egokitzen zaio gizarte-ekonomiako erakundeen lehen printzipio orientatzaileari, hau da, pertsonak eta helburu soziala kapitalaren gainetik nagusitzeari, eta, bestek beste, kudeaketa garden, demokratiko eta parte-hartzailean gauzatzen da (cfr. 5/2011 Legearen 4.a artikulua).

Hala, BGAE-ek beren antolaketa eta jarduteko eraren barne-kontrolako prozedurak izan behar dituzte, baita inbertsioen arriskuen kudeaketa kontrolatzeko prozedurak ere. Gainera, erakunde horien kudeaketa eta kaudimenaren kontrolean parte hartzeko egiturak eduki behar dituzte. Nolanahi ere, urtero, batzar nagusiak borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek ezarritako barne-kontrolerako mekanismoak egokiak diren adierazi beharko du, kanpo-auditoretzak horretarako prestatutako txostena onartuta (cfr. 5/2012 Legearen 56.1 artikulua).

Era berean, BGAE-en estatutuek bermatuko dute aurreikuspen-planetako ordezkariak erakundearen gobernu-organoetan parte-hartze eraginkorra izatea. Ordezkarien kopurua eta izaera zehazteko, daukaten ondarearen bolumena, bazkide-kopurua edo ordezkariari lotutako bestelako arrazoizko gorabehera edo ezaugarriak hartuko dira kontuan (cfr. 5/2012 Legearen 56.2 artikulua).

Nabarmendu beharra dago, berdintasun-printzipioaren mesedetan, banakako BGAE-ek, batzar nagusiaren bidez, bazkidearen defendatzailea izendatu beharko dutela; modu profesionalean eta bazkide babesle edo sustatzailearengandik bereiz, bazkide arrunten eta onuradunen eskubideak zainduko ditu defendatzaileak, eta bazkideek beren gogoz aurkezten dizkioten erreklamazioak ebatziko ditu (cfr. 5/2012 Legearen 57.2 artikulua). Izen handiko erakunde edo aditu independenteak, arlo honetako ezagutza ekonomiko-finantzarioa edo juridikoa dutenak, izendatu beharko ditu erakundeak bazkidearen defendatzaile izateko, eta defendatzaile horien izendapenaren eta funtzionamenduaren gastuak eta ordainsariak inola ere ez dituzte ordainduko erreklamatzailleek eta ez dute eraginik izango gizarte-aurreikuspeneko planei atxikitako ondarean (cfr. 203/2015 Dekretuaren 53. artikulua, 2. eta 3. apartatuak).

Bestalde, BGAEaren kudeaketaren gardentasuna, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko araubidearen informazio-printzipioa den aldetik (cfr. 5/2012 Legearen 2.c artikulua), bazkideei eta onuradunei behar duten informazio guztia ematean datza. Gainera, gardentasun hori ahalik eta gehien bermatzeko, BGAE batek gardentasun-arauak eta bazkideak babestekoak edo jardunbide egokiak behin eta berriz edo larriki urratzen dituela erakusten duten zantzuak daudenean, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailak behar diren neurriak hartuko ditu, gainbegiratze-prozeduraren esparruan dagokionaren arabera (cfr. 203/2015 Dekretuaren 54.4 artikulua).

Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek eratutako funtsen inbertsio sozialki arduratsuak

BGAE-en gobernu-batzordeak, inbertsio-printzipioen aitorten idatzia onartu eta, aldian-aldian, berrikusi beharko du. Idatzi horretan, gizartearekiko arduratsuak diren inbertsioei buruzko politika jasoko da, edo politika hori ez izateko arrazoiak. Betekizun horrekiko salbuespenak arautuko dira, BGAE-en funtsen bolumen txikia dela-eta edo jardueraren ezaugarriak direla-eta (cfr. 5/2012 Legearen 60.2 artikulua). Nolanahi ere, gobernu-batzordeak funtsak zuhurtziaz, profesionaltasunez eta arduraz inbertitu behar ditu beti (cfr. 5/2012 Legearen 54.e artikulua).

Beraz, argi dago bat datorrela gizarte-ekonomiako erakundeen hirugarren printzipio orientatzailearekin: barneko eta gizartearekiko elkartasuna, tokiko garapenarekiko konpromisoa, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna, gizarte-kohesioa, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzea, enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sortzea, bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea eta jasangarritasuna ahalbidetuko dituen (cfr. 5/2011 Legearen 4.c artikulua).

Gainera, aurrez adierazitakoarekin bat, eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen jarduera jakin batzuk arautzeko maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren arabera, BGAE jakin batzuek nahitaez jakinarazi behar diete bazkide arruntei eta onuradunei, BGAEak inbertsioak egiten dituenean, kontsiderazio sozialak, etikoak edo gobernu korporatibokoak kontuan hartzen dituen ala ez. Gainera, ez baditu kontuan hartzen, zergatik ez dituen hartzen azaldu beharko du. Esparru horretan politika bat duenean, aldiz, deskribatu egingo du, labur-labur behintzat, eta baztertze, integratzeko edo inplikatzeko estrategiak zehaztu beharko ditu. Aipatuko du, halaber, zein aktibotan aplikatzen den, eta, hala badagokio, inbertsio sozialki arduratsuaren politika horren aplikazioa nola egiaztatuko den (cfr. 4.1.i artikulua).

Zehazki, honako BGAE hauek dira (cfr. 1. artikulua, 1. eta 2. apartatuak):

- a) Erretiro, heriotza, ezintasun iraunkor, langabezia edota gaixotasun larriko gizarte-aurreikuspeneko planak batzen dituztenak, betiere ulertuta erakunde horien kideak direla bazkide babeslearekin lan lotura gordetzen edo gorde dutenak edo kooperatiba-elkarteen eta lan-elkarteen alorreko (enplegu-modalitatea) langile-bazkideak edo lan-bazkideak; edo, bestela, gizarte-segurantzako edozein araubidetan edo sistema publikoaren alternatiba diren mutualitateetan kotizatzen ari direlarik elkarren artean lan-harremana edo elkartezko lotura dutenak (modalitate elkartua).
- b) Beste edozein BGAE, baldin eta, erakunde horretan sartuta egonik, pertsona fisikoak diren bazkide arruntentzat eta onuradunentzat haren bazkide babesleak edo sustatzaileak (finantza-erakundea) garatzen baditu aurreko letran azaldutako estaldura-jarduerak (banakako modalitatea).

Alde horretatik, herrialdeko BGAE garrantzitsuenak inbertsio sozialki arduratsuekin (ISA) konprometituta daude. Hala, positiboki baloratzen dute Ingurumenaren (I), Gizartearen (G) eta Gobernantza Onaren (G) faktoreak funtsezko analisisian integratzea, bai barne kudeaketan bai kanpoko kudeatzaileen hautaketan, Grapen Jasangarrirako Helburu Globalak (GJH) lortzen laguntzeko. Horixe da Lagun Aro, Elkarkidetza eta Geroa BGAE-en kasua.

Adibide gisa, Geroa BGAEk 2019. urtean inbertsio sozialki arduratsuan gauzatu duen politika azalduko dugu ondoren (<http://www.geroa.eus/userfiles/file/docs/ESTATUTOS/PRI.pdf>).

Funtsak inbertitzerakoan ingurumenaren, gizartearen eta gobernu onaren (IGG) alderdiak kontuan hartzeko politikak bultzatuta, epe ertain eta luzeko errentagarritasun/arrisku binomio hobea erakusten duten konpainien aldeko apustua egiten du. Horretarako, IGG rankingak erabiltzen ditu, baita konpainien finantzaz kanpoko hainbat adierazle eta informazio ere. Horiek bidea ematen diote haien bilakaera trazatzeko eta lehiakideekin alderatzeko. Horren arabera, Geroa BGAEk bere inbertsio-unibertsoetik kanpo uzten ditu gatazka larria⁴ duten konpainiak edo Nazio Batuen Mundu Itunaren 10 printzipioak, 1999koak, giza baliabideen,

⁴ Ingurumenarekin, gizarte-erantzukizunarekin eta gobernu korporatiboarekin zerikusia duten faktoreekin erlazionatuta dauden eta konpainiak eraginpean hartzen dituzten gorabeherak hartu behar dira gatazka larritzat. Ildo horretan, Geroa BGAEk gatazka larritzat jotzen ditu IGG ebaluazioko Sustainalytics agenzia 5. mailarekin kalifikatzen dituenak.

lanaren, ingurumenaren eta ustelkeriari kontra egitearen ingurukoak, betetzen ez dituztenak.

Urtero egiten du hiru hilez behingo kontrola, zorroaren IGG kalifikazioa egiaztatzeko. Era berean, konpainiaren batek alderdi horiekin erlacionatutako gatazka larriren batean parte hartu duen aztertzen du, eta Nazio Batuen Mundu Itunaren 10 printzipioak betetzen direla zaintzen du. Gorabeherarik izanez gero, Inbertsioen Batzordeak elkarriketa aktiboari ekin diezaioke konpainiarekin, egoera ulertu eta baloratu ahal izateko, eta hura konpontzeko edo zorroan mantentzeko egokia ez dela deklaratzeko epe bat ematen die. Hala, 2019ko ekitaldian, bi konpainia ez-gai deklaratu ditu eta, ondorioz, posizioak desegin ditu. Era berean, Geroa BGAEk konpainia jakin batzuen jarraipena egiten du, gatazka larriaren mailan ez badaude ere edo Mundu Itunaren printzipioak urratzera iristen ez badira ere, zaintzapean eduki behar dituela deritzo-eta.

Azkenik, inbertsio sozialki arduratsuari dagokionez jardunbide egokienak erabiltzen dituzten erakunde kudeatzaileak hautatzen ditu: inbertsioetan IGG irizpideak txertatzen dituztenak, inbertsio arduratsurako 6 printzipioen (PRI) 6 sinatzaile izatea lehenetsita.

Etorkizunari begira, 2019ko ekitaldian Geroa BGAEn lanean aritu dira inbertsio sozialki arduratsuen arloan aurrera egiteko, eta hainbat tresna probatu dituzte haren zorroen analisia eta kontrola hobetzeko. Probaldi horrek balio izan du datorren 2020ko ekitaldirako politika zehatzagoa sortzeko. Hain zuzen, ekitaldi horretan aurrera egiten jarraitzeko konpromisoa hartu du Geroa BGAEk. Alde horretatik, IGG informazio-hornitzaile baten zerbitzuak kontratatu ditu. Bere inbertsio-zorroko IGG alderdien analisia eta kontrola indartzea ahalbidetuko duen tresna bat garatzen ari da hornitzaile hori.

Etorkizuneko hobekuntza gisa, esan daiteke klima-modulu bat garatzen ari dela, zorroko karbono-isuriak eta, orobat, Geroa BGAE eraginpean har dezaketen klima-aldaketarekin erlacionatutako arriskuak eta aukerak monitorizatu ahal izateko. Era berean, bere inbertsioek gizartean duten inpaktua monitorizatzeko eta inbertsioak Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 17 Helburuekin lerrokatzeko aukera emango duten moduluak sortzen ari da.

Geroa BGAEk erabiltzen dituen adierazle nagusiak honako taula honetan jasotzen dira:

76. ilustrazioa. GEROA BGA Eren adierazle nagusiak

Principales indicadores

CLASE DE ACTIVO	POLÍTICA	OBJETIVO	RESULTADO 31/12/2019
Renta fija de deuda pública y organismos gubernamentales	Países con puntuación superior a 70 en ranking "ESG Country Risk"	Min 95%	100%
Renta fija corporativa, renta variable y convertibles	Países con puntuación superior a 70 en ranking "ESG Country Risk"	Min 95%	99,87%
	ASG Ranking de Sustainalytics o RobecoSAM: Puntuación superior a 70.	Min 50%	72,72% (de los que tienen ranking)
	MEDIO AMBIENTE	Informativo	73,22% (Ranking Sustainalytics/RobecoSAM:70) 98,01% (CDP Climate Score = 4)
	SOCIAL	Informativo	72,68% (Ranking Sustainalytics/RobecoSAM:70)
	BUEN GOBIERNO	Informativo	66,97% (Ranking Sustainalytics/RobecoSAM:70) 68,96% (CDP Climate Score = 4)
	Exclusión por comportamiento: Posiciones de aquellas compañías que incumplan alguno de los principios de Global Compact y/o los que tienen una controversia de nivel 5.	0% (salvo que deshacer posiciones sea perjudicial para el socio)	2 Compañías declaradas NO APTAS durante el ejercicio
	Controversias de nivel 4 o valores en vigilancia.	-	26 Compañías en vigilancia
Bonos Verdes/Bonos Sostenibles.	-	5 Bonos (10.000.000€)	
Fondos (Renta fija, Renta variable...) ETF o Inversiones a través de sociedades Capital Riesgo	Las entidades gestoras deben incorporar criterios ASG	Min 75%	97,70%
	Las entidades gestoras signatarias de UNPRI	Min 75%	96,96%
	Exclusión por comportamiento.	0	0 gestoras afectadas
Depósitos, cuentas corrientes, IPF, divisas...	Calificación ASG por Sustainalytics o RobecoSAM.	Min 75%	88,09% *El 91,61% tiene una puntuación superior a 70
Productos estructurados y derivados	Calificación ASG por Sustainalytics o RobecoSAM.	Min 75%	Estructurados 91,82% *El 100% tiene una puntuación superior a 70 Futuros y opciones 100% *El 100% tiene una puntuación superior a 90

*Ranking de Sustainalytics o RobecoSAM. Puntuación de 0 a 100, siendo 100 mejor puntuación. Mide posicionamiento de las empresas en términos de ASG (Medio ambiente, social, Buen gobierno)
 *CDP Climate Score (1-5) siendo 5 el mejor. Mide nivel de compromiso de la empresa con la mitigación, adaptación y transparencia del cambio climático.
 *ISS QualityScore: (1 a 10) siendo 1 el mejor. Es el Rating general asignado por el Institutional Shareholder Services (ISS) a las prácticas de gobierno de la compañía.

Los porcentajes que se muestran se han calculado sobre las compañías de las que disponemos dato.

Desgaitasuna duten pertsonen aldeko gizarte-aurreikuspeneko planak

Maila jakin bateko desgaitasun fisikoa edo sensoriala duten pertsonen aldeko gizarte-aurreikuspeneko planak eta ezintasuna judizialki aitortu dieten —ezintasun-maila gorabehera— desgaitasuna duten pertsonen aldekoak dituzten BGAEak existitzeko aukera (cfr. 5/2012 Legearen hirugarren xedapen gehigarria) guztiz bat dator gizarte-ekonomiako erakundeen hirugarren printzipio orientatzailearekin: barneko eta gizartearekiko elkartasuna, tokiko garapenarekiko konpromisoa, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna, gizarte-kohesioa, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzea, enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sortzea, bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea eta jasangarritasuna ahalbidetuko dituen.

Gainera, plan horietarako ekarpenak desgaitasuna duen pertsonak berak nahiz hirugarren mailara arteko ahaidetasun zuzena edo zeharkakoa

duen batek egin ahal izango ditu, baita ezkontideak edo desgaitua zaintzan edo harreran bere kargura duen batek ere (cfr. 5/2011 Legearen 4.c artikulua).

Azkenik, Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Federazioak azpimarratu duen moduan, ezin da ahaztu BGAE-en babes-ekintzaren barruan ezintasun iraunkorraren eta mendekotasunaren kontingentziak sartzen direla, eta horien onuradunak desgaitasun-egoeran egon ohi direla.

8.5. ETORKIZUNEKO ERRONKAK

BGAEak tresna ezin hobeak dira EAEn borondatezko gizarte-aurreikuspena orokortzea lortzeko, eta horretarako behar besteko gaitasuna dute gainera. Lehentasunezko BGAEak dira bereziki aproposak. Erronka nagusi hori dute, baina hori lortzeko ezinbestekoa da botere publikoak eta eragile sozialak erabakitasunez inplikatzea.

Ahalegina egin beharko litzateke banakako BGAE-en prestazioak errenta moduan kobratzea sustatzeko, BGAE-en helburu soziala baita Gizarte Segurantzak ordaintzen dituen aldizkako pentsioak behar besteko zenbatekoan osatzea.

Tamaina edo dimentsio handiagoko enpleguko BGAEak sortzea bultzatu beharko litzateke, haien ondarea handitzeko, inbertsioak dibertsifikatzeko, eta funtsak bazkideen eta onuradunen artean gehiago eta hobeto banatzea lortzeko.

BGAE-ei aplikatu beharreko indarreko zerga-araubidea berrikusi egin beharko litzateke, ekarpenen murrizketa-mugak behatuta edo, halakorik ezean, lehendik dagoenaren pareko zerga-onura ezarrita, baita errenta gisa ordaindutako ordainketen tributazioa hobetuta ere, errenta jasotzeko beste modu batzuk bezain erakargarria izan dadin behintzat. Halaber, lehentasunezko enpleguko BGAEak zerga-arloan hobetu beharko lirateke, Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-babes osagarria orokortzeko tresna egokiak diren aldetik.

Ikusgaitasun handiagoa eman beharko litzateke kontingentzia pertsonalik babesten ez duten BGAE-ei, gizarte-ekonomiako erakundeak diren aldetik, eta behar bezala sustatu. Era berean, kontingentzia pertsonalak babesten dituzten BGAE-etara egokitu beharko lirateke, ahal den neurrian, honako alderdi hauetan: abantaila fiskalak edo zerga-abantailak, inbertsio sozialki arduratsuak, bazkideen prestakuntza, eta Estatuan edo nazioartean egon daitezkeen antzeko beste elkarte batzuetara

irekitzea, jardunbide egokiak trukatzeko eta inplementatzeko eta interes komunak defendatzeko.

8.6. ONDORIOAK

BGAEak euskal herriaren espiritu “komunitaristaren” adierazpide eguneratua dira, eta beren bazkideak eta onuradunak haien bizitza, baliabideak edo jarduera arriskuan jar ditzaketen gertakarietatik behar beste babesteko modua lortzea dute helburu sozialtzat. Zehazki, gizarte-aurreikuspeneko mutualismoaren eta iraganean hura praktikatzan zuten erakunde mutualisten bertsio eguneratua osatzen dute.

BGAE-ek Konstituzioaren 41. artikuluan, *in fine*, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10.23 artikuluan, 5/2012 Legean eta 203/2015 Dekretuan aurkitzen dute oinarri juridikoa.

BGAEak gizarte-ekonomiako erakundeak dira, bat baitatoz haien portaera inspiratzen duten printzipio orokorrekin, Gizarte Ekonomiari buruzko Legean (martxoaren 29ko 5/2011 Legea) aintzat hartzen direnekin, hain zuzen.

BGAEak euskal pentsio-funtsak dira, eta beren erregulazioan ezartzen diren berezitasunetan dago funts horiekiko desberdintasuna.

Enpleguko BGAEak dira, lehentasunezkoak bereziki, BGAE orok berezkoa duen helburu soziala hobeto betetzen dutenak, bazkide gazteagoak sartzeko aukera ematen dute-eta —horrek garrantzi handia du ekarpenei dagokienez—. Gainera, prestazioak errenta moduan ematen dituzte, eta, horrek, aberastasuna banatzearen ikuspuntutik, Gizarte Segurantzaren prestazioak hileru osatzea ahalbidetzen du. Egia esan, bi kontzeptu horiek batzearen, hau da, arlo pribatua eta publikoa uztartzearen ondorioz, errazagoa da behar besteko babesa lortzea, eta dagokion kontingentzia gauzatzearen ondorioz jaso ez diren errenten ordezkapen-tasa ahalik eta parekoena lor daiteke. Beraz, hori da sustatu behar den BGAE modalitatea.

Kontingentzia pertsonalik babesten ez duten BGAE-ek, helburu sozial garrantzitsua izan arren, ikusgaitasun urria dute gizartean. Aseguru-etxeen antzekoak dira, aseguratuak beren ondasunetan jasaten dituzten kalteen aurrean erantzuten baitute, baina haietatik bereizten dira kudeaketa-moduan eta irabazi-asmorik gabeko izaeran. Gainera, berezkoak dituzten lankidetzak, elkartasun- eta hurbiltasun-balioak nabarmendu behar dira. Sutearo Federazioa eta bertan federatutako sutearoak horren guztiaren adibide bikaina dira.

Kontingentzia pertsonalik babesten ez duten BGAE-ek antolaketa eta kudeaketa demokratikoa eta bazkideei emandako informazioaren

gardentasuna bereizgarri badituzte ere —kontingentzia pertsonalak babesten dituzten BGAE-ekin gertatzen den bezalaxe—, ez dute abantaila fiskalik edo zerga-abantailarik, ez dute inbertsio sozialki arduratsurik gauzatzeko, ez diete bazkideei prestakuntza egokia ematen, ez dute sustapenerako laguntza instituzionalik, eta ez daude Estatuko eta nazioarteko erakundeekin konfederatuta. Hortaz, alderdi horietan guztietan, kontingentzia pertsonalak babesten dituzten BGAE-etatik urruntzen dira.

8.7. ERREFERENTZIAK ETA ITURRIAK

- ARRIETA IDIAKEZ, F. J. (2007). La Seguridad Social de los trabajadores del mar en el Derecho español. Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- ARRIETA IDIAKEZ, F. J. y LÓPEZ RODRÍGUEZ, J. (2012). Euskal Herriko Gizarte-Ekintza. Iraganeko oinarrietatik etorkizuneko ahalbideetara. In *Jado: Boletín de la Academia Vasca de Derecho*, (23).
- ARRIETA IDIAKEZ, F. J. (2014). Concreción de las entidades de la Economía Social. *REVESCO*, (116) 33-56. https://doi.org/10.5209/rev_REVE.2014.v116.45717
- EUSKO JAURLARITZAKO FINANTZA POLITIKAKO ZUZENDARITZA (2018). *Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Txostena 2018* “Gizarte Aurreikuspen Osagarria Euskal Autonomia Erkidegoan (bigarren eta hirugarren zutabea) - Laburpena”.
- ETXEBARRIA ETXEITA, I. (2006). La evolución de la previsión social en Euskadi: situación actual y perspectivas de futuro. Las nuevas propuestas normativas y fiscales. *Boletín de Estudios Económicos*, LXI(187) 75-90.
- PANIAGUA ZURERA, M. (2011). *Las empresas de la economía social. Más allá del comentario a la Ley 5/2011, de Economía Social*. Barcelona: Marcial Pons.
- PAZ CANALEJO, N. (2012). *Comentario sistemático a la Ley 5/2011, de Economía Social*. Valencia: Tirant lo Blanch.
- PÉREZ DE URALDE, J. M. (2012). Ley 5/2011, de 29 de marzo, de Economía Social: ¿su aplicación es cosa de todos? (pregunta retórica). *Deusto Estudios Cooperativos*, (1) 79-92.
- SÁEZ FERNÁNDEZ, F. J., SÁNCHEZ MARTÍNEZ, M. T. & LÓPEZ CASTELLANO, F. (2006). El mutualismo de previsión social y los sistemas de protección complementarios. Madrid: Civitas.
- UNAMUNO, M. (1902). Aprovechamientos comunes; Lorra; Seguro mutuo para el ganado, etc. En *Derecho consuetudinario y economía popular de España* (COSTA y MARTÍNEZ, J.). Barcelona: Manuel Soler.
- URRUTIA, J. R. & MANRIQUE, F. (2011). Evolución y retos de la previsión social voluntaria en Euskadi. En *VVAA. El Estado de bienestar en la encrucijada: nuevos retos ante la crisis global* (pp.180-191). Vitoria-Gasteiz: Federación de Cajas de Ahorros Vasco-Navarras (FCAVN).
- VÍCARIO y DE LA PEÑA, N. (1901). *Derecho consuetudinario de Vizcaya*. Madrid: Imprenta del Asilo de Huérfanos del Sagrado Corazón de Jesús.

Elkarteak Euskal Autonomia Erkidegoan: kontakizuna

Aratz Soto Gorrotxategi

Ane Etxebarria Rubio

GEZKI (Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua)
UPV/EHU

9.1. SARRERA

Lege-definizioaren arabera, “elkarteak oinarri pertsonalista duten eta irabazi-asmorik ez duten erakunde pribatuak dira, xede partikularrak edo orokorrak lortzeko antolatu direnak eta inongo berariazko elkarte-araubideren menpe ez daudenak”.

Elkartzeko eskubidea izaera kolektiboko ekimenei forma juridikoa eman ahal izateko ezinbesteko elementua da. Oinarrizko eskubide horrek (Konstituzioaren 22. artikulua) Estatuak interes kolektiboak maila juridiko gorenean onartu eta babestea dakar.

Bi dira, eskuarki, elkarteei ematen zaizkien ezaugarriak:

- Elkarteak pertsonak helburu komun bat betetzeko biltzea dakar. Helburu horrek zehatza eta zilegia izan behar du.
- Ezarritako helburu komuna lortzeko elkartutakoen arteko lankidetzaz sustatuko duen antolaketa behar da —askatasun handiarekin ezar daiteke—.

Gainera, Gizarte Ekonomiari buruzko Legeak (martxoaren 29ko 5/2011 Legea) gizarte-ekonomiako erakundeen kategoriaren barruan sartzen ditu jarduera ekonomikoa gauzatzen duten elkarteak. Hots, elkarte guztiak ez daude gizarte-ekonomiaren barruan; aitzitik, soilik haren barrukotzat jotzen dira jarduera ekonomikoren bat lege horretan jasotako gizarte-ekonomiaren printzipioen arabera gauzatzen dutenak, hau da: pertsonak eta helburu soziala kapitalaren gainetik nagusitzea; jarduera ekonomikotik lortutako emaitzak nagusiki emandako lanaren eta

zerbitzuaren arabera aplikatzea; barneko eta gizartearekiko elkartasuna sustatzea; eta, azkenik, botere publikoekiko independentzia.

Gizarte-ekonomiako elkarteen eta, oro har, elkarteen ezaugarrietako bat haien aniztasun zabala da, haien hedapenarekin batera. Horren ondorioz, zaila da horien sailkapena egitea, eta horrek ere eragin du gizarte-ekonomiako elkarteen zuzeneko solaskiderik ez izatea, hau da, ordezkaritza-erakunde edo federazio modukorik. Hala ere, kontakizun hau egin ahal izateko, eta bildutako datuak eta informazioa kontrastatzeko, solaskide bat identifikatu da. Harekin elkarriketa bat egin da, eta, horren bidez, lehen eskutik ezagut daiteke familiaren egungo egoera, baita elkarteok epe labur eta ertainean izango dituzten erronkak ere.

Kasu honetan, Mikel Barturen izan da solaskidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen sareak biltzen dituen Sareen Sarearen koordinatzailea. Pertsona guztien —egoera kalteberenean daudenei arreta berezia eskainita— interes orokorra eta eskubideen defentsa bultzatzen duten herritarren ekimeneko eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek osatzen dute sektorea.

9.2. ELKARTEEN EGUNGO ERREALITATEA

Elkarteen datu sozioekonomiko nagusiak

EAEko gizarte-ekonomiako elkarteen egungo errealitatera hurbiltzeko, mota horretako erakundeen datu sozioekonomiko orokor batzuk aurkeztuko ditugu ondoren.

Horri dagokionez, esan behar da zaila dela gizarte-ekonomiako elkarteen garrantzia zehatz-mehatz kuantifikatzea eta haien datu sozioekonomikoak aurkeztea. Izan ere, administrazio publikoek ez dute sistematikoki bereizitako sektore ekonomiko horren daturik jasotzen. Hain zuzen ere, alde batetik, ez Euskadiko Elkarteen Erregistroak (Open Dataren bitartez) ez EUSTATEk ez dituzte bereizten gizarte-ekonomiako elkarteak eta gainerako elkarteak, eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak egiten duen Gizarte Ekonomiaren Estatistikak onura publikoko elkarteen datuak besterik ez ditu jasotzen.

Hori guztia kontuan harturik, egoera horretan, edo gizarte-ekonomiako elkarteen sektorea gehiegi ordezkutzen da (EAEn erregistratutako elkarte guztiak kontuan hartzen badira), edo sektorea gutxiegi ordezkutzen da (onura publikoko elkarteak bakarrik kontuan hartzen badira). Hurrengo tauletan ikus daitekeenez, aldeak sekulakoak dira; izan ere, Euskadiko

Elkarteen Erregistroan urtero inskribatutako elkarte guztiak sartzen dira, baina fitxategi horretan hainbat eta hainbat erakunde daude, benetako jarduera eraginkorrik izan ez arren eta/edo “abandonu” egoeran egonda ere, erregistroan agertzen jarraitzen dutenak, zeren formalki ez baitira desegin edo eraldatu. Gainera, erregistro horretan ez dago jakiterik zer elkartek egiten duten jarduera ekonomikoren bat eta zer elkartek ez (eta alderdi hori ezinbestekoa da legearen arabera gizarte-ekonomiaren partetzat hartzeko); horrela, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoan 25.000 elkarte inguru daude, baina kopuru hori oso zaharkituta dago, bistan denez (ikusi hurrengo taula).

Beste muturrean, aldiz, Eusko Jaurlaritzak Gizarte Ekonomiaren bi urtez behingo Estatistikan erabilitako datua dugu, “onura publikokotzat” katalogatutako elkartek bakarrik jasotzen dituenak. Halakotzat jotzen dira elkarteen erregistroko elkartek, “baldin eta indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta, beren jardueren bitartez, interes orokorra edo guztien ongia lortzen laguntzen badute, eta, horretarako, eskuzabaltasun-, altruismo-, elkartasun- eta aniztasun-balioak nabarmen gauzatzen badituzte¹”. Horrela, elkarte horiek gizarte-ekonomiari buruzko Estatuko legeria orokorrean ezarritako irizpideak betetzen dituztela ulertzen da. Elkarte guztien erregistro orokorrarekin ez bezala, irizpide hori erabiltzeak nabarmen mugatzen du gizarte-ekonomiaren barruan sartuko liratekeen elkarteen kopurua; izan ere, “onura publikoaren” kategoria horretan sartzea aukerakoa da, eta elkarte interesdunak berak eskatuta egiten da; beraz, begi-bistakoa da sektoreko elkarte guztiak ez direla sartzen elkarteen tipologia berezi horretan.

Hala ere, gaur egun gizarte-ekonomiako elkarteen beste erregistrorik ez dagoenez, lan honetan onura publikoko elkarteen errealitate sozioekonomikora hurbilduko gara; izan ere, erakunde horiei buruz dugu informazio gehien, kontuan harturik, hori bai, euskal gizarte-ekonomiako elkarteen errealitatea handiagoa eta askotarikoagoa dela.

¹ Onura Publikoko Elkarteen Administrazio Erregistroa. <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/administrazio-erregistroak/-/informacion/herri-onurako-elkartek/>

77. ilustrazioa. Elkarteen erregistroan inskribatutako elkarte guztiak (EAE, 2012-2019)

	Euskal Autonomia Erkidegoko elkarteen banaketa sektoriala (2011-2019)								
	Kultura orokorra	Kultura berezia	Politikoa eta sozioekonomikoa	Familia eta kontsumoa	Irakaskuntza	Gazteria	Auzoetakoa	Ongintza eta laguntza	Guztira
2011	10.442	1.357	3.410	756	1.604	537	1.132	1.193	20.431
Araba	1.944	201	623	102	223	73	161	251	3.578
Bizkaia	5.243	664	1.738	394	834	247	602	602	10.324
Gipuzkoa	3.255	492	1.048	260	547	217	369	340	6.528
2012	10.837	1.426	3.619	774	1.623	551	1.163	1.244	21.237
Araba	2.004	209	655	109	226	80	165	260	3.708
Bizkaia	5.448	700	1.844	401	840	252	617	630	10.732
Gipuzkoa	3.385	517	1.119	264	557	219	381	354	6.796
2013	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	20.747
Araba	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.
Bizkaia	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.
Gipuzkoa	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.
2014	11.170	1.433	3.732	713	1.494	544	1.189	1.266	21.217
Araba	2.058	214	685	97	191	70	164	264	3.743
Bizkaia	5.649	694	1.937	371	796	250	656	653	11.006
Gipuzkoa	3.463	525	1.110	245	507	224	369	349	6.792
2015	11.547	1.510	3.928	723	1.513	547	1.212	1.331	22.311
Araba	2.133	225	705	98	192	70	166	276	3.865
Bizkaia	5.838	730	2.031	378	807	253	670	685	11.392
Gipuzkoa	3.576	555	1.192	247	514	224	376	370	7.054
2016	11.882	1.552	4.235	741	1.508	519	1.255	1.367	23.059
Araba	2.153	220	739	111	201	67	165	283	3.939
Bizkaia	6.005	772	2.215	390	806	246	695	704	11.833
2017	12.147	1.603	4.418	736	1.506	534	1.239	1.385	23.568
Araba	2.240	220	772	102	190	77	172	286	4.059
Bizkaia	6.142	808	2.330	386	805	259	671	706	12.107
Gipuzkoa	3.765	575	1.316	248	511	198	396	393	7.402
2018	12.250	1.611	4.712	733	1.505	519	1.233	1.391	23.954
Araba	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.
Bizkaia	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.
Gipuzkoa	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.
2019	12.767	1.677	4.962	749	1.531	536	1.268	1.436	24.926
Araba	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.
Bizkaia	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.
Gipuzkoa	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.	n.d.

e.e.: ez dago erabilgarri

Iturria: OVES/GEEB, Eusko Jaurlaritzaren Open Data datuetatik abiatuta

78. ilustrazioa. Onura publikoko elkarten magnitude nagusiak (EAE, 2010-2018)


ELKARTEAK*	2010	2012	2014	2016	2018
Erakundeak	139	189	184	239	254
Enplegua	2.235	3.078	3.593	3.704	4.103
Balio erantsi gordina	112.415.956	114.248.935	44.587.734	34.612.142	142.589.542

* Onura publikoko elkarteak

Balio erantsi gordina (€)

Iturria: bertan landua, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren Gizarte Ekonomiaren Estatistiketatik abiatuta

79. ilustrazioa. Onura publikoko elkarteetako erakunde kopuruaren eta enpleguaren bilakaera (EAE, 2010-2018)



Iturria: bertan landua, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren Gizarte Ekonomiaren Estatistiketatik abiatuta.

Aurreko taulan eta grafikoan ikus daitekeen moduan, Euskal Autonomia Erkidegoko onura publikoko elkarteek goranzko bilakaera izan dute erakunde kopuruari eta bildutako enpleguari dagokienez. Horrela, 8 urteren buruan, kopuruak ia bikoiztu egin dira; izan ere, erakunde kopurua % 82,7 handitu da, eta urteko enplegu ordaindua, berriz, % 83,6.

Era berean, mota horretako erakundeek sortutako balio erantsi gordinaren bilakaera kontuan hartuta, ikus dezakegu 2010 eta 2018 artean

ere igoera nabarmena izan dela (nahiz eta ezin den beste bi aldagaien bilakaerarekin alderatu), kasu honetan % 26,8koa.

Zifra sozioekonomiko orokorren panoramika labur hau aurkeztu ondoren, hirugarren atalean, gizarte-ekonomiako elkarten ideia nagusiei eta ezaugarri bereizgarriei buruzkoan, ezaugarri horiek ulertzen laguntzen duten beste datu osagarri batzuk ikusi ahal izango ditugu.

Euskal mugimendu asoziatiboaren artikulazioa

Lehen ere aipatu dugu tradizionalki elkarte ugari egon direla, bai gizarte-ekonomiaren barruan, bai handik kanpo. Horren ondorioz, hainbat federazio eta elkarte sortu dira denboran zehar, jarduera-esparruaren eta/edo hurbiltasunaren arabera, ikuspegi politikoari edo gizartea ulertzeko moduari dagokionez.

Aurreko atalean ikusi dugun bezala, azpimarratu behar da zaila dela gizarte-ekonomiako elkarteak sailkatzea; izan ere, EAEko Elkarten Erregistroak egiten duen sailkapen orokorra zabalegia da², eta, beraz, elkarte mota “beraren” barruan oso erakunde desberdinak daude, eta ezin da identifikatu zein elkartek egiten duen jardueraren bat eta, are gutxiago, gizarte-ekonomiaren irizpide eta printzipioen arabera egiten duten.

Horrekin guztiarekin, Gizarte Ekonomiako elkarten ekosistema aski sakabanatua dugu aurrean; kasu batzuetan ez dira ezein federaziotakoak, eta beste kasu batzuetan, berriz, zenbait sare, erakunde taldekatzaile eta abarretan egituratuta, egoeraren, idiosinkrasiaren eta helburu estrategikoen arabera, baina ez dute zertan izan gizarte-ekonomiaren sektorekoak bakarrik.

Horren adibide garbia da Sareen Sarea. Bertan, gizarte-ekonomiaren barruan sailkatuko lirakeen elkarte askok parte hartzen dute, a priori sektorekoak izango ez lirakeen beste batzuekin batera. Nabarmentzekoa da sare horretan gizarte-ekonomiako familiak ordezkatzan dituzten erakundeek ere parte hartzen dutela, hurrengo atalean ikusiko dugun bezala.

Sareen Sarea

Euskal Autonomia Erkidegoko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen sareak biltzen dituen elkarte da Sareen Sarea. Pertsona

² Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistroan honako sailkapen hau egiten da: Kultura orokorra, Kultura berezia, Politikoa eta sozioekonomikoa, Familia eta kontsumoa, Irakaskuntza, Gazteria, Auzoetakoa, eta Ongintza eta laguntza.

guztien —egoera kalteberenean daudenei arreta berezia eskainita— interes orokorra eta eskubideen defentsa bultzatzen duten herritarren ekimeneko eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek osatzen dute sektorea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak boluntarioek osatzen dituzte nagusiki; bazterkeria egoera anizteta daudenek, desgaitasun, mendekotasun edo babesgabeko egoeran daudenek edota ordaindutako profesional eta bazkideek, hain zuzen.

Erakunde horiek esku-hartze sozialarekin lotutako interes orokorreko ekintzak egiten dituzte; hau da, gizarte-zerbitzuetakoak, enplegurako sarbidearekin lotutakoak eta eskubide zibil, ekonomiko, sozial eta kulturaleri lotutako beste edozein ekimen; parekidetasunaren eta ez-diskriminazioaren egoera lortzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hirugarren Sektore Soziala egoitza edo jarduera EAEn duten 3.500 erakundeek osatzen dute, 125.000 boluntario eta 36.000 enplegatu biltzen dituztenak, eta gure lurraldearen BPGaren % 2,2 ordezkatzen du. Erakunde horien guztien % 38, gutxi gorabehera, jarduera ekonomikoa duten elkartek dira, % 6 jarduera ekonomikoa duten fundazioak, eta % 4 enplegu-zentro bereziak, laneratzeko enpresak eta gizarte-ekimeneko kooperatibak. Horien guztien artean, gizarte-zerbitzuei eskainitako jarduera da nagusi (Euskal Autonomia Erkidegoko Hirugarren Sektore Sozialeko Liburu Zuriaren datuak).

Erakunde horiek guztiek errealitate sakabanatu eta atomizatua osatu dute historikoki. Azken urteotan, presentzia, onarpena, elkarrizketarako gaitasuna eta eragin politikoa irabazten lagunduko duten sare eta federazioetan antolatzeko ahalegina egiten ari dira. Horrexegatik sortu zen Sareen Sarea, konbergentzia horren adierazpenik gorena, gizarte justu eta solidarioago, kohesionatuago eta parte-hartzaileago baterako bidean aurrera egiteko.

Gaur egun, hamabost sare hauek biltzen ditu, eta horien artean daude gizarte-ekonomiakotzat hartzen diren zenbait sare³:

1. Astialdi Sarea
2. Euskadiko GGKE (Euskadiko Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeen Koordinakundea)
3. EAPN Euskadi (Pobrezia eta giza bazterketaren aurkako europar sarea Euskadin)
4. EHLABE (Euskal Herriko Lan Babestuen Elkarte)
5. Elkartean

³ EHLABE, GIZATEA eta REAS Euskadi dira, baita ONCE ere, Gizarte Ekonomiari buruzko Legean (martxoaren 29ko 5/2011 Legea) jasotakoaren arabera.

6. EuskoFederpen (Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkartearen Lurralde Federazioa)
7. FEDEAFES (Buru Gaixotasuna duten Pertsona eta Senide Elkartearen Euskadiko Federazioa)
8. FEVAS Plena inclusión Euskadi
9. Gizatea (Euskal Autonomia Erkidegoko Laneratzeko Enpresen Elkarte)
10. Harresiak Apurtuz
11. Hirekin (Euskadiko Gizarte Ekimeneko eta Esku Hartzeko Entitateen Federazioa)
12. Hirukide
13. Lares Euskadi
14. ONCE
15. REAS Euskadi (Euskadiko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea)

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia

Hirugarren Sektorearen Behatokia informazioko, dokumentazioko, ikerketa aplikatuko eta sustapeneko zentroa da, hirugarren sektorean espezializatua, irabazi-asmorik gabea eta independentea, hirugarren sektorea indartzea eta erakundeen kudeaketaren berrikuntza eta hobekuntza bultzatzea helburu duena.

Erakundeen eta sareen beren parte-hartzearekin kudeatu eta diseinatutako tresna horren bidez, Bizkaiko hirugarren sektorearen errealitatea ezagutzen lagundu nahi da, eta hura indartu, haren ekarpen soziala ikusarazi eta bultzatu, baita hobetzen lagundu ere, ikerketa-proiektuen bitartez eta informazio, eztabaida eta gogoetarako espazio eta tresnen bidez. Horretarako, Behatokiak bere gain hartzen du ezagutza sozializatzeko konpromisoa, eta dibulgazio-ahalegina egiten du. Eragileek parte hartzen duten proiektua da, eta, aldi berean, eragile guztiengandik independentea, eta komunitate bat osatzen du, sektorearen barruan trukea eta lankidetzatza bultzatuz.

Hirugarren sektoreak gizarte zibilaren adierazpen antolatu gisa eratu nahi du, baita gizartearen parte-hartzea eta elkartasuna artikulatzeko tresna gisa ere, gizarte-kohesioari, herritarren jardun aktiboari eta kalitate demokratikoari laguntzeko bidean.

Behatokiaren ustez, Bizkaiko hirugarren sektorea gizarte zibilean jardunean dauden eta kudeaketa-autonomia eta independentzia duten ekimenek osatzen dute. Ekimen horiek irabazi-asmorik gabekoak dira, eta, oro har, borondatezkoak, eta esku-hartze sozialera bideratzen dute beren

jarduera, zentzu zabalean. Horrek esan nahi du gizarte-ingurunea hainbat eremutatik hobetzea dutela helburu. Beraz, Bizkaiko lurralde historikoko elkarte asko sartuko lirateke definizio horren barruan.

EAEko elkarteei buruzko legeriaren bilakaera

Elkartzeko eskubidea maila goreneko arauetan aurreikusitako oinarrizko eskubidea da, hala nola Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean eta Espainiako Konstituzioan. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 20.1 artikulua dioenez, “Nornahik du bakean biltzeko eta elkartzeko eskubidea”, eta 20.2 artikulua adierazten duenez, bestalde, “Inor ezingo da behartu elkarte bateko kide izatera”. Konstituzioari dagokionez, oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak arautzen dituen 22. artikulua nabarmendu behar da. Honako hau ezartzen du: “1. Elkartzeko eskubidea aitortzen da. 2. Elkarteen helburuak edo bitartekoak delitu izanez gero, elkarteok legearen aurkakoak izango dira. 3. Artikulu honen babesean sorturiko elkarteak erregistroan inskribatu behar dira, publikitate-ondoretarako bakarrik. 4. Elkarteak desegin edo horien jarduerak eteteko, nahitaezkoa da ebazpen judizial zioduna ematea. 5. Isilpeko elkarteak eta elkarte paramilitarrak debekatzen dira.”

Espainiako Estatuan, elkartzeko eskubidearen erregulazio espezifikoa Elkartzeko Eskubidea Arautzeko Lege Organikoan (martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoa) ezarrita dago. Autonomia-erkidego batzuek, alabaina, beren Autonomia Estatutuaren arabera, eskumen eskusiboa dute gai horretan. Horixe da Euskal Autonomia Erkidegoaren kasua. 1979an, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10.13 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoari eman zion eskumen eskusiboa honako gai hauetan: “irakaskuntza-, kultura-, arte-, ongintza-, eta sorospen-izaerako nahiz antzeko fundazio eta elkarteak, beren egitekoak nagusiki Euskal Herrian betetzen dituzten bitartean”.

Asoziazionismoaren garrantzia kontuan harturik, xede erkideak lortzearen gainerako pertonekin batzeko eta harremanak izateko bulkadaren adierazpen-formula den aldetik, Euskal Autonomia Erkidegoak 1988an Bazkunei buruzko Legea (otsailaren 12ko 3/1988 Legea) onartu zuen, Estatuan gai hori arautu zuen lehena. Askatasun eta pluraltasun asoziatiboaren defentsan eta sustapenean oinarritutako araua da, elkarteak bermatu, babestu eta sustatzeko tresna gisa eratu. Legearen alderdirik azpimarragarrienetako bat bere espiritu irekia da, baita bere artikulatua uneko errealitatera egokitze borondatea ere. Gainera, azpimarratzekoa da pertsona juridikoek, publikoek zein pribatuek, elkarteak eratzeko aukerari buruz sartutako berrikuntza.

Urte batzuk geroago, Estatuak Elkartzeko Eskubidea Arautzeko 1/2002 Lege Organikoa onartu zuenean, legegileak lege berri bat egin behar izan zuen, araudi organikoaren eskakizunetara egokitzeko eta aurrekoaren edukiak garatzeko. Lege Organiko horrek elkarteen lege orokor gisa jarduten du, hau da, araubide erkide gisa, eta Konstituzioaren 22. artikuluan aitortutako elkartzeko eskubidea garatzea du helburu nagusizat.

Horren ondorioz, 2007an Eusko Legebiltzarrak Euskadiko Elkarteei buruzko Legea (ekainaren 22ko 7/2007 Legea, gaur egun indarrean dagoena) onartu zuen, 1988ko araua indargabetu zuena. Legea Estatuko araudi organikoaren eskakizunetara egokitzeko sortu zen, baita 1988ko Legearen edukiak urte haietan lortutako esperientziaren arabera burutzeko eta garatzeko ere. Lege horren funtsean, batetik, elkartzeko eskubidea Konstituzioak finkatutako oinarritzko eskubidetzat eta askatasun publikotzat hartzen duen ikuskera dago; bestetik, askatasun zibilaren printzipioa. Edukiari dagokionez, errepikatu edo egokitu egiten ditu maila organikoa duten edo Estatu osoan aplikatzekoak diren zenbait manu.

Arau horrek elkartzeko eskubidearen dimentsio kolektiboa azpimarratzen du; izan ere, antolaketa-egitura egokia ezartzea dakar, interes orokorreko edo partikularreko helburuetarako parte-hartze komunitarioaren nahiak hainbat motatako jardueren bidez bideratzeko. Gainera, gizarte zibil dinamiko, plural eta arduratsu baten adierazpen gisa betetzen duten funtzio sozial garrantzitsua onartzea dakar berekin.

Puntu honetan, arau horrek sartutako alderdi berritzaileenetako batzuk nabarmendu behar dira:

- Legean elkarteei buruz agertzen den definizioaren xedea, hain zuzen, argi egitea da; ez da inola ere definizio dogmatiko eta itxiztat hartu behar.
- Lege horren aplikazio-eremuan sartzen dira garapenerako lankidetzako eta ekintza humanitarioko jarduerak egiten dituzten elkarteak ere. Elkar-teok herrialde pobretuetako bizi-baldintzak hobetzen egingo dute lan.
- Elkar-teen barne-antolamendu eta -funtzionamendua arautu behar duten bi printzipio aipatzen dira, hots, demokrazia eta aniztasunaren errespetua.
- Elkar-teen tipologia ireki eta malgua ezartzen da.
- Elkar-teak eratu edo horietan sartzeko gaitasuna aitortzen zaie pertsona juridiko publikoei; baina zuhurtziako zenbait neurri ere ezartzen dira sektore publikoak ez dezan eskurik sartu.
- Izaera malgua duen gobernu-organoa eratzen da.
- Legean jasota dago estatutuetan bertan zehaztu daitekeela elkar-teari egiten zaizkion ondare-ekarpenak berreskuratuzeko

aukera, baldin eta elkartea desegin edo elkartekideak, bere borondatez, elkartea uzten badu.

- Elkartekide diren pertsonen tipologia zehazteko, ohikoa den sailkapen-irizpidea jarraitzen du legeak; berritasun bakarra egongo da: haurrak ere bazkide izan daitezke.
- Elkartekide diren pertsonen eskubide eta eginbeharren zerrenda labur eta zehatza finkatzen da, eskubide eta eginbehar horiek gero, estatutuen bitartez, garatu eta osatu ahal izan daitezen, elkartek dituen beharren arabera zein elkartekideek elkartea antolatzeke duten askatasuna erabiliz erakusten duten borondatearen arabera. Eskubide eta eginbeharren zerrenda da, elkartekide diren pertsonen estatutu juridiko xedaezinenaren gutxieneko edukia.
- Lehenengoz arautu da elkarteen bat-egitea; halaber, lehenengoz arautu da elkarre-izaera duten baina lege honen menpekoak ez diren erakundeak lege honek araututako elkarre bihurtzea, bai eta alderantzizko bidea ere.
- Elkartegintzak Euskal Autonomia Erkidegoarentzat duen gizarte-balioa aldarrikatzen da, eta zehatz arautzen dira elkartek herri-onurakotzat aitortzeko betekizunak eta prozedura. Aitorpen hori dekretu bidez egingo da, eta dekretua diskrezionala izango da.

9.3. IDEIA NAGUSIAK

Elkartek, erakunde bereziak diren aldetik, beren espezifikotasunak eta ezaugarriak dituzte, gizarte-ekonomiako beste erakunde mota batzuetatik bereizten dituztenak, baina, aldi berean, gainerako familien funtsezko ezaugarri berberak dituzte, eta kapitalismo hutseko enpresa eta erakundeetatik bereizitako sektoreaz hitz egiteko aukera ematen digu. Euskal gizarte-ekonomiako gainerako familiekin partekatutako puntu komunak dira, kontakizun komunean identifikatu ziren lau ideia nagusiak: pertsonen zentraltasuna; erakundeen izaera demokratikoa; enpresadimentsioa; eta hartzen dituen komunitatearekiko konpromisoa.

Lehen ideiak, pertsonen zentraltasunak, hainbat gairi egiten die erreferentzia; besteak beste, pertsonak eta haien lanak kapitalaren gainetik duten nagusitasuna nabarmentzen da, baita horrelako erakundeek sortzen duten enplegu mota ere: kalitatezkoa, egonkorra eta pertsonak erakundeetan ahalik eta garapen integralena izatea ahalbidetzen duena. Hori, nagusiki, lan-baldintza duinen bidez hezurramitzen da, lanaren zentraltasunean oinarritzen diren erakundeetan, edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak edo desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzea eta laneratzea helburu duten erakundeetan. Alde horretatik, esan behar

da onura publikoko elkarten kasuan, urtean ordaindutako enpleguaren % 73,5 emakumeei dagokiela, eta kontratu guztien % 73,5 (bi sexuatarako), gehien-gehienak finkoak direla (% 70,4), aldi baterako kontratuen aldean (% 29,6).


Erakundeen izaera demokratikoari dagokionez, antolaketa-eredua ezartzerakoan demokrazian oinarritzen diren erakundeak dira. Eredu horretan, gizarte-ekonomiako erakundeen identitate-ezaugarri nagusia pertsona guztien erabaki-ahalmen berean islatzen da, erabaki garrantzitsuenak hartzerakoan. Erakundeko pertsonen artean errentak, kapitala eta boterea modu ekitatezkoagoan banatzen dituzten heinean, berdintasunezko erakunde gisa eratzten dira, beste enpresa mota batzuek baino desberdintasun txikiagoa sortzen dute, eta hori hain desberdinak ez diren lurraldeetan ere islatzen da.

Elementu horien guztien ondorioz, enpresa-jardunbide zehatzak sortzen dira, “berdinen arteko harremanaren” ideia bera oinarri dutenak: bigarren mailako sareetan lankidetzan aritzeko politikak; langileek (edo haien ordezkari diren elkarteek) kapitalean, emaitzetan eta kudeaketan parte hartzeko politikak; gardentasun- eta informazio-politikak; edo ordainsarien barne-elkartasunerako politikak.

Hirugarren ideiak, enpresa-dimentsioak, gogorarazten digu horrelako erakundeek eragin ekonomiko esanguratsua dutela, gizartearen esperientziak bideratzen baitituzte jarduera ekonomikoren bat gauzatuz. Gainera, gainerako erakunde kapitalisten aurrean bereizten da, epe luzerako proiektu kolektiboaren jasangarritasuna interes laburragoen edo koiunturalagoen aurretik jartzen duelako. Hori lehiakortasuna ulertzeko moduarekin lotuta dago: batetik, bizirik irautearen logikatik eta erakundeek krisialdietan erresilientzia izateko duten gaitasunaren logikatik, eta, bestetik, lehiakortasuna kostuak murriztearen bidez aurkariak merkatu-nitxotik kentzea dela ulertuta.

Azkenik, gizarte-ekonomiako erakundeek bereizgarri dute, halaber, hartzten dituen komunitatearekiko konpromisoa, eta horrek berekin ekartzen du erakundeek lurraldeetan irautea, hots, *lurralde-sustraitzea*. Horrela, lurraldeen jasangarritasunaren eragile estrategikoak dira, jasangarritasun hori eragin hirukoitzetik ulertuta: ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa. Izan ere, tokiko enplegua eta aberastasuna sortzen duten erakundeak dira, lehenik, eta modu bidezkoagoan banatzen dute, arestian adierazi den moduan. Bestalde, lurraldea sozialki kohesionatzen duten erakundeak dira, pertsonen eta tokiko erakundeen arteko harremanak ahalbidetzen dituzte-eta. Hirugarrenik, kapital soziala sortzen dute, asoziazionismoa elikatzen dutelako, partaidetza- eta lankidetzakultura daramatelako eta pertsonen arteko konfiantza elikatzen dutelako.

80. ilustrazioa. Gizarte-ekonomiaren ideia nagusiak



Iturria: bertan landua

Ondoren, euskal gizarte-ekonomiako familia guztiek partekatzen dituzten ezaugarri nagusiak labur-labur aurkeztu ondoren, sakonago aztertuko dugu elkarteek nola jartzen dituzten praktikan ideia horiek, eta, horrela, erakunde horien berezitasunak identifikatu eta balioetsi ahal izango ditugu.

Elkarteek bermatzen dute pertsonak eta helburu soziala kapitalaren gaineratik nagusitzea

Horrek kudeaketa autonomoa, gardena, demokratikoa eta parte-hartzailea eskatzen du, eta lehentasuna ematen dio erabakiak pertsonen arabera eta horiek egindako lan-ekarpenen eta erakundeari emandako zerbitzuen arabera edo helburu sozialaren arabera hartzeari, kapital sozialari egindako ekarpenei loturik hartzearen aurretik.

Horrela, etekin ekonomikoen banaketa bilatzen ez duten erakundeak dira, eta beren figura juridikotik ondorioztatzen da balizko edozein etekin erakundearen misioan berriz inbertitzeko betebeharra. Beraz, ez dituzte etekinak banatzen pertsona eta/edo erakunde parte-hartzaileen izenean.

Beren jarduerak pertsonen beharrak asetzea du ardatz

Pertsonak kapitalaren aurrean duten nagusitasunari hertsiki loturik, kontuan hartu behar da elkarteak irabazi-asmorik gabeko erakundeak direla, askatasunez atxikitako hainbat pertsonak osatzen dituztela eta helburu partikularrak edo orokorrak lortzeko antolatzen direla. Beraz, gara dezaketen jarduera ekonomikoa ez da inoiz izango elkartearen azken helburua; aitzitik, pertsonen beharrak asetzearen mende egongo da beti.

Ildo horretan, sektoreak dioten bezala, elkarteak bultzatzen dituen ez da kapitala lortzea, pertsonen gaineko esku-hartze soziala gauzatzea baizik; hots, elkarrekiko laguntza da helburua. Gure lurraldeko adibiderik garbientako bat desgaitasunaren sektorea da. Sektore horretan, kaltetutako pertsonak edo haien senideek bat egin dute erakundeak sortzeko eta, horien bitartez, kolektiboak dituen beharrei erantzun ahal izateko. Erakunde publikoetan eta merkatu arruntean aurkitzen ez duten erantzuna behar duten beharretan esku hartzea, hobetzea eta haiei erantzutea. Gizarte-ekimenak ematen du erantzun hori.

Zuzenean laguntzen dute elkartekideen garapen integralean

Erakundeak elkartekideen alde orientatzeak zuzenean laguntzen du elkartekideen garapen integralean. Horri loturik, gainera, gure lurraldeko elkarte askoren helburu nagusia da, gizartean esku hartzeko ekimenen bidez, kalteberatasun-egoeran dauden pertsonak gizarteratzea eta eskubideak eraginkortasunez egikari ditzaten sustatzea. Horrela, pertsonen garapenean laguntzen duten ideia indartzen da.

Barneko eta gizartearekiko elkartasuna sustatzen dute

Elkarteak gizartearekin konprometitutako erakundeak izaten dira, eta horrek esan nahi du horrelako erakundeek gizarte-premia bati erantzutea dutela helburu, interes orokorrak defendatu ohi dituzte-eta. Interes orokorrak asetzeko helburu horrek elkartekideen beharrak gainditzen ditu, elkartekide ez diren hirugarrenen edo gizarte osoaren alde.

Tokiko sustraitze handia erakusten dute

Elkarteek tokiko sustraitze handia erakusten dute, eta konpromiso handia tokiko garapenarekin: elkartekideen interesak eta/edo interes orokorrak lortzea da erakunde horien azken helburua, eta tokiko interesekin erlazionatuta egon ohi dira.

Tokiko errotze handia erakusten duten erakundeak dira, eta komunitate baten beharrei erantzun nahi diete, gehienetan, haiek hartzen dituen komunitatearen beharrei. Solaskideak adierazi duen bezala, ez dira deslokalizatzen diren erakundeak; gure lurraldeko elkarte gehienak txikiak dira eta toki- eta lurralde-izaera dute. Gainera, zerbitzuen eta produktuen kontsumoa komunitateko bertako enpresekin egiten da.

Izan ere, ez da ahaztu behar gizartetik sortzen direla eta, jatorritik bertatik, lotura eta konpromiso egonkorra dutela lurraldearekin eta beren jardueraren hartzaile diren pertsona edo komunitateekin. Kasu askotan, hartzaileek berek osatzen dituzte zuzenean.

Elkarteak erakunde demokratikoak eta parte-hartzaileak dira

Elkarteak erakunde demokratikoak eta parte-hartzaileak dira. Erakunde demokratikoak dira, organo subiranoa Batzar Nagusia baita, elkartekide guztiek osatua. Elkartekide bakoitzak, gutxienez, boto bat du Batzar Nagusian, baina boto haztatuko sistemak ezar daitezke kasu zehatzetan. Bestalde, erakunde parte-hartzaileak direla esan daiteke, elkartekide guztiek baitute erakundearen gobernuan nahiz jardueretan parte hartzeko eskubidea.

Azkenik, eta behar bezala parte hartzeko beharrezkoak diren tresnekin batera, elkartearen eta ordezkari-organoen kontuen eta jardueren garapenaren informazioa eta gardentasuna (elkartekideentzat) horrelako erakundeen idiosinkrasiak berezkoa duen betebeharra da.

Elkarteen ezaugarri ezagunenetakoa bat da. Sektoretik esaten duten bezala, parte-hartze demokratikoaren sistema da erakunde horien funtsa. Sistema demokratikoa elkartekideen artean eta harago, haiekin lan egiten duten pertsonen, ekintzaren hartzaileek, beren beharrei emango zaien erantzunarekin zerikusia duten esparruetan ere parte hartzeko aukera izan dezaten, egiten den lanaren protagonista izan daitezen, batez ere, bazterketaren eta desgaitasunaren esparruetan.

Elkarteek parte hartzeko prozedurak erabiltzen dituzte erabakiak hartzeko, kapitalaren jabetzan oinarritzen ez direnak eta erakundeak osatzen duten kolektiboak maila desberdinetan inplikatzeko dituztenak. Beraz, kudeaketa-estilo demokratikoa dute, eta, kasu askotan, alderdi interesduneko harreman-estrategia.

Gizarte-ekonomiako elkarteek enpresa-dimentsioa dute, jarduera ekonomikoren bat egiten baitute

Elkarteen enpresa-dimentsioak esan nahi du gizarte-ekonomian sartzeko jarduera ekonomiko bat egin behar dutela, baina egia da jarduera hori egitea ez dela inoiz elkartearen azken helburua.

Gure lurraldean jarduera ekonomiko handia duten elkarteen adibide batzuk nabarmendu daitezke, hala nola Gorabide, familiek osatutako irabazi-asmorik gabeko elkarteak, Bizkaian desgaitasun intelektuala duten pertsonen laguntza ematera bideratua. 500 langile baino gehiago ditu eta urtean 30 milioi eurotik gorako aurrekontua. Langileez gain, boluntarioak eta senideak ere badituzte.

Kasu horiek zuzenean erlazionatuta daude pertsonen bizitzaren zati horri, hala nola enpleguari, erantzuteko ideiarekin. Pertsonak gizartearen txertatzeko tresna bat da, eta, beste behin ere, pertsonak dira erakundearen ardatz.

Esan behar da dirua erakundearen helburuetarako berrinbertitzen dela, etekinak ez baitira bazkideen artean banatzen.

Botere publikoekiko independentzia bermatzen dute

Araudia oso garbia da kasu horretan, eta Konstituzioaren 22. artikulua eragozten du botere publikoek elkartearen funtzionamenduan esku hartzea. Administrazioek ezin izango dute elkartearen bizitza oztopatzen duen prebentzio-neurririk hartu.

Erakunde horiek independenteak eta subiranoak izan behar dute erabakiak hartzeko; hau da, autonomoak eta pribatuak dira, eta ez dute botere publikoen edo beste eragile batzuen partaidetzarik. Horrela, instituzionalki administrazioetik bananduta eta autogobernatuta daude.

9.4. AZPIFAMILIAK ETA ADIBIDE PARADIGMATIKOA

Aurreko ataletan ikusi dugun bezala, gizarte-ekonomiako elkarteek familia zabala eta askotarikoa osatzen dute, eta, beraz, zaila da elkartearen azpifamilien sailkapen garbia ezartzea. Nolanahi ere, eta sinplifikatzeko arriskupean, honako esparru funtzional hauek bereiz ditzakegu (baina ez dira baztertzailak, kasu askotan elkarteak talde batean baino gehiagotan sar baitaitezke), gure ustez euskal gizarte-ekonomiako elkarte gehienak hartzen baitituzte.

Horrela, beren jarduerak nagusiki honako hauetara zuzentzen dituzten elkartek izango genituzke:

- Garapen pertsonalera eta kolektibo ahulen erabateko inklusiora, baita pertsonen eskubideen babesera ere (haurrak, gazteak, adinekoak...)
- Ingurumena eta animaliak babestera
- Gizarte-eraldaketaren sustapen aktibora (eraldatzaileak)

Lehenago ere aipatu da gaur egun ez dagoela gizarte-ekonomiako elkarteen azpifamiliak biltzen dituen sarerik, Sareen Sareaz harago. Sare horrek, bestalde, elkartek ez ezik, fundazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko hirugarren sektore sozialeko beste erakunde mota batzuk ere biltzen ditu.

Hori dela eta, atal honetan kasu paradigmatico bakar bat aurkeztuko dugu, baina aurreko atalean horrelako erakunde berezien espezifikotasunaren osagai gisa identifikatu ditugun ideia nagusi guztiak bere jardueran integratzen dituen. “*Karabeleko etxalde agroekologikoa*” elkartearen kasua da⁴.

Karabeleko etxalde agroekologikoa elkartea

Karabeleko irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da, nekazaritza ekologikoaren esparruko finka experimental gisa gorpuzten dena, Hernanin kokatua eta hiru eragileren lankidetzatik sortua: AGIFES⁵, Blasenea⁶ eta Kimu Bat⁷. Proiektua AGIFESek Kimu Bati lorategi txiki bat eraikitzeko egindako eskaerari esker sortu zen, elkarte horrek Hernanin lursail handi bat baitzuen jabetzan, eta ez baitzekiten harekin zer egin. Lehen harreman horretatik sortu zen finka agroekologiko experimental bat sortzeko ideia, gaixotasun mentala duten pertsonentzako terapia okupazional gisa eta, aldi berean, laborategi agroekologiko experimental gisa erabiltzeko asmoz, eta Blasenea sartu zen alderdi horretan.

Bere helburu nagusia da nekazaritza ekologikoa sustatzea eta baratzezaintza ekologikoaren ekoizpen- eta kontsumo-kultura zabaltzea. Jendeari eta baratzezaintza ekologikoaren sektoreko profesionalei irekitako esperimentazio-zentroa da.

⁴ <https://www.karabeleko.org/eu>

⁵ Buru Osasun Arazoa duten Pertsonen eta Senideen Gipuzkoako Elkartea: 1985ean sortutako irabazi-asmorik gabeko erakundea, nahasmendu mentala duten pertsonak komunitatean normalizatzea eta integratzea lortzeko, kalitatezko zerbitzuak erreibinditzeko (soziala, lanekoa, osasunekoa) eta osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea bultzatzeko.

⁶ 2006az geroztik, soil-soilik barazki, landare usaintsu eta fruitu txikien landare ekologikoak ekoizten dituen familia-enpresa.

⁷ Kimu Bat egoitza soziala Azpeitian duen lan-sozietatea da, eta 30 urte baino gehiago daramatza paisajismoaren eta lorezaintzaren sektorean lanean.

Errehabilitazio psikosozialeko zentroa ere bada, gaixotasun mentala duten pertsonen eta bazterketa-arriskuan dauden beste kolektibo batzuei zuzendua, pertsona horiei gizarte eta lanean integratzen laguntzeko. Era berean, gaixotasun mentalaren inguruko gizarte-sentsibilizazioa sustatzen da, gizarte kolektibo kaltebera horrenganako oztopoak desagerrarazten laguntzeko.

Azkenik, esan behar da proiektu ekonomikoki jasangarria dela, batez ere aberastasuna bere baliabideen bidez sortzen duena, eta, horretarako, premia eta erronka sozial berrietara egokitzen da, aurrez azaldutako ideia nagusiekin bat datozen balio eta printzipio batzuei jarraituz (kontsultatu esperientzia-fitxa).

Esperientzia zehatz horri esker, ikus dezakegu gizarte-ekonomiako elkarteek potentzial handia dutela gizarte-egoera ahulean dauden kolektiboak gero eta gehiago baztertzen dituzten eta indibidualtasunari lehentasuna ematen dioten gizarte eta testuinguru sozioekonomikoari aurre egiteko.

81. ilustrazioa. Esperientzia-fitxa: Karabeleko etxalde agroekologikoa

Erakundearen deskribapena eta helburuak	Irabazi-asmorik gabeko elkarte, nekazaritza ekologikoa eta errehabilitazio psikosoziala sustatzen dituen gaixotasun mentala duten pertsonentzat eta bazterketa-arriskuan dauden beste kolektibo batzuentzat.
Erakunde sustatzailea	<ul style="list-style-type: none"> ➤ AGIFES ➤ Kimu Bat ➤ Blasenea
Abian jartzea	<ul style="list-style-type: none"> ➤ 2014
Proiektuaren oinarri diren balioak	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Pertsona ardatz ➤ Gobernantza demokratikoa eta parte-hartzea ➤ Nahasmendu mentala duten pertsonentzako aukerak ➤ Hurbiltasuneko harremanak ➤ Ingurumen-jasangarritasuna ➤ Jakintza garatzea ➤ Bertako baratzezaintza-sektorea bultzatzea ➤ Gizarte eraldatzea
Aktiboki eragiten dien ideia nagusiak	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Pertsonak eta helburu soziala kapitalaren gainetik nagusitzea ➤ Pertsonen beharrak asetzea ➤ Elkartekideen garapen integralean laguntzen du ➤ Barneko eta gizartearekiko elkartasuna sustatzen du ➤ Tokiko sustraitzea ➤ Antolaketa demokratikoa eta parte-hartzailea ➤ Enpresa-dimentsioa ➤ Botere publikoekiko independentzia

Iturria: bertan landua

9.5. ETORKIZUNEKO ERRONKAK

Euskal Autonomia Erkidegoko elkarteek dituzten ezaugarriak, aurreko ataletan islatu direnak, aktibo sendo eta garrantzitsua dira elkarte horiek jarraitzeko eta sustatzeko, baina kontuan hartu behar da elkarte horiek ez daudela testuinguru aldakor bati aurre egiteko berezko eta kanpoko zailtasunetatik salbu.

Ildo horretan, euskal gizarte-ekonomiako elkarteek etorkizunari begira dituzten erronka nagusiak azalduko ditugu jarraian, batez ere sektorearekin ezarritako elkarrizketari esker atereak:

- Identifikatutako erronka nagusietako bat, eztabaidagai izan dena, elkarteetako boluntarioen izaera eta ustiapenarekin duten harremana da. Puntu honetan, erakundeek garbi daukate boluntarioen ekarpena funtsezkoa dela elkarteetan, eta ez dutela lanposturik ordezkatzeko, hau da, ez dutela lan profesionalik egiten. Sektoretik onartzen dute erne daudela boluntarioen ekarpen handia hutsaldu dezakeen desbideratzerik egon ez dadin.
- Bestalde, botere publikoekiko mendekotasun ekonomikoaren ondoriozko arriskuak aipatzen dira. Elkarteek onartzen dute arrisku hori badagoela eta eragina izan dezakeela. Horregatik, Sareen Sarea bezalako sareak sortzearen garrantzia azpimarratzen da, elkarrekin jarduteko eta horrelako arazoak arindu eta kudeatzeko.
- Elkarteak ez dira COVID-19aren krisialditik kanpo geratu, eta, horregatik, etorkizuneko erronkak beste modu batera planteatu behar izan dituzte, gaur egun modu pausatuagoan eta sakonagoan eztabaidatzen ari baitira.
- Adierazi duten bezala, gehienak ziurgabetasun-une batean daude. Berrasmatu egin behar izan dute eta agertoki berri horretara denbora errekorrean egokitu. Gainera, kontuan hartu behar da gure lurraldeko elkarte askok pertsonekin lan egiten dutela, eta, ondorioz, testuinguru sozialaren eskakizun berrietarako behar diren aldaketak modu ordenatuan eta arretaz egin behar direla.
- Elkarteen “mikro” ikuspuntutik, lehen mailan, teknologia berriak —telelaguntza eta telelana— egokitzeko eta erabiltzeko erronkak identifikatu dira. Erronka horiek bereziki zailak dira erakunde txikietan eta/edo horrelako teknologiekin ohituta ez dauden kolektiboekin lan egiten duten erakundeetan.
- Bestalde, etengabe aldatzen ari den ingurune batean erabakiak bizkor hartzea, eta aldaketa horien aurrean egokitzeko gaitasuna izatea.

- Esku-hartze sozialaren ikuspuntutik (esparru zehatz horretan diharduten elkarteei dagokienez), erronka garrantzitsuenetako bat funtsezko zerbitzuak mantentzea da, eta, batez ere, proiektuari epe ertain eta luzean eustea. Aurreikus daitekeen diru-sarreraren krisiaren aurrean, finantzaketa publiko eta pribatuak eragina izan dezake; beraz, egoera horri aurre egitea benetako erronka da orain.
- Azkenik, beste erronka nagusietako bat kontzientzia publikoa, herritarra eta instituzionala da, hau da, gizartean esku hartzen duten erakunde horietako askok egiten duten ekarpenari balio ematea, eta are gehiago, biziko dugun egoera honetan. Beraz, sektorea ikusaraztea funtsezko zeregina da.

9.6. ONDORIOAK

Identifikatutako ideia nagusietatik eratortzen diren ondorio nagusiak jasoko dira, baita euskal gizarte-ekonomiaren parte gisa duten balio eta ekarpen espezifikoak eta aurkezten zaizkion erronkak ere.

Asoziazionismoaren munduak tradizio luzea du gure gizartean, eta lehen esperientzia hasiberriak sortu zirenetik, ibilbide luzea egin behar izan dute, eta gizartean gertatzen ziren aldaketetara egokitu.

Lan honetan ikusi den bezala, gaur egun, gizarte-ekonomiako elkarteek, berezkoak dituzten ezaugarri nagusiez gain, zabaltasuna eta aniztasuna dituzte bereizgarri, bai tamainari dagokionez, bai zedarrizten dituzten eta azpimarratu beharrekoak diren esparruei dagokienez.

Baina dagoen aniztasun nabarmen horretatik harago, berezkoak dituzten ezaugarri horiek adierazi ditugu, gizarte-ekonomiako elkarteak aktibo garrantzitsu bihurtzen baitituzte gizartean planteatzen diren beharrei eta erronkei aurre egiteko. Horrela, egiaztatu ahal izan dugu elkarteak erakunde demokratikoak eta parte-hartzaileak direla, bertan pertsonak eta helburu soziala kapitalaren gaintik nagusitzea bermatzen dela, eta zuzenean laguntzen dutela pertsonen garapen integralean.

Bestalde, barne-elkartasuna sustatzeaz gain (ordainsariei, hartu beharreko erabakietan parekotasuna izateari, aukera-berdintasunari eta abar dagokienez), lurralde-ekarpen zabalaren eta hartzen dituen komunitate eta lurraldeekiko sustraitze sendoaren bidez, gizartearekiko elkartasuna sustatzen dute.

Azkenik, gogorarazi behar da gizarte-ekonomiako elkarteak jarduera ekonomikoren bat egiten duten erakunde gisa aurkezten direla, hau da,

enpresa-dimentsioa dutela, baina proiektu jasagarriak eta denboran iraungo dutenak sortzeari garrantzia ematen diotela, eta, aldi berean, botere publikoekiko autonomia eta independentzia mantentzen dutela, nahiz eta haien finantzaketa jaso.

Horrenbestez, ondoriozta dezakegu erakunde horiek, hots, elkarreek, alde batetik, denboran zehar erakutsi duten gaitasunagatik, eta, bestetik, berezkoak dituzten ezaugarriek ematen dieten potentzialagatik, gizartearen hobekuntzan eginkizun aktiboa bete behar dutela, gizarte zibilaren aldatzeko kemena eta borondatea bideratzeko modu nagusia diren heinean.

9.7. ERREFERENTZIAK ETA ITURRIAK

- BILBAO UBILLOS, J. M. (1997). Libertad de asociación y derechos de los socios, Universidad de Valladolid.
- DÍAZ-AGUADO JALÓN, C. (2018). Las asociaciones. *CIRIEC-España. Revista jurídica de economía social y cooperativa*, (32) 81-116. Hemendik berreskuratua: <http://ciriec-revistajuridica.es/wp-content/uploads/029-005.pdf>
- 5/2011 LEGEA, martxoaren 29koa, Gizarte Ekonomiari buruzkoa. 2011/03/30eko BOE, 76. zk. <https://www.boe.es/eli/es/l/2011/03/29/5/con>
- 7/2007 LEGEA, ekainaren 224koa, Euskadiko Elkarreei buruzkoa. 2007/07/12ko EHAA, 134. zk., 2011/10/17ko BOE, 250. zk. <https://www.boe.es/eli/es-pv/l/2007/06/22/7/con>
- 1/2002 LEGE ORGANIKOA, martxoaren 22koa, Elkartzeko Eskubidea Arautzekoa. 2002ko martxoaren 26ko BOE, 73. zk. <https://www.boe.es/eli/es/lo/2002/03/22/1>
- 3/1988 LEGEA, otsailaren 12koa, Bazkunei buruzkoa. 2012ko martxoaren 13ko BOE, 62. zk. <https://www.boe.es/eli/es-pv/l/1988/02/12/3>
- LUCAS MURILLO DE LA CUEVA, E. (1996). *El derecho de asociación*, Madrid: Tecnos.
- OTS Bizkaia (2015). *Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria*, https://3seuskadi.eus/wp-content/uploads/LIBRO-BLANCO_eus_2.pdf
- OVES/GEEB (2019). <http://www.oves-geeb.com/eu/>
- SANTAMARIA PASTOR, J. A. (2001) Comentario al art. 22, in GARRIDO FALLA, F. (coord.), *Comentarios a la Constitución*, Madrid: Cívitas.
- SAREEN SAREA (2019). *Tercer Sector y Economía Social*”.

Fundazioak Euskal Autonomia Erkidegoan: kontakizuna

Marta Enciso Santocildes
Kooperatiba Ikaskuntzen Institutua (KII)
Deustuko Unibertsitatea

Saioa Arando Lasagabaster
Mondragon Ikerketa Kudeaketa (MIK)
Mondragon Unibertsitatea (MU)

10.1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FUNDAZIOEN ERREALITATEA

Oinarrizko nozioak. Jatorria eta definizioa

Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioek zeregin garrantzitsua izan dute historikoki gizarte-bizitzan, egindako jarduerengatik eta haien gizarte-ondorio garrantzitsuengatik. Jatorrian, fundazioak Eliza Katolikoari lotutako ongintza- eta laguntza-jarduera elizkoiekin batera agertu ziren. XIX. mendean, fundazioak “esku hiltzat” hartu ziren, legeria deslotesle eta desamortizatzailea zela-eta. Legeria horren azpian behera egin zuten fideikomisoek, patronatuek eta ondasun-lotura guztiek, baita ekintza elizkoiek ere, eta etorkizunean fundatzea debekatu zuten (OREJAS CASAS, 2019). Kode Zibila indarrean sartzearekin batera, etapa berri bat hasi zen fundazioentzat, botere publikoen ondoan partikularrek parte hartzeko tresna gisa sortu baitziren, interes orokorreko helburuak betez herritarren eskaerak asetzeko, ongintza kontzeptuaren ordez interes publikoa erabiliz.

Bestalde, 1978ko Konstituzioak 34. artikuluan jaso zuen “interes orokorreko helburuetarako fundazio-eskubidea”. Estatuaren eskumen eksklusibokoa ez zenez (Espainiako Konstituzioaren 149. artikulua), Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10.13 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen eksklusiboa ezarri zuen honako gai hauetan: “irakaskuntza-, kultura-, arte-, ongintza-, eta sorospen-izaerako nahiz antzeko fundazio eta elkarteak, beren egitekoak nagusiki Euskal Herrian betetzen

dituzten bitartean”. Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioei buruzko lehen legea 1994koa da (EUSKADI, 1994), eta euskal fundazioen sektorea araubide juridiko oso batez hornitu zuen lehenengo araua izan zen, Estatuko fundazioen lehen legeari ere aurrea hartuta. Lege hori 2016ko legeak ordeztu zuen (EUSKADI, 2016), eta gaur egun indarrean jarraitzen du.

Fundazioak irabazi-asmorik gabeko erakunde gisa defini daitezke, fundatzaileek hala nahi izan dutelako, beren ondarea haiek definitutako interes orokorreko helburuetara modu iraunkorrean lotuta dutenak. Interes orokorreko helburu bat sustatzeak esan nahi du, alde batetik, haren jarduerak giza ongizateari lagundu behar diola zenbait gaitan, hala nola Giza Eskubideetan, gizarte-ekintzan, hezkuntza-, kultura- eta kirol-jardueretan edo aukera-berdintasunaren sustapenean, EAEko Fundazioei buruzko Legearen 4.1 artikuluan jasotako batzuk aipatzearen.

Bestalde, fundazioen jarduerak pertsona fisikoek nahiz juridikoek osatutako kolektibo generikoei ekarri behar die onura, eta ez helburu nagusia bada prestazioak eskaintzea fundatzaileari edo fundatzaileei edo patronatuko kideei, haien ezkontideei edo senitartekoei. Nolanahi ere, onuradunen kolektiboa aukeratzeko irizpideek objektiboak eta inpartzialak behar dute izan (EAEko Fundazioei buruzko Legearen 4.2 eta 4.3 artikulua).

Ildo horretatik, esan daiteke fundazioak gizarte-abantaila interesgarriak sortzen dituela; izan ere, bere forma juridiko bakarrak, bere misioarekin batera, fundazioak gizarte-berrikuntzako jarduerak sustatzeko zeregin berezia eta biltzailea betetzea ahalbidetzen du. Erakunde publikoen, pribatuen eta GKE-en arteko zubi-lana egiten du, baliabideak bilatzen laguntzen du eta, neurri batean, gizarte-ekintzailea da. Beste erakunde mota askotan baino errazagoa da kontzeptu eta egiteko modu berriak probatzea (ADAM & LINGELBACH, 2015; QUINN ET AL., 2014).

Lege-araubidea

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren (EUSKADI, 1979) 10.13 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen eskusiboa aitortzen du honako gai hauetan: “irakaskuntza-, kultura-, arte-, ongintza-, eta sorospen-izaerako nahiz antzeko fundazio eta elkarteak, beren egitekoak nagusiki Euskal Herrian betetzen dituzten bitartean”. Euskal erakundeek historikoki izan dute fundazioak arautzeko eskumena, ongintzaren arloko foru-eskumenarekin zuzenean lotuta, eta horrela jarraitu da etenik gabe, Autonomia Estatutuan berariaz onartu arte.

Eskumen-esparru horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko lehen Legea 1994an promulgatu zen (ekainaren 17ko 12/1994

Legea), eta gaur egun indarrean dagoen ekainaren 2ko 9/2016 Legeak funtsean aldatu zuen.

Bata bestetik administrazio-organo independenteak dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletza eta Erregistroa. Haien artean koordinatuta betetzen dituzte fundazioei aholku emateko eta haiek kontrolatzeko eginkizunak, Erregistroan jaso beharreko egintza eta negozio juridikoak inskribatzekoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legean bildutako gainerako eginkizunak (2.2 artikulua). Une honetan, bi figura horiek batera arautzen ditu 2019. urteko dekretu batek (EUSKADI, 2019). Dekretu horrek aurretik zeuden 2007ko dekretuak ordeztu zituen, 1994ko araudiarekin bat zetozenak (EUSKADI, 2017 a, EUSKADI, 2017 b).

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletza fundazioei aholkua eta laguntza teknikoa emateko administrazio-organo gisa osatzen da. Fundazio-eskubidea behar bezala balia dadin erraztu eta sustatu beharko du, zainduz legearen arabera dela fundazioen eraketa eta funtzionamendua eta benetan betetzen direla fundatzailearen edo fundatzaileen borondatea eta fundazioaren helburuak (6.1 artikulua, EUSKADI, 2019).

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa erregistro juridikoa da eta zerbitzu publiko gisa dago eratua, bertan gordailututako edukia ezagutzeko interesa dutenentzat. Erregistroaren xede nagusia da 9/2016 Legearen aplikazio-eremuan aipatzen diren fundazioak inskribatzea, bai eta fundazio horien egintza eta negozio juridikoak inskribatzea ere (34. artikulua, EUSKADI, 2019).

Eusko Jaurlaritzako sailen antolaketaren ikuspuntutik, fundazioak Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari esleitutako eskudantzien artean daude, sail horren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretuaren arabera (EUSKADI, 2017). Era berean, sail horren barruan, gai hori Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzari atxikita dago (8. artikulua), eta horren barruan, era berean, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari (10.1.j) artikulua). Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari atxikita edo lotuta daude Fundazioen Babeslaritzaren Aholku Batzordea eta Fundazioen Euskal Kontseilua (EAEko Fundazioei buruzko Legearen 61 artikulua).

Fundazioek administrazio publikoen (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, udalak) laguntzak eta dirulaguntzak jasotzen dituzte, ez hainbeste beren formula juridikoagatik, garatzen dituzten interes orokorreko jarduerak kontuan hartuta baizik: kultura, kirola, enpleguaren sustapena...

Laguntza eta dirulaguntzekin batera, foru-aldundiek zerga-araubide espezifikoak ezartzen dute onura publikokotzat jotako fundazio eta elkarteentzat, baita horien federazio eta elkarteentzat ere, irabazi-asmorik

gabekoak direlako eta interes orokorreko helburuak betetzen dituztelako. Halaber, mezenasgorako zerga-araubidea aitortzen dute. Honela definitzen dute mezenasgoa: “interes orokorreko jarduerak egiteko parte-hartze pribatua”. (ARABA, 1993 eta 2004; BIZKAIA 1992, 2019 a, 2019 b; GIPUZKOA 1993, 2004 a eta 2004 b)

Laburpen gisa, bai sozietateen gaineko zergarako bai jarduera ekonomikoen zergarako (salbuespena) tributazio bereziaren araubidean sartu ahal izateko, hiru foru-araudiek honako betekizun hauek jasotzen dituzte, taula honetan laburbilduta, eta guztiak bete behar dira:

82. ilustrazioa. Tributazio bereziko erregimenean sartzeko betekizunak

Betekizunak
<ul style="list-style-type: none">• Diru-sarrera guztien % 70 interes orokorreko helburura bideratzea, eta gainerakoa berrinbertitzea.• Estatutu-xede edo -helburuarekin zerikusirik ez duten jarduera ekonomikoek ez dute gainditu beharko guztizko diru-sarreraren bolumenaren % 40.• Fundatzaileak eta senitarteko zuzenekoak ezin dira irabazi-asmorik gabeko elkartearen onuradun izan zuzenean. Zerga-araubidea ere ezin da baliatu helburu pertsonaletarako.• Patronatukidearen, estatutupeko ordezkariaren eta gobernu-organoko kidearen karguak doakoak izatea.• Urtean behin ekitaldiko diru-sarrerak eta gastuak zehaztuko dituen memoria ekonomikoa egitea.

Iturria: bertan landua, zergei buruzko foru-araudiaren arabera.

Mezenasgoaren zerga-pizgarriei dagokienez, hiru foru-arauek ezartzen dute arautzen duten zerga-araubide berezia aplikatzen zaien irabazi-asmorik gabeko erakundeen alde egiten diren dohainei, dohaintzei eta ekarpenei aplikatzekoak direla pizgarri horiek. Gainera, hiru aldundiek honako erakunde hauek aitortzen dituzte onuradun gisa:

83. ilustrazioa. Mezenasgoaren zerga-pizgarrien onuradun diren erakundeak

<ul style="list-style-type: none">• Lurralde bakoitzeko administrazio publikoko erakundeak, direla foralak, Estatukoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak.• Unibertsitateak eta haiei atxikitako ikastegiak.• Euskaltzaindia, Espainiako Institutua eta institutu horretan integratutako errege-akademiak, baita berezko hizkuntza ofiziala duten autonomia-erkidegoetako erakundeak ere, baldin eta Euskaltzaindiaren antzeko helburuak badituzte.• Cervantes Institutua, Ramon Llull Institutua eta berezko hizkuntza ofiziala duten autonomia-erkidegoetako antzeko helburuak dituzten gainerako erakundeak.• Eusko Ikaskuntza eta Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak.• Espainiako Olinpiar Batzordea eta Espainiako Paralinpiar Batzordea.• Espainiako Gurutze Gorria eta Espainiako Itsuen Erakundea.

Iturria: bertan landua, zergei buruzko foru-araudiaren arabera.

Fundazioen Euskal Konfederazioa. FUNKO

Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioak bildu eta ordezkatzeko dituen erakundea FUNKO da, Fundazioen Euskal Konfederazioa, 2003an 10 pertsonako talde baten ekimenez sortua, fundazioen fenomenoak bultzatzeko eta indartzeko asmoz. Euskal fundazioak elkartzeko eta lankidetzan aritzeko plataforma izango den elkartearen eratzeari zuzen helburu. Horretarako, jarduerak interesgarriak egin, kideen arteko harremana erraztu eta lantaldeak, jardunaldiak eta beste proiektu sektorial batzuk egiten dira.

Une honetan (2020ko azaroa), 45 fundazio daude afiliatuta, eta elkarrekin gutxi gorabehera 5.000 pertsonari ematen diete enplegua. Izan ere, haien jarduerak ekonomikoaren inpaktua 255 milioi eurora iristen da. Oro har, herrialdeko fundaziorik handienak dira. Hain zuzen ere, fundazioen kopuru osoaren % 7,4 dira, baina enplegu osoaren % 38,33 biltzen dute.

Funkoren helburua da “Fundazioen topaketa eta lankidetzarako bide eta toki izatea, sektorearen interesen alde eta botere publikoekin solaskide gisa aritzeko jarrera pluralistetatik ahots propio gisa eratuta”, beste solaskide batzuekin elkarrizketan, lankidetzan eta elkartasunean oinarrituta. Helburutzat du, halaber, gogoeta bateraturako eta sektorearen alde erabakiak hartzeko tresna eta Administrazio Publikoen, Foru Administrazioen, Autonomia Erkidegokoaren eta Estatutuko eta Europako Batasunekoaren aurrean ordezkari izango den ahots izatea. Helburu horiek zehatzago ikus daitezke honako taula honetan:

84. ilustrazioa. Fundazioen Euskal Konfederazioaren (FUNKO) helburuak

- Fundazioen topaketa eta lankidetzarako bide eta toki izatea, sektorearen interesen alde eta botere publikoekin solaskide gisa aritzeko jarrera pluralistetatik ahots propio gisa eratuta.
- Fundazioen sektorea ordezkatu eta beste solaskide batzuekin elkarrizketan aritzeko den ahotsa izatea, sektorearen interesen defentsa zorrotza egiteko ikuspegiarekin, lankidetzan eta elkartasunean oinarrituta.
- Elkarteko kide diren Fundazioen estrategia bateratuak elkarrekin finkatzea, fundazioen jarduerak hobeto garatu ahal izateko.
- Fundazioen partehartze zabala eta ahalik eta afiliazio handiena lortzea, aniztasunean oinarrituta.
- Gogoeta bateraturako eta sektorearen alde erabakiak hartzeko tresna eta Administrazio Publikoen, Foru Administrazioen, Autonomia Erkidegokoaren eta Estatutuko eta Europako Batasunekoaren aurrean ordezkari izango den ahots izatea.
- Fundazioen interes komunei erantzun egiten dieten ekimenak zein proiektu sektorialak bultzatu eta koordinatzea.
- Fundazioaren oinarriak bultzatu eta sustatu, gizarte zibilaren adierazpen tresna gisa.

Iturria: bertan landua, www.funko.eus webgunetik hartutako informazioaren arabera

Era berean, FUNKOK prestakuntza- eta dibulgazio-ekitaldi irekiak antolatzen ditu fundazio guztientzat, eta euskal fundazioen artean ideiak

trukatzeko foroa da, baita Eusko Jaurlaritzaren eta beste instantzia eta erakunde batzuen aurrean ekintza kolektiboa gauzatzeko ere. Halaber, aholkularitza juridikoa, kontabilitatekoa eta fiskala ematen die fundazio elkartuei.

Datu estatistikoak

Datu ofizialen arabera, 2018an (2020an eskuragarri dauden azken datuak) Euskal Autonomia Erkidegoan 605 fundazio daude guztira, hots, gizarte-ekonomiaren beste forma batzuen (GEBF) ia % 51. Ondorengo taulan ikus daitezke GEBF kontzeptu hori osatzen duten erakundeak eta horietako bakoitzak osotasunaren gainean duen pisu erlatiboaren datuak.

85. ilustrazioa. GEBF erakundeen kopurua (Euskal Autonomia Erkidegoa, 2018)

Erakunde mota	Erakunde kopurua	GEBF guztien gaineko ehunekoa
Fundazioak	605	51
Onura publikoko elkarteak	254	21
Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak (BGAE)	155	13
Eraldaketarako nekazaritza-sozietateak (ENS)	84	7
Laneratzeko enpresak	43	3,6
Enplegu-zentro bereziak	37	3,1
Arrantzaleen kofradiak	14	1,2

Iturria: bertan landua, 2018ko Gizarte Ekonomiaren Estatistika oinarri hartuta

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren bilatzailea erreferentziatzen hartuz gero, erakunde kopuruari dagokionez datu gisa 742 itzultzen digula ikusiko dugu. Bat ez etortze hori gertatzen da erregistroak bertan alta emanda dauden azken gabeko guztiak jasotzen dituelako, operatibo egon edo ez. Izan ere, egoera horretan dauden asko hauteman dira, eta funtzionatzen jarraitzen dutenak aztertzen ari dira.

Fundazioen zenbakizko bilakaerari dagokionez, gizarte-ekonomiaren estatistika ofizialek 2010az geroztik jasotzen dute datu hori, eta hurrengo taulan ikus daiteke nola egin duten aurrera, aldi horretan % 3,5 egin baitute gora.

86. ilustrazioa. Fundazio kopuruaren eta GEBFen multzoan duten pisu erlatiboaren bilakaera (Euskal Autonomia Erkidegoa, 2018-2020)

Urtea	Erakunde kopurua	GEBF guztien gaineko ehunekoak
2018	605	51,00
2016	608	50,20
2014	619	51,55
2012	615	50,20
2010	585	53,80

Iturria: bertan landua, Gizarte Ekonomiaren Estatistika (2018, 2016, 2014, 2012, 2010) oinarri hartuta

Enpleguari dagokionez, GEBFetako enplegu ordainduaren % 46,2 fundazioekin lotzen da. Izan ere, 2018an 13.045 enplegu ordaindu zituzten urteko kopuruetan. Aurreko estatistikaren (2016) aldean izandako bilakaerari dagokionez, datu horrek % 10,4 egin du gora. Generoen arabera, % 39,9 gizonei egindako kontratuak dira eta % 60,1 emakumeei egindakoak. Halaber, % 76 enplegu finkoak dira eta % 24 behin-behinekoak.

Hurrengo taulan ikus daiteke enplegu ordainduaren adierazle horiek eta generoaren edo kontratu motaren arabera bereizketak gizarte-ekonomiaren estatistika ofizialetan erregistratzen direnetik (2010) izan duten bilakaera:

87. ilustrazioa. Fundazioetako enplegu kopurua, generoaren eta kontratu motaren arabera bereizita (Euskal Autonomia Erkidegoa, 2018-2020)

Urteak	Enplegu kopurua	Generoaren arabera ehunekoak	Kontratu motaren arabera ehunekoak
2018	13.045 % 46,2 GEBF guztien gainean	% 60,1 emakumeak % 39,9 gizonak	% 76 finkoak % 24 behin-behinekoak
2016	11.811 % 45,8 GEBF guztien gainean	% 57,6 emakumeak % 42,4 gizonak	% 78,9 finkoak % 21,1 behin-behinekoak
2014	10482 % 45,1 GEBF guztien gainean	% 60,9 emakumeak % 39,1 gizonak	% 82,4 finkoak % 17,6 behin-behinekoak
2012	12.315 % 46,6 GEBF guztien gainean	Ez dago erabilgarri	Ez dago erabilgarri
2010	12.448 GEBF guztien gaineko ehunekoak (ez dago erabilgarri)	Ez dago erabilgarri	Ez dago erabilgarri

Iturria: bertan landua, Gizarte Ekonomiaren Estatistika (2018, 2016, 2014, 2012, 2010) oinarri hartuta

Enplegu ordainduarekin batera, GEBFek kolektibo boluntarioa mobilizatzen dute. Zenbatespenen arabera, 2018an 25.236 boluntario ziren: % 26,6 langile boluntario estrukturaleri legokieke eta % 73,4 unean uneko laguntzari loturik egongo lirateke. Fundazioen kasuan, guztira 5.322 boluntario hartzen dituzte (GEBF boluntario guztien % 21). Onura publikoko elkarteetako boluntarioekin batera (19.878 pertsona, guztizkoaren % 78,8), Euskal Autonomia Erkidegoko GEBF boluntario guztien % 99,8 dira. Fundazioen kasuan, boluntario gehienak emakumeak dira (% 55,6), baina GEBFen osotasunean boluntarioen ehunekorik handiena gizonei dagokie (% 62,4). Fundazioekin lankidetzan jarduten duten boluntario asko izaera estrukturalakoak dira (% 48,0). Hurrengo taulan ikus daiteke adierazle horien bilakaera.

88. ilustrazioa. Fundazioetako boluntario kopurua, generoaren eta lotura motaren arabera bereizita
(Euskal Autonomia Erkidegoa, 2018-2020)

Urteak	Boluntarioak	Generoaren araberako ehunekoa	Loturaren araberako ehunekoa
2018	5.322 % 21 GEBF	% 55,6 emakumeak % 44,4 gizonak	% 26,6 estrukturala % 73,4 unean unekoa
2016	4.342 GEBFen ehunekoa ez dago erabilgarri	% 58,8 emakumeak % 41,2 gizonak	% 58 estrukturala % 42 unean unekoa
2014	10.730 % 56,6 GEBF	% 52,9 emakumeak % 47,1 gizonak	% 64,4 estrukturala % 35,6 unean unekoa
2012	Ez dago erabilgarri	Ez dago erabilgarri	Ez dago erabilgarri
2010	3.553 GEBFen ehunekoa ez dago erabilgarri	Ez dago erabilgarri	Ez dago erabilgarri

Iturria: bertan landua, Gizarte Ekonomiaren Estatistika (2018, 2016, 2014, 2012, 2010) oinarri hartuta

Fakturazioari dagokionez, GEBFek 2,2 mila milioi euroko zifra globala dute (2016an erregistratutakoa baino % 9,5 handiagoa). Fundazioek urte berean 566 milioi euro baino gehiago fakturatu zituzten, hots, 2016ko aurreko erregistroan baino % 28,2 gehiago). Halaber, 468,3 milioi inguruko dirulaguntzak jasotzen dituzte (GEBFek jasotzen dituzten dirulaguntza guztien % 66), hots, % 34,4 fakturazioaren aldean.

Bestalde, emaitza ekonomikoei dagokienez, fundazioek ia 145 milioi euroko finantza-emaitza positiboak sortu dituzte, eta 219 milioi euroko balio erantsi gordina (BEG), hau da, GEBFek sortutako BEG guztiaren % 84. Hurrengo taulan ikus daiteke kontzeptu horien bilakaera.

89. ilustrazioa. Fundazioen datu ekonomikoak (Euskal Autonomia Erkidegoa, 2018-2020) (datuak milioi eurotan)

Urteak	Fakturazioa	Dirulaguntzak	Finantza-emaitzak	Balio erantsi gordina
2018	556	468,3	145	219
2016	442	465,6	Ez dago erabilgarri	158
2014	524	431	Ez dago erabilgarri	267
2012	610	Ez dago erabilgarri	-22,8	361
2010	875,6	442	-15,7	360,7

Iturria: bertan landua, Gizarte Ekonomiaren Estatistika (2018, 2016, 2014, 2012, 2010) oinarri hartuta

10.2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FUNDAZIOEN IDEIA NAGUSIAK

Fundazioak gizarte-ekonomiaren parte gisa

Gizarte-ekonomiarekin duten loturari dagokionez, fundazioak ekonomia horren parte dira, baina elkarteen kasuan gertatzen den bezala, independenteak diren eta jarduera ekonomikoak egiten dituzten fundazioak besterik ez (Gizarte Ekonomiari buruzko Legearen (martxoaren 29ko 5/2011 Legea) 5. artikulua). Irabazi-asmorik gabeko izaera eta gizartearen interes orokorreko helburuetan duten ikuspegia direla eta, jarduera ekonomikoa duten fundazio autonomoak (ez gobernuaren instantzia baten zerbitzura daudenak) gizarte-ekonomiaren parte dira. Mota horretako fundazioen jarduera familiei zerbitzua ematera eta guztien ondasun sozial, kultural eta ekonomikoa sustatzera bideratuta egon ohi da.

Bestalde, erakunde horiek aipatutako Gizarte Ekonomiari buruzko Legearen 4. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzte:

- Pertsonak eta helburu soziala kapitalaren gaintik nagusitzea, pertsona fisiko edo juridikoen kolektibitate generikoei mesede egin behar dien interes orokorraren zerbitzura jarritako ondarea

da-eta. Era berean, jasotzen duen kudeaketa ereduak (autonomia eta gardena, demokratikoa eta parte-hartzailea) erabakiak neurri handiagoan pertsonen arabera hartzea lehenesten du. Eredu hori bat dator EAEko Fundazioei buruzko Legearen 28. artikuluaekin (“Jarduera- eta funtzionamendu-printzipioak”).

- Jarduera ekonomikotik lortutako emaitzak batez ere bazkideek edo erakundeko kideek egindako lanaren, zerbitzuaren edo jardueraren arabera aplikatzea, eta, hala badagokio, erakundearen xede den helburu sozialari aplikatzea. Kasu horretan, ondarearen kudeaketak finantza-itzulkin positiboak sortzen baditu, gutxienez horien % 70 fundazioaren helburuari aplikatu behar zaizkio eta gainerako % 30a haren erreserba ekonomikoak indartzera bideratu (EAEko Fundazioei buruzko Legearen 29.2 artikulua).
- Barneko eta gizartearekiko elkartasuna sustatzea, tokiko garapenarekiko konpromisoa, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna, gizarte-kohesioa, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzea, enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sortzea, bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea eta jasangarritasuna ahalbidetuko dituen.
- Botere publikoekiko independentzia.

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomia osoaren ezaugarriekin bat datozen fundazioak

Hain zuzen, Fundazioek gizarte-ekonomiako erakunde guztien ezaugarri komunak betetzen dituzte, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekonomiaren Kontakizunean zehaztu bezala (ZENBAITEN ARTEAN, 2019). Laburbilduz, hauek dira:

Pertsonen zentraltasuna fundazioetan

Fundazioak pertsonen zentraltasunean oinarritutako erakundeak dira. Horrelako erakundeek irabazi-asmorik ez izateak berekin dakar pertsonak kapitalaren ginetik duten nagusitasunaren printzipioa betetzea; izan ere, egiten duten jarduerak (ekonomikoa izan ala ez) ez du inoiz bilatzen inbertsio bat errentagarri bihurtzea eta hortik jaso litezkeen onurak banatzea; aitzitik, helburua da fundazioaren ondarearekin gizartearen eta, bereziki, pertsonen eta kolektiboen beharrei erantzutea. Are gehiago, ohikoa da fundazioen helburu soziala pertsonen garapenera bideratuta egotea (adibidez, desgaitasuna duten pertsonen inklusioa, hezkuntza, kirola, kultura...), bai onuradunen bai langileen garapenera.

Fundazioen izaera demokratikoa

Fundazioak antolaketa-eredu demokratikoetan egituratzen dira, eta, horren ondorioz, erabakiak hartzeari, lankidetzapolitikei, gardentasunari eta informazioari buruzko jardunbideak egiten dituzte.

Patronatua fundazioen organo gorena da (EAEko Fundazioei buruzko Legearen 13. artikulua), haien gobernu- eta- ordezkari-organoa. Fundazioaren helburuak betetzea eta fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak arduraz administratzea du eginkizun, eta demokraziaren printzipioei jarraikiz funtzionatzen du.

Gizarte-ekonomiako erakundeak botere publikoekiko independenteak dira, eta horien kontrolak ez du egon behar gobernu-erakundeen edo alderdi politikoaren mende. Fundazio gehienak, Estatuko hainbat agentziak edo beste administrazio publiko batzuek sortutakoak izan ezik, independenteak dira zentzu horretan; beraz, autonomia-baldintza hori betetzen dute.

Fundazioak elkar-lankidetzaren ere bilatzen duten erakundeak dira. Aplikagarritasun orokorreko elkar-lankidetzako mekanismoak ez badago ere, badira elkar-lankidetzak sektore horretarako eskaintzen duen potentziala islatzen duten erreferentziako adibideak. Izan ere, oso ahalmen handiko lankidetzaprozesuak gertatzen dira hainbat mailatan. Lehenik eta behin, fundazioen artean, dela FUNKOKO kideen artean (adibidez, Museoen Sarea), dela beste fundazio batzuekin. Era berean, antzeko lanak baina beste formula juridiko batekin egiten dituzten beste erakunde batzuekin ere jarduten da lankidetzan. Adibidez, elkarteei batez ere prestakuntza-zerbitzuak ematen zaizkie.

Bestalde, kudeaketaren gardentasuna fundazioen izaera demokratikoa elikatzen duen beste ezaugarri bat da. Fundazioen ezaugarriak direla eta, erakunde gardenak izan behar dute, eta beren funtzionamendu-printzipioekin lotu behar dira.

Fundazioaren sektoreak uste du gardentasuna beharrezkoa eta positiboa dela, besteak beste, gizartearekin komunikazio hobea izateko aukera ematen duelako. Funkok kudeaketa gardena ezartzen laguntzen die fundazioei eta horretara bultzatzen ditu, herritar guztien onurarako. Gauzak horrela, fundazioen *compliance* ziurtagiriak haien gardentasuna eta konfidentzialtasuna, egiturak eta kudeaketa-prozesuak hobetzea ahalbidetzen du (WORLD COMPLIANCE ASSOCIATION, 2020). San Prudentzio Fundazioa izan zen Euskal Autonomia Erkidegoan ziurtagiri hori lortu zuen lehena. Une honetan enpresetan Compliance ezarpen-zerbitzua ematen du.

Kasu horretan ere, fundazioen kudeaketaren gardentasunaren inguruko jardunbide egokien adibide ugari daude. Horietako batzuek kudeaketa gardenaz kanpoko aitortzakk dituzte, sortzen duten balio sozialari buruzko informazio-sistemak ezartzeko esperientzia berritzaile gisa, 4.2 atalean ikusiko dugun bezala. Hala, adibidez, museoek sektorean, Euskal Autonomia Erkidegoak gardenena izaten jarraitzen baitu bere erreferentziako hiru museoekin: Bilboko Arte Ederren Museoa, Guggenheim Bilbao Museoa eta Artium Arte Garaikidearen Euskal Museoa. Azken horrek, gainera, Estatuko museorik gardenen aitortza jaso du (FERNÁNDEZ SABAU ET. AL, 2018).

Azkenik, egia da fundazioko patronatuko kideak bakarrik daudela legez gaituta haren erabaki formal eta lotesleetan botoa emateko, baina fundazioak kudeaketan langileen parte-hartzea sustatzen duten eta onuradunen parte-hartze informala bilatzen duten erakundeak dira, erakunde parte-hartzaileen adibide naturalak.

Fundazioen enpresa-dimentsioa

Dimensio ekonomikoa fundazioen azken helburua ez bada ere, esan daiteke ekonomiari egiten dioten ekarpena garrantzizkoa dela. Azken datu ofizialen arabera (GIZARTE EKONOMIAREN ESTADISTIKA, 2018), fundazioek 219 milioi eurotik gorako balio erantsi gordina sortu zuten 2018an, eta 13.045 enplegu sortu zituzten. Gainera, erakunde oso jasangarriak izatea dute bereizgarri, eta oso gutxitan egiten dute porrot.

Areago, EAEn erreferente sektorialtzat har daitezkeen fundazioak daude. Adibidez, Teknalia erreferentziako ikerketa-zentroetako bat da, eta Lantegi Batuak Fundazioa EAEko enplegu-zentro berezi garrantzitsuenetako bat. Museo karismatikoenak ere, hala nola Guggenheim Bilbao Museoa, Donostiako Aquariuma edo Bilboko Arte Ederren Museoa, fundazioak dira.

Fundazioen komunitatearekiko konpromisoa

Fundazioak lurraldean oso sustraituta dauden erakundeak dira. Sustraitze horrek, deslokalizazio txikia izateaz gain, ondarearen etengabeko (berr)inbertsioa eta komunitatearentzat lortutako emaitzak ditu bereizgarri. Izan ere, fundazioen ondarea interes orokorrari eskainia dago nahitaez, eta, beraz, egiten diren inbertsioak bat datoz gizartearen beharrekin.

Are gehiago, fundazioak behartuta daude lortutako emaitzen % 70 fundazio-helburuetan berrinbertitzera (praktikan ehuneko hori handiagoa izaten da), eta gainerakoa erreserbak handitzera bideratzera. Azkenik, fundazioa likidatuz

gero, soberako ondarea ezin da banatu partikularren artean. Soberako ondare hori interes orokorreko helburuak gauzatzeko erabazten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko edo pribatueta bideratzen da. Berezitasun horiek islatzen dute fundazioek ingurunearekin duten benetako konpromisoa.

Bestalde, gizarte-kohesioa (kulturaren, gizarte-zerbitzuen edo euskararen esparruan lan egiten duten fundazio askoren helburua da), kapital soziala (harreman-sareak ehuntzen dituzte, pertsonen parte-hartzea sustatzen dute eta gizarte-eraldaketa (gizarte ekitatezkoagoaren, inklusiboagoaren eta aurreratuagoaren bila) sustatzen dituzten erakundeak dira.

10.3. EZAUGARRIAK

Fundazioen multzoaren barruan, askotariko erakundeak daude, garatzen duten helburu sozialari, jatorriari edo dimentsioari dagokienez.

Lehenik eta behin, fundazioen esparruko aniztasuna haiek garatzen duten helburu sozialean aurkitzen dugu, EAEko Fundazioei buruzko Legearen 4.1 artikulua jasotzen duen sorta zabalarekin bat (zerrenda itxia ez bada ere), interes orokorreko helburuak zerbitzatzeko izanik haien elementu komuna. Era askotako jarduerak garatzen dituzten fundazioak aurki ditzakegu: kultura, laneratzea, hezkuntza, euskararen sustapena, museo-jarduerak, garapenerako lankidetzak, enpresa, kirola edo teknologia, batzuk besterik ez aipatzearen.

Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTAT) ematen duen jardueraren araberako banaketa bat dator Fundazioen Erregistroaren antolaketa-atalekin:

*90. ilustrazioa. Fundazio kopurua jardueraren araberako (EAE, 2018)
(erabilgarri dagoen azken 2020ko arazoaren 20koa da)*

Garatutako jarduerak	Kopurua	Guztizkoaren gaineko ehunekoa
Irakaskuntza eta ikerketa	241	35,92
Ongintza- eta laguntza-jarduerak eta lan-jarduerak	189	28,17
Kultura-, gazte- eta kirol-jarduerak	141	21,01
Beste arlo batzuk	100	14,90
Guztira	671	100

Iturria: bertan landua, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila oinarri hartuta (2018)

Bigarrenik, fundazioen esparruaren barruan aniztasun handia aurki dezakegu pertsona edo erakunde fundatzaileei dagokienez. Enpresak, finantza-erakundeak, kirol-klubak, administrazio publikoa bera edo beren ondare guztia edo zati bat helburu sozial jakin baterako eman nahi duten pertsona partikularrak aurki ditzakegu.

Dimentsioari dagokionez, azkenik, fundazioen batez besteko tamaina, enplegu kopurua kontuan hartuta, 21,4 da 2018ko Gizarte Ekonomiaren Estatistikaren arabera. Datu horiek onura publikoko elkarteei (16,2) eta laneratzeko enpresei (16,7) dagozkien oso antzekoak dira.

GEBFen esparruan, enplegu-zentro bereziak dira erakunde handienak, enpleguko batez besteko dimentsioa 269,9 da-eta. Erregistro estatistikoetan ikusten dena da fundazioen dimentsioa handitu egin dela denborak aurrera egin ahala, gainerako erakundeen kasuan bezala (2014an 16,9 eta 2016an 19,4).

Bestalde, 2010eko datuen arabera, enpresa-kolektibo handi batek ez dauka ordaindutako langilerik edo horri lotutako soldata eta ordainsarien partidarik. Lagina osatzen duten fundazioen % 42,2 egoera horretan daude, % 30,8k 15 enplegu edo gutxiago dituzte eta % 13,3k, berriz, 16 eta 50 enplegu artean. Fundazioen % 13,6k besterik ez dituzte ordaindutako 50 enplegu baino gehiago. Banakatzeko hori hurrengo estatistika ofizialetan errepikatu ez denez, eta fundazioen egonkortasun-maila eta enpleguen araberako dimentsioaren hazkunde diskretua kontuan harturik, pentsa genezake banaketa antzekoa izango dela. Izan ere, ikusi dugun moduan, FUNKOn elkartutako 45 fundazioek (% 7,4) sektoreko enplegu osoaren ia % 40 hartzen dutela; horrek esan nahi du fundazioen % 92,6k enpleguaren % 60 hartzen dutela.

10.4. ERRONKAK

Fundazioen ikusgaitasuna eta gizarte-ezagutzaren maila handitzea

Gizarte Ekonomiari buruzko Inkestan baloratzen diren itemetako bat gizarte-ekonomiaren kanpoko gizarte-pertzepzioa da. Atal horrek datu interesgarriak eman ohi ditu. Azken urteari (2018) dagokion inkestan, “gizarte-ekonomiako lau enpresatik batek baino ez du balorazio positiboa jasotzen euskal gizartearen aldetik, jokatzeko duen rolarik eta Euskadiren garapen sozioekonomikoari egiten dion ekarpenari dagokionez”. Eraitza hori kooperatibei eta lan-sozietateei dagokie, baina gizarte-ekonomiako erakunde guztietara estrapola daiteke, baita, beraz, fundazioetara ere.

Oro har, gizarteak entzun du fundazioez hitz egiten, agian baten bat aipa lezake, baina oso zaila izango litzaioke haien ezaugarri identitario batzuk edo oinarritzko ezaugarriak adieraztea, hau da, zerk bereizten dituen antzeko beste figura batzuetatik. Beharbada garapenerako lankidetzako fundazioen (Mundukide, Alboan) edo horien gizarte-ekintza bideratzen duten banku-fundazioen edo kirol-kluben kasua alde batera utzita —klubek konexio handia baitute herritarrekin—, seguruenik ezin izango dituzte askoz adibide gehiago aipatu. Eta hori, gainera, nahiz eta herritarrak askotan haien lanaren erabiltzaile edo onuradun izan. Irudia positiboa izaten da, helburu sozialarekin, inpaktua duten erakundeekin, gizarte-balioa sortzen dutenekin... lotzen da, baina, puntu horren gainean ere, fundazioek sortzen duten balio soziala helarazi behar zaio gizarteari, interes orokorreko erakundea dela dimentsio osoan ulertzen lagunduko bailuke, eta horrek hurrengo erronkara eramaten gaitu.

Fundazioek sortutako balio soziala neurtzea eta hedatzea

Fundazioak, beren izaeragatik, helburu sozialak eta interes orokorrekoak dituzten erakundeak dira. Funtsezkoa da, beraz, beren inpaktua enplegua, diru-sarrerak edo balio erantsia bezalako estatistika-dimentsio klasikoetatik harago neurtzea. Balio ekonomikoa eta balio soziala bereizita egoteak arazo soziala zein barne-kudeaketakoa ekartzen du, eta, balio soziala dokumentatuta ez dagoenez, gutxietsi egiten da (RETOLAZA ET. AL, 2014). Beraz, ezinbestekoa da fundazioek sortzen dituzten inpaktu sozialak dokumentatzea, bai garatzen duten jarduera ekonomikoagatik, bai ingurumenari, gizarteari, lanari, komunitateri... dagozkien gaietan duten balio sozial espezifikogatik.

Inpaktua neurtzeko hainbat sistema ditugu, hala nola GRI (Global Reporting Initiative), GJHak berak ere neurketa-mekanismo bihur daitezke, edo balio soziala monetizatzeako sistemak. Erabiltzen den sistema edozein dela ere, fundazioei iradokitzen zaie “inpaktua kudeatzen” ikas dezatela; horrek esan nahi du inpaktu sozialaren neurketarekin erlazionatutako sistemak, prozesuak, kultura eta gaitasunak kudeatu behar direla (HEHENBERGER ET. AL, 2020).

Horrela, adibidez, sortzen duen balio sozial integratua kalkulatzeko metodologia aplikatu du Lantegi Batuak fundazioak. 2007-2011 aldirako ikus daiteke (RETOLAZA ET. AL, 2014), baita urtero ere, fundazioaren web-orrian. Mekanismo horrek, gainera, erraz eta zuzenean komunikatzeko aukera ematen die, erraz ulertzeko moduan eta gizartean eragina izan dezan. Adibide gisa (LANTEGI BATUAK, 2020).

Balio sozial integratua 207 milioi eurotik gorakoa izan zen iaz, eta 1.500 milioi eurotik gorakoa azken 10 urteetan.

Jasotako euro publiko bakoitzeko, Lantegi Batuak fundazioak 13 euro inguru ematen dizkio gizarteari, lurraldea kohesionatzen eta Bizkaiko enpresa- eta gizarte-ehuna garatzen lagunduz.

Beste adibide aipagarri bat Añanako Gatz Harana Fundazioa da (2018), ekonomia-, ondare-, gizarte- eta ingurumen-arloko gaur egungo eta etorkizuneko ondorioak kontuan hartuko dituen ereduarekin konprometitua. Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak txertatzen dituen Turismo Jasangarriaren Mundu Gutunaren (2015) printzipioak hartzen ditu bere gain Fundazioaren ereduak.

Mundukide, Gipuzkoako Ozeanografia Fundazioa (Aquarium), Alboan, Gureak Taldea edo BBK Fundazioa, besteak beste, jardunbide egokien eredu gisa aurkez daitezke.

Fundazio batzuk behartuta daude gardentasun-txostenak egitera, urtebetez 100.000,00 eurotik gorako laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzen dituzten erakunde pribatuak diren aldetik (ESPAINIA, 2013). Txosten horiek eta web-orrietako publizitateak fundazioen lege-antolaketa eta -egiturari, gobernu-organoei eta nolabaiteko informazio ekonomikoari buruzko dimentsioak ezagutzeko eta baloratzeko ere balio dute.

Era berean, fundazio batzuek informazio ez-finantzarioaren txostena egin beharko dute (ESPAINIA, 2018), enpresen errendimendua eta horrek gizartean duen inpaktua neurtzen, gainbegiratzen eta kudeatzen laguntzeko, baita jasangarritasuna ere, epe luzeko errentagarritasuna justizia sozialarekin eta ingurumenaren babesarekin uztartuz. Edukiari dagokionez, Merkataritza Kodearen 49. artikulua ezartzen du, oro har, enpresaren bilakaera, emaitzak eta egoera ulertzeko behar den informazio guztia jaso behar duela, baita enpresaren jarduerak zenbait alderditan duen inpaktua bildu ere, gutxienez honako alderdi hauek kontuan hartuta:

- Ingurumen-alderdiak, hala nola kutsadura, ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta kudeaketa, baliabideen erabilera jasangarria, klima-aldaketa edo biodibertsitatea.
- Gizarte-gaiak eta langilei buruzkoak, emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa, desgaitasuna duten pertsonen diskriminaziorik eza eta inklusioa, eta irisgarritasun unibertsala ahalbidetzeko hartu diren neurriak barne.
- Giza eskubideen errespetua, behar bezalako arretaz jokatzeko prozedurak aplikatuta, giza eskubideak urratzeko arriskuen prebentzioa, eta, hala badagokio, egindako balizko abusuak arindu, kudeatu eta konpontzeko neurriak, beste zenbait edukiren artean.

- Ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borroka: ustelkeria eta eroskeria saihesteko hartutako neurriak; kapitalak zuritzearen aurka borrokatzeko neurriak, fundazioei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei egindako ekarpenak.
- Gizartea bera, jasangarritasunarekiko konpromisoari dagokionez, hornitzaileak eta azpikontratak, kontsumitzaileak edo informazio fiskala, herrialdeka.

Txosten horren eredu bat ikus dezakegu, adibidez, Gureak Taldeari dagokionez (GUREAK, 2019); izan ere, araudia betetzeaz gain, oso adierazgarria da sortzen duen balio soziala.

Fundazioen izaera mantentzea, Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) lortzeko funtsezko eragile gisa

Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda onartu zuen, esfera ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa hartzen dituzten 17 helburu eta 169 jomuga jasotzen dituena. Pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza-plana da, bake unibertsala eta justiziarako irispidea indartzeko asmoa ere baduena. Estatuak konpromisoa hartzen dute hori lortzeko behar diren bitartekoak mobilizatzeko, baina Agenda horrek konpromiso komun eta unibertsala eskatzen du. Horregatik, administrazioarekin, enprekin eta gizarte zibileko erakundeekin batera, fundazioak funtsezkoak dira Agendaren helburuetan aurrera egiteko.

Nazio Batuen Ingurumen Programak (PNUD, S.D.) onartzen du fundazioek ezinbesteko ekarpena egiten dietela GJHen proposamenekin bat datozen hainbat arlori. Horien artean daude, besteak beste, pertsonen ongizateari buruzkoak (osasuna, hezkuntza, genero-berdintasuna, pobrezia eta gosearen kontrako borroka), ingurumenari buruzkoak (ura eta saneamendua, ekoizpen eta kontsumo arduratsua, lehorreko ekosistemak eta itsaspeko bizitza), lan txukuna, desberdintasunen murrizketak edo bakearen eta justiziaren aldeko borroka, batzuk aipatzearren.

Funkok GJHak esplizitatzea sustatzen du, eta fundazio eta elkarten kudeaketan integratzea proposatzen du, garatzen dituzten ekintza guztietan, eta lortutako emaitzak txostenen bidez jakinaraztea.

Adibide gisa, Donostiako Aquariuma aipa dezakegu. GJHak bere plangintza estrategikoaren parte gisa jasotzen ditu, eta fundazioaren beraren zerizanaren arabera ezartzen ditu helburuak (FUNKO 2020):

- 14. GJHa (itsaspeko bizitza): gizartea itsas ingurumena errespetatzearen inguruan sentsibilizatzea eta kontzientziaztea, ozeano eta itsaso desberdinetako —Kantauri itsasoa bereziki

azpimarratuz— flora, fauna eta ondarea erakutsiz, kontserbatuz eta ikertuz.

- 11. GJHa (hiri eta komunitate jasangarriak): itsaso eta arrantzaren inguruko gure tradizioak eta memoria hedatzea, balio historiko eta emotibo handiko bildumak babestuz, erakutsiz eta ezagutzera emanaz.

10.5. ONDORIOAK

Fundazioak irabazi-asmorik gabeko erakundeak dira, fundatzaileek hala nahi izan dutelako ondarea haiek definitutako interes orokorreko helburuetara lotuta dutenak modu iraunkorrean. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, eskumen eksklusiboa du fundazioen arloan, eta gaur egun indarrean dago Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 9/2016 Legea.

Botere publikoek fundazioei laguntzen diete, interes orokorreko helburuak eta sortutako balio soziala kontuan hartuta, hainbat politikaren bidez: legegintzakoak, laguntzak eta dirulaguntzak, eta zerga-araubide espezifikoak.

Ordezkaritza-erakundea den aldetik, Fundazioen Euskal Konfederazioak (FUNKO) fundazio-fenomenoa bultzatu eta sustatzea du helburu.

Gizarte-ekonomiaren beste forma batzuen (GEBF) barruan, fundazioak erakunde guztien % 51 dira, ordaindutako enpleguaren % 46,2 hartzen dute (batez ere langile finkoak eta ehuneko handiagoan emakumeak) eta 25.000 boluntario baino gehiago biltzen dituzte.

Alderdi ekonomikoari dagokionez, erregistratutako azken urtean (2018) fundazioek 566 milioi eurotik gora fakturatu zituzten, eta 219 milioi euroko balio erantsi gordina sortu zuten, hots, GEBFek sortutako guztiaren % 84.

Idea nagusien artean bi nabarmendu ditzakegu. Alde batetik, fundazioak gizarte-ekonomiaren parte dira eta Gizarte Ekonomiari buruzko Legean ezarritako baldintzak betetzen dituzte, eta, bestetik, bat datoz Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomiaren ezaugarriekin: (1) pertsonen zentraltasuna; (2) izaera demokratikoa; (3) enpresadimentsioa; eta, (4) komunitatearekiko konpromisoa.

Fundazioen barruan kasuistika zabala dago garatzen duten jarduerak esparruari, dimentsioari eta pertsona edo erakunde fundatzaileei dagokienez.

Une honetan, fundazioek hainbat erronkari egin behar diete aurre. Lehenik, fundazioen ikusgaitasuna eta gizarte-ezagutzaren maila handitzea.

Bigarrenik, sortutako balio soziala neurtzea eta hedatzea, dokumentatuta ez badago gutxietsi egiten da-eta. Eta, hirugarrenik, GJHei dagokienez funtsezko eragileak izatea.

10.6. ERREFERENTZIAK ETA ITURRIAK

- ADAM, T. & LINGELBACH, G. (2015). The place of foundations and endowments in German history: A historical-statistical approach. *Nonprofit and Voluntary Sector Quarterly*, 44(2), 223-247. <https://doi.org/10.1177/0899764013510975>
- AAVV (2019). *Relato de Economía Social en el País Vasco*. Mondragon Unibertsitateak, Deustuko Unibertsitateak eta UPV/EHUK egindako txostena, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak eskatuta.
- ARABA (1993). 1/1993 Foru Dekretu Arauemailea, apirilaren 20koa, Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren Testu Bateratzailea onartzeari buruzkoa.
- ARABA (2004). 16/2004 Foru Araua, uztailaren 12koa, Irabazteko xederik gabeko Erakundeen eta Mezenasgorako Zerga pizgarrien zerga araubideari buruzkoa.
- BIZKAIA (1992). 2/1992 Foru Dekretu Arau-emailea, martxoaren 17koa, Ekonomi Ihardueren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauaren Testu Bategina onesten duena.
- BIZKAIA (2019 a). 4/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa, irabazteko asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzkoa.
- BIZKAIA (2019 b). Bizkaiko Foru Aldundiaren 55/2019 Foru Dekretua maiatzaren 21koa, Irabazteko asmorik gabeko erakundeen zerga-araubidea eta mezenasgorako zerga-pizgarriak aplikatzeko Erregelamendua onesten duena.
- GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA (2018). Euskal AEko fundazioen erregistroan erregistraturiko fundazioak, azkendu gabeak, jarduera-eremuka, administratiboki atxikita dauden lurralde historikoaren eta kontu-aurkezpenaren arabera. Hemendik berreskuratua: http://www.eustat.eus/elementos/tbl0014116_e.html
- DÍAZ-AGUADO JALÓN, C. (2018). Las asociaciones. *CIRIEC-España. Revista jurídica de economía social y cooperativa*, (32) 81-116. Hemendik berreskuratua: <http://ciriec-revistajuridica.es/wp-content/uploads/029-005.pdf>
- ESPAINIA (2011). 5/2011 Legea, martxoaren 29koa, Gizarte Ekonomiari buruzkoa.
- ESPAINIA (2013). 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, (76) 2011/03/30, 33023-33033. <https://www.boe.es/eli/es/l/2011/03/29/5>
- ESPAINIA (2018). 11/2018 Legea, abenduaren 28koa, Merkataritza Kodea, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina –uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua– eta Kontu Auditoretzaren uztailaren 20ko 22/2015 Legea aldatzen dituen informazio ez-finantzarioari eta dibertsitateari buruzko informazioari dagokienez.
- EUSKADI (1979). 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena.

- EUSKADI (1994). 12/1994 Legea, ekainaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa.
- EUSKADI (2007 a). 100/2007 Dekretua, ekainaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duena.
- EUSKADI (2007 b). 101/2007 Dekretua, ekainaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duena.
- EUSKADI (2016). 9/2016 Legea, ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa. *Estatuko Aldizkari Ofiziala* (151), 2016/06/23, 95747-95763
<https://www.boe.es/buscar/pdf/2016/BOE-A-2016-6088-consolidado.pdf>
- EUSKADI (2017). 71/2017 Dekretua, apirilaren 11koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa.
- EUSKADI (2019). 115/2019 Dekretua, uztailaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duena.
- FERNÁNDEZ SABAU, MARÍA; MARTÍN CAVANNA, JAVIER (2018). *A través del espejo. Informe de transparencia y buen gobierno de los museos de bellas artes y arte contemporáneo 2017*, Fundación Compromiso y Transparencia. Hemendik berreskuratua: <https://www.compromisoytransparencia.com/informes/a-traves-del-espejo-informe-de-transparencia-y-buen-gobierno-de-los-museos-de-bellas-artes-y-arte-contemporaneo-2017>.
- FUNDACIÓN VALLE SALADO DE AÑANA (2018). Estrategia de desarrollo sostenible. Hemendik berreskuratua: <https://vallesalado.com/libreria/files/Estrategia%20Desarrollo%20Sostenible.pdf>
- FUNKO (2020). La fundación oceanográfica de Gipuzkoa y los ODS. Hemendik berreskuratua: https://www.funko.eus/archivos_noticias/5bXOEyF8_Aquarium%20y%20ODS.pdf
- GIPUZKOA (1993). 1/1993 Foru Dekretu Arauemailea, apirilaren 20koa, Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren Testu Bateratzailea onartzeari buruzkoa.
- GIPUZKOA (2004 a). 3/2004 Foru Araua, apirilaren 7koa, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoa.
- GIPUZKOA (2004 b). 87/2004 Foru Dekretua, azaroaren 2koa, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimena eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriak aplikatzeko erregelamendua onartzen duena.
- EUSKO JAURLARITZA, LAN ETA JUSTIZIA SAILEKO ZERBITZU ZUZENDARITZA (2020). Gizarte Ekonomiaren 2018ko Estatistika eta 2019ko aurrerapena. Hemendik berreskuratua: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/dokumentazioa/2018/2018ko-euskal-gizarte-ekonomiaren-estatistikaren-txostena/>
- EUSKO JAURLARITZA, LAN ETA JUSTIZIA SAILEKO ZERBITZU ZUZENDARITZA (2018). Gizarte Ekonomiaren 2016ko Estatistika eta 2017ko aurrerapena. Hemendik berreskuratua: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/dokumentazioa/2016/2016ko-eaeko-gizarte-ekonomiaren-estatistikaren-txosten/>
- EUSKO JAURLARITZA, LAN ETA JUSTIZIA SAILEKO ZERBITZU ZUZENDARITZA (2016). Gizarte Ekonomiaren 2014ko Estatistika eta 2015eko aurrerapena. Hemendik berreskuratua: https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza//contenidos/documentacion/ecosoc_2014/eu_ecosoc/index.shtml
- EUSKO JAURLARITZA, LAN ETA JUSTIZIA SAILEKO ZERBITZU ZUZENDARITZA (2014). Gizarte Ekonomiaren 2012ko Estatistika eta 2013ko aurrerapena.

- Hemendik berreskuratua: http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/txostena_ikerketa/2012ko-eaeko-gizarte-ekonomiaren-estatistika/
- EUSKO JAURLARITZA, LAN ETA JUSTIZIA SAILEKO ZERBITZU ZUZENDARITZA (2012). Gizarte Ekonomiaren 2010eko Estatistika eta 2011ko aurrerapena. Hemendik berreskuratua: <https://www.euskadi.eus/dokumentazioa/2012/2010eko-eaeko-gizarte-ekonomiaren-estatistikaren-txostena/web01-s2lanju/eu/>
- GUREAK (2019). Txosten ez-finanzarioa. Hemendik berreskuratua: <https://www.gureak.com/images/gureak/INFORME-NO-FINANCIERO-2019-auditoria-eus.pdf>
- HEHENBERGER, LISA; BUCKLAND, LEONORA & GOLD, DEBORAH (2020). De la medición del impacto al aprendizaje para el impacto: Los itinerarios de aprendizaje de las fundaciones europeas, Barcelona: ESADE Entrepreneurship Institute.
- LANTEGI BATUAK (2020). Gizarte-balio integratua / Valor Social Integrado. Hemendik berreskuratua: <https://www.lantegibatuak.eus/valor-social-integrado>.
- OREJAS CASAS, JOSÉ ANTONIO (2019). La necesidad de conseguir fines generales por parte de las Fundaciones en Revista Crítica de Derecho inmobiliario, 95(771) 203-251.
- PNUD, Programa de las Naciones Unidas para el desarrollo (S.D), EL PNUD y las Fundaciones. Hemendik berreskuratua: <https://www.undp.org/content/undp/es/home/partners/foundations.html>
- QUINN, R.; TOMPKINS-STANGE, M. & MEYERSON, D. (2014). Beyond grantmaking: Philanthropic foundations as agents of change and institutional entrepreneurs. *Nonprofit and Voluntary Sector Quarterly*, 43(6) 950-968. <https://doi.org/10.1177/0899764013488836>
- RETOLAZA, JOSE LUIS; RUIZ-ROQUEÑI, MAITE; SAN JOSÉ, LEIRE & BARRUTIA, JON (2014). Cuantificación del Valor Social. Propuesta metodológica y aplicación al caso de Lantegi Batuak, en *Zerbitzuan*, (55)
- WORLD COMPLIANCE ASSOCIATION (2020). *Guía compliance en el tercer sector*. Hemendik berreskuratua: https://bibliotecacompliance.com/wp-content/uploads/2020/10/Tercer-Sector_V6.pdf
- WORLD SUMMIT ON SUSTAINABLE TOURISM (2015), World charter for sustainable tourism +20. Hemendik berreskuratua: <file:///C:/Users/bider/Downloads/02fdd0bdb974a96b19258cfd89a976a2.pdf>

Ekonomia solidarioa Euskal Autonomia Erkidegoan: kontakizuna

Aitziber Mugarra Elorriaga
Kooperatiba Ikaskuntzen Institutua (KII)
Deustuko Unibertsitatea

11.1. SARRERA

Ekonomia solidarioa gizarte-ekonomiako hainbat esperientzian degenerazio-prozesuak bizi izan dituzten zenbait elementu biziberritzeko proposamen gisa aurkezten da. Nolabait ere, gizarte-ekonomia berriz politizatzeko eta hastapeneko-printzipioetara “itzultzeko” modu bat dela uler daiteke. Izan ere, haren bultzatzaileek irizten diote, gizarte-ekonomiako hainbat esperientzia nazioartean heltzeko prozesuan, bilakaera hori kapital-enprekin homologatzera bideratu dela, bere ezaugarri bereizgarrien kaltetan. Bereziki azpimarratzen da parte hartzeko jardunbideak, demokratikoak eta banaketa-justiziari dagozkionak biziberritzeko premia. Beste maila batean, gizarte-ekonomiaren komunitatearekiko eta lurraldearekiko beharrezko birposizionamendua planteatzen da; izan ere, enpresa-errealitate demokratikoagoak eta ekitatezkoagoak izateaz gain, gizarte-ekonomiak trazio-eginkizun handiagoa bete beharko luke gizarte-eraldaketako prozesuetan, eta eredu kapitalistarekiko garapen-eredu alternatiboak proposatu, lankidetzeta, elkartasuna, parte-hartzea eta justizia soziala bezalako berezko balioekin bat etorri (ETXEZARRETA ET AL., 2012).

Gizarte-eraldaketaren protagonismo hori funtsezkoa da ekonomia solidariorako, eta halaxe adierazten dute *Ekonomia Sozial Solidario eraldatzailer baten aldeko deklarazioan*¹ (Bilbo, 2018ko urria): “Ekonomia sozial solidarioak bestelako sistema sozioekonomiko bat eraiki nahi du, pertsonak eta haien komunitateak eta ingurumena prozesu guztien erdigunean jarrita.

¹ Bilbon egindako Gizarte Ekonomiaren Munduko Foroaren (*Global Social Economy Forum*) 4. edizioaren (2018) esparruan.

Sistema horren helburua izango da bizitzaren iraunkortasuna alderdi guztietan bermatzea, eta ongizate orekatua, inklusiboa, demokratikoa eta iraunkorra sustatzea pertsona —emakume eta gizonak— eta herri guztientzat, munduko bazter guztietan. Horregatik, (...) ahotsa goratuko dugu, gure eta planeta osoaren bizitzak merkaturatzen eta mehatxatzen dituen kapitalismoa salatzen. Kapitalismo heteropatriarkala, emakumeen bereizkeriak sustatzen eta dibertsitatea bazterrean uzten duena. Hitz ematen dugu beste mugimendu sozial batzuekin batera lan egiteko, ekonomia eraldatu ahal izateko, eta, horretarako, ekimen alternatiboak eta sozialak abiarazteko finantzaketa, ekoizpen, merkaturatze eta kontsumoaren arloan. Ekonomia eraldatuz gero, lurraldeak eta komunitateak eraldatuko ditugu, eta, horrela, eredu kultural, sozial eta politikoa berria sustatuko dugu.”

Definizioa

Ez dago ekonomia solidarioaren definizio adosturik, nahiz eta aditu gehienek onartzen duten kontzeptuak hiru dimentsio osagarri konbinatzen dituela: lehena, teorikoagoa, indarrean dagoen eredu ekonomikoaren ikuspegi kritikoa azpimarratzen duena, “paradigma alternatibo bat eraikitzearen” alde; bigarrena, balio eta printzipio alternatiboetan eta eraldatzaileetan oinarritutako jardunbideak garatzen zentratua; eta hirugarrena, horretarako behar den enpresa mota espezifikoan fokalizatua: demokratikoa, parte-hartzailea, autogestionatua eta kolektiboa. (PEREZ DE MENDIGUREN ET AL., 2015; GÓMEZ ET AL., 2016; VILLALBA ET AL., 2019)

Gizarte-ekonomiako beste familia batzuen kasuan berariazko aitorten juridikoa dago 5/2011 Legean, baina lege horrek ez du berariaz aipatzen ekonomia solidarioa². Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia solidarioa gizarte-ekonomiaren azpisektore gisa identifikatzen da (ASKUNZE, 2016), eta “pertsonek zerbitzura dagoen ekonomia” eta “bizitzaren jasangarritasuna” sustatzea helburu duten hainbat erakunde biltzen ditu (kooperatibak, elkarteak eta fundazioak, baina baita erantzukizun mugatuko sozietateak ere). Ez da harritzekoa, beraz, historikoki ekimen horietako asko ingurumenerako onuragarriak diren ekoizpen-sektoreetan sortzea (birziklatzearekin, nekazaritza ekologikoarekin eta antzekoekin erlazionatutako jarduerekin); edo “krisi ekonomikoak jotako giza komunitateak” eta gizarte-bazterketako arriskua dutenak xede berezitat hartzen dituztenetan (adibidez, laneratzeko enpresetan); edo “lana ulertzeko beste modu bat eta baliabide ekonomikoak printzipio kooperatibo, sozial eta solidarioetan oinarrituta lortzea” probatzeko

² Estatuan erregulazio espezifikorik ez izateak Europako eta Ameriketako herrialdeetan dauden erregulazioekin kontrastatzen du.

interesa duen pertsona talde baten lankidetzaren emaitza gisa (ASKUNZE, 2007). Eta gaur egun ekonomia solidarioak esparru horietan presentzia garrantzitsua mantentzen jarraitzen du.

Azkenean, lotzen dituen ez da forma juridikoa, “gizartean eta hiritar guztien arteko harremanetan nagusi izan behar duten” printzipioak eta balioak baizik, “hain zuzen ere: ekitatea, justizia, anaitasun ekonomikoa, elkartasun soziala eta demokrazia zuzena”, *Ekonomia Solidarioaren Gutunean* jasota dauden bezalaxe. Gutun horren azken berrikusketak, 2011koak, zeharkako ardatz hauek jasotzen ditu:

91. ilustrazioa. REASen zeharkako ardatzak

- *Askatasunerako eta ardura partekatua izateko oinarria autonomia da.*
- *Autogestioa da metodologia egokia, errespetatu egiten duelako, inplikazioa lortu, hezi, aukerak parekatu, eta ahalduntzea bideratu.*
- *Kultura askatzailea da pentsamendu sortzaile, zientifiko eta alternatiboetarako oinarria; halako pentsamenduak beharko ditugu, halaber, elkarrekin bizitzeko, ekoizteko, gozatzeko, kontsumitzeko, eta pertsona guztien zerbitzura egongo den politika eta ekonomia antolatzekeko modu berriak aurkitzeko.*
- *Pertsonen garapena dimentsio eta ahalmen guztietan: fisikoak, psikikoak, espiritualak, estetikoak, artistikoak, sentikorak, harremanetakoak... naturarekiko harmonian garatu beharko dira, hazkunde desorekatu ororen gainetik. Izan ere, gaur egun “fikiotzko” garapen baten izenean hazkunde desorekatua sustatzen ari da hainbat alorretan; ekonomian, finantza-alorrean, alor belikoan, kontsumismoan, osagai transgenikoetan eta oro har, sortzen ari den garapen anomaloan.*
- *Naturarekin bat etortzea.*
- *Giza elkartasunak eta elkartasun ekonomikoak gure tokian tokiko harremanen, harreman nazionalen eta internazionalen oinarri izan behar du.*

Iturria: REAS (2011ko maiatza) *Ekonomia Solidarioaren Printzipioen Gutuna*

Hori guztia ekonomia solidarioakoak diren erakunde guztiek partekatzen dituzten sei printzipiotan zehazten da. Hala, printzipio horiek erakunde horiek guztiak biltzen dituzten elementu bihurtzen dira, ikusiko dugun moduan:

92. ilustrazioa. Ekonomia Solidarioaren Printzipioak

1. EKITATE PRINTZIPIOA
2. LANAREN PRINTZIPIOA
3. INGURUMEN-JASANGARRITASUNAREN PRINTZIPIOA
4. LANKIDETZAREN PRINTZIPIOA
5. “IRABAZI ASMORIK GABEKO” IZATEAREN PRINTZIPIOA
6. INGURUNEAREKIKO KONPROMISOAREN PRINTZIPIOA

Iturria: REAS (2011ko maiatza) *Ekonomia Solidarioaren Printzipioen Gutuna*

Ordezkaritza-sareak

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia solidarioa 1997an sortu zen REAS Euskadi sarearen inguruan biltzen da. 2020ko Auditoria Sozialaren datuen³ arabera, 80 erakunde biltzen ditu, horien heren batek forma kooperatiboa du (26), beste heren batek elkarre-forma (26), eta oso hurbil dute erantzukizun mugatuko sozietatearen forma juridikoa —askotan pertsona bakarrekoa— (23), eta fundazioen presentzia oso urria da (5).

Sektoreei dagokienez, erakundeen %20 osasunaren eta zainketen sektorean kokatzen dira, eta horien atzetik daude hezkuntza eta ikerketa (%15) eta etxebizitza eta ingurunearen kudeaketa (%12,5). Horien artean daude, besteak beste, agroekologiarekin, energia berriztagarriekin, gizarteratze eta laneratzearekin, finantza etikoekin, bidezko merkataritzarekin, eta kontsumo kritiko eta eraldatzailearekin erlazionatutako ekimenak. Euskal Autonomia Erkidegoan 22.521 pertsona mobilizatzen dituzte, horietatik 3.255 langileak dira eta 144 milioi euroko diru-sarrerak lortu dituzte.

REAS Euskadi, era berean, REAS Sareen Sarearen barruan dago, beste 13 lurralde-sareekin⁴ batera, eta horiei beste lau sare sektorial gehitu behar zaizkie: Bidezko Merkataritzaren Estatuko Koordinakundea, Finantza Etikoaren Mahaia, Energia Berriztagarrien Kontsumitzaile eta Erabilzaileen Batasuna (Unión Renovables) eta Gizarte Ekonomia Solidarioko Suspertzaileen Espainiako Elkarte (AERESS). Eta Euskal Autonomia Erkidegoan lankidetzat estua du Gizartearekin —Laneratzeko Enpresen Elkarte— eta OlatuKoopekin. Nazioartean, Gizarte Ekonomia Solidarioa Sustatzeko Kontinente Arteko Sarearen (RIPESS) barruan dago.

Gainera, REASEk dagoeneko 7 merkatu sozial dinamizatzen ditu (horietako bat Euskal Autonomia Erkidegoan), “beste era batera” ekoizteko, finantzatzeko, banatzeko eta kontsumitzeko sare gisa ulertuta, kontsumitzaileekin, beste sare batzuekin eta gizarte-mugimenduekin lankidetzan aritzera irekiak, guztion artean merkatu konbentzionalaren alternatiba bat garatzea bilatuz.

11.2. EKONOMIA SOLIDARIOA GIZARTE-EKONOMIAREN PARTE GISA

Bai akademiak bai ekonomia solidarioak berak onartzen dute “gizarte-ekonomiaren enbor komunitik” sortzen dela ekonomia solidarioa (PEREZ

³ Datuak 2019. urtekoak dira.

⁴ Ia autonomia-erkidegoko bat, Kantabria, Asturias eta Gaztela-Mantxa, eta Ceuta eta Melilla izan ezik.

DE MENDIGUREN ET AL., 2009; ETXEZARRETA ET AL., 2012), eta haren jardunbidea zuzentzen duten printzipioek hala islatzen dute.

Pertsonen zentraltasuna ekonomia solidarioan

Ekonomia solidarioak pertsonen bizi-kalitate eta garapenerantz bideratzen du bere jarduera, eta, horretarako, horiek ekonomiaren erdigunean jartzen ditu, eta “lanaren” kontzeptua berrikusten du, enplegutik harago, hura zabaltzeko eta, hartara, jarduera guztiak jasotzeko, gaur egun ordainduak izan ala ez, bizitza zaintzeko beharrezkoak direla kontuan harturik.

93. ilustrazioa. Lanaren printzipioa ekonomia solidarioan


- *Gure iritziz, lana funtsezko elementua da pertsonen eta komunitatearen bizi-kalitatearako, eta hiritarren, herrien eta Estatuaren arteko harreman ekonomikoetarako. Horregatik, REASek gizarte- eta erakunde-testuinguru zabal batean kokatzen du lana ulertzeko modua; hots, ekonomian eta komunitatean parte hartzeko modu gisa.*
- *Gure iritziz, garrantzitsua da lanaren giza dimentsioa berreskuratzea, lanaren alderdi soziala, politikoa, ekonomikoa eta kulturala, hartara pertsonen gaitasunak garatu ahal izateko, ondasun eta zerbitzuak ekoizita eta, modu horretan, biztanleen egiazko beharrak bete ahal izateko (gureak, gure hurbileko ingurukoak eta, oro har, komunitatearenak). Horregatik, guretat lana enplegu bat edo okupazio soil bat baino askoz ere gehiago da.*
- *Jarduera horiek banaka edo taldean egin ditzakegu, ordainduak egon daitezke ala ez (borondatezko lana), eta langilea kontratatuta egon daiteke, edo ondare eta zerbitzuak ekoizteko erantzukizuna bere gain har dezake (autoenplegua).*
- *Dimentsio sozial horren barruan, ez dugu ahaztu behar pertsonak zaintzeko egiten den eta nagusiki emakumeek egiten duten lanagatik izango ez balitz, gure gizartea ezingo litzatekeela sostengatu. Lan hori, gainera, ez da gizartearen behar adina errekonozitzen, ez eta modu ekitatiboan banatzen ere.*

Iturria: REAS (2011ko maiatza) *Ekonomia Solidarioaren Printzipioen Gutuna*

Printzipio horrekin, lanaren dimentsio politikoak (“baliabideak lortzeko aukera sozialak bete-betean eskuratzeari” eta langile izateak dakartzan eskubideei dagokienez) zein ekonomikoak (ordainsari duinei eta kalitatezko enpleguari dagokienez) erreibindikatzen dituzte pertsona guztientzat, baita “zailtasun metatuak” dituztenentzat ere, zeren lan duina “inklusionarako eta gizarteratzeko faktorea” eta “bizitzaren dimentsio guztiekin erlazionatutako pertsonaren autoestimua zutabea” baita. Eta beren urteko ebaluazio eta auditoria sozialeko prozesuetan espazio bat eskaintzen diote (NAVEDA, 2016; REAS-EUSKADI, 2018) erakunde bakoitzaren ekintzak aztertzeari, bai gai horiei dagokienez, bai gainerako printzipioen inguruan, haien hobekuntza planifikatzeko.

94. ilustrazioa. Zainketa-ekintzak REAS-Euskadiko langileen kolektiboarekin


ZAINZA




Iturria: REAS-Euskadi (2020) 2019ko auditoria soziala

95. ilustrazioa. Soldata-berdintasuna REAS-Euskadin

SOLDATA-BERDINTASUNA



Emakumeek, batez beste, gizonek baino % 3 gutxiago kobratzen dute
 (Hipotesi posibleak: jarduera-sektoreak, antzintasunak, erantzukizun-plusak...)



Iturria: REAS-Euskadi (2020) 2019ko auditoria soziala

Ekonomia solidarioaren izaera demokratikoa

Erakunde horien izaera demokratikoak bat egiten du, alde batetik, ekitatearen printzipioarekin, “desberdintasunak eta aniztasuna elkarri aitortzearekin, eskubide-berdintasuna oinarri hartuta”, eta guztiontzako benetako aukerekin.

96. ilustrazioa. Ekitate printzipioa ekonomia solidarioan

- Guretzat, ekitateak printzipio etikoa edo justizia txertatzen du berdintasunean. Ekitatearen arabera, pertsona guztiek dute duintasun berbera, eta eskubidea dute menderatze-harremanen azpian ez egoteko, beren egoera soziala, generoa, adina, etnia, jatorria, gaitasuna eta abar edozein izanik ere.
- Bidezko gizarte batean, pertsona guztiek aitortzen diote elkarri aukera eta eskubide berberak dituztela, eta pertsonen eta taldeen artean dauden desberdintasunak aintzat hartzen dira. Horregatik, pertsona guztien interesak modu ekitatiboan bete behar ditu.
- Berdintasun-erakundeak duintasun-defizita ekartzen duen tokietan, berdintasuna funtsezko helburu soziala izango da. Desberdintasuna aitortu eta errespetatzearekin lotzen denean, “ekitate” deitzen diogu.

Iturria: REAS (2011ko maiatza) *Ekonomia Solidarioaren Printzipioen Gutuna*

Eraldaketa-konpromisoarekin bat etorritik, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia solidarioa loturak estutzen ari da ekonomia feministarekin “erakunde bizigarriak eraikitze” eta, horretarako, BIZIGARRI prozesua jarri du abian REAS-Euskadin, “genero-ekitatearen aldeko antolamendu-aldaketa” sortzeko⁵. Horrekin proposatu da 2022rako “feminismoa bere definizio identitarioan txertatzea” eta “jardunbide feministak bultzatzen” aurrera egitea, horrela lortuko baita “erakundearen gainean eragiteko gaitasuna duten egitura ekitatezkoak, elkarri lotuak eta sortzaileak eta lantalde erantzunkidea, kohesionatua, horizontala eta pertsonak zaintzeari adi egongo dena edukiko dituen erakundea izatea”. (REAS-EUSKADI, 2019, 12. or.)


Izan ere, alderdi hori Sareko kide izateko funtsezko irizpideetako bat da, besteak beste, emakumeek egindako zainketa-lanak baloratzean, besteren konturako eta mugagabeko kontratazioetan gutxieneko batzuk eskatzean eta lana eta familia kontziliatzeko ordutegi-malgutasuna erraztean⁶.

⁵ Erakundeetan genero-berdintasunaren aldeko erakunde-aldaketako prozesuak sustatzeko lankidetzak-erakundeak eman beharreko laguntzak arautzen dituen azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuak honela definitzen ditu: “erakundeetan egingo diren gogoeta-jardun gisa definitzen dira. Jardun horiek ekarriko dute gaur egun dauden egiteko eta pentsatzeko moduak aldatzea, gertatzen diren genero-desberdintasunak desagerrarazteko erakundearen funtzionamendu-eremu orotan”.

⁶ Hain zuzen ere, hasiera-hasieratik jaso dira genero-ikuspegitik bereizitako datuak, baina 2018ko auditoria sozialean egin da lehen aldiz auditoria horren irakurketa feminista.

97. ilustrazioa. Berdintasunerako ekintzak REAS-Euskadin

HIZKUNTZA EZ-SEXISTA




Iturria: REAS-Euskadi (2020) 2019ko auditoria soziala

Halaber, ekitateak eskatzen du “funtzionamendu parte-hartzailea, bazkide eta langile guztientzako irekita egongo diren asanbladak eginda, eta bertan, hartu beharreko erabaki garrantzitsuei buruz guztiei galdetuta”, eta, horretarako, ekonomia solidarioko erakundeek informazio-gardentasuna egikaritzen dute, “informazio irisgarri eta argia maiz jasotzeko eskubidearen” alde, beharrezkoa baita “errealitatea ezagutzeko,

iritzia eman eta parte hartu ahal izateko, eta, hala, guztiontzat onuragarri izango diren neurriak hartzeko”.

98. ilustrazioa. Informazio publikoa eta gardentasuna (I) REAS-Euskadin

Hurrengo gaiet buruzko informazioa herritarrentzat eskuragarri duten erakundeak:



Iturria: REAS-Euskadi (2020) 2019ko auditoria soziala

99. ilustrazioa. Informazio publikoa eta gardentasuna (II) REAS-Euskadin

GARDENTASUNA



LANGILEEN ARTEAN SOLDATAK JAKITERA EMATEN DITUZTEN ERAKUNDEAK (64tik 40k)


*Galdera honek ez du balio langile bat edo bat ere ez duten 16 erakundeentzat.

Iturria: REAS-Euskadi (2020) 2019ko auditoria soziala

100. ilustrazioa. Parte-hartzea eta gardentasuna REAS-Euskadin

URTEKO KUDEAKETA-PLANEAN ETA AURREKONTUAN

PARTE-HARTZEA



Iturria: REAS-Euskadi (2020) 2019ko auditoria soziala


Funtzionamendu demokratiko hori ez da erakunde bakoitzaren esparrura mugatzen; aitzitik, lankidetzaren kulturaren alde egiten da, “enpresa kooperatiboak eta sare horizontal, parte-hartzaile, demokratiko eta konfiantzazkoen ereduak sustatuz”, balio horiek partekatzen dituzten guztiekin. Ikusi dugunez, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia solidarioak asko garatu du printzipio hori.

101. ilustrazioa. Lankidetzaren printzipioa ekonomia solidarioan

- Lehiaren ordez, lankidetzaren sustatu nahi dugu, Sarearekin lotuta dauden erakunde berruak eta haietatik kanpo. Horretarako, beste erakunde eta organismo publiko zein pribatu batzuekin lankidetzaren hasi nahi dugu, besteak beste.
- Guztion artean, gizarte-eredu jakin bat eraiki nahi dugu, abiapuntu hauetan oinarrituta: tokiko garapen harmonikoa, bidezko harreman komertzialak, berdintasuna, konfiantza, erantzukizun partekatua, gardentasuna, errespetua...
- Ekonomia Solidarioa etika parte-hartzaile eta demokratikoan oinarrituta dago; etika horrek ikuskuntza sustatzea du helburu, eta pertsona eta erakunde arteko lan kooperatiboa bultzatzea; horretarako, kolaborazio-prozesuak proposatzen ditu, erabakiak elkarrekin hartzea, erantzukizun eta eginbeharrak partekatzea eta, hala, ahalik eta horizontaltasun handiena bermatu ahal izatea, bakoitzaren autonomia errespetatuz eta mendekotasunik sortu gabe.
- Gure iritziz, lankidetzaren prozesu horiek alor guztietara zabaltzea behar dute: tokian tokiko alorrera, eskualdeetara edo autonomia erkidegoetara, estatuetara eta nazioartera, eta oro har, Sareetan mamitu behar dute, balio horiek sustatu eta biziko dituzten sareetan, hain zuzen ere.

Iturria: REAS (2011ko maiatza) Ekonomia Solidarioaren Printzipioen Gutuna

102. ilustrazioa. Elkar-lankidetzaren (I) REAS-Euskadin



Iturria: REAS-Euskadi (2020) 2019ko auditoria soziala

Ekonomia solidarioaren enpresa-dimentsioa

Ekonomia solidarioak jarduera ekonomikoa erreibindikaten du (ekoizpena, finantzaketa, banaketa eta kontsumoa), bizitzaren zerbitzura dagoen tresna gisa, eta ez kapitalaren eta irabazien zerbitzura. Dagokion printzipioan azpimarratzen da hori:


103. ilustrazioa. “Irabazi-asmorik gabekoa” izatearen printzipioa ekonomia solidarioan

- Guk erabiltzen dugun eta sustatu nahi dugun ekonomia-ereduak pertsonen garapen integrala, kolektiboa eta banakakoa du helburu. Horretarako, ekonomikoki bideragarri eta iraunkorrak diren proiektuak, erabat errentagarriak, modu eraginkorrean kudeatu behar dira, eta haien irabaziak berrituz inbertitu eta banatu behar dira.
- “Irabazi-asmorik gabekoa” jokabide hori oso lotuta dago gure emaitzen balantzea neurtzeko dugun moduarekin; ez ditugu alderdi ekonomikoak bakarrik kontuan hartzen, baizik eta kontuan hartzen ditugu halaber giza alderdiak, sozialak, ingurumenekoak, kulturakoak eta parte-hartzearekin lotutakoak. Azken emaitza, oro har, irabazi integrala da.
- Horrek esan nahi du gure jardueren balizko irabaziak proiektuen xede soziala hobetu edo zabaltzera bideratzen direla, eta guztiarentzat onuragarri izan daitezkeen bestelako ekimen solidarioak bultzatzera; hala, gizarte-eredu gizatiar, solidario eta ekitatiboagoa eraikitzen laguntzen da.

Iturria: REAS (2011ko maiatza) Ekonomia Solidarioaren Printzipioen Gutuna

Beraz, ekonomia solidarioko erakundeek ez dute etekinik banatzen; aitzitik, etekinak proiektu horietan berrinbertitzen dituzte, “ekonomikoki bideragarriak, jasagarriak eta osoki errentagarriak” izan daitezten. Gainera, ondasun eta zerbitzu “sozialki baliagarriak” ekoitzi nahi dituzte, eredu konbentzionalaz bestelako enpresa autonomoaren⁷ ereduan. “Errentagarritasun integral” horrek emaitza ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak konbinatzen ditu (BALLESTEROS ET AL., 2013) —giza alderdiekin, alderdi kulturekin eta parte hartzeekin batera—, “abian jartzen den edozein ekimen produktibo ebaluatzeko, nahi diren onurak ekar ditzan, beste dimentsio bati edo beste kolektibo ekoizle edo kontsumitzaile batzuei kalterik eragin gabe”.

104. ilustrazioa. Diru-sarrerak eta gastuak REAS-Euskadin



Iturria: REAS-Euskadi (2020) 2019ko auditoria soziala

⁷ Izan ere, auditoria sozialak espazio bat gordetzen du erakunde bakoitzaren diru-sarreraren dibertsifikazioa aztertzeko, bere independentzia eta autonomiaren berme gisa.

105. ilustrazioa. Mozkinen banaketa REAS-Euskadin

MOZKINEN BANAKETA:

> **GUZTIRA: 1.524.000 €**



Iturria: REAS-Euskadi (2020) 2019ko auditoria soziala

Ekonomia solidarioaren komunitatearekiko konpromisoa

Ekonomia solidarioak “lankidetzarako eta ez lehiakortasunerako harremanak” ezarri nahi ditu, baita ingurumenarekin ere.

106. ilustrazioa. Ingurumen jasangarritasunaren printzipioa ekonomia solidarioan


- Gure iritzi, gure ekoizpen- eta ekonomia-jarduera guztia naturarekin lotuta dago, eta horregatik eduki behar dugu aliantza naturarekin; haren eskubideak aitortzea gure abiapuntua da.
- Gure iritzi, naturarekiko harreman ona edukitzea aberastasun-iturri da, eta guztiontzako osasungarria. Horregatik da beharrezkoa ingurumen-iraunkortasuna gure ekintza guzti-guztietan txertatzea, eta etengabe gure ingurumen-eragina (aztarna ekologikoa) ebaluatzea.
- Gure jarduera guztietan gizakiaren aztarna ekologikoa nabarmen murriztu nahi dugu, ekoizti eta kontsumitzeko modu iraunkor eta ekitatiboetara jo, eta nahikotasun eta soiltasunean oinarritutako etika bultzatu.

Iturria: REAS (2011ko maiatza) *Ekonomia Solidarioaren Printzipioen Gutuna*

Eta, horregatik, kontsumo arduratsuaren alde egiten dute, “gizarte-ekitatearen eta ingurumen-jasangarritasunaren irizpide etiko bikoitzarekin

koherentea den jarrera gisa”, eta ekoizpen garbiaren alde, honako sektore hauetan: energia berriztagarriak (Goier), bioeraikuntza (Zurtek), birziklatzea (Berziklatu, Koopera) eta agroekologia (BalmasedActiva, ENHE, Ekoizan, Garbinguru, Goilurra, Ortutik Ahora, Sustriak), betiere elikadura-burujabetzaren defentsan.


107. ilustrazioa. Ingurumen-kudeaketa REAS-Euskadin



Iturria: REAS-Euskadi (2020) 2019ko auditoria soziala

108. ilustrazioa. Kontsumo arduratsua REAS-Euskadin

KONTSUMO ARDURATSUA



Iturria: REAS-Euskadi (2020) 2019ko auditoria soziala

Euskal ekonomia solidarioko esperientzia guztiak sustraitze handia dute beren ingurunearekin, konpromiso handia pertsonekin eta komunitateekin, batez ere komunitate pobretuen kasuan:

109. ilustrazioa. Ingurunearekiko konpromisoaren printzipioa ekonomia solidarioan


- Lurraldearen tokian tokiko garapen iraunkorra eta komunitarioa bultzatuta gauzatzen dugu gure ingurunearekiko konpromisoa.
- Gure erakundeak erabat integratuta daude beren jarduerak garatzen dituzten lurralde eta ingurune sozialetan; horretarako, ezinbestean parte hartu behar dute eremu geografiko berean dauden beste erakunde sozial eta ekonomiko hurbileko batzuekin osatutako sareetan, eta lankidetzan aritu behar dute.
- Guretzat lankidetzan hori bide bat da, eta, bide horri esker, esperientzia positibo eta solidario zehaztatetik berdintasun-eza, menderakuntza eta bazterketa eragiten duten egiturak eraldatzeko prozesuak sortu ahal izango dira.
- Tokian tokiko eremuarekin konprometituta gaude eta, horregatik, dimentsio zabalagoetan artikulatu behar dugu, irtenbide globalagoak aurkitzeko; halaber, interpretatu behar dugu zer-nolako beharra dugun etengabe mikro eta makro mailen artean ibiltzeko, maila lokaletik globalera aldatzeko.

Iturria: REAS (2011ko maiatza) *Ekonomia Solidarioaren Printzipioen Gutuna*

Konpromiso hori lankidetzan eta elkarlanean⁸ garatzen da baterako proiektuetan, gizarte-ehuna sortzen eta indartzen lagunduko duten “baterako ekimenak sortzeko”. Azken batean, eraldatze-estrategiak dituzten sareak, “askotariko arazoei aurre egiten dieten gizarte-mugimenduekin eta jarrera ekonomiko kritikoak sustatzen dituzten kolektiboekin (ekologistak, feministak...) harremanetan dauden sareak”, ingurunean politikoki modu esanguratsuan eragiteko.

110. ilustrazioa. Prokomunerako ekarpenak REAS-Euskadin

PROKOMUNERA EGINDAKO EKARPENAK




Iturria: REAS-Euskadi (2020) *2019ko auditoria soziala*

⁸ RAZETOK ‘C faktore’ deitzen duena.

Testuinguru horretan, ekonomia solidarioa merkatu soziala sortzen ari da, ekoizpen-, merkatuzatze- eta kontsumo-espazio alternatibo gisa, baina baita eraldatzeko eta paradigma aldatzeko proiektu politiko gisa ere, kontsumo arduratsua eta kontratazio publiko arduratsua sustatuko dituen “ekonomia alternatiboaren eredu jasangarri eta arduratsua baterantz”. Horretarako, funtsezko lau elementu konbinatzen ari dira: merkatu-baldintzak eraldatzeko borondatea; inplikaturako komunitate batekin konbinatua, kontsumitzaileena zein enpresena; gardentasunean oinarritutako prozesu demokratiko baten bidez artikulatuak; ikusarazteko, merkatuzatze eta kontsumo arduratsua lortzeko tresnak inplementatzen dituen (CRESPO ET AL., 2014, 103-104). Euskal Autonomia Erkidegoan, REAS-Euskadi eta OlatuKoopen integratutako 76 erakundek osatzen dute merkatu soziala. Balio publikoa batera sortzeko proiektuetarako Eusko Jaurlaritzaren Elkarlan saria jaso du 2016an.

111. ilustrazioa. Elkar-lankidetzaren (II): merkatu soziala REAS-Euskadin



Iturria: REAS-Euskadi (2020) 2019ko auditoria soziala

11.3. ONDORIOAK

— **Ekonomia solidarioak kapitalismoa eraldatzeko proposamen bat gordetzen du**

Proposamen hori ez da sortutako etekin banaketa handitzera mugatzen; aitzitik, erakundeek emaitzak sortzen dituzte, hainbat printzipiotan oinarritutako jarduera ekonomikoak sustatuz: lankidetzak, irabazi-asmorik eza, elkarrekikotasuna, inklusioa, feminismoa, ingurumen-jasangarritasuna, ekitatea edo komunitatearekiko eta lurraldearekiko konpromisoa.

— **Ekonomia solidarioa gizarte-ekonomiaren partetzat hartzen da**

Gizarte Ekonomiari buruzko 5/2011 Legean esplizituki aipatuta agertzen ez bada ere, jatorria gizarte-ekonomian duela onartzen dute, eta hala islatzen dute bere jardunbidea zuzentzen duten printzipioek.

— **Pertsonak ardatz dituzten erakundeak dira, eta garrantzi berezia ematen diote inklusioari**

Kezka nagusia da emakume zein gizonentzat bizitzeko moduko erakundeak, egiturak eta funtzionamendu-moduak eraikitzea, bizitza erdigunean jartzeko eta lana eta zaintzak berriz definitzeko. *Bizigarri* prozesua horren erakusgarri da, eta eragin biderkatzaile eta eraldatzaile potentziala du, ez ekonomia solidariorako bakarrik.

— **Ekonomia solidarioak lankidetzaren eta elkarlanaren printzipioa aplikatzen du, eta funtzionamendu demokratikoa duten sareak eraikitzen ditu**

Gizarte Ekonomiako erakundeek funtzionamendu demokratikoa dute, beren erakundeen artean ez ezik, beste erakunde eta gizarte-mugimendu batzuekin ere ehuntzen dituzten sare guztietara eramaten dena, ekonomia konbentzionalaren alternatiba erreala eta eraldatzailea elkarrekin eraikitzeko.

— **Ondasun eta zerbitzu sozialki baliagarriak ekoizten dituzten eta errentagarritasun integrala bilatzen duten irabazi-asmorik gabeko erakundeak biltzen ditu**

Ekonomia solidarioko erakundeek ez dute etekin banatzen; aitzitik, etekinak berrinbertitu egiten dituzte, emaitza ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak konbinatuko dituzten proiektu ekonomikoki bideragarriak, jasagarriak eta osoki errentagarriak sortzeko, beste dimentsio eta kolektiboei kalterik eragin gabe.

— **Euskal ekonomia solidarioko esperientziek sustraitze handia dute beren ingurunearekin, konpromiso handia pertsonekin eta komunitateekin**

Merkatu sozialaren inguruko ekimena da konpromiso horren adibide bat.

11.4. ERREFERENTZIAK ETA ITURRIAK

- ASKUNZE ELIZAGA, C. (2007). Economía Solidaria. In G. CELORIO & A. LÓPEZ DE MUNIAIN. (coords) *Diccionario de educación para el desarrollo* (107-113). Bilbao: Hegoa. Hemendik berreskuratua: http://publ.hegoa.efaber.net/uploads/pdfs/62/Diccionario_de_Educacion_para_el_Desarrollo.pdf?1488539200
- ASKUNZE ELIZAGA, C. (2011). Empresas de economía solidaria. Hemendik berreskuratua: www.economiasolidaria.org/files/3_empresas_economia_solidaria.pdf
- ASKUNZE ELIZAGA, C. (2013). Más allá del capitalismo: alternativas desde la Economía Solidaria. *Documentación social*, (168) 91-116. Hemendik berreskuratua: <https://www.economiasolidaria.org/biblioteca/mas-alla-del-capitalismo-alternativas-desde-la-economia-solidaria>
- ASKUNZE ELIZAGA, C. (2016). Empresas de Inserción en la economía social. Herramientas para la inclusión sociolaboral, *Revista Jurídica de Economía Social y Cooperativas*, (29) 15-46. Hemendik berreskuratua: <https://www.economiasolidaria.org/biblioteca/empresas-de-insercion-en-la-economia-social-herramientas-para-la-inclusion-sociolaboral>
- ASKUNZE ELIZAGA, C., CRESPO ARNOLD, B., DIEZ LÓPEZ, M.A., HERRERO LÓPEZ, Y., SABÍN, F., SALSÓN, S., SASÍA SANTOS, P. & VÍA, J. (2018, 29 de mayo). En defensa de la Economía Social y Solidaria, *ElDiario.es*. Hemendik berreskuratua: https://www.eldiario.es/tribunaabierta/defensa-Economia-Social-Solidaria_6_776632357.html
- ASKUNZE ELIZAGA, C. (2018). *Transformando Euskal Herria (también) desde la Economía Social y Solidaria*. REAS-Euskadi. Hemendik berreskuratua: <https://www.economiasolidaria.org/reas-euskadi/noticias/transformando-euskal-herria-tambien-desde-la-economia-social-y-solidaria>
- BALLESTEROS, C. & DEL RIO, E. (2013). *La auditoría social y la economía solidaria*. Portal de economía social solidaria. Hemendik berreskuratua: http://www.economiasolidaria.org/files/La_auditoria_social_y_la_economia_solidaria.pdf
- CRESPO ARNOLD, B. & SABÍN GALÁN, F. (2014). Los mercados sociales. La economía solidaria en acción transformadora. *Documentación social. Monografía. Innovación social*, (174) 95-116. Hemendik berreskuratua: <http://www.economiasolidaria.org/files/Los%20mercados%20sociales.pdf>
- ETXEZARRETA ETXARRI, E. & MORANDEIRA ARCA, J. (2012). Consideraciones conceptuales sobre la Economía Social a la luz de la Ley 5/2011, *Revista Vasca de Economía Social / Gizarte Ekonomiaren Euskal Aldizkaria*, (8) 7-36. Hemendik berreskuratua: <https://www.ehu.es/ojs/index.php/gezki/article/view/12711>
- GÓMEZ, V. & GÓMEZ-ÁLVAREZ, R. (2016). La economía del bien común y la economía social y solidaria, ¿son teorías complementarias?, *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, (87) 257-294. <https://doi.org/10.7203/CIRIEC-E.87.8807> (¿?) Hemendik berreskuratua: <https://ojs.uv.es/index.php/ciriecespana/article/view/8807>
- GSEF (2018) *Ekonomia Sozial Solidario eraldatzaile baten aldeko deklarazioa*. Global Social Economy Forum, 2018/10/02, Bilbo. Hemendik berreskuratua: <https://www.economiasolidaria.org/eu/recursos/reas-euskadi-biblioteca-ekonomia-sozial-solidario-eraldatzaile-baten-aldeko-deklarazioa/>
- HERNÁNDEZ, T. (2012). Mercado Social: construir y experimentar proyectos económicos alternativos. *Revista Papeles de relaciones ecosociales y cambio global*, (118) 119-12. Zaragoza. Hemendik berreskuratua: www.fuhem.es/media/cdv/file/biblioteca/revista_papeles/118/mercado_social_construir_proyectos_economicos_alternativos_T._Hernandez.pdf

- NAVEDA, A. (2016). Auditoría social, más allá de la cuenta de resultados. *Pueblos: Revista de Información y Debate*, (71) cuarto trimestre, 36-38. Hemendik berreskuratua: www.revistapueblos.org/?p=21292
- PÉREZ DE MENDIGUREN, J. C., ETXEZARRETA ETXARRI, E. & GURIDI, L. (2009). Economía Social. Empresa Social y Economía Solidaria: diferentes conceptos para un mismo debate. *Papeles de Economía Social Solidaria*, (1) 1-39. Bilbao: REAS Euskadi. Hemendik berreskuratua: <https://www.economiasolidaria.org/biblioteca/papeles-de-economia-solidaria-no-1>
- PÉREZ DE MENDIGUREN, J. C. & ETXEZARRETA ETXARRI, E. (2015). Otros modelos de empresa en la economía solidaria: entre la retórica y la práctica. *Lan Harremanak: Revista de Relaciones Laborales*, (33) 227-252. Hemendik berreskuratua: https://www.ehu.es/ojs/index.php/Lan_Harremanak/article/view/16110
- REAS SAREEN SAREA (2011). *Ekonomia Solidarioaren Printzipioen Gutuna*. REAS Sareen Sarea. Hemendik berreskuratua: https://www.economiasolidaria.org/sites/default/files/pages_attachments/2011%20EKONOMIA_SOLIDARIOAREN_GUTUNA_REAS.pdf
- REAS - EUSKADI (2018). *2018ko auditoria soziala*. Hemendik berreskuratua: https://reaseuskadi.eus/wp-content/uploads/INFORME_auditoriasocial2019_eus.pdf
- REAS - EUSKADI (2019). BIZIGARRI (2018-2022) REAS-Euskadiren genero-ekitatearen aldeko I. plana. Hemendik berreskuratua: <https://www.economiasolidaria.org/eu/recursos/reas-euskadi-biblioteca-bizigarri-2018-2022-reas-euskadiren-genero-ekitatearen-aldeko-lehenengo/>
- REAS - EUSKADI (2020). *2019ko auditoria soziala*. Hemendik berreskuratua: https://reaseuskadi.eus/wp-content/uploads/INFORME_auditoriasocial2019_EUS.pdf
- VILLALBA-EGUILUZ, U. & PÉREZ DE MENDIGUREN, J. C. (2019). La economía social y solidaria como vía para el buen vivir. *Revista iberoamericana de Estudios de Desarrollo / Iberoamerican Journal of Development Studies*, 8(1) 54-84. https://doi.org/10.26754/ojs_ried/ijds.338

**MANTÉNGASE INFORMADO
DE LAS NUEVAS PUBLICACIONES**

**Suscríbase gratis
al boletín informativo
www.dykinson.com**

Y benefíciase de nuestras ofertas semanales